

ERICH FROMM

Askatasunetik Iheska



Jatorrizko izenburua:
Escape from Freedom

Euskaratzailea: Alberto Gabikagogeaskoa
Berrikuslea: Xabier Amuriza
Hitzaurregilea: Victoria Camps

Lehen argitalpena: 1993ko irailean

© Itzulpenarena: Alberto Gabikagogeaskoa
© Klasikoak, S.A. 1993
San Vicente, 8 • Albia, 1, Dpto. 9 • 48001 Bilbo
Tel.: 94 • 424 09 97 / Fax: 94 • 424 0479

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularen idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

ISBN: 84-88303-61-0
Lege-gordailua: BI. 1644-93

Fotokonposaketa: Ipar B. K. M.
Zurbarango Partikularra, 2-4 • 48007 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak onetsia
1993 - XI - 17

HITZAURREA

Gizabanako librearen kateak

Askatasunak ere badu bere alde iluna. Ez da erraza libre izaten. Horixe da Frommen liburuak aztertu eta xehetzen duen ideia, gure mende honetako gizabanakoaren izaeraren oinarriko ezaugarriari esplikazio psikologikoa bilatu nahian. Freuden dizipulu bazen ere, Frommek, haatik, irauli egiten du maisuaren zientzia eta hedatu egiten du bere helmena determinismo biologikotik jareginez soziologiara hurbiltzeko. Gu-txiago interesatzen zaio banakoaren psikea kolektibitatearena baino. Aro edo aldi historiko baten «izaera soziala» deitzen duena interesatzen zaio, mekanismo psikologikoen bitartez esplika daitekeena, baina baita sozial, ekonomiko, ideologiko edo kulturalen bitartez ere. Gizabana-koek, oro har, ez diote behar bezala erantzun askatasunaren onurari, modernitatearen hasieratik berek pixkanaka konkistatu duten horri. Gizarte-zientzia desberdinek eskaintzen dituzten aldagaiekin aztertu beharreko kontraesan bat da. Psikoanaliaren sortzailearen heredentziari, Frommengan, susmoaren beste bi pentsalariena gehitzen zaio, Marx eta Nietzscherena, baita soziologiaren gurasoena ere, Max Weberrena bereziki. Dependentsia multzo horrek gaur egun atipiko samarra den autore bihurtzen dute Fromm. Askatasunari iheska bezalako liburu bat sailkaezina gertatzen da ezagutzaren gero eta zatikatze handiagoan. Baina horrek ez dio garrantzirik ez interesik kentzen, alderantziz baizik, gure garaiotako krisi eta ezbenturei buruz gogoeta apur bat egin nahi duen edozein pentsalarik une honetan, ia beren orokortasunean, izenpetuko lituzkeen hausnarketa batzuei.

Ezer baino lehen, Fromm psikologoa da. Bere ikerketaren hasieran dagoen galderak askatasunaren arazoari ekiten dio, arazo psikologi-

ko den heinean. Ba ote du gero giza izatasunak libre izateko irrikarik? Nahi ote du gizakiak askatasuna ala nahiago du tiranoaren esaneko izan, zeina aukera erosoagoa den, nahiz eta morrontzapekoagoa izan? XX mendearen erdi aldera, **Askatasunetik iheska** argitaratzen denean, jadanik zail da giza izatasuna bezalako entelekietan sinesten. Ez dago, izatez —aitortuko du Frommek—, gizakiaren funtsik, baizik eta gizakia gizartearekiko harreman dialektikoan zuzenean burutzen da. Halere, hitz egin daiteke gizakiak isolamendu eta bakardade moraletik ihes egiteko duen premia finko eta aldaezinaz. Gizabanakoak bakarrik sentitzeari dio beldurrik handiena. Ideia hori izango da Frommen teoria guztiaren ardatza: askatasunari zaion beldurra askatasunaren konkistak berekin dakarren segurtasunik eza eta bakardadeari zaion beldurra da. Zeren, izatasunean bertan ez dagoen arren askatasuna desiratzea, «gizakiak berea du libre izatea». Gizaki izatea ez da zerbait egonkoia, baizik ea nor bere-^{nia} konkistatzen dueneko prozesua, gizabanakotze-prozesua, saihestu eta desbideratu daitekeena gizabanakoak beste botere batzuei men egin eta bere niari uko egitea hautatzen badu. Baina ez luke horrela gertatu behar: niak naturarekiko eta besteenganako —maitasunezko, lanezko— harreman espontaneo eta sortzailean hazi beharko luke. Bestela esateko, eta jadanik ongi ulertu zuenez, batez ere Kantek, askatasuna ez da gertakari bat, ezta giza izatasunak bere baitan duen atributu bat ere: askatasuna gizabanakoaren betebeharrak bat da.

Askatasun positibo eta negatiboaren bi kontzeptuak, gero Isaiah Berlinek bere **Two Concepts of Liberty** entseiu sonatuan bikainki garatuak, jadanik funtsezkoak dira Frommen liburuan. Gauza bat da «zerbaitetatik askatzea» (askatasun negatiboa) eta beste bat «zerbaitetarako askatzea» (askatasun positiboa). Lehen askatasun-erak lokarririk, zapalkuntzarik edo norberak dituenaz bestelako eskusartzerik eza besterik ez du esan nahi. Bigarrena, berriz, gizabanakoak askatasun horretaz egiten duen erabilera pertsonal eta singlean datza. Itxuraz, aski da «zerbaitetatiko askatasuna» izatea «zerbaitetarako askatasuna» haz dadin. Baina ez da horrela. Askatasun negatiboa kanpotiko instantzien nagusigoaren kontrako erreibindikazio-borroka luzearen emaitza da: Eliza, Estatua, Legea, Alderdia, Kapitala, Sindikatuaren kontrakoa. Askatasun positiboa, aldiz, gizabanakoak bakarrean egiten duen konkista bat da: bere askatasuna nola erabili bakarrik erabaki behar du, zeren eta ideologia, ohitura, moda eta beste segurtasun gutxi-asko esplizituekiko menpeko-

tasuna gizarte-harremanetan jadanik «zerbaitetarako askatasunari» uko egitea baita. Askatasun hori egiazki nor bere gain hartzeak esan nahi du existentziari niaren bakardadetik aurre egitea, «zerbaitetatiko askatasunak» horretarako baimena ematen duen heinean.

Libre izatea, bada, segurtasunik gabe eta bakarrik sentitzea da. Horretan datza Constantek «modernoen askatasuna» deitu zuena: kontzientzi askatasuna, gizabanakoaren eskubideen defentsarekin jaiotzen den askatasuna, hau da, gizabanakoa subiranoa dela eta izateko edo bizitzeko modu jakin bat ezarriz esklabu bihurtu nahi duen kanpotiko beste edozein ordenuren aurrean bere ahalmen eta subiranotza salbatu behar duen konbikzioarekin. Askatasun horren erroak Errenazimenduraino eta giza duintasunaren ideiaraino doaz, baina Erreforma protestantean eta kapitalismo hasberrian hartzen du indarra. Bi faktore daude, Erreformaren pentsamenduan, horri buruz eztabaidaezinak. Lehenik, giza izatasuna txarra, gauzeza eta kaskarra delako kontzepzioa. Bigarren, betiereko salbamenari buruzko ziurtasunik eza, dohai jainkotiarra baita, giza merizimenduez at dagoena. Predestinazioaren doktrina protestantea gizabanakoaren kaskartasuna eta ziurtasunik eza horren fede emate bat da. Jaiotzen denetik, pertsona betiereko salbamenerako zein kondenarako aurredestinaturik dago eta ezin du ezer egin hori eragozteko. Ez da harritzekoa bi ideia horiek gizakiari larridura sortzea, ekintzarekin edota lan-bizitza jarraitu eta iraunkor batez bakarrik arin daitekeena. Bestalde, ekintza horrek jainkozko graziaren zantzu bezala agertu ahal izatea beste esanahirik ez du: arrakasta edo aberastasuna ez dira berenez bilatzen, baizik eta Predestinazioaren seinale dira. Ikus daitekeenez, protestantis-moa eta kapitalismoa batzen duen Max Weberren tesia erabat izenpetzen du Frommek. Biek —kapitalismoak eta etika protestanteak— gizabanakoari autonomia handiagoa ematea lortzen dute, gizarte- edo eliz lokarriak kentzen dizkiote, baina pertsonak laster sentitu eta ulertzen du autonomia hori bakardade eta segurtasunik ezaren kausatzat. Izan ere, kapitalak —eta berekin dakarrenak: merkatuak, konkurrentziak— segurtasik eza eta isolamendua sortzen duten gizabanakoarengan, beraz, larridura, Erdi Aroko gorporazio-sistematik askatzen duen instantzia bat den aldi berean. Nola erlijioak hala merkatu ekonomiak berdindu egiten dituzte gizakiak, berdinduz bihurtzen dituzte Jainkoaren aurrean edo merkatuan, baina egitez desberdintasun ikaragarriak eragiten edo —baimentzen— dituzte. Sistema kapitalistak ez du justiziarekiko ardurarik.

Protestantismoak jainkozko graziaren banaketa desberdin eta ulertezina onartzen du. Frommek desberdintasunaren onarpen tazitu horretan gero nazien ideologian berragertuko den zerbait ikusten du, izan ere estuki loturik baitago askatasunak berekin duen beldurrari.

«Zerbaitetatiko askatasunaren» eta «zerbaitetarako askatasunaren» arteko beharrezko loturarik eza kapitalismoak oso berea duen fenomeno da, zeinak gizabanakoak askatzen dituen bitartean, beraien artean dauden gizarte-loturak eteten dituen. Protestantea Jainkoaren aurrean bakarrik sentitzen bazen, gizaki modernoak beste gizakien aurrean sentitzen da bakarrik. Sistema ekonomiko kapitalistak helburu ekonomikoen menpean jartzen du gizabanakoa, horrenbestez bere kaskartasun indibiduala areagotuz. Horregatik, gizaki modernoak egoista da, ez baitu onartzen giza existentzia orok bere baitan duen gizarte-dimentsioa. Frommek kapitalismoaz eta bere morrontzez egiten duen analisisa leiala da Marxen tesiekiko: kapitalak elkarrenganako axolagabetasuna sortzen du lehiakide bihurtzen diren gizakien artean, elkarren kontra jartzen ez dituenean. Giza harremanak gauzazkotu egiten dira eta gauzen arteko erlazio bihurtzen dira. Niak, zentzuaz gabeturik, besteek norberari buruz pentsatzen dutenean bakarrik aurki dezake bere burua eta hori gizartean lortutako estatusaren baitan ia bakarrik egoten da.

Erreformatik, alde batetik, kapitalismoak, bestetik, eta bere baitan duen askatasun-nahiaz asko argitzen ez den giza psikologia batek erazten dute, Frommen arabera, XX mendeko gizabanakoak askatasunari ihes egiteko erabiltzen dituen bi moduen: autoritarismoaren eta konformismoaren oinarrian dauden datu-multzoa. Bata eta bestea «askatasunari zaion beldurraren» bi zantzu garbi dira, baita beldur ori gainditzeko ahalegin etsitu eta erratuak ere. Erratuak, zeren menpekotasunak eta konformismoak saihestu egiten baitira «zerbaiterako askatasunaren» eskarrietatik eta «zerbaitetatiko askatasuna» gaizki erabiltzen baitute edo, besterik gabe, uko egiten diote hari autoritate baten eskuetan bere burua jartzeko.

Nazi fenomenoak zela-eta obsesionaturik —eta arrazoiz, Bigarren Mundu-Gerratearen erdian aurkitzen baitzen—, Hitlerren pertsona haragituriko autoritarismoa aztertzen du. Edozein pertsonaia autoritario, bere iritziz, sadomasokista da. Zeren bai bulkada masokistak eta bai sadikoak larritu eta mehatxatzen duten ezintasun eta bakardadetik erratuki

ustez ihes egiteko gizabanakoak erabiltzen dituen bi modu baitira. Masokismoak norbere buruari ematen dio tratu txarra. Sadismoak, besteei ematen die tratu txarra, ez sadikoak inor sufritzen ikusita gozaten delako, baizik eta domeinuaren ariketa bere burubaieztapen-era delako. Sadismoa botere-nahimenaren adierazpen garbia baina erresumindua da: inor ukatuz eta suntsituz goratzen den nahimena, Nietzschek primeran azaldu zuenez. Sadismoa eta masokismoa giza oinarri beretik abiatzen dira: alde batetik, dena aurredeterminaturik dagoen eta nia baino handiagoa den zerbaiten izenean obra behar den sinestetik, eta bestetik, ezintasun indibidualaren sentimendu ikaragarri batetik. Erdi-klase apalak oso berea duen inorentzat ezer ez izatearen eta inor ez izatearen sentimendu hori. Hitlerrek berak **Mein Kampf**-en «inor ez izatea» edo «ezezaguna izatea» egozten dio bere buruari. Izan ere halaxe zen: Reich-az kanpo jaiotako bat, guztiek alboratu eta baztertua, ez hainbeste gizarte-ikuspuntutik, baina bai nazionaletik. Giza oinarri hori, eta euskarri duen ideologia dira, Frommen iritziz, nazismoa ahalbidetu zutenak. Izan ere, nazionalsozialismoak gizabanakoaren ezabapena predikatzen baitzuen nazioaren ahalmen nagusian, gizabanakoa guztiaren menpe jartzea.

Autoritarismoak bakarrik ez ditu deusezten, hitzaren zentzu osoenean, zapaltzaile eta zapalduak; demokrazia bera ere sail aproposa da gizabanakoaren kaskartasuna eta ezintasuna garatzeko. Nahiz eta demokraziarekin eskubide indibidualak garatzen diren, demokrazian ez da benetako indibidualismoa lortu, nia sendotzen duen eta guztiarekiko orijinal eta diferente egiten duen indibidualismo hori. Kontua ez da horren errua sistema demokratikoari botatzea, baizik eta demokrazien ezaugarri den hezkuntzaren baitan dauden joeren sail oso bati. Hezkuntza horrek bakarrik orokorrari sakrifikatzen dio, banakoaren sentimendu eta emozioak gaitzetsiz. Horrela, «tragikoaren zentzua» galdu ez ezik, ez dago pentsamendu orijinala loratzeko modurik. Hezkuntza horrek, bestalde, ez du inolako eragozpenik gertakarien metaketa eta informazio desantolatua onartzeko, egituratu eta ordenatuko dituen inolako teoriarik gabe. Askatasunaren izenean, egia oro erlatiboa dela onartzen da eta ez dira bereizten baliogabea eta baliouduna. Eszeptizismoa eta zinismoarentzako lur ongarrirua. Sistema horen barruan, esango du Frommek, norberak uste du badakiela zer nahi duen, baina, izatez, ustez desiratu beharrekoa bakarrik desiratzen du. Demokraziak, horrela, konformis-

morako, nia galtzeko, gizabanakoa automatizatzeko oinarria eskaintzen du. Askatasunaz zeharo bestelakoa. Norbere nahimenaren arabera jokatzen du, gizabanakoa botere eta autoritate anonimoen menpean jartzen da. Errepresentatzen duen nia ez du berea. Hitz batean, gizabanako modernoak, babesgabe eta ezindurik, nahiago du bere burua galdu isolamendua jasan baino.

Eztabaida diezazkiokegu Frommi bere esplikazioaren urrats batzuk, baina ezin dugu bere diagnostikoa ezeztatu, izan ere baliozkoa baita oraindik ere, mende-erdi geroago, XXI mendearen atarian. Askatasunak beldurra ematen digu, edota askatasunak dituen izaki bati ez dagokion konformismo batera gidatzen du, edota portaera aldrebes, desbideratu, irrazionala gidatzen du. Bada hemen izugarritzko kontraesan edo paradoxa: modernitatearen helburua «indibidualismoa burutzea» izan da, gizabanakoak, halere, burutu ezin izan duen edo burutzen jakin ez duen helburua. Askatasunen aldeko borroka guztiak —askatasun negatiboen aldekoak— ez dute ondorioztat pertsona libreagorik ekarri, baizik eta kateatutakoak eta morroiagoak beste gauza batzuekiko edo beste era batera. Frommek —beste batzuek, marxistek esaterako, ez bezala, —ez dio errealitate horren giza izatasun-edo biologia— aldaezin bati, ezta subjektuen izaera eta bizikerak ezinbestez determinatzen dituzten gizarte-egiturei ere. Gizartea eta gizabanakoa bata bestera moldatzen dira: gizarte-egiturak aldatzea nahi badugu —edo ekonomi edo kultur egiturak—, banakoari ere eralda dadila eskatu behar diogu. Bestela, gizadiaren krisi politiko eta kulturalak ez du amaiera ikusiko.

Baina nola burutu behar da banakotasun hori, zeinak libre izateko baldintzak izan, zalantzarik gabe bere eskubideei uko eta beste botere batzuei men egiten dien? Frommen erantzuna da askatasun positiboa «nortasun guztizko integratuaren jarduera espontaneoan» datzala. Existentzia aktiboa da gizabanakoa larritzen duten segurtasunik eza eta isolamendua gainditzeko bitarteko zuzena. Eta bi jarduera-era bereziki gizatiarrak daude: maitasuna eta lana. Alabaina, jarduera hori automatismo soil bihur daiteke espontaneotasun-apurrik gabe. Demokraziaren konformismo edo automatismo propioa da, zeinaren arriskuatariko bat —jadanik ohartarazi zuen Tocquevillek amerikar demokrazia jaioberraren bere analisisian— «gehiengoaren tirania» den. Demokraziak ustez izan beharko lukeen autogobernuak erraz amore ematen du gehienbat pentsatzen edo egiten den inertiaren aurrean.

Baldin eta konformismo hori gizabanakoaren jardueraren iparra izan beharko lukeen idealaren perbertsio patologikoa bada, oraindik areago da faszismoa, bizitza baieztatzen ez duen baizik eta ukatu eta suntsitzen duen fikziozko ideal hori. Halere, harrera erraza du ideal horrek, Frommek seinalatzen duenez, emozioak erreprimitu eta ezkututzen irakasten duen mundu batean, izan ere tragedia ez baita agerian jartzen. Erraza da, noski, bere emozioak jaregin behar dituen gizabanakoak, jarduera batean proiektatzea, nortasuna erabat zurrupatzeko ahalmena duten ideia batzuetan. Horretara bi gauza konpontzen ditu: kausa batekiko atxikimendu emoziozkoa, eta bere existentziaren segurtasunik eza. Kausa totalitarioek oso berena dute gizabanakoari zirrikiturik ere ez uztea bere askatasuna adierazi ahal izateko. Zeren askatasun indibiduala ez da ulertzen, kasu horretan, ideia jakin bat burutzeko premiaren errekonozimendua bezala ez bada. Konformismo demokratikoak babestu egiten du, gutxienez, gizabanakoaren askatasun negatiboa, nahiz eta gero horrek ez duen askatasun hori garatzen bera izan eta moda, ohitura edo merkatuaren esklabu izan nahi ez duenari legokiokeenez. Askozaz okerragoa da proiektu totalitarioen berezko perbertsioa, zeinek kentzen dituen gizabanakoari edozein askatasun-era, negatibo zein positibo.

Egia da benetako existentziaren bilaketa horrek, **Askatasunetik iheska** obraren azken mezua bide denak halako kutsu existentzialista eta zaharkitu batez tindatzen duela testua —Sartre edo Heideggerren pentsamenduaren aspektu bera anakroniko bihurturik edo zaharkiturik dagoen bezalaxe—. Gaur ezkorragoak gara eta ez dugu sinesten gizabanakoa egiazki erabat libra daitekeenik, era batera zein bestera, sozialki, ekonomikoki edo kulturalki lotzen duenetik. Halere, ez da radikalismo hori, Frommen obratik atera behar den mezua. Gogoan hartu beharrekoak oinarritzko bi ideia dira indibidualismo benetan askatzailea lortzeko lehen pausotzat: ez dago gizabanakoaren nia indartzerik erabat menperatzen duen zuaren baitan jarritz, eta ez da errebortxatzen halaber kontutan izan gabe ez dagoela nirik zurik gabe. Indibidualtasun betea gizartean eta berorren bitartez burutzen da, eta ez ekonomia kapitalistan erraz ahazten den zerbait begietatik apartatuz: ni errearen funtsa ni soziala dela. Frommena hitzez hitz emateko: baztertu beharreko egoismoa da «ni errearen frustrazioak sortutako gutizia, zeinaren objektua ni soziala den».

Victoria CAMPS

Bibliografia

FROMM, E.: *Gesamtausgabe* (A) Rainer Funk-ek argitaratua, Stuttgart 1980-81 (Deutsche Verlags-Anstalt); Munich 1989 (Deutscher Taschenbuch Verlag):

— , 1932a: «Über Methode und Aufgabe einer Analytischen Sozialpsychologie. Bemerkungen über Psychoanalyse und historischen Materialismus», GA I, 37-57 orr.

— , 1936a: *Sozialpsychologischer Teil*, GA I, 139-187 orr.

— , 1941a: *Die Furcht vor der Freiheit (Escape from Freedom)*, GA I, 215-392 orr. (gaztelaniazko itzul.: *El miedo a la libertad*, Barcelona, Paidós, 1987).

— , 1947a: *Psychoanalyse und Ethik. Bausteine zu einer humanistischen Charakterologie (Man for Himself)*, GA II, 1-157 orr.

— , 1951a: *Märchen, Mythen, Träume. Eine Einführung in das Verständnis einer vergessenen Sprache (The Forgotten Language)*, GA IX, 169-309 orr.

— , 1955a: *Wege aus einer kranken Gesellschaft (The Sane Society)*, GA IV, 1-254 orr.

— , 1955b: «Die Auswirkungen eines triebtheoretischen 'Radikalismus' auf den Menschen. Eine Antwort auf Herbert Marcuse» («The Human Implications of Instinctivistic 'Radicalism'. A Reply to Herbert Marcuse»), GA VIII, 113-120 orr.

— , 1956a: *Die Kunst des Liebens (The Art of Loving)*, GA IX, 437-518 orr (gaztelaniazko itzul.: *El arte de amar*, Barcelona, Paidós, 81987)

— , 1956b: «Eine Erwiderung auf Herbert Marcuse» («A Counter-Reply to Herbert Marcuse»), GA, VIII, 121 eta hh. orr.

— , 1960a: *Psychoanalyse und Zen-Buddhismus (Psychoanalysis and Zen Buddhism)*, GA VI, 301-358 orr.

— , 1964a: *Die Seele des Menschen. Ihre Fähigkeit zum Guten und zum Bösen (The Heart of Man. Its Genius for Good and Evil)*, GA II, 159-268 orr (gaztelaniazko itzul.: *El cora-*

zón del hombre, Madrid, FCE, 71980).

—, 1966a: *Ihr werdet sein wie Gott. Eine radikale Interpretation des Alten Testaments un seiner Tradition (You Shall Be As Gods. A Radical Interpretation for the Old Testament and Its Tradition)*, GA VI, 83-226 orr. (gaztelaniazko itzul.: *Y seréis como dioses*, Barcelona, Paidós, 31987).

—, 1968h: «Marx' Beitrag zum Wissen vom Menschen» («Marx's Contribution to the Knowledge of Man»), GA V, 421-432 orr.

—, 1970a: *Analytische Sozialpsychologie und Gesellschaftstheorie (The Crisis of Psychoanalysis, Essays on Freud, Marx and Social Psychology)*, Frankfurt (Suhrkamp) 1970 (gaztelaniazko itzul.: *La crisis del psicoanálisis*, Barcelona, Paidós, 1984).

—, 1970b (Michael Maccobyrekiko lankidetzan): *Psychoanalytische Charakterologie in Theorie und Praxis. Der Gesellschafts-Charakter eines mexikanischen Dorfes (Social Character in a Mexican Village. A Sociopschoanalytic Study)*, GA III, 231-540 orr.

—, 1970c: «Die Krise der Psychoanalyse» (The Crisis of Psychoanalysis), GA VIII, 47-70 orr.

—, 1973a: *Anatomie der menschlichen Destruktivität (The Anatomy of Human Destructiveness)*, GA VII (gaztelaniazko itzul.: *Anatomía de la destructividad humana*, Madrid, Siglo XXI, 51987).

—, 1979a: *Sigmund Freuds Psychoanalyse - Größe und Grenzen (Greatness and Limitations of Freud's Thought)*, GA VIII, 259-362 orr. (gaztelaniazko itzul.: *Grandeza y limitaciones del pensamiento de Freud*, Madrid, Siglo XXI, 1980).

—, 1980a: *Arbeiter und Angestellte am Vorabend des Dritten Reiches. Eine sozialpsychologische Untersuchung*, Wolfgang Bonßek bildu eta argitaratua, GA III, 1-230 orr.

—, 1989a: *Vom Haben zum Sein. Wege und Irwege der Selbsterfahrung*. Idatzi postumoak, Rainer Funk-ek argitaratuak, 1 bolumena, Weinheim eta Basilea (Beltz Verlag) 1989 (gaztelaniazko itzul.: *Del tener al ser*, Barcelona, Paidós, 1991).

I ASKATASUNA ARAZO PSIKOLOGIKOA OTE?

Europar eta amerikar historia modernoa, gizakumeak loturik dauzkaten katea ekonomiko, politiko eta izpiritualetatik askatasuna jadesteko ahaleginaren inguruan dago ardaztuta. Askatasunaren aldeko burrukak, zapalduak, libertate berrien bila zebiltzanek, burutu zituzten defendatu beharreko pribilegioen jabe zirenen aurka. Klase batek bere burua inoren menpetik askatzeko burrukatzean, giza askatasunaren alde bere hartan jokatu uste zuen eta, beraz, ideal bat inboka zezakeen eta zapaldu guztiengan erroturik dagoen askatasun-egarria adieraz. Halaz ere, askatasunaren aldeko burrukaldi luze eta birtualki taigabekoetan, etapa jakin batean zapalkuntzaren kontra burrukaturiko klaseak, garaitza erdietsi ondoren eta pribilegio eskuraberriak defendatu beharra zeukatenean, askatasunaren etsaiekin lerrotatzen ziren.

Hainbat hondamen eta guzti ere, askatasunak bere garaipenak irabazi izan ditu. Asko hil ziren eurotan, askatasunik barik bizitzea baino, zapalkuntzaren aurkako burrukan hiltzea hobe zela sinetsirik. Heriotza hori beraien indibidualtasunaren baiezpen gorenaren zen. Bazirudien historia frogatzen ari zela gizakiak ahal zuela bere burua gobernatu, bere kabuz erabakiak hartu, eta egoki zeritzon moduan pentsatu eta sentitu. Bazirudien gizakiaren izangaitasunen adierazpen osobetea zela garapen soziala abiadura handiz iristen ari zen helmuga. Liberalismo ekonomikoaren, demokrazia politikoaren, erlijio-autonomiaren eta bizitza pertsonaleko indibidualismoaren printzipioek adierazpidea eman zioten askatasun-egarriari eta, aldi berean bazirudien gizateria bere errealizazio osobetera hurbilarazten zutela. Kateak bata bestearen ondoren hautsi ziren. Gizakumeak gaitutua zuen naturaren menerapena eta haren jabe egin zen; gaitutua zuen Elizaren menerapena eta Estatu absolutistaren menerapena. «Kanpoko menerapenaren abolizioak», baldintza beha-

rrezkoa ez ezik, nahikoa ere bazirudien, helburu kutuna, hots, gizabana-koaren askatasuna, jadesteko.

Lehenengo mundu-gerra azken gerra zela uste izan zuen askok, eta haren amaiera, askatasunaren behinbetiko garaitza. Baziren demokraziek indarberiturik ematen zuten eta demokrazia berriak sortu ziren monarkia zaharren ordeiz. Baina urte gutxi baino ez ziren iragan, giza-kumeak mendeetako burrukan eskuratutzat zeukan guztia ukatzen zuten sistema berriak sortu zirenerako. Zeren gizakumearen bizitza pertsonal eta sozialaren jaun eta jabe efektiboki eta osoro egin ziren sistema horien muina, gizabanako guztien, mordotxo bat kenduta, menpekotasuna baitzen agintari bati, zeinaren gain inolako kontrolbiderik ez zuten.

Hasieran, askoren kontsolabidea zen pentsatzea ezen aginkeriazko sistemaren garaipena banaka batzuen erotasunak ekarria zela eta erotasun horrek bere garaian gainbeherapenera eramango zituela. Beste batzuk konformatzen ziren pentsatuz ezen alemaniar herriari, edo italiarrari, behar bezain luzaroko demokrazi praktikak falta zitzaizela eta, beraz, kezkarik gabe iguriki zitekeela herri horiek Mendebaldeko demokrazien heldutasuna erdietsiko zuten unea. Beste txakur-amets arrunt bat, denetarik arrikutsuena beharbada, zera pentsatzea zen, Hitler gizonen maltzurkeria eta amarru hutsez lortu zutela Estatuaren aparatu zabalaren jabetasuna; horiek eta berauon sateliteak indarkeria hutsez gobernatzen zutela; biztanleria guztia traizioaren eta izuaren nahi gabeko biktima besterik ez zela.

Ordutik iragan diren urteetan, begibistako bihurtu da argudioon gezurra. Aitortu beharra izan dugu milioika pertsona, Alemanian, beren gurasoek askatasunaren alde burrukatzeko egon ziren bezain antsiatsu zeudela berau entregatzeko; askatasuna deseatu beharrean, hari itzuri egiteko bide bila zebiltzala; beste zenbait milioi jendek aiherga zirauela eta ez zuela uste haren alde burrukatu edo hiltzeak merezi zuenik. Aitortzen dugu, baita ere, demokraziaren krisia ez dela Italia edo Alemaniako problema berariazko bat, Estatu moderno orotan planteatzen dena baizik. Axolarik gutxi du zernolako sinboloak aukeratzen dituzten giza askatasunaren etsaiek; askatasuna ez dago mehatxu txikiagoaren pean antifaxismoaren izenean erasota, faxismorik lotsagabeenarenean eginda baino.¹ John Dewey-k egia hau hain indartsu formulatu izan du, ezen haren hitz berberez adierazi nahi dut neuk ere: «Gure demokraziarentzako mehatxu larria —dio berak— ez da atzerrian Estatu totalitarioak

izatea. Mehatxua da geure jarrera pertsonaletan eta gure geure instituzioetan izatea, herri horietan kanpoko aginteari garaipena eman dioten eta diziplina, uniformetasuna eta Liderrarenganako menpekotasuna egiaturatu dituzten baldintzak. Hemen ere, beraz, bada gudu-zelaia: gure geure baitan eta geure instituzioetan»².

Faxismoaren kontra burrukatu nahi badugu, ulertu egin behar da berau. Pentsamendu guraritsuek ez digute lagunduko. Eta formula baikorrek errezitatzen ibiltzea, indiar euri-dantza baten errituala bezain desegoki eta alferreko gertatutako zaigu.

Faxismoa sortarazi duten baldintza ekonomiko eta sozialez gain, giza arazo bat dago, ulertzea beharrezko duguna. Liburu honek aztertu nahi duena da zein diren gizakume modernoaren karaktereko faktore dinamikoak, faxista herrietan jendea askatasuna alde batera uztera bultzatu dutenak eta gure geure herriko milioika pertsonarengan ere hain hedatuki gailendu direnak.

Askatasunaren giza alderdia, menpekotasun irritsa eta boteregarria begiratzen ditugunean sortzen diren arazo nagusiak honako hauexek dira: Zer da askatasuna giza esperientzia denez? Askatasun-desira giza izaerari datzekiona al da? Esperientzia bera al da, nolako kulturaren bizi den pertsona kontutan izan gabe ere, ala gizarte konkretu batean erdietsitako indibidualtasun graduaren arabera aldatzen dena? Askatasuna kanpo presioaren ausentzia hutsa al da, ala zerbaiten «presentzia» ere ba al da? Eta horrela baldin bada, zerena? Zeintzuk dira gizartean askatasunaren alde burrukatzera garamatzaten faktore ekonomiko eta sozialak? Bihur al daiteke askatasuna zama astunegi gizakumearentzat, hari itzurtzen saiatzeraino? Zergatik gertatzen da, orduan, askatasuna askorentzat helmuga kutun izatea eta beste batzuentzat mehatxu?

Ez ote dago agian sortzetiko askatasun-desirarekin batera, instintuzko menekotasun-guraria ere? Eta horrelakorik ez bada, nola esplikatu dezakegu gaurregun hain askorengan liderrarekiko menekotasunak duen erakarmena? Menekotasuna beti ote da ageriko agintariren batekiko, ala nork bere-baitaratu dituen aginteei buruz ere ba ote da, hala nola betebeharrari edo kontzientziari buruz, edo barne-bulkadetikiko, edo eritzi publiko bezalako aginte anonimoezikiko? Gozotasun ezkulturen bat ote dago, bada, menekotasunean? Eta baldin badago, zertan ote datza?

Zerk sortarazten du gizakumeengan botere-egarri asegaitz hori? Euren bizi-bulkadaren indarra ote da, ala bizia berez eta maitekiro esperimentatzeko dukeen funtsezko ahulezia eta ezgaitasuna? Zein dira gutizia honen indarra eragiten duten baldintza psikologikoak? Zein, berriz, baldintza psikologiko horien oinarri diren gizarte-baldintzak?

Askatasunaren eta autoritarismoaren giza alderdiaren azterketak problema orokor bat kontutan hartzera behartzen gaitu, indar psikologikoez gizarte-prozesuko indar eraginkor legez betetzen duten funtzioari dagokiona, alegia; eta honek, azkenean, faktore psikologiko, ekonomiko eta ideologikoez prozesu horretan duten elkarreraginaren arazora garamatza.

Faxismoak herri handiengan duen erakarmena ulertzeko saialdi orok, faktore psikologikoen garrantzia aintzatestera behartzen gaitu. Izan ere hemen, funtsean bere autointeresaren indar arrazionala bideratzen den sistema politiko batez barik, ez zeudela edo, aspaldidanik ezabatuak bederen uste genituen gizakiaren deabrutiar indarrak iratzartu eta mugiarazten dituenaz ari gara. Gizakiaren ohizko irudia azken mendetan, autointeresak eta beronen arabera jokatzeko gaitasunak erabakitako ekintzak burutzen zituen izaki razional batena izan zen. Hobbes bezalako idazleek eurek ere, botere-egarrria eta etsaitasuna gizonaren indar eragiletzat zeuzkatenez, autointeresaren emaitza logiko bezala esplikatzeko zuten indarron existentzia; gizakumeak berdinak direlako eta, beraz, zorion-gurari berdina dutelako, eta, denak neurri berdinean asetzeko lain ondasun ez dagoenez gero, ezinbestezko dutelako elkarren kontra burrukatzea eta, gaur daukatenaren geroko gozamina segurtatzeko, boterea bilatzea. Baina Hobbesen irudia modatik pasa zen. Zenbat eta handiagoa zen erdiko klaseak lortutako arrakasta lehengo aintzindari politiko eta erlijiosoen boterearen hauste-lanean, zenbat eta handiago egiten zen gizakumearen naturarekiko menderapena, eta zenbat eta milioi gehiago gizakume ekonomikoki idependizatzen ziren, hainbat eta aiherrago bihurtzen ziren arrazoimenaren menpeko mundu batean eta gizonarengan izaki esentzialki razional gisa sinestera. Giza izaeraren indar ilun eta deabrutiarren Erdi Arora eta aintzinagoko garaietara atzeratzen ziren, eta ezjakintasunagatik eta errege eta sazerdote faltsuen amarruengatik esplikatzeko zituzten.

Aldi horiei, aintzinatik mehatxu izateari utzia dion sumendi bati begira dakioken modura begiratzen zitzairen. Segurtasun eta baikorta-

sun osoz sentitzen zen demokrazia modernoaren burutzapenek eskobatuak zituztela indar gaizto guztiak; munduak distiratsu eta seguru zirudien, hiri moderno bateko kale ongi argiztatuak bezalaxe. Gerrak garai zaharretako azken hondakintzat jotzen ziren, eta ematen zuen bat besterik ez zela behar gerrak bukatzeko; ekonomi krisiak ezbehar hustzat hartzen ziren, ezbeharrok erregulariki samar gertatzen segitu arren.

Faxismoa agintera iritsi zenean jenderik gehiena oharkabe zegoen, bai teoriko bai praktikoki. Ezin zuen sinetsi gizakumeak halako gaiztakeri jaidura, hain botere-egarri handia, ahulen eskubideekiko halako mespretxua edo haren tamainuko menekotasun-irrika erakutsi zezakeenik. Gutxi batzuk bakarrik ziren erupzioaren aurretik izan ohi den sumendiaren burrunbaketaz ohartuak. Nietzschek artegarazia zuen XIX. mendeko baikortasun lakotzaren hura; gauza bera zuen egina Marxek ere, nahiz eta modu diferentetz. Beste abertimendu bat Freuden eskutik zen iritsia geroxeago. Egia da, honek eta bere dizipulurik gehienek buruera tolesgabe bat besterik ez zuten gizarteaz jazotzen denaz, eta beraien psikologiaren aplikaziorik gehienak gizarte-arazoetara, eraiketa okerrak ziren; eta hala ere, bere interesa gizabanakoaren buru eta emozio-nahasmenduen fenomenoei eman zenez, sumendiaren gailurrera eroan gintuen eta kraterra borbor ikusarazi.

Freud bere aurreko inor baino aurrerago joan zen, giza portaeraren zenbait alderdi erabakitzen duten indar irrazional eta inkontzienteen miaketa eta analisisa jotzean. Berak eta bere dizipuluek, psikologia modernoaren barruan, ez bakarrik agerian jarri zuten giza izaeraren alderdi irrazional eta inkontzientea, zeinaren existentzia erdeinatua baitzuen razionalismo modernoak, ezpabere fenomeno irrazionalok zenbait legeren pean zeudela eta, beraz irrazionalki uler daitezkeela erakutsi zuen. Ametsen eta sintoma somatikoen hizkuntza ulertzen irakatsi zigun, eta, era berean, giza portaeraren irrazionaltasunak ere. Irrazionaltasunok eta orobat gizabanakoaren izakeraren egitura osoa, kanpoko munduaren eraginen aurrez aurre eta, batez ere, lehen haurtzaroen izandakoen aurrez aurre edukitako erreakzioak zirela aurkitu zuen.

Baina Freud hain zegoen inguratzen zuen kulturaz uieduta, non ezin jo baitzuen kultura berorrek ezarritako zenbait zedez haratago. Zedeok mugapen bihurtu zitzaizkion, are gizabanako gaixoa ulertzeko ere; zaildu egin zioten Freudi gizabanako normalaren eta gizarte-bizitzaren eragina duten fenomenoen ulerpena.

Liburu honek faktore psikologikoen gizarte-prozesu guztian duten garrantzia azpimarratzen duenez eta analisi hau Freuden funtsezko aurkikundeetako zenbaitetan oinarritzen denez, bereziki giza izaeran indar inkontzienteek duten eraginari eta berauek kanpoko eragipenarekiko duten dependentziari dagozkienetan, uste dut laguntza izan dakiokela irakurleari gure ikuspuntuaren printzipio orokorretako batzuk ezagutzea oraindik, eta orobat gure burueraren eta freudar kontzeptu klasikoen artean dauden alde nagusiak ere.³

Freudek onartzen zuen gizakiaren eta gizartearen artean dikotomia zegoen uste tradizionala, eta baita giza izaeraren gaiztotasunaren doktrina zaharra ere. Gizakumea, haren ustez, funtsean antisoziala da. Gizarteak hezi egin behar du; utzi egin behar dio barne-bulkada biologikoen —eta, beraz, erauzkaitzen— zenbait zuzeneko asealdi, baina gizarteak, jeneralean, araztu eta trebeki moderatu behar ditu gizakiaren oinarritzko bulkadak. Gizarteak bulkada naturalok hertsatzearen ondorioz, zerbait mirakulutsua gertatzen da: hertsaturiko bulkadak kultur balioa duten eta, beraz, kulturaren giza oinarria izatera iristen diren jaugin bilakatzen dira. Freudek «sublimazio» terminoa aukeratu zuen errepresiotik portaera zibilizaturako eraldatze bitxi horrentzat. Erabilitako errepresioa sublimazio-gaitasuna baino handiagoa bada, gizabanakoek neurotikoki bihurtzen dira eta orduan beharrezko gertatzen da errepresio gutxitze bat uztea. Eskuarki, hala ere, erlazio inbertsoa dago giza bulkaden asetasunaren eta kulturaren artean: zenbat eta errepresio handiagoa, kultura ere handiagoa (eta nahasmendu neurotikoen arrisku handiagoa). Gizabanakoaren gizartearekiko erlazioa, Freuden teorian, estatikoa da funtsean: gizabanakoak birtualki berbera dira, eta gizarteak bere bulkada naturaletan presio handiagoa egiten diotenean bakarrik izaten ditu aldaketak (horrela sublimazio handiagora behartuz) edo asetasun handiagoa ematen dio (horrela kultura sakrifikatuz).

Giza izaerari dagokionez freudar kontzepzioa, gizakume modernoaren ikus daitezkeen bulkada inportanteenen isladapena zen bati-pat, aurreko psikologoek onartutako oinarritzko instintu zeritzatzenen antzera. Freudentzat, beraren kulturako gizabanakoak «gizakia» errepresentatzen zuen, eta gizarte modernoan gizakumearen ezaugarri diren grina eta larritasunak, giza egitura biologikoan erroturiko betiereko indartzat hartzen zituen.

Nahiz eta puntu honen euskarriztat hainbat kasu aipa litekeen (hala nola, adibidez, gizakume modernoarengan gaur nagusi den etsai-

tasunerako oinarri soziala, Ediporen konplexua eta irentze-konplexua deritzana emakumeengan), kasu bakar batera mugatu nahi dut, bereziki inportantea baita, izaki soziala denez gizakiaren kontzepzio osoari dagozkiona delako. Freudek gizabanakoa besteekiko harremanetan estudiatzen du beti. Hala ere, harremanok, Freudek ikusten dituen bezala, gizarte kapitalistan gizabanakoaren karakteristikokoak diren ekonomi alorreko harremanen antzekoak dira. Pertsona bakoitzak beretzat egiten du lan, modu indibidualistan, bere arriskupean, eta ez lehenik eta behin besteekin lankidetzan. Baina hura ez da Robinson Crusoe; besteak behar ditu, bezerotzat, enplegatutzat, ugazabatatzat. Erosi eta saldu, hartu eta eman egin behar du. Merkatuak, hala ondasun nola lan-merkatuak, erregulatzen ditu harremanok. Horrela gizabanakoa, lehenbizi bakarrik eta autoaski, ekonomi harremanetan jartzen da hurkoarekin, hau helburu baterako bitarteko denez: saltzeko eta erosteko, alegia. Giza harremanen kontzeptu freudarra funtsean bera da: gizabanakoa izaera biologikoko bulkada guztiez horniturik ageri da, asetu egin behar direlarik. Horiak asetzeko beste «objektu» batzuekin harremanetan jartzen da. Horrela, beste gizabanakoek bitarteko dira beti norberaren helbururako, hots, besteekin harremanik izan baino lehen gizabanakoaren baitan beretzat sortzen diren jauginak asetzeko. Giza harremanen esparrua, Freudentzat, merkatuaren antzekoa da: biologikoki emandako beharrezkoak asekuntzen elkartruketa da, beronetan beste gizabanakoekiko harremanak helburu baterako bitarteko direlarik eta egundo ere ez helburu berenez.

Freuden ikuspuntutik bestera, liburu honetan eskaintzen den analisi honako honetan oinarritzen da, psikologiaren problema zentrala gizabanakoak munduarekin duen lotura-motari dagokiona den supostuaren gainean, alegia, eta ez «per se» instintuzkoa den beharizan bat edo besteren asekuntzan edo zapuzketan; eta honez gainera, gizabanakoaren eta munduaren arteko erlazioa izaera egonkorreko ez den supostuaren gainean. Gertatzen dena ez da, naturak zenbait bulkadaz hornituriko gizabanakoa daukagula alde batetik, eta bestetik gizarte, harengandik aparte dagoen zerbait balitz bezala, sortzetiko jaugin horiek asez edo zapuztuz. Zenbait beharizan denokikoak diren arren, hala nola gosea, egarria, sexu-asegalea, hala ere, gizakumeen karaktereen arteko «diferentzien» ezartzen zerikusia duten bulkadak, hala nola maitasuna, gorrotoa, botere-gosea eta menekotasun-irrika, plazer sexualen gozamina

eta gozamen honen beldurra, denak dira prozesu sozialaren emaitza. Giza jaidura ederrenak, eta nazkagarrienak berdin, ez dira giza izaera finko eta biologikoki emanaren zati, baizik gizakumeak sortzen duen prozesu sozialaren emaitza. Bestela esanda, gizarteak ez du errepresio funtzioa soilik betetzen —hau ere izan baduen arren—, baizik funtzio sortzailea ere badu. Giza izaera, haren grinak eta larritasunak kultur ekoizkin bat dira; izan ere, gizakia bera da historia deitzen dugun horretan agertzen den etengabeko giza ahaleginaren sorkuntzarik eta lorpenik handiena.

Psikologia sozialari berariaz dagokion egitekoa gizakia historian sortzearen prozesu hau ulertzea da. Historiako Aro batetik bestera, zergatik egiaztatzen dira aldaketak giza izaeraren egitura? Zergatik da Errenaisantzako izpiritua Erdi Arokoaren ezberdina? Zergatik da kapitalismo monopolistako giza izaeraren egitura XIX. mendekoaren ezberdina? Psikologia sozialak esplikatzen behar du zergatik sortzen diren gaitasun berriak eta grina berriak, onak edo txarrak. Horrela aurkitzen dugu, adibidez, Errenaisantzatik gure egunetara gizakumei famagura gartsua sortu zaiela, gaur oso natural deritzogun jaugin hau Erdi Aroko gizarteko gizakumeak apenas zeukan bitartean⁴. Aro beronetan gizakumeek lehenago ez bezalako naturaren edertasunaren sentimendua berenganatu zuten⁵. Areago, Europako iparraldeko herrietan, XVI. mendean geroztik, gizabanakoek, aurreko garaietan gizakume libreek izan ez zuten moduko lanerako joran obsesiboa garatu zuten.

Baina gizakia historiak egina ez ezik, historia bera ere gizakiak egina da. Itxurazko kontraesan hau konpontzea da psikologia sozialaren eremua⁶. Duen egitekoa ez da grinak, nahikariak eta larritasunak nola, prozesu sozialaren emaitza gisa, aldatzen eta garatzen diren soilik erakustea, baizik eta baita ere horrela modelaturiko giza energiak nola bilakatzeko diren, eurak ere, «prozesu soziala forjatzen duten indar» ekoizle. Horrela, adibidez, fama eta arrakastagura gartsua eta lanerako jaugin konpultsiboa, berauek gabe kapitalismo modernoak garatzerik ez zeukan indarrak dira; eurok eta beste zenbait giza indarrak gabe, gizakumea ez zen izango merkatal eta industri sistema modernoak eskatzen dituen baldintzen arabera jokatzeko behar den oldarren jabe.

Esandakotik segitzen da, liburu honetan aurkeztzen den ikuspuntua Freudek duenetik diferentea dela, zeren historiari buruzko haren interpretazioa, berez sozialki baldintzatua ez diren indar psikologikoen

emaitzat hartzen duena, argi eta garbi ezezten baitu. Argitasun berberaz ezezten ditu, giza faktorearen papera, prozesu sozialaren elementu dinamikoetako bat denez, alde batera uzten duten teoriak ere. Kritika hau ez doa soilki soziologiatik arazo psikologikoak esplizituki ezabatzeko joera duten teoria soziologikoen kontra (Durkheim-enak eta bere eskolarenak bezalakoak), ezpabere baita psikologia «behavioristan» inspiraturiko kontzeptuez gehiago edo gutxiago ñabartutako teorien kontra ere. Teoria guztion supostu komuna da naturak ez daukala bere-bere dinamismorik eta aldaketa psikologikoak «aztura» berrien garapen moduan ulertu behar direla, garapen hau kultur eredu [*cultural patterns*] berrietara moldaketa denez. Teoriok, faktore psikologikoaz ari badira ere, aldi berean kultur moldeen itzal hutsa izatera murrizten dute. Psikologia dinamikoa bakarrik, zeinaren zimentarriak Freudek formulatu dituen, joan daiteke giza faktorearen berbazko aintzatespenetik haratago. Giza izaera aurrefinkaturik ez badago ere, ezin dugu uste izan amaigabeki malgu eta edozein motatako baldintzetara moldagarri denik dinamismo psikologiko propiorik garatu gabe. Giza izaerak, bilakaera historikoaren ekoizkin bada ere, datxezkion zenbait mekanismo eta lege dauzka, berauek aurkitzea delarik psikologiaren egitekoa.

Puntu honetara helduta, orain arte azaldutako guztiaren eta ondoren datorkeenaren ulerkuntza osoa segurtatzeko, «moldaketa» kontzeptua eztabaidatu beharra dagoela dirudi. Eztabaida honek, aldi berean, lege eta mekanismo psikologikotzat ulertzen dugunaren adibide bat eskainiko du.

Baliozko dela dirudi moldaketa «estatikoaren» eta «dinamikoaren» arteko aldea bereiztea. Moldaketa estatikotzat, karaktere-egitura guztia aldatu gabe uzten eta aztura berri bat hartzea bakarrik dakarten eruedetara moldatzea ulertzen dugu. Moldaketa-mota honen adibide bat txinatar erara jateko ohiturari utzi eta sardeska eta ganibeta behar duen Mendebaldarrenera pasatzea dugu. Ameriketara hel dadin txinatar bat moldatuko da arau berri honetara, baina moldaketa honek efektu ahula izango du haren nortasunaren baitan; honek ez dio sortaraziko jaugin edo karaktere-ezaugarri berririk.

Moldaketa dinamikoaz zera ulertzen dugu, adibidez, ume bat, aita zorrotz eta mehatxugile baten aginduei men eginez —bestela jokatzeke haren beldurregi delako—; mutil «on» bihurtzen denean gertatzen den moldaketa. Egoerako beharrezanetara moldatzearekin batera, zer-

bait gertatzen zaio bere baitan. Aitarenganako etsaitasun handia sor dezake bere baitan eta erreprimitu, arriskutsuegia bailitzateke etsaitasun hori adieraztea edo are berorretaz ohartzea. Erreprimituriko etsaitasun hori, halaz ere, haur horren karaktere-egituraren faktore dinamiko bat da. Larritasun berri bat sor dezake eta honek menpekotasun are sakonagoa eraman; desafiozko jarrera lanbrotsu bat sortaraz dezake, inorengana zehazki baino areago bizitzaren kontra orokorrean zuzendua. Nahiz eta hemen ere, lehenengo adibidean bezala, gizabanakoa kanpoko zenbait zirkunstantziatara moldatzen den, kasu honetan moldaketak zerbait berria sortzen du berarengan, bulkada hertsatzaileak eta larritasun berriak erarazten ditu. Neurosi oro mota honetako moldaketa dinamikoaren adibide bat da; neurosia, funtsean, kanpoko zenbait zirkunstantziatara moldatzean datza —lehen haurtzarokoetara batipat—, berez irrazionalak direlarik, eta gainera, jeneralean hitz eginda, haurraren hazkunde eta garapenaren aurkakoak. Antzera batean, fenomeno neuroti-koekin konparagarri diren fenomeno soziopsikologikoeak (gero ikusiko dugu zergatik ez diegun deitu behar neurotikoeak) —hala nola bulkada suntsitzaile edo sadikoen presentzia talde sozialetan—, baldintza sozial irrazional eta gizakumeen garapenerako kaltegarrietara egokitzen den moldaketa dinamikoaren adibide bat eskaintzen dute.

Gertatzen den moldaketa «motari» buruzko arazoaz gain, beste galdera batzuei ere erantzun behar zaie. Zer da gizakumea, burura daitezkeen ia bizi-baldintza guztietara moldatzera behartzen duena eta zein dira haren moldagaitasunaren mugak?

Galderoi erantzuna ematerakoan, eztabaidatu beharreko lehenengo fenomeno zera da, giza izaeraren sektore batzuk daudela beste batzuk baino malguagoak eta moldagarriagoak direnak. Gizonak elkarrengandik diferente egiten dituzten jaugin eta karaktere-ezaugarriak malgutasun eta elastikotasun-gradu handia agertzen dute, hala nola: maitasunak, suntsitzeko jaidurak, sadismoak, menekotasun-joerak, botere-goseak, aihergatasunak, handigura pertsonalak, diru-grinak, plazer zentzualen gozamenak eta zentzualitatearen beldurrak. Hauek eta gizakumeengan ediren daitezkeen beste jaugin eta beldur asko zenbait bizi-baldintzarako erreakzioz garatzen dira; ez dira bereziki malguak, zeren, behin pertsona baten karakterearen osagai bilakatuz gero, ez baitira aise ezabatzen ezta beste jaugin bat izateraino aldatzen ere. Baina badira malguak gizabanakoeak, haurtzaroan bereziki, egokitu zaien bizikera osoa-

ren arabera beharizan bat edo beste gara dezaketen zentzuan. Beharizantako bat ere ez da tinkoa eta zurruna, zirkunstantzia guztietan garatzen eta asetu behar den giza izaeraren sortzetiko zati bat balitz bezala.

Aipatu beharizenekin kontrastean badira beste batzuk giza izaeraren ezinbesteko zati bat osatzen eta asebidia nahitaez behar dutenak, zehazki, gizakiaren erakuntza fisiologikoan erroturik dauden beharizanak, hala nola, gosea, egarria, lo egin beharra, e.a. Eurotako bakoitzak atalase jakin bat dauka, beronez handik ezinezko delarik asezinari eustea; atalase hau gaintitzen denean, beharizana asetzeko jauginak bulkada guztiahaldunaren izatea hartzen du. Fisiologikoki kondizionaturiko beharizan guztiok autokontserbazio beharizanaren nozioan laburbil daitezke. Autokontserbatzeko behar hau zirkunstantzia orotan ase beharreko giza izaeraren zatia da eta, beraz, giza portaeraren lehen zioa osatzen du.

Aurrekoa formula simple batez adierazteko, esan genezake: giza-kumeak jan, edan, lo, etsaiengandik babestu e.a. egin behar du. Guzti hau egiteko lan egin eta produzitu egin behar du. «Lana», bestalde, ez da zer jeneral eta abstraktu bat. Lana lan konkretua da beti, hau da, lan-mota espezifiko bat ekonomi sistema-mota espezifiko baten barruan. Pertsona bat esklabu ibil daiteke lanean sistema feudal baten barruan, nekazari indiar «herri» batean, negoziogizon independente gizarte kapitalistan, saltzaile denda moderno batean, langile-fabrika handi bateko katea amaigabea. Lan-mota ezberdinok, nortasun-ezaugarri zeharo diferenteak eskatzen dituzte eta besteekiko lotura ezberdinak sortzen lagunduko dute. Gizakume bat jaiotzen denean eskenategi bat izendatzen zaio. Jan eta edan egin behar du eta, beraz, lan egin; honek esan nahi du bera jaio den gizarte-motak ezartzen dizkion baldintza berezietan eta molde konkretuetan lan egin beharko duela. Faktore bi hauek, bizi beharra eta gizarte-sistema, ezin ditu, printzipioz, berak aldatu gizabanako denez, eta beraiek dira plastizitate handiagoa agertzen duten beste ezaugarrien garapena erabakitzen dutenak.

Modu honetan, bizimoldea, ekonomi sistema baten ezaugarri bereziek erabakia dutenez gizabanakoarentzat, faktore printzipal bihurtzen da haren karaktere-egitura osoa erabakitzeko, autokontserbatzeko beharizan premiatsuak, inguruan dituen bizi-baldintzak onartzera behartzen baitu. Honek ez du esan nahi ezin dela, beste gizabanako batzuekin batera, zenbait aldaketa politiko eta ekonomiko gauzatzen saiatu; hala ere, suertatu zaion bizimolde bereziaren eraginak moldatzen dio funtsean

nortasuna, umetatik jada gertatu izan zaion moduan famili ingurunearen bidez, berau delarik gizarte edo klase jakin baten ezaugarri tipiko guztiak adierazten dituen ingurunea.⁷

Fisiologikoki kondizionaturiko beharrianak ez dira premiakotasuna duen giza izaeraren zati bakarra. Bada beste zati bat ere hura bezain konpultsiboa dena, gorputz-prozesuetan erroturik ez dagoena, baina bai giza bizitzaren muin-muinean, beronen modu eta praktikan: kanpoko munduarekin harremanetan jartzeko beharrianak, bakardadea ekiditeko beharrianak. Nork bere burua zeharo isolaturik eta bakarrik sentitzeak, buru-desintegrakuntzara garamatza, goseak edo ahidurak heriotzara garamatza bezalaxe. Besteekiko lotura honek ez du inolako zerikusirik ukitze fisikoarekin. Lagun bat egon liteke bakarrik zentzu fisikoan urte askoz, eta, hala ere, harremanetan egon elkartasun eta «nonbaitekoea izate» sentimendua damaioten ideiekin, balioekin, edo, behinik behin, eredu sozialekin. Bestalde, jendartean bizi ere badaiteke eta hala ere isolamendu-sentimendu bizi-biziak gainez eginda aurkitu, beronen ondorioa, behin muga batzuk iraganez gero, nahasmendu eskizofrenikoz nabarmentzen den erotasun-egoera izango delarik. Balio, sinbolo eta ereduarekin loturarik ez ukate hau, bakardade moralak dei genezakeena, bakardade fisikoa bezain jasanezina da; edo, hobeto, bakardade fisikoa jasanezin bihurtzen da, bakardade moralak ere inplikatzeko duenean eta ez bestetan. Munduarekiko lotura izpiritualak hainbat forma izan dezake; nor bere gelaskan, Jainkoarengan sinesten duen monjea eta beste guztiengandik isolatuta dagoen preso politikoa, baina bere burruka-lagunekin elkartatuta sentitzen dena, ez daude moralki bakarrik. Ezta ere ez dago bakarrik girorik exotikoenean bere «smokinga» janzten duen ingelesa, ezta, beste gizonengandik zeharo isolaturik egon arren, bere nazio eta sinboloekin elkartuta sentitzen den burges txikia ere. Munduarekiko lotura-mota prestua edo arrunta izan daiteke, baina egitura sozialaren eredu zabarrenarekin lotura izanda ere, bakarrik egotea baino askoz hobea da hau. Erlijioa eta nazionalismoa, eta berdin beste edozein ohitura edo sineste ere, litezkeen absurdu eta degradatzaileenak izanda ere, gizabanakoa besteekin elkartzeko bakarrik lortzen badute, gizakumeak beldurrik gehien dionaren, isolamenduaren, babesleku dira.

Isolamendu moralak ekiditeko beharrianak konpultsibo hau Balzac-ek deskribatu du indartsuen «Asmatzailearen sufrikarioak» en pasarte honetan:

«Baina gauza bat ikasi behar duzu, zeure adimendu oraindik zaluan inprimatu: gizonak izua dio bakardadeari. Eta bakardade-mota guztietatik, bakardade moralak da izugarriena. Lehenengo ermitariak Jainkoarekin bizi ziren. Mundurik populatuenean bizi ziren, izpirituen munduan. Gizonaren lehen pentsamendua, dela legendarin zein preso, dela bekatari zein elbarri, hau da: patu-lagun bat eduki. Bere bizitza osoa den bulkada honi asebidetako emateko, daukan indar guztia darabil, bere ahalmen guztia, bere bizi osoaren energiak. Idoroko ote zuen lagunak Satanasek, gurari guztiahaldun hori gabe? Gai honi buruz poema oso bat idatz liteke, «“Paradisu galdua”ren hitzaurrea izango litzatekeena, zeren “Paradisu galdua” errebelamenduaren apologia besterik ez baita.»

Zergatik den hain indartsua gizonarengan isolamenduaren beldurra galderari erantzuteko saialdi orok asko aldenduko gintuzke liburu honen bide nagusitik. Hala ere, irakurleari erakusteko besteekin elkartzeko sentitzea beharrian horrek ez duela inolako ezer misteriosurik, seinatu nahi dut zein norabidetan, nire ustez, aurki daitezkeen erantzuna.

Elementu inportante bat da gizakumeak nolabaiteko elkarlaguntza gabe ezin direla bizi. Litekeen edozein kultur motatan gizakumeak besteekin laguntzaren beharria du bizirik iraun nahi badu; elkarlaguntza behar du dela etsaiengandik eta natur arriskuetatik bere burua defendatzeko, dela lan egin eta produzitu ahal izateko. Robinson Crusoe berek ere bere otsekin Ostiral zuen lagun; hura barik erotu ez ezik hil ere egingo zatekeen. Gutariko bakoitzak esperimintatu du bere haurtzarorako, zorrozki esperimintatu ere, besteekin laguntzaren premia hau. Funtsezko inportantziadun funtzioei dagokienez bere burua zaintzeko haurrak duen ezgaitasun materiala dela kausa, besteekin komunikatzea hil-biziko auzi bihurtzen zaio. Bakarrik utzia izateko posibilitatea, haurraren existentzia osoari egin lekiokkeen mehatxurik handiena da nahitaez.

Bada, hala ere beste elementu bat «nonbaitekoea izateko» beharrianak hain konpultsibo bihurtzen duena: autokontzientzia subjektiboa, hots, gizakumeari, beste pertsonengandik eta kanpoko naturarengandik diferentia den entitate indibidual denez, bere buruaren kontzientzia damaioren buru-ahalmena. Autokontzientziak gradua aldatu egiten bada ere, hurrengo kapituluan azalduko den bezala, beronen existentziak esentzialki gizatarrak den arazo bat planteatzen dio gizakumeari: bere burua-

ren kontzientzia izatean naturarengandik eta beste guztiengandik ezberdina denez, heriotzaren, gaixotasunaren eta zahartasunaren kontzientzia —ilunki izanda ere— ukatean, gizabanakoak bere ezereza eta kaxkartasuna sentitu behar ditu, naturarekin eta «bera» ez diren beste guztiekin konparatuta. Nonbaitekoa ez baldin bada, bere bizitzak esanahi edo norabideren bat ez baldin badu, hauts fits sentituko da eta bere ezerez indibidualak zapalduta ikusiko du bere burua. Ez da izango gauza bere bizitzari esangura eta norabidea emango dizkion ezein sistemarekin harremanetan jartzeko, duda-mudaz josita egongo da, eta duda honek, azkenean, iharduteko, hau da, bizitzeko ahalmena elbarrituko dio.

Aurrera egin aurretik, lagungarri gerta liteke psikologia sozialeko arazoekiko gure ikuspuntu orokorrari buruz seinlatu duguna laburbiltzea. Giza izaera ez da ez biologiak finkaturiko sortzetiko jauginen guztirako suma, ezta uniformeki eta aise moldatzen zaien kultur erduen itzal bizigabea ere; giza eboluzioaren sorkari da, baina berari datzekion zenbait mekanismo eta legeren jabe ere bada. Gizakiaren izaeran badira faktore batzuk tinko eta aldaezin ageri direnak: fisiologikoki kondizionaturiko bulkadak asetzeko beharrizana eta isolamendua eta bakardade morala ekiditeko beharrizana. Ikusi dugu gizabanakoak onartu egin behar duela gizarte jakin bakoitzari dagokion produkzio eta banakuntza-sistema berezian erroturiko bizimoldea. Kulturara moldatze dinamikoaren prozesuan, gizabanakoaren egintzak eta sentimenduak motibatzen dituzten zenbait bulkada indartsu sortzen dira. Gizabanakoak bulkadon kontzientzia izan dezake edo ez, baina, kasu guztietan, bulkadok kaliputsuak dira eta asetuak izatea eskatzen dute, behin sortuz gero. Horrela indar ahaltsu bilakatzen dira eta, gero, efektibotasunez partehartzen dute gizarte-prozesua moldatzen. Geroago, Erreforma eta faxismoa aztertzean⁸, faktore ekonomiko, psikologiko eta ideologikoen artean dagoen elkarreragiteko moduari oratuko diogu eta elkarreragin horri buruz atera daitezkeen konklusio orokorrak eztabaidatuko dira. Eztabaida hau liburuaren gai zentralaren inguruan ardaztuta egongo da beti: gizakumea, zenbat eta aurrerago egiten duen askatasunean, hasieran besteekin eta naturarekin zuen batasun bereizgabetik askatze zentzuan, hots, zenbat eta gizabanakoago bilakatzen den, orduan eta behartuago aurkitzen da bi hauetarik bat aukeratzera, edo munduarekin bat egin maitasunaren eta lan sortzailearen berezkotasunean edo segurtasun moduren bat bilatu, bere askatasuna eta bere «ni» indibidualaren osotasuna desegingo duten lokarrietara joaz⁹.

II GIZABANAKOAREN JALGIERA ETA ASKATASUNAREN ANBIGUOTASUNA

Gure gai nagusira —askatasunaren esanahia gizakume modernoarentzat eta zergatik eta nola saiatzen den hari ihes egiten— heldu aurretik, oraingo arazotik agian urruntxo dirudikeen kontzeptu bat eztabaidatu beharra daukagu. Kontzeptu hau, hala ere, premisa beharrezkoa da gizarte modernoaren barruan askatasuna aztertzeko. Zerari nagokio, askatasunak giza existentzia bera karakterizatzen duela eta haren esangura, gainera, aldatu egiten dela dioen kontzeptuari, gizakumearen autokontzientzi graduaren eta berak bere buruaz izaki banandu eta independente denez duen kontzepzioaren arabera.

Gizakumearen historia soziala, hau mundu naturalarekiko batasun bereizgabetik jalgitzean hasi zen, bere buruaren kontzientzia hartuz, naturarengandik eta inguruan zituen gizakiengandik izaki banandu eta ezberdina zenez. Hala ere, autokontzientzia honek oso iluna izaten segitu zuen historiako aldi luzeetan zehar. Gizabanakoak bera jalgia zen mundu natural eta sozialari hertsiki bigizaturik zirauen; entitate ezberdin zenez bere buruaren kontzientzia entitate bananduztat partzialki zuen bitartean ere, inguruko munduaren zati sentitzen zen. Gizakiak bere jatorrizko loturak hausteko prozesu hazkorrak, «gizaletzeko» prozesua dei dezakegunak, badirudi Erreforma eta gaurreguneko garaien arteko mendeetan erdietsi zuela gailurra.

Gizabanakoaren bizitz historian ere prozesu bera aurkitzen dugu. Haurra, bere amarekin bat izateari uzten eta harengandik bananduriko izaki biologiko bilakatzen denean jaiotzen da. Baina, giza existentziaren hasiera banantze biologiko hauxe bada ere, haurrak, funtzionalki, amarekin bat eginda segitzen du aldi dexente batez.

Gizabanakoak ez du askatasunik, kanpoko munduari lotuta daukan zilbor-hestea —zentzu figuratuan hitz eginda— oraindik guztiz

ebaki gabe duen heinean; baina lokarriok era berean, nonbaitekoa izatearen eta nonbaitetan errotuta egotearen segurtasuna eta sentimendua ematen diote. «Gizaletzeko» prozesuak gizabanakoaren jalgiera osoa eragin baino lehen izan ohi diren lokarriok, «lokarri primarioak» izenda litezke. Organikoak dira giza garapen normalaren osagai diren zentzuan; indibidualtasunik eza inplikatzeko dute, baina gizabanakoari segurtasuna eta orientabidea ere badamazkiote. Umea amarekin, aintzina-ko kultura bateko kidea bere klanarekin eta naturarekin, Erdi Aroko gizakumea Elizarekin eta bere kastarekin batzen duten lokarriak dira. Behin guztiz gizaletzeko etapara iritsiz gero eta gizabanakoa bere lokarri primarioetatik libre aurkitzen denean, egiteko berri bat jartzen zaio aurrean: munduan orientatu eta errotzea eta segurtasuna aurkitzea, bere biziera preindibidualistako ezaugarri izandakoetatik diferentek diren bideetan zehar abiatuz. Askatasunak orduan esangura ezberdina hartzen du bilakaeraren etapa horretara iritsi aurretik zeukanetik. Hemen kontzeptuok argitzeko gelditu beharra dago, gizabanakoarekin eta garapen sozialarekin duten loturan konkretukiago eztabaidatuz.

Izate fetaletik giza izatera aldatze konparatiboki berehalakoak eta zilbor-hestea ebakitzeak markatzen dute jaioberriak amaren gorputzarengandik duen independentzia. Baina independentzia hau gorputz bien elkarrengandik banantzearen zentzu gordinean bakarrik da benetako. Zentzu funtzionalean seinak amaren parte izaten segitzen du. Ama da jaten eman, eraman eta zaintzen duena bizi-aspektu guztietan. Astiro-astiro haurra, ama eta objektuak berarengandik bereizitako entitate-tzat hartzera iristen da. Prozesu honen faktore bat haurraren garapen neurologikoa eta fisiko orokorra da, fisikoki zein adimenaz objektuak atzeman eta beraiez jabetzeko gaitasuna. Bere ihardueraren bidez beregandik kanpoko mundu bat esperimintatzen du. Gizalezte prozesua hezkuntzak indartzen du gero. Prozesu honek zenbait zapuzketa eta debeku inplikatzeko du, amaren papera aldatuz, haurrarenetatik ezberdinak diren eta haren gurariekin gatazkan dauden xedeek gidaturiko pertsona izatera igarotzen baita, eta, maiz, etsai eta arriskutsu den pertsona izatera¹⁰. Hezkuntz prozesuaren zati bat, eta ez prozesu osoa, den antagonismo hau, faktore garrantzitsu bat da «ni»aren eta «zu»aren arteko bereizpena sakontzeko.

Jaiotz geroztik hilabete batzuek igaro behar dute, haurrak beste pertsona bat, pertsona denez, ezagutu eta irribarre batez erreakzionatze-

ko, eta urteak igaro behar dute, haurrak bere burua unibertsoarekin nahasteari utzi baino lehen.¹¹ Momentu horretara arte haurren egonzentris- mo-mota tipiko eta berezi hori agertzen du umeak; samurtasuna eta besteenganako interesa kentzen ez duen egozentrismoa, «besteak» oraindik ez dituelako ezagutu zehazki beregandik benetan bereizirik izaki moduan. Arrazoi berarengatik, lehen urteotan agintetik duen dependentziak, geroago agintetik izango duen dependentziaren esangura ezberdina dauka. Gurasoak, edo dena delako agintea, ez dira oraindik hartzen behinbetikoz bereizirik entitate bezala: haurraren unibertsoaren zati dira, eta unibertso hau haurraren baitako zati bat da oraindik; gurasoekiko menekotasunak, beraz, ezaugarri bat dauka, bi gizabanako bata bestearengandik bereizi ondoren dagoen menekotasun-motaren ezberdina dena.

R. Hughes-ek, bere *A High Wind in Jamaica-n*, sarkorki deskribatzen du hamar urteko neskatok bati gertatzen zaion bere indibidualtasunaren bapateko itzartzea:

«Eta orduan Emilyri gauza aski garrantzitsu bat gertatu zitzaion. Bapatean bera nor zen konturatu zen. Arrazoi gutxi dago suposatuzko zergatik ez zitzaion hori bost urte lehenago edo, are, bost urte beranduago gertatu, eta ez dago bat bera ere zergatik gertatu behar zuen arratsalde horretan, hain zuzen ere, esplikatuzko. Etxetxokoa jolasten ibilia zen bazter batean, brankan, debiletaren ondoan (non kizki bat zuen eskegia aldabatuz) eta, jolasaz jada asperturik, paseadan zihoan ia noraezean poparantz, erle batzuetan eta maitagarrien erreginarengan lanbrotsuki pentsatuz, eta bapatean bera «bera» zela burutik pasa zitzaion. Kolpera geratu zen eta bere buruari so jarri zitzaion, bere ikusterrean zeukan heinean. Ez zuen asko ikusterik, bere jantziaren aurrealdearen perspektiba mugatu bat eta eskuak, ikusteko altxatu zituenean, izan ezik; baina nahikoa izan zuen bapatean berea bezala agertu zitzaion gorputz txikiaren ideia malkatx bat osatzeko.

Barreka hasi zen burlati samar. «Ongi zegoen —pentsatu zuen—: nor eta hi denen artean, joan eta horrela harrapatzen utzi; orain ez daukan hemendik irtetzerik, luzaroan; azkeneraino joan beharko dun, neska bat izan, hazi eta atsotzera heldu, aldrebeskeria ero honetatik libratu aurretik!»

Gertakizun inportante honetan edozein etenaldi galeratzeko asmo sendoz, zehar-zokan gora igoten hasi zen topean zegoen bere besotoki gogokoenerantz. Baina, beso bat edo hanka bat mugitzen

zuen bakoitzean, ekintza sinple horretan, mugimenduok bere guraria-
rekiko hain esaneko aurkitzeak mira berrituz betetzen zuen. Oroime-
nak, jakina, lehenago ere horrelaxe zela izana ziotson: baina lehenago
bera ez zen ohartua zein miresgarri zen guzti hura. Bere besotokian
jarri zenean, eskuetako azala miatzen jarri zen konturik handienaz,
«bera» zen eta. Besaburu bata arropatik kanpora irristarazi zuen,
eta, arropa barruan zehar kirikatu ondoren bera egiatan gauza bakar
bat zela ziurtatzeko, segidako gauza bat jantzien azpian, masaila jo-
tzeraino kiribizkaldu zuen. Besaburuaren alderdi konkabo, biluzi eta
epelak aurpegian egin zion ukituak atseginez dardarazi zuen, lagun
maitekor baten fereka izan balitz bezala. Baina zentzazioa masailatik
ala bizkarretik zetorren, nor zen ferekatzailea eta nor ferekatua, hau
ezin zion ezin analisik esan.

Behin osoro konbentzitu zenean bera orain Emily Bas-
Thornton izatea zen egitate txundigarriaz (ez zekien zergatik tarte-
katzen zuen «orain» hori, zeren, ez baitzebilen, ibili, inongo dispare-
terik iruditzen transmigrazioei buruz, lehen beste bat izana zela edo
horrelakorik), egia honen ondorioak seriooki kontutan hartzen hasi
zen.»

Zenbat eta haziago haurra, lokarri primarioak ebakiz doan hei-
nean, hainbat eta aiherrago zaio askatasuna eta independentzia bilatzea-
ri. Baina bilaketa honen zertarakoa, gizaletze hazkorreko prozesuaren
izaera dialektikoaz konturatzen bagara soilki uler daiteke guztiz.

Prozesu honek bi alderdi ditu: lehenengoa umea sendotu egiten
dela fisikoki, emozionalki eta mentalki. Iharduera eta intentsitatea
gehitzen dira esfera horietako bakoitzean. Aldi berean gero eta gehiago
integratzen dira hirurak. Egitura antolatua garatzen da, gizabanakoaren
nahimen eta arrazoimenak gidatua. Ni deitzen badiogu nortasunaren
osotasun antolatu eta integratuari, baiezta dezakegu «gizaletzearen haz-
kunde-prozesuaren aspektu bat, niaren indarraren gehikuntzan datzala.
Individuazioaren eta niaren hazkundearen mugak, baldintza indibidua-
lek ezartzen dituzte alde, baina, muinean, baldintza sozialek. Zeren, gi-
zabanakoen artean honetan dauden aldeek handiak diruditen arren, gi-
zarte ooren ezaugarri da halako gizaletze maila bat, gizabanakoak
gainditu ezin duena.

Gizaletze-prozesuaren bigarren alderdia «bakardadearen gehi-
kuntza» da. Lokarri primarioek segurtasuna eta norberaz kanpoko mun-

duarekiko oinarrizko lotura eskaintzen dute. Haurra mundu horretatik
jalgitzen den heinean, bere bakardadeaz konturatzen da, beste guztien-
gandik bereizitako entitate bat dela. Norberaren existentzia indibiduala-
rekiko konparazioz txundigarriro indartsu eta ahaltsu eta sarri mehatxa-
kor eta arriskutsu ere baden mundutik banantze honek ezintasun— eta
larritasun-sentimendua sortzen du. Pertsona mundu horren osagai zen
bitartean, ekintza indibidualaren ahalbide-erantzunkizunak enoraturik,
ez zegoen zertan haren beldur izan. Baina gizabanako bihurtu denean
bat, bakarrik dago eta aurre egin behar dio munduari beronen alderdi
arriskutsu eta txundigarri guztietan.

Nork bere indibidualtasuna bertan behera uzteko bulkadak sor-
tzen dira, bakardade eta ezintasun-sentimendua gainditzekoak, nork
bere burua kanpoko munduaren baitan erabat murgilduz. Baina, hala
ere, bulkadok eta euroatik eratorritako lokarri berriak ez dira hazkun-
tza-prozesuan ebaki izan diren lokarri primarioen modu-modukoak.
Haurra amaren baitara fisikoki inola ere itzuli ezin den bezalaxe, ezin
du gizaletze prozesua psikikoki alderantzikatu ere. Hori egiteko saial-
diek menekotasun-izaera hartzen dute ezinbestez, honetan, agintearen
eta beronen menpeko egiten den haurraren arteko oinarrizko kontraesa-
na sekula ere ez delarik kentzen. Haurra, kontzienteki, seguru eta asetu-
rik gera daiteke, baina inkontzienteki ohartzen da pagatu beharreko or-
daina bere nitasunaren indar eta osotasunari uko egitea dela. Horrela,
menekotasunaren emaitza, izan behar lukeenaren juxtu aurkakoa da:
menekotasunak areagotu egiten du haurraren segurtasunik eza eta aldi
berean etsaitasuna eta errebelamendua sortarazten dizkio, ikaragarria-
goak direlarik, haurra menpean izana duten —edo izatera heldu diren—
pertsonek aurka zuzentzen direlako.

Hala eta guztiz ere, menekotasuna ez da bakardadea eta larrita-
suna ekiditeko bide bakarra. Beste bidea, emankorra eta gatazka konpo-
nezinean bukatzen ez den bakarra: «gizakumea eta naturarekiko berezko
harremanena» da, gizabanakoa munduarekin lotzen duten harremanak
eurok, bere indibidualtasuna suntsitu gabe. Mota honetako harremanak
—zeinen adierazpide duinena maitasuna eta lan-sortzailea diren— nor-
tasun osoaren indar eta integrapenean daude errotuta, eta, beraz, niaren
hazkuntzarako dauden muga berberen pean daude.

Zehaztasun handiz eztabaidatuko ditugu gero menekotasunaren
eta iharduera espontaneoaren fenomenoak, gizaletze hazkorraren bi

emaitza izan litezkeenez; oraingoz printzipio orokorra seinlatu besterik ez dut nahi: gizaletzearen hazkundetik eta gizabanakoaren askatasun hazkorretik datorren prozesu dialektikoa. Haurra libreago egiten da bere indibidualtasuna garatu eta adierazteko, mugatzen zuten lokarriek jarritako oztoporik gabe. Baina aldi berean haurra, segurtasuna eta fidagarritasuna ematen zizkion mundutik ere askatu egiten da. Gizaletzea nortasun indibidualaren indarraren eta integrapenaren hazkuntza inplikatzeko duen prozesua da, baina, aldi berean, besteekin bat izate jatorrizkoa galtzen den eta haurra besteengandik bereiziago gertatzen den prozesua ere bada. Banantze hazkor hau, erabateko enkoniadura dakarkeen eta larritasun eta segurtasunik ez biziak sortaraz ditzakeen isolamendura bidera daiteke, edo besteenganako lagunmintasun edo elkarkidetasun-mota berri bat ekar diezaioke haurrari, baldin honek munduarekiko lotura-mota berri honen supostuak diren barne-indarra eta sorkuntza-gaitasuna garatu ahal izan baditu.

Bereizterantz eta gizaletzerantz egindako pausu bakoitzarekin batera, berauei dagokien niaren hazkuntza emango balitz, haurraren garapena harmoniatsua litzateke. Baina ez da horrelakorik gertatzen. Gizaletze-prozesua automatikoki garatzen den bitartean, niaren hazkuntzari oztopoa jartzen dio zenbait kausa indibidual eta sozialek. Garapen bion arteko sinkronizaziorik ezak, isolamendu eta ezintasunezko sentimendu jasanezina sortzen du, eta honek, bere aldetik, gero «ihes mekanismotzat» definituko ditugun mekanismo psikikoetara eramango du haurra.

Ikuspuntu filogenetikotik ere, gizakumearen historia, gizaletzearen eta askatasunaren hazkunde-prozesu moduan karakteriza daiteke. Gizakumea instintu hertsatzaileetatik askatzeko lehen pausuak egitean jalgitzen da pregizaki-egoeratik. Instintutzat, heredaturiko zenbait egitura neurologikok erabakitako instintu-mota espezifikoko bat ulertzen badugu, joera ongi mugarritu bat atzeman daiteke animali erresumaren barruan¹². Zenbatenaz eta beherago kokatzen den animalia bat garapen- eskalan, beraren mekanismo erreflexu eta instintuzkoek hainbatenaz eta kontrolpetuago dituzte haren naturarekiko moldaketa eta iharduera guztia. Zenbait intsekturen antolamendu sozial ospetsuak instintuak sortuak dira erabat. Bestalde, animalia bat zenbat eta gorago kokatua dagoen garapen- eskalan, orduan eta handiagoa da haren ekintza ereduaren malgutasuna eta ezosoagoa haren moldaketa estrukturala, jaiotunean ager-

tzen den bezala. Garapen honek bere gailurra gizakumearengan jades- ten du. Berau da, jaiotorduan, animalia guztietatik babesgabeena. Natu- rarekiko bere moldaketa batez ere ikas-prozesuan oinarritzen da eta ez instintuen erabakian. «Instintua... goiko forma zoologikoetan, bereziki gizakiarenean, murriztuz, ezabatuz ez bada, doan kategoria da.»¹³

Giza existentzia, instintuek ekintza finkatzerik eza maila batetik gorakoa denean hasten da; naturarekiko moldaketak izaera behartzailea galtzen duenean; iharduteko modua jada heredentziazko mekanismoek finkatua ez denean. Bestela esanda, «giza existentzia eta askatasuna bereizezinak dira hasiera-hasieratik.» Hemen askatasunaren nozioa ez da erabiltzen «askatasuna zerbaitetarako»-k duen zentzu positiboan, ezpa- bere «askatasuna zerbaitetatik»-ek duen zentzu negatiboan, erran nahi baita, ihardunaren askapena instintuen erabakipetik.

Askatasuna, aztertu berri dugun zentzuan, dohai anbigua da. Gizakumea animaliak badaukan iharduera egokirako ekipamendu barik jaiotzen da, animaliak, oster, baduen ekipamendua delarik berau¹⁴; gura- soen beharra dauka beste edozein animaliak baino luzaroago eta inguru- nearekiko bere erreakzioak ez dira instintuak automatikoki erregulaturiko erreakzioak bezain azkar eta eraginkorrak. Instintuzko ekipamendurik ez honek dakartzan arrisku eta beldur-mota guztiei egin behar die aurre. Eta, hala ere, desanparo hauxe da giza garapena ematen duen iturria; «gizakiaren ahulezia biologikoa da giza kulturaren baldintza».

Bere existentziaren hasieratik gizakumeak ekinbide ezberdinen artean aukera egitera beharturik aurkitzen du bere burua. Animaliarengan estimulu batez (gosea, adibidez) hasten den etengabeko ekintza-ka- tea bat gertatzen da eta ekinbide hertsiki edo zabalkixeago zedarrirituan bukatzen da, zeinak estimuluak sorturiko tentsioa ezabatzen duen. Gi- zonarengan katea hau eten egiten da. Badu estimulua, baina berau ase- tzeko bidea «irekita» mantentzen da, hots, aukera egin behar du ekinbi- de diferenteen artean. Gizakumeak, instintuzko ekintza predeterminatu bat barik, har ditzakeen ekintza ezberdinak balioetsi behar ditu bere bu- ruan; pentsatzen hasten da. Aldarazi egiten du naturaren aurrean duen papera, moldatze pasibo hutsetik aktibora iraganez: sortu egiten du. Tresnak asmatzen ditu, eta natura menderatu ahala, gero eta gehiago be- reizten da hartatik. Bere buruaren —edo bere taldearen, hobeto— kon- tzentzia ilun bat doa hartuz, naturarekin identifikagarri ez den izaki de- nez. Konturatzen da patu tragikoa egokitu zaiola: naturaren osagai izan

eta hala ere hura harainditu. Azken patutzat heriotza duela ohartzera iristen da, askotariko fantasiez hura ukatzen saiatu arren.

Gizakia eta askatasunaren arteko oinarritzko erlazioaren irudi bereziki esanguratsu bat, gizakumea Paradisutik irazitzearen mito biblikoak eskaintzen digu.

Mito honek hautapen-egintza batekin egiten du bat giza historia-ren hasiera, baina lehenengo egintza libre honen bekatuzko izaera eta dakarren sufrimendua azpimarratzen ditu bereziki. Gizona eta emakumea elkarren arteko eta naturarekiko harmonia bete-betean bizi dira Edeneko Jardinean. Bakea dute eta lan egin beharrik ez; ez dute aukeratu beharrik, ez askatasunik, ezta pentsamendurik ere. Debekaturik dauka gizakiak on eta txarraren ezagueraren zuhaitzetik jatea. Baina Jainkoaren aginduaren aurka jokatzeko du, bera ere harainditu gabe zati duen naturarekiko harmoni egoera gain-hautsi egiten du. Agintea erreprezentatzen duen Elizaren ikuspuntutik egintza hau funtsean bekatu da. Baina gizakiaren ikuspuntutik giza askatasunaren hasiera da. Jainkoaren aginduen aurka jokatzeko hertsaduratik askatzea esan nahi du, pregizaki-bizitzatik giza mailara jalgitzea. Agintariaren manuairen kontra jokatzeko, bekatu egitea, bere giza alderdi positiboan, lehenengo askatasun egintza da, hots, lehenengo «giza» egintza. Mitoaren arabera, bekatua, beronen aspektu formalean, ezagueraren zuhaitzetik jatea da. Desobedientzi-egintza, askatasun-egintza denez, arrazoimenaren hasiera da. Mitoak lehenengo askatasun-egintzaren beste ondorio batzuk aipatzen ditu. Gizakiaren eta naturaren arteko jatorritzko harmonia hausten da. Jainkoak gizon eta emakumearen arteko, gizakume eta naturaren arteko gerra aldarrikatzen du. Gizakumea bereizi egin da naturarengandik, lehen urratsa eman du gizagintzarantz «gizabanako» bilakatuz. Lehenengo askatasun-egintza burutu du. Mitoak hemendik sortzen den sufrikarioa azpimarratzen du. Natura harainditzean, beronengandik eta beste giza-kiengandik inorentzean, gizakumea biluzik, lotsaturik aurkitzen da. Bakarririk eta libre dago, baina ikaratsu eta baliaezin, hala ere. Askatasun konkistaberria madarikazioa bailitzen agertzen zaio; askatu da Paradisuko lokarri eztietatik, baina ez da libre bere burua gobernatzeko, bere gizabanakotasuna gauzatzeko.

«Zerbaitetatik askatzea» eta askatasun positiboa edo «zerbaitetarako askatzea», ez dira gauza bera. Gizakumea naturarengandik jalgitzea luzaz hedatzen den prozesua da; zati handi batean jalgi izan den

munduari lotuta dirau oraindik, naturaren zati izaten segitzen du: bizi den lurraren, eguzkiaren, ilargi eta izarren, zuhaitz eta loreen, animailen, eta odolezko loturaz batuta dagoen jende-taldearen zati. Hasierako erlijioek gizakiak naturarekin zeukan erabateko batasunaren lekukotasuna eskaintzen dute. Natura bizidun eta bizigabea haren giza muduaren zati da, eta, beste era batera formula daitekeen bezala, gizakia mundu naturalaren osagai da.

Lotura primariook giza garapen osoa galeratzen diote; bidea ixten diote haren arrazoimenaren eta kritika-ahalmenaren bilakaerari; klanean, gizarte— edo erlijio-komunitatean duen partaidetzaren bitartez soilik uzten diote bere burua eta besteak ezagutzen, eta ez gizakia delako; bestelako hitzez, gizabanako libre, sortzaile eta autoderminatzaile gisa garatzen galeratzen diote. Baina ez da hau aspektu bakarra, badago beste bat ere. Natura, klan edo erlijioarekiko identitate honek, segurtasun indibiduala ematen du. Osotasun egituratu batekoa da, bertan susturaturik dago, inork eztabaidatzen ez duen lekua duelarik bertan. Paira dezake gosea edo asebidetaren errepresioa dela eta, baina ez min okerrean den erabateko bakardadea eta ezbaia dela eta.

Horrela bada, ikusten dugu giza askatasunaren hazkunde-prozesuak gizabanakoaren hazkunde-prozesuan hauteman dugun izaera dialektiko bera duela. Alde batetik, haren indar eta integrazioaren, naturarekiko duen domeinuaren, haren arrazoimenaren ahalmenaren eta beste gizakumeekin duen solidaritatearen hazkunde-prozesua da. Baina, beste aldetik, gizaletze hazkor honek, gizabanakoaren segurtasun ezaren eta isolamenduaren apurka-apurkako areagotzea esan nahi du, eta, ondorioz, gero eta handiago bihurtu ohi zaion zalantza bat unibertsoan berak duen eginkizunaz, bere bizitzaren esanahiaz, eta guzti honekin batera, gizabanako denez gero eta handiagotuz doakion bere buruaren ezintasun eta ezereztasunaren sentimendua.

Gizateriaren garapen-prozesua harmoniatsua izan balitz, egindako planen baten bideari jarraitu izan balio, orduan prozesuaren aspektu biak —indarraren gehikuntza eta gizaletzearen areagotzea— doi-doi orekatuko ziratekeen. Baina, egiaz hitz eginda, gizateriaren historia gatazka eta burrukaldiz bete da. Gizaletze gradu handiagorantz egindako urrats bakoitzak ez-segurtasun berriz mehatxatzen du jendea. Behin lokarri primarioak moztuz gero, ezin dira atzera berriro lotu; behin paradisuak galduz gero, ez du gizakiak atzera bertara itzultzetik. Litekeen so-

luzio sortzaile bakarra dago gizakume gizaletuaren eta munduaren arteko harremanarentzat: bere solidaritate aktiboa gizakume guztiekin, eta bere oldezko iharduera, maitasuna eta lana, hauek hura berriz munduarekin batzen dutelarik, ez lokarri primarioen bidez, gizabanako libre eta independente gisa baizik.

Hala ere, gizakiaren gizaletze-prozesu guztia araberatzen duten baldintza ekonomiko, politiko eta sozialek gizabanakotasuna seinalaberrri den zentzuan gauzatzeko oinarririk eskaintzen ez badute, eta aldi berean jendeak segurtasuna zemaio ten lokarriak galdu baditu, ez-sinkronia honek askatasuna zama pairagaitz bihurtzen du. Askatasuna, orduan, ezbaiarekin eta esangurarik eta norabiderik gabeko bizitzarekin identifikatzen da. Era honetan joera bortitzak sortzen dira, gizakumea horrelako askatasunari ihes egitera daramatenak, menekotasunean eta segurtasunik eza leuntzeko promesa eskainiko dion gizakiarekiko eta munduarekiko harreman-motaren batean aterpea bilatzeko, nahiz eta gizabanakoa askatasunez gabeturik utzi.

Europar eta amerikar historia Erdi Aroaren azkenalditik gizabanakoaren jalgieraren historia besterik ez da. Italian Errenaisantzarekin hasten den prozesua da eta oraintxe bakarrik garabete dela dirudiena. Lau mende baino gehiago behar izan ziren erdi aroko mundua suntsitu eta herria murrizketa nabarmenenetik askatzeko. Baina, gizabanakoa aspektu askotan hazi egin bada ere, mental eta emozionalki garatu eta lehenago inoiz ez bezala kultur konkistetako partaide bada ere, «zerbaite-tatiko askatasunetik» «zerbaitetarako askatasunera» dagoen tartea ere handitu egin da. Lotura guztietatik askatzearen eta askatasun eta gizabanakotasuna positiboki hezurmamitzeko ahalbiderik ezaren arteko desproporzio honek, askatasunari izuz ihes egitera eta beronen orde z katea berriak edo erabateko soraiotasun-jarrera, bederen, norbereganatzera eraman du Europako jendea.

Gizakumearentzat askatasunak duen esanahiaren estudioa Erdi Aroko eta Aro Modernoaren hasierako europar kultur eskenaren analisiarekin hasiko dugu. Aldi honetan mendebaldeko gizartearen ekonomi oinarriak errotiko aldaketak izan zituen, eurokin batera giza nortasunaren egituraren ere berauek bezain errotikoak ziren eraldakuntzak gertatu zirelarik. Askatasunaren kontzeptu berri bat garatu zen orduan, bere adierazpide ideologiko esanguratsuenak erlijio doktrina berrietan aurkitu zituen: Erreformakoetan. Gizarte modernoko askatasunaren edozein

azterlan, kultura modernoko zimentarriak jarri ziren aldi hartan hasi beharra dago, zeren gizakume modernoaren hezurmamitzaile den etapa honek, aukera eman behar digu, geroagoko edozein aldik baino argitasun handiagoz kultura honen bitartez martxan jarri behar zuen askatasunaren esanahi anbiguo hura ezagutzeko: alde batetik, gizakumearen independentzia hazkorra kanpoko aginteen aurrez aurre, eta bestetik, bere isolamendu hazkorra eta hemendik sortzen den sentimendua: gizabanakoaren baliogabetasuna eta indargabetasuna. Giza nortasunaren egituraren elementu berriei buruz guk daukagun ezagutza hazi egiten da haien sorreraren ikerketari esker, zeren, kapitalismoaren eta indibidualismoaren ezaugarriak barru-barrutik aztertzean, guretik funtsean ezberdinak diren ekonomi sistema eta nortasun-mota batekin berauek konparatzeko baldintzetan jartzen baikara. Kontraste beronek perspektiba hobea eskaintzen digu gizarte-sistema modernoaren berezitasunak aditzeko, hau da, bertan bizi den jendearen karaktere-egitura nola taiutu duen eta nortasunaren eraldakuntza honetatik atera den izpiritu berria uler dezagun.

Hurrengo kapituluak erakutsiko digu, baita ere, Erreforma-garaia lehen ikusian eman lezakeen baino gure aldiaren antzekoagoa dela; izan ere, aldi bien artean dauden begibistako alde handiak gorabehera, ez da seguraski izango XVI. mendetik hona askatasunaren esangura anbiguoari dagokionez gurearen antzekoagoa datekeen garairik. Erreforma, giza askatasun eta autonomiaren ideien erroetariko bat da, berau demokrazia modernoan adierazten den bezala. Hala ere, alderdi hau beti azpimarratzen bada ere, herri ez-katolikoetan batez ere, ahantzi egiten da beronen beste aspektua: giza izaeraren gaiztotasunari, gizabanakoaren ezerez eta ezintasunari eta beronek duen kanpoko botere baten pean bere burua jartzeko beharrianari ematen dion garrantzia. Gizabanakoaren ezduintasunaren ideia hau, bere buruarenganako konfidantza izateko duen funtsezko ezgaitasuna eta inoren menpean jarri behar hau, hitlertar ideologiaren gai nagusia ere bada, zeinak, bestalde, ez dien ematen askatasunari eta printzipio moralei protestantismoak muineko duen inportantzia.

Antzekotasun ideologiko hau ez da, gure garaietako eskena ulertzeko, XV. eta XVI. mendeen estudioa abiapuntu bereziki emankor bihurtzen duen bakarra. Gizarte-egoeran ere funtsezko antza dago. Saia-tuko naiz agertzen antz hau nola den antzekotasun ideologiko eta psikologikoaren erantzule. Orduan gaurregun bezala biztanleriaren zati handi

bat aurkitzen zen beren bizimolde tradizionaletan mehatxaturik, antolakuntza ekonomiko eta sozialean izandako aldaketa iraultzaileen aldetik; batipat erdiko klaseak zekusan, gaurregun bezala, bere burua monopolioen botereak eta kapitalaren indar handiagoak mehatxaturik, eta mehatxu honek efektu garrantzitsua eragiten zuen gizarteko sektore mehatxatuaren izpiritu eta ideologiaren baitan, gizabanakoaren bakardade eta ezereztasun-sentimendua areagotzean.

III

ASKATASUNA

ERREFORMA-GARAIAN

1. Erdi aroko gizartea eta errenaisantza

Erdi Aroaren irudia¹⁵ bi eratara izan da deformatua. Arrazionalismo modernoak Erdi Aroa garai funtsean iluntzat hartu izan du. Hartaz seinalatu du askatasun pertsonalik ez orokorra, populazioaren gehiengoa gutxiengo txiki batek esplotatu izana, hiri inguruko baserriarra —beste nazio batzuetako pertsonak, zer esanik ez— hiriko biztanlearen begietarako arrotz susmagarri eta arriskutsu bihurtzen zuen kamustasuna, eta orduko sineskeria eta ezjakintasuna. Beste aldetik, Erdi Aroa idealizatu egin dute batez ere filosofo atzerakoiek eta kasu batzuetan baita kapitalismoaren kritiko aurrerazaleek ere. Honako hauek seinalatu izan dira, solidaritate zentzua, premia ekonomikoak giza beharri-zanen menpean izana, gizakumeen arteko harremanen arteztasun eta konkretutasuna, Eliza katolikoaren printzipio supranazionala eta Erdi Aroko gizakumearen ezaugarri den segurtasun-sentimendua. Irudi biok zuzenak dira: oker bihurtzen dituen biotako bat bakarrik aintzat hartzea eta bestearen aurrez begiak ixtea da.

Erdi Aroko gizartearen ezaugarri dena, Aro Modernoarekiko kontrastean, askatasun indibidualik eza da. Lehenengo aroan, denak euren eginkizunari kateaturik zeuden ordenu sozialaren barruan. Gizakumeak klase sozial batetik bestera aldatzeko aukera motza zuen, eta geografikoki ere nekez alda zitekeen hiri batetik bestera edo nazio batetik bestera. Salbuespen gutxi batzuk salbu, jaio zen herrian geratu beharra zuen. Maiz ez zeukan askatasunik ez nahi zuen moduan janzteko ez nahi zuena jateko. Artisauak prezio jakinean saldu behar zuen eta nekazariak ere leku jakinean, hiriko merkatuan. Ermandate bateko kideak debekatua zuen produkzioko sekretu teknikorik bertako kide ez zen inori ezagutaraztea, eta beharturik zegoen bere ermandate-lagunei lehen-gaien erosketa abantailatsu orotan partaide izaten uztera. Bizitza pertso-

nala, ekonomikoa eta soziala, praktikan iharduera-eremu bat ere kanpoan uzten ez zuten arau eta betebeharren pean zegoen.

Baina pertsona zentzu modernoan aske ez zen arren, ez zegoen ez bakarrik ez isolaturik. Jaiotzatik, mundu sozialean leku zehatz, aldezin eta eztabaidagaitz bat izatean, gizakumea osotasun egituratu batean erroturik zegoen, eta horrela bizitzak ezbairako ez lekurik ez beharriarik uzten ez zuen esangura zeukan. Pertsona gizartean zeukan paperarekin identifikatzen zen; nekazaria, artisaua, zalduna... zen eta ez lanbide hau edo bestea edukitzea «gertatu zitzaion» gizabanako bat. Ordenu soziala ordena natural bat bailitzen bururatzen zen eta beronen zati definitu bat izateak segurtasun eta bertakotasun-sentimendua zemaion gizakumeari. Lehia gutxi zegoen konparatiboki. Ekonomi egoera batean jaiotzen zen eta honek tradizioak ezarritako bizimaila bat bermatzen zuen, goragoko hierarkia sozialari zenbait betebeharrak ekonomiko jakin zekarkion bezalaxe. Baina bere gizarte-esferaren muga barruan, gizabanakoak askatasun handia zeukan egiatan, bere nia bere lanean eta bere sentimendu-bizitzan adierazteko. Bizimolde posible askoren artean mugarik gabeko aukeramenaren (oso abstraktua den aukera-askatasunaren) esanahi modernoko indibidualismorik ez zegoen arren, bazegoen, gradu dexentean egon ere, «indibidualismo konkretua bizitza errealearen barruan».

Sufrikarioa eta atsekabea ugari zeuden, baina hantxe zegoen Eliza ere eroangarriago bihurtzen zituena, Adanen bekatuaren eta gutariko bakoitzaren bekatuen ondorio zirela esplikatuz. Elizak, erru sena sustatzearekin batera, bere seme-alaba guztiei zien baldintzarik gabeko maitasuna segurtatu ere egiten zion gizabanakoari eta Jainkoak maite zuela eta barkatzen ziola uste osoz sinestera iristeko modua eskaini ere bai. Jainkoarekiko harremanak konfidantza eta maitasunezkoak ziren, beldur eta zalantzazkoak baino areago. Nekazaria eta hiriko bizilaguna euren zuten geografi esparrutik nekez haragotzen ziren bezalaxe, unibertsoa ere mugatua eta ulerterraza zen. Lurra eta gizakumea ziren orduko erdigune, zerua eta infernua geroko bizileku, eta sortzetik heriotzara arteko egintza guztiak gardenak ziren euren elkarreragin kausalean.

Hala ere, nahiz eta gizartea honela egituraturik egon eta gizakumeari segurtasuna eman, morrontzapean ere bazeukan. Geroagoko mendeetan, autoritarismoaren eta opresioaren ondorioz, sortu zen morrontzatik diferentea zen hau. Erdi Aroko gizarteak ez zion gizabanakoari

askatasuna kendu, «gizabanakorik» ez baitzen oraindik; gizakumea munduari lotuta zegoen oraindik bere lokarri primarioez. Ez zeukan bere burua gizabanakotzat, bere eginkizun sozialari (orduan naturala ere zuenari) zegokionez izan ezik. Beste ezein pertsona ere ez zeukan «gizabanakotzat». Hirira iristen zen baserritarra arrotza zen, eta hiri beraren barruan ere talde sozial ezberdinek arrotzat zeuzkaten beste taldeak. Oraindik ez zen ni indibidualaren, bestearen eta munduaren kontzientziarik entitate banandu gisa garatu.

Erdi Aroko gizarteko gizabanakoaren autokontzientziarik ezak adierazpide klasikoa aurkitu du Jakob Burckhardt-ek damaigun Erdi Aroko kulturaren deskribaketan:

«Erdi Aroan giza kontzientziaren alderdi biak —barrurantzkoa eta kanporantzkoa— lozorroan datzate edo loitzarrik, belo beraren azpian biak. Fedez, ilusioz eta haur-aiherrez ehunduriko beloa, beloartetik fiabardura estrainioz ikusten zirelarik mundua eta historia. Gizakumea, enda, herri, partidu, familia edo ermandate bateko kide zenez soilki zen bere buruaz kontziente: kategoria orokor baten bidez soilki.¹⁶»

Gizartearen egitura eta gizakumearen nortasuna aldatu egin ziren Erdi Aroaren azkenaldian. Erdi Aroko gizartearen batasuna eta zentralizazioa ahulduz joan ziren. Garrantzi handiagoa hartu zuten kapitalak, ekimen ekonomiko indibidualak eta konkurrentziak; klase berri dirutsu bat garatu zen. Indibidualismo hazkorra hauteman zitekeen klase sozial guztietan eta giza ihardueraren arlo guztiak jotzen zituen: gustua, moda, artea, filosofia eta teologia. Azpimarratu nahi nuke hemen prozesu guzti honen esanahi diferentea zuela kapitalista aberats eta prosperoentzat alde batetik, eta bestetik, baserritar— masentzat eta bereziki erdiko klase hiritarrarentzat, zeinari garapen berri honen puntu bateraino aberastaserako ahalbidea eta ekimen indibidualerako aukerak zekarzkie, baina baita funtsean bere tradiziozko bizimoldearekiko mehatxua ere. Garrantzizkoa da oraindik buruan grabatzea ezberdintasun hau, beronek determinatuta geratu baitziren talde ezberdinon erreakzio psikologiko eta ideologikoak.

Bilakaera sozial eta ekonomiko berria Italian gauzatu zen mendeetan eta erdialdeko Europan baino intentsitate handiagoz eta filosofia, arte, eta bizi-tankerarekiko eragin handiagoz. Italian, lehenengo al-

diz, jalgi zen gizabanakoa Erdi Aroko gizartetik eta hautsi zituen segurtasuna emanarekin batera mugatu ere egina zuten kateak. Errenaisantzako italiarra, Burckhardten hitzetan, «Europa modernoaren seme-alabetan lehenume», lehen gizabanako bilakatu zen.

Erdi Aroko gizartea Italian Erteuropan eta mendebaldekoan baino lehenago gainbehera etorri izana, zenbait faktore ekonomiko eta politikoren ondorio izan zen. Euron artean zeuden Italiaren kokaera geografikoa eta horri zerizkion merkatal abantailak, Mediterraneo Europako merkatal biderik printzipalena zen aldi hartan; aitasaindu eta enperadorearen arteko liskarrak, unitate politiko independente ugari izatea ekarri zutenak; Ekialdearen hurbiltasuna, honen ondorioz, Italian Europako inon baino lehenago sartu zirelarik industrien garapenerako, hala nola, adibidez, zetarenerako, inportanteak ziren trebetasunak.

Baldintza hauen eta beste batzuen ondorioz, Italian dirudun klase boteretsu bat sortu zen, beronetako kideek ekimen-izpirituak, botereak eta handinahiak bultzatuta zihardutelarik. Erdi Aroko klase estratuztapen sozialak garrantzia galdu zuen. XII. mendean geroztik aitonen semeak eta burgesak elkarrekin bizi izan ziren hirietako harresien barruan. Gizarte harremanetan kastazko bereizpenak galduz joan ziren. Jaiotetxea eta etorkia aberastasuna baino garrantzi gutxiagoko bilakatu ziren.

Bestalde, masen artean ere ahuldua zen estratuztapen tradizionala. Beronen orde, langile hustiratu eta botere politikoz gabetuen masa urbano bat aurkitzen dugu. 1231.n jada, Burckhardtek seinatzen duen bezala, Federiko II.aren neurri politikoez honako honetara bideratuta zeuden, hots, «Estatu feudalaren erabateko suntsipenera, herria jendetza bilakaraztera, erresistentziarako ez gogo ez bitartekorik gabekoa, baina fiskurako probetxagarri izango zena.¹⁷

Erdi Aroko gizarte-egituraren apurka-apurkako suntsipen honen emaitza, gizabanakoaren jalgipena, zentzu modernoan, izan zen. Berriro ere Burckhardten aipua egingo dugu:

«Italia izan zen hain zuzen ere belo hau (fedezkoa, ilusiozkoa eta haur-aiherrezkoa) lehenik ezabatu zen lekua; posible bihurtu zen Estatua eta mundu honetako gauza guztiak “objektiboki” tratatu eta kontsideratzea. Aldi berean, alderdi “subjektiboari” ere dagokion garrantzia eman zitzaion; gizakumea “gizabanako” izpiritual bilakatu zen eta hartakotzat hartu zuen bere burua. Horrelaxe, behinola, bereizi izan ziren greziarrak barberoengandik, eta arabiarrek gizabanako

sentitu izan ziren, gainerako asiarrek beren burua enda bateko kide-tzat soilik hartzen zuten garaian.»¹⁸ Burckhardtek egiten duen gizabanako berriaren izpirituaren deskribaketak ongi ilustratzen du aurreko kapituluan gizabanakoa bere lokarri primarioetatik jalgitzeari buruz azaldu duguna. Gizakumeak bere burua eta besteak gizabanakotzat, entitate bereizitatzat aurkitzen ditu, izaki bereizi bezala; natura bere buruarengandik diferentea den zerbaitzat aurkitzen du bi aspektutan: menderagai teoriko eta praktikotzat eta, duen edertasunarengatik, gozagaitzat. Mundua aurkitzen du praktikoki, kontinente berriak aurkitzean, eta izpiritualki, izpiritu kosmopolita garatzean, Danteri «Nire aberria mundu osoa da» esanarazi zion izpiritua.¹⁹

Errenaisantza klase aberats eta boteretsu baten kultura izan zen, ekonomi indar berrien ekaitzak altxaturiko olatuaren lepagainean kokatua. Masak, gobernuan zegoen taldearen aberastasun eta boterearen partaide ez zirenez, galdu egin zuten lehengo egoerak ziurtatzen zien segurtasuna eta moltzo itxurga bihurtu ziren, losintxa edo mehatxu jasotzaile, baina beti ere boterea zeukatenen maneiukeriaren eta hustirapenaren biktima. Indibidualismo berriaren alboan despotismo berri bat sortu zen. Horrela askaezinki txirikordatuta zeuden askatasuna eta tirania, gizabanakotasuna eta desordenua. Errenaisantza ez zen merkataritxikien eta burjes txikien kultura izan, aiton seme edo hiritar aberatsena baizik. Zuten ekonomi iharduerak eta aberastasunak, askatasun-sentimendua eta gizabanakotasun-sena zemaleten. Baina jende beronek, aldi berean, galdua zuen zerbait: Erdi Aroko gizarte-egiturak eskaintzen zuen segurtasuna eta norbera nonbaitekoa zelako sentimendua. Librea gozaren, baina aldi berean bakarrago aurkitzen ziren. Beren botere eta aberastasunaz baliatu ziren bizitzako plazerrei azken tantaraino gozamina ateratzeko; baina, hori egiteko, bitarteko guztiak gupidagabeki erabili behar zituzten, tortura fisikotik maneiukeria psikologikorainokoak, masak gobernatu eta beren klasearen baitako lehiakideak azpiratzeko. Giza harreman guztiak pozoindu zituen hil ala biziko burruka krudel honek, botereari eta aberastasunari eusteko. Beste gizakumeenganako elkarkidetasuna —edo norberaren klasekoenganakoa, bederen— jarrera zinikoa eta soraiok ordeztu zuten; beste gizabanakoak erabiliak edo maneiatuak izateko «objektutzat» hartzen ziren, edo errukirik gabe suntsitzen zituzten, nork bere helburuak lortzeko hori egitea komeni izanez gero. Gizabanakoa egozentrismo amorratuak, betezin asegaitez hartuta zegoen. Guzti honen ondorioz gizabanako arrakasta-

tsuaren eta bere niaren arteko harremanak eta zeukan segurtasun eta konfidantza-sena ere pozoinduta geratu ziren. Bere burua ere meneiagai bihurtu zitzaion beste pertsonak bezalaxe. Badugu arrazoirik dudak jarzeko Errenaisantzako kapitalismoko jaun boteretsu haiek maiz deskribatu izan diren bezain zoriontsu eta seguru sentitu izan ote ziren. Badi-rudi askatasun berriak bi gauza eman ziela: indar-sentimenduaren gehikuntza, eta honekin batera, isolamendua, zalantza eta eskeptizismo hazkorra²⁰ eta, guzti honen ondorioz, larritasuna. Filosofo humanisten idazlanetan aurkitzen dugun kontraesan berbera da hau. Giza duintasunari, gizabanakotasunari eta indarrari ematen zioten garrantziarekin batera, segurtasunik eza eta desesperoa erakutsi zuten beren filosofian.²¹

Azpiko segurtasunik ez honek, gizabanakoa mundu etsai batean isolaturik egotearen ondorio denak, arrastoa ematen du Errenaisantzako gizabanakoaren karaktere-ezaugarri bat, Burckhardtek seinalatu zuen bezala²², izan zena esplikatzeko, berau ez delarik aurkitzen, intentsitate berdinez bederen, Erdi Aroko gizarte-egiturako kidean: haren famagose amorratua. Bizitzaren esangura dudazko bilakatu bada, besteeziko eta norberaren buruarekiko harremanek segurtasunik jada eskaintzen ez badute, orduan fama nork bere zalantzak isilarazteko bide da. Piramide egiptoarrek eta kristauak hilezkortasunean zuten fedearekin konparatzeko funtzioa du; gizabanakoaren bizitza indibiduala, dituen mugapen eta ezegonkortasunetik gora, suntsiezintasunaren planoraino altxatzen du; garaikideek gure izena badazagute eta ezagutza horrek mendez mende iraungo duen esperantza izateko modurik badago, orduan gure bizitzak zentzua eta esangura hartzen du besteen erizpenetan isladatze hutsarengatik. Gizabanakoaren segurtasunerako aterabide honek, bidezko denez, fama jadesteko bitarteko efektiboak zituen talde sozialarentzat bakarrik balio zuen. Ez zen kultura berorretako masa ahalgeentzat balio zezakeen soluziobidea, ezta Erreformaren oinarri izan zen erdiko klase hiritarrarengan aurkituko dugun aterabidea ere.

Errenaisantza eztabaidatzetik hasi gara, garai honetantxe izan zuelako hasiera indibidulismo modernoak, eta baita ere garai honen historialariek egindako lanak argi pixkat egiten dielako, hain zuzen ere, azterlan honetan aztertzen den prozesu printzipalerako esanguratsua diren faktoreei, hau da, gizakumearen jalgitzea existentzia preindibidualistik, izaki bereizi denez bere buruaren kontzientzia osoa hartu zenerakorantz. Baina Errenaisantzako ideiek europar pentsamenduaren

geroagoko garapenean eragina izan bazuten ere, kapitalismo modernoaren funtsezko sustraiak, ekonomi egitura eta izpiritua, ez dira bilatu behar Behe Erdi Aroko italiar kulturaren, Erteuroparen eta mendebaldekoaren egoera ekonomiko eta sozialean eta Lutero eta Kalvinor doktrinatan baizik.

Kultura bion arteko ezberdintasun nagusia honako hauxe da: Errenaisantzako garaiak kapitalismo industrial eta komertzialaren garapen-gradu konparatiboki altua erakutsi izan zuen; gizabanako aberats eta boteretsuen talde txiki batek arautu eta taiutu zuen filosofo eta artistentzako oinarri soziala, berauek izan zirelarik kultura honen izpiritua adierazi zutenak. Erreforma, bestalde, erdiko klase hiritarraren eta behekoen eta baseritarren erlijioa izan zen funtsean. Alemaniak ere bazituen bere negoziogizon aberatsak, Fuggers-tarrak bezalakoak, baina erlijio-doktrina berriak ez zitzaizkien hauei interesatzen, eta ez ziren berauek izan kapitalismo modernoak garatzeko behar izan zuten zimentaria. Max Weberrek erakutsi zuen bezala, erdiko klase hiritarra izan zen Mendebaldeko munduko garapen kapitalista modernoaren oinarria.²³ Mugimendu bion substratu sozialean dagoen erabateko ezberdintasuna kontutan izanda, suposatu beharra daukagu Errenaisantza eta Erreformako izpiritua ezberdinak izan zirela²⁴. Lutero eta Kalvinor teologia eztabaidatzean, diferentzietako batzuk agertuko dira implizituki. Gure arreta honako problema honetara fokatuko dugu, hots, lokarri indibidualetatik askatzeak nolako eragina izan zuen erdiko klase hiritarraren karaktere-egituraren ikustera; saiatuko gara agerian jartzen protestantismoa eta kalbinismoa, askatasun-sentimendu berri bat adierazi bazuten ere, askatasunaren zamari ihes egiteko era bat izan zirela.

Lehenik, Europako egoera ekonomiko eta soziala zein izan zen aztertuko dugu, bereziki erdialdeko Europakoa, XVI. mendearen hasieran, eta gero aztertuko dugu zein izan ziren egoera honek ekarritako ondorioak garai honetan bizi izan ziren gizakumeen nortasunarekiko, zernolako zerikusia izan zuten Lutero eta Kalvinor doktrinak faktore psikologiko hauekin eta zein izan zen erlijio-doktrina berriok kapitalismoaren izpirituarekin izan zuten erlazioa.²⁵

«Erdi Aroko gizartean» hiriaren ekonomi antolakuntza erlatiboki geldikorra izan zen. Artisauak, Erdi Aroaren azken alditik ermandateetan elkaturik zeuden. Maisu bakoitzak apendiz bat edo bi zeukan eta maisuen kopurua, hein batean, komunitatearen beharizanezkoa zen.

Beti ere bazegoen arren bizitzeko lain irabazteko gogor burukatu beharra zuen baten bat, jeneralean ermandateko kidea ziur egon zitekeen bere lanaren fruitutik bizi ahal izango zela. Aulki, zapata, ogi, zela ... onak eginez gero, horixe zen bere egoera sozialari tradizionalki esleituriko mailaren barruan arriskurik gabe bizi izateko behar zuen guztia. Izan zezakeen konfidantza bere «egintza onetan», esamolde hau esanahi teologikoan barik zentzu ekonomiko xehean erabiliz. Ermandateek beren kideen arteko konkurrentzia serio oro galerazten zuten eta lehen-gaien erosketa, produkzio-teknika eta ekoizkineen prezioen alorrean elkarlanera behartzen zituzten. Erdi Aroko bizitza osoarekin batera ermandate-sistema idealizatzeraz dagoen joerarekin kontraesanean, idazle batzuek seinalatu izan dute ermandateek beti izan zutela monopolista-kutsua, talde txiki bat babesten saiatzen zena sarberriak kanpoan utziz. Autorerik gehienak, hala ere, bat datoz honako hau onartzean, ermandateen idealizazio oro ekidinda ere, elkarlaguntzan oinarrituta zue-dela eta segurtasun erlatiboa eskaintzen ziela kideei.²⁶

Erdi Aroko «merkatalgoa», Sombartek seinalatu duen bezala, merkataritza oso txiki askok gauzatzen zuen. Handizkako salmenta eta txikizkako salmenta ez zeuden elkarretarik bereiz, eta estranjeriara joaten ziren merkataritza ere, Alemaniako iparraldeko Hansako kideak bezala, txikizkako merkataritzan ari ziren oraindik. Kapitalaren metaketa ere oso astiro egiten zen XV. mendearen azkenaldera arte. Horrela merkataritza txikiak segurtasun-gradu dexentea zuen, Erdi Aroko azken aldiaren kapital handiak eta merkatalgo monopolistak garrantzi handia hartu zutenean gertatu zenarekin konparatuta. «Orain mekanikoa den zati handi bat», dio Tawney irakasleak Erdi Aroko hiri bateko bizitzari buruz, «pertsone-lan, barrukoa eta zuzena zen orduan eta ez zeukan han leku handirik gizabanakoei aplikatzen zaizkien eredu-erakunde handiegia den eskalako antolakuntzak, ezta, komenentzia ekonomikoa azken zurigarritzat erabiliz, eskrupuluak isilarazi eta kontu guztiak ixten dituen doktrinak ere»²⁷

Honek gizabanakoak Erdi Aroan zuen egoera ulertzeko funtsezko den kontu batera garamatza: «ekonomi ihardueri» buruzko «eritzi etikoei» dagokiena, eurok adierazten ziren bezala ez bakarrik Eliza katolikoaren doktrinatan, lege sekularretan ere baizik. Puntu honi buruz Tawneyen azalpena segitzen dugu, beronen jarrerak ezin sortu izan duenez gero Erdi Aroko mundua idealizatzen edo erromantikotzen duen susmorik. Bizitza ekonomikoari buruzko supostuak bi ziren: «Interes

ekonomikoak bizitzeko benetako negozioa den salbazioaren pean dardela, eta ekonomi jokabidea jokabide pertsonalaren alderdi bat dela, moralitasun-arauean pean dagoelarik hau ere beste alderdiak bezala.

Tawneyk honelaxe formulatzen du Erdi Aroan ekonomi ihardueri buruz zegoen eritziak: «Ondasun materialak beharrezkoak dira; bigarren mailako garrantzia dute, eurak barik gizakumeek ezin baitira bizi ez elkarri lagundu. Baina motibo ekonomikoak susmagarriak dira. Apetitu indartsuak direnez, gizakumeek euren beldur dira, baina ez dira apetituok txalotzeko bezain kaxkarrak ... Erdi Aroko teoriarik ez dauka lekurik xede moralen batekin loturarik ukan ez dezan ekonomi iharduerak, eta Erdi Aroko pentsatsaileak, dirua irabazteko irrika, beste indar naturalak bezalako indar iraunkor eta neurgarria dela, egitate ekidinezin eta berez ebidente den datu moduan onartu beharrekoa, dioen suposatuan oinarrituriko gizarte-zientziari irrazional eta inmoral zeritzokeen, belikostasuna eta instintu sexuala bezalako gizatasun beharrezkoen iharduera desgaltua gizarte-filosofiaren premisatza jartzeari bezain irrazional eta inmoral ia-ia. Aberastasunak, San Antoniok dioen bezala, gizakiarentzat dira eta ez gizakia aberastasunentzat... Txitean-pitean dira, beraz, mugak, murriztapenak, oharpenak..., ekonomi kontuek gairazo serioen baitan izan lezaketan interferentzia ororen aurka. Zilegi zaio gizakumeari bere posizio sozialari dagokion bizimailari eusteko behar dituen aberastasunak bilatzea. Hau baino gehiago bilatzea ez da saiatsu izatea, zikoitza izatea baizik, eta zikoizkeria bekatu astuna da. Merkatalgoa legezko da; herri diferenteetako baliabide natural ezberdinek Probidentziak hau aurikusia zuela erakusten dute. Baina kontu arriskutsua da. Ziur egon beharra dago onura publikorako dihardueta batek merkataritzan eta norbereganduriko irabaziak lanaren alokairua besterik ez direla. Jabetza pribatua beharrezko erakuntza da, mundu jausian bederen; gizakumeek lan gehiago egiten dute eta liskarrean gutxiago aritzen, ondasunak pribatuak direnean, komunak direnean baino. Baina jabetza pribatua giza ahuleziari egindako amore emate moduan toleratu beharrekoa da eta ez berezko on moduan desiragarritzat goraitua; ideala, gizakumeak bertara igoterik balu, komunismoa litzateke. «*Communis enim* —idazten du Gracianok bere «decretum»ean—, *usus omnium quae sunt in hoc mundo, omnibus hominibus esse debuit.*» Kasurik onenean ere ondasunak traba dira. Legezketasunez eskuratu behar dira. Ahalik eskurik gehienetan egon behar dute. Pobrean mantenua

hornitu behar dute. Euron erabilerak, burutu ahal den heinean, komuna izan behar du. Edukitsuak edukiak behartsuekin konpartitzeko gertu egon behar dute, hauek benetako errumestasunean aurkitu ez arren.²⁸

Eritziok arauak adierazi arren eta ekonomi bizitzaren errealtatearen irudi zehatza ematen ez duten arren, hein batean, hala ere, Erdi Aroko gizartearen benetako izpiritua islatzen dute.

Artisau eta merkatarien egoeraren egonkortasun erlatiboa, Erdi Aroko hiriaren ezaugarri zena, ahulduz joan zen poliki-poliki Behe Erdi Aroan, XVI. mendean erabat amildu zen arte. XIV. mendetik jada, edo are lehenagotik, hasia zen bereizketa hazkorra ermandateen baitan, eta aurrera egin zuen berau geratzeko ahaleginik asko egin zen arren. Ermandateetako kide batzuek beste batzuek baino kapital handiagoa zeukaten eta bospasei jornalari zituzten lanerako hartuta bat edo bi eduki beharrean. Handik lasterrera ermandate batzuek honenbesteko kapitala zeukatenak bakarrik onartzen zituzten. Beste gorporazio batzuk monopolio indartsu bilakatu ziren eta beren egoera monopolistatik ahal ziren abantaila guztiak berenganatzen eta kontsumitzailea ahalik gehien hustiratzen saiatu ziren. Beste alde batetik, gorporazioetako kide asko pobretu egin zen eta beren lan tradizionaletik kanpo bilatu behar izan zuten nolako edo halako irabazpideren bat, sarriaskotan merkataritxi akzidentalak izatera iritsiz. Eurotarik askok galdua zuten beren independentzia ekonomikoa eta segurtasuna, aldi berean independentzia ekonomikoaren ideal tradizionalari desesperatuki eusten saiatzen ziren bitartean.²⁹

Ermandate-sistemaren bilakaera honekin lotuta, jornalarien egoerak okerretik okerragora jo zuen. Italia eta Flandesko industrietan XIII. mendeaz geroztik jada edo are lehenagotik, langile klase deskonforme bat zegoen bitartean, jornalariaren egoera artisau-ermandateetan erlatiboki segurua zen oraindik. Jornalari oro iritsi zitekeela ugazaba izatera egia ez bazen ere, askok lortzen zuten hau. Baina ugazaba bakarraren menpeko langileen kopurua gehitu ahala, ugazaba izateko kapital handiagoa behar zen heinean eta ermandateek berenganaturiko izaera monopolista eta eksklusiboa areagotu ahala, beheraka zihoazen jornalariaren abagaduneak. Zuten egoera ekonomiko eta sozialaren txartzea, beren deskontentamendu hazkorrean, erakunde propioen antolaketan, huelgetan eta are matxinada bortitzetan agertu zen.

Ermandateen garapen kapitalista hazkorraz esan dena are begibistakoagoa da «merkatalgoari» dagokionez. Erdi Aroko merkatalgoa gehien-

bat hiriarteko negozio apal izana zen, baina XIV. eta XV. mendeetan azkar hazi zen nazio barruko eta nazioarteko merkatalgoa. Merkatal konpainia nagusien hasiera-uneari buruz historialariak ados ez badaude ere, bat datoz honako honetan, XV. mendean gero eta indartsuago bihurtzen ari zirela eta, kapital-indar handiagoa zeukatelako, bai merkataritxikia bai kontsumitzailea mehatxupean jartzen zuten monopolioetan garatuak zirela. Segismundo enperadorearen erreforma, XV. mendean, monopolioen boterea murrizten saiatu zen legeen bidez. Baina negoziogizon txikiaren egoera gero eta badaezpadaoago bihurtu zen; «ozta-ozta zuen bere kexak entzunarazteko eragina, baina inola ere ez ekintza efektiborik bultzatzeko»³⁰

Merkataritxiaren haserre eta sumina monopolioen kontra, Lutherrek adierazi zituen bokantzosi bere **Merkatalgoa eta lukurreriaz** folietoan³¹, 1524an inprimatua berau:

«Kontrolpean dituzte ondasun guztiak eta disimulurik gabe darbiltzate aipatu diren iruzur guztiak; salneurriak gogarara altxa zein jaisten dituzte, eta hertsatu eta porrot eragiten die merkataritxiki guztiei, lutxoak arrain txikiak jaten dituen moduan, Jainkoaren kreaturen jaun eta jabe bailiren hain zuzen ere, eta fedearen eta maitasunaren lege guztiei obeditu beharrik ez balute bezala.»

Gaur bertan idatzitakoak izan zitezkeen Lutherren hitzok. XV. eta XVI. mendean Erdiko klaseak monopolisten aurka zuen beldur eta sumina, gure garaian Erdiko klaseak monopolisten eta kapitalista ahaltsuen aurka duen jarreraren antzekoak dira aspektu askotan.

Kapitalak «industrian» zuen papera ere handiagoa zen. Adibide nabari bat meatzal industriarena da. Hasieran meatzal gorporazioko talde bakoitzak jasotako zatia berak egindako lanaren araberaoa zen. Baina XV. mende inguruan, partaidetzak, kasu askotan, lanean ari ez ziren kapitalistenak ziren, eta, gero eta neurri handiagoan, soldataz ordainuriko eta enpresan partaidetzarik ez zuten langileak ziren lanean zebiltzanak. Garapen kapitalista berbera gertatu zen beste enpresa batzuetan ere, eta gehitu egin zen artisauen ermandateetan eta merkatalgoan kapitalak zeukan paper gero eta handiagotik zetorren joera: aberats eta pobreen arteko gero eta alde handiagoa eta klase pobreen artean zegoen deskontentamenduaren areagotzea.

Baserritar jendearen egoerari dagokionez, historialarien eritziak ez datoz bat. Hala ere ondoren aipatzen dugun Schapiroren analisiak ba-

dirudi behar bezainbateko euskarria duela historialari gehienek aurkikundeetan.

«Oparotasun-froga hauek gorabehera, baseritarren baldintzak gero eta txarragoa zegiten azkarki. XVI. mendearen hasieran gutxi ziren, izan, berek landutako lurren jabe independenteak, lekuko dietetan ordezkariak zeukatenak, Erdi Aroan hau klase-independenti eta berdintasun-seinale zelarik. Gehien-gehienak "Hoerigeak" ziren, hau da, pertsonalki libreak ziren arren lurra zergapean zeuzkatenen klasekoak, gizabanakoek beharturik zeudelarik akordioaren arabera zenbait zerbitzu ematera ... "Hoerigeak" zen baseritarren mutin guztien bizkarrezurra. Erdiko klaseko baseritarra, zeina jauregiaren ondoan zegoen komunitate erdipendente batean bizi zen, konturatu zen zergen eta zerbitzuen gehikuntzak morrontza praktikozko egoerara zeramala bera eta baserriko herri-lurra, berriz, jaunaren feudoaren zati izatera.³²»

Zenbait aldaketa esanguratsu gertatu ziren «atmosfera psikologikoan» kapitalismoaren garapen ekonomikoarekin batera. Gerokotasun-izpiritu bat sartu zen jendearen bizitzan Erdi Aroaren azkenaldera, denboraren kontzeptua zentzu modernoan garatzen hasia zen bitartean. Minutuak baliozko bihurtu ziren; denboraren zentzu berri honen sintoma bat, Nurenbergen kanpaiek, XVI. mendean, ordu laurdenak jotzen hasi zirela da.³³ Jaiegun gehiegi izatea ezbehartzat jotzen hasi zen jendea. Hain zuen balio handia denborak, non jendea ohartzen hasi zen ez zela eman behar baliagarri ez zen ezertan. Lana balio goren, gero eta gorenago, bihurtu zen. Lanari buruzko jarrera berria hain indartsu gertatu zen, non erdiko klasea eliz instituzioen ekoizkortasun ezaren aurka haserre jartzen hasi baitzen. Erremindu egiten zen eskeko ordenen aurka, ekoizkortasun gabekoak eta, beraz, inmoralak omen zirelako.

Efiziendiaren printzipioak bertute moral gorenetakoren baten papera hartu zuen. Aldi berean aberastasun eta arrakasta materialaren desira, grina oro-irensle izatera heldu zen. «Mundu guztia», dio Martin Butzer predikalariak, «dabil atzea galdu beharrik etekin handiagoa ematen duten negozio eta lanen bila. Arte eta zientzien ikasketa baztertu egiten da eskulan-mota kaxkarrenen mesedetan. Jainkoak ikasketa prestenetarako dohaiz hornituriko buru argiak, merkatalgoak dauzka monopolizaturik gaurregun, hain desonestasunez gainezka dagoelarik berau, non ohorezko gizakume orok oratu behar liokeen azkenengo lan modua baita».³⁴

Deskribaturiko aldaketa ekonomikoen ondorio oso garrantzitsu batek izan zuen eragina denengan. Erdi Aroko gizarte-sistema suntsituta geratu zen eta berarekin batera gizabanakoari eskaini zion egonkortasuna eta segurtasun erlatiboa ere. Orain, kapitalismoaren hasierarekin, klase guztiak hasi ziren mugitzen. Ekonomi eremuan ez zegoen jada naturalizat, eztabaidaezintzat, jo zitekeen leku finkorik. «Gizabanakoa bakarrik utzia izan zen; bere ahaleginean zetzan dena, ez bere status tradizionallean.»

Klase bakoitza, bestalde, garapen honek ezberdinki ukituta aurkitu zen. Hirietako jende pobreak zetzan, langile eta aprendizentzat, hustirapenaren eta pobretzearen gehikuntza suposatuta izan zuen, eta baserritarrentzat ere presio indibidual eta ekonomikoaren areagotzea; nobleteria apalenak deboiladurari aurre egin behar izan zion, era ezberdinean bazen ere. Klase hauentzako garapen berria txarragoa aldatzea izan zen bitartean, erdiko klase hiritarrentzat egoera nahaspilatuagoa zen. Aipatua dugu horko kideen artean izandako bereizketa hazkorra. Klase honetako sektore handiak gero eta egoera zailagoan aurkitu ziren. Artisanu eta merkataritza txiki askok, monopolisten botere nagusiari eta kapital handiaren jabe ziren beste lehiakide batzuei aurre egin behar izan zion independente mantentzeko, horretarako zailtasun beti handiagoak izanez. Maiz nekagarriak ziren indarren aurka burrukatu behar izaten zuten, eta askorentzat burruka gogorregiak eta esperantzarik gabekoak ziren. Erdiko klaseko beste sektore batzuk prosperoagoak ziren, kapitalismo jaioberriaren goranzko joera orokorrean partaide baitziren. Baina pertsona zoritsuago hauentzat ere, «kapitalaren, merkatuaren eta konkurrentziaren» gero eta paper garrantzitsuagoak, haien egoera pertsonala segurtasunik gabeko, isolamendu eta larritasuneko egoerara eramaten zuen.

Kapitalak garrantzi erabakiorra hartzeak zera suposatuta izan zuen, indar inpersonal bat ari zela orain beren patu ekonomikoa eta, beraz, pertsonala ere determinatzen. Kapitalak «morroi izateari utzi zion eta ugazaba bihurtu. Bizitasun bereizi eta independentea bereganatuz, bazkide ahaltsuenarentzat galdatzen zuen ekonomi antolamendua diktatzeko eskubidea, bere errekerimendu zorrotzen arabera».³⁵

Merkatuaren funtzio berriak antzerako efektua eragin zuen. Erdi Aroko merkaturia txikia zen erlatiboki eta beronen funtzionamendua ulerterraz gertatzen zen. Eskaria eta eskaintza erlazio zuzen eta

konkretuan zeramatzan. Produktugileak bazekien gutxi gorabehera zenbat produzitu behar zuen eta erlatiboki seguru egon zitekeen bere produktuak prezio egokian salduko zituela. Baina orain merkatu gero eta zabalagorako produzitu beharra zegoen eta ezin ziren salmenta-ahalbideak aurretiaz erabaki. Horregatik ez zen nahikoa ondasun baliagarriak produzitzea. Hau salmentarako behar-beharrezko baldintza bazen ere, merkatuko lege auresangaitzek erabakitzen zuten produktuak saldu ahal izango ziren eta nolako etekinez. Merkatu berriaren mekanismoak predestinazioko doktrina kalbinistaren antzekoa ematen zuen, zeinak irakasten zuen gizabanakoak eginahalak egin behar dituela ona izateko, baina salbatuko den ala ez, hura jaio aurretik erabakita dagoela. Merkatuko eguna judizioko egun bihurtu zen giza ahaleginaren ekoizkinei dagokienez.

Egoeraren baitako beste faktore inportante bat konkurrentziaren paper gero eta garrantzitsuagoa zen. Faktore hau Erdi Aroko gizartetik guztiz kanpo egon ez bazen ere, ekonomi sistema feudala elkarlaguntzako printzipioan oinarritzen zen eta konkurrentzia murrizteko gauza ziren arauk erregulaturik —edo eraendurik— zegoen. Kapitalismoa sortzean, Erdi Aroko printzipio hauek enpresa indibidualistaren printzipioari utzi zioten gero eta leku gehiago. Gizabanako bakoitzak aurrera egin behar zuen eta zortea probatu. Igeri egin behar zuen edo bestela hondora zihoan. Besteak ez zeuden egiteko komun baterako berarekin elkartuta; lehiakide zituen, eta, maiz, lehiakideak eraitsi ala eraitsia izan beste aukerarik ez zeukan.³⁶

Kapitalak, merkatuak eta lehia indibidualak xvi. mendean zuen papera ez zen, jakina, gero izango zuena bezain garrantzitsua. Aldi berean, kapitalismo modernoaren elementu erabakior guztiak ematen ziren, zegoeneko, garai horretan, gizabanakoaren baitan zeukaten ondorio psikologiko eta guzti.

Koadroaren alderdi bat baino ez dugu deskribatu, baina beste bat ere badauka: kapitalismoak askatu egin zuen gizabanakoa. Gorporazio-sistemaren araupetik askatu zuen gizakumea; «bere kabuz» jokatzeko eta zortea probatzeko ahalbidea eman zion. Bere patuaren jaun eta jabe egin zen: berea izango zuen arriskua, berea etekina. Bakoitzaren ahaleginak eraman zezakeen arrakastara eta independentzia ekonomikora. Dirua gizakumeen berdintzaile nagusi bilakatu zen eta jaiotza eta kasta baino ahaltsuago gertatu zen.

Kapitalismoaren aspektu hau apenas zen garatzen hasia honaino aztertu dugun lehenengo aldian. Paper garrantzitsuagoa izan zuen kapitalista aberatsen talde txikiarengan erdiko klase hiritarrarengan baino. Hala ere, orduan gauzatzera iritsi zen heinean ere, ondorio inportantea izan zuen giza nortasunaren taiuketan.

Orain, gizabanakoarengan xv. eta xvi. medeetan zeharreko aldakuntza ekonomiko eta sozialek izandako inpaktuari buruzko gure eztabaida laburbiltzen saiatzen bagara, ondoko koadroa izango dugu.

Lehenago eztabaidatu izan dugun askatasunaren izaera anbigua topatzen dugu. Gizabanakoa lotura ekonomiko eta politikoek suposatzen duten esklabutzatik askatu egiten da. Askatasun positiboaren hildotik ere aurrera egiten du, sistema berrian duen paper eginkor eta independenteari esker. Baina honekin batera segurtasuna eta nonbaitekoa zen sentimendua ematen zizkieten lokarrietatik ere askatu da. Bizitza ez da jada gizakumea erdigune duen mundu itxian iragaten; mundua orain mugagabe bihurtu da eta, aldi berean, mehatxuti. Gizakumeak, mundu itxi hartan zeukan leku finkoa galtzean, ez dauka jada bizitzaren esanahiari buruzko galderekiko erantzunik; emaitza da bere buruari eta bere existentziaren xedeari buruzko dudaren biktima dela. Indar ahaltsu suprapersonalek mehatxaturik aurkitzen da, hots, kapitalak eta merkatuak. Beste gizakumeekin dituen harremanak, edonor lehiakide gerta dakioken honetan, etsaikor eta arrotz bilakatu dira; aske da, hots, bakkari, isolaturik eta alde guztietatik mehatxaturik dago. Errenaisantzako kapitalistak zeukan aberastasunaren edo boterearen jabe ez izatean, eta beste gizakumeekin eta unibertsoarekin zuen batasun-sentimendua ere galdua izatean, bere ezerez eta duen desbabes indibidualaren sentimenduak lur joarazita aurkitzen da. Paradisua galdua du sekulako, gizabanakoa, bakarrik eta munduaren aurrez aurre dago: mundu mugagabe eta mehatxagarri batera jaurtikitako atzerritar. Askatasun berria, segurtasunik ez, ezintasun, duda, bakardade eta estura sentimendu sakon bat sortzera dator. Sentimenduok leundu beharra dago, gizabanakoak arrakastaz jokatu badu.

2. Erreforma-garaia

Bilakabide historikoaren momentu honetantxe sortu ziren luternismoa eta kalvinismoa. Erljio berriok ez ziren goi-klase aberatsen erli-

jioak, erdiko klase hiritarrarenak, hirietako pobreenak eta baserritarrenek baizik. Talde hauexei egindako deialdia zeramaten beren baitan, berautotako kideen barrura sartua zen askatasun eta independentzi -baita ezintasun eta estura- sentimendu berria adierazten baitzuten. Baina erlijio-doktrina berriek, bilakabidean zen ordenu ekonomikoak sorturiko sentimenduei espresabide artikulatua eman baino zerbait gehiago egin zuten. Berauon irakaspenen bidez, gehitu eta, aldi berean, eskaini ere egin zizkieten gizabanakoari bestela pairagaitz gertatuko zitzaiokeen segurtasun ezeko setimenduari aurre egin ahal izateko aterabideak.

Erliljio-doktrina berrion esanahi sozial eta psikologikoaren analisia egiten hasi aurretik, gure azterlanaren metodoari buruzko zenbait kontsidero egingo dugu, analisia ulertzen lagunduko baitigute.

Erliljio- edo politika-doktrina baten azterketaren esanahia aztertzean, kontutan izan behar dugu lehenengo eta behin analisi psikologikoak ez duela inplikatzten azterturiko doktrinaren egiazkotasunari buruzko inolako erizpenik. Aipatu berri den kontu hau arazoaren beraren egitura logikoaren muga barruan soilik juzga daiteke. Zenbait doktrina edo ideia ostean dauden zio psikologikoen analisia ezin daiteke sekula doktrinaren baliotasunari eta inplizituki dituen balioei buruzko erizpen razionalaren ordeztailu izan, nahiz eta analisi horrek doktrina bat hobeto ulertzea eraman gaitzakeen, eta horrela balioespenarekiko berarekiko ere eragina izan.

Doktrinaren analisi psikologikoak agerian jar ditzakeenak pertsonaren motibazio subjektiboak dira, zenbait problemaren kontzientzia emanez gain, pertsona zenbait norabidetan eurokiko erantzuna bilatzen jartzen dutenak. Edozein motatako pentsamendu oro, egiazko zein gezurrezko, ideia konbentzionalekiko adostasun azala baino zerbait gehiago adierazten badu, hura pentsatu duenaren beharrizan subjektiboek eta interesek motibatua da. Gertatzen dena da zenbait interes egia aurkituz gauzatzen direla eta beste batzuk, ostera, egia suntsituz. Baina kasu bion zio psikologikoak kinada garrantzitsuak dira zenbait konklusiotara iristeko. Urrunago ere joan eta esan genezake nortasunaren beharrizan indartsuetan erroturik ez dauden ideiek eragin txikia izango dutela egoera horretan dagoen gizabanakoarengan.

Erliljio eta politika-doktrinak euren esanahi psikologikoari dago-kionez aztertzen baditugu, bi arazo bereizi beharko dugu. Azter dezakegu doktrina berri baten sortzaile den gizabanakoaren karaktere-egitura,

daukan pentsamenduaren orientabide berezia haren nortasunaren zein ezaugarrik esplikatzten duen ulertzen saiatuz. Konkretuki mintzatuz, honak esan nahi du, adibidez, Lutero edo Kalvinoen izakeraren egitura aztertu behar dugula, euren nortasunaren zein jauginek eraman zituen zenbait konklusiotara edo zenbait doktrina formulatzera aurkitzeko. Beste arazoa zio psikologikoen azterketan dago, baina ez doktrinaren sortzaileak dituen zioenean, doktrina jasoko duen talde sozialak dituen zioen azterketan baizik. Doktrina edo ideia ororen eragina, bera zuzentzen zaien karaktere-egiturari dagozkion beharrizanei damaien erantzunaren neurrikoa da. Zenbait talde sozialen beharrizan psikologiko indartsuei erantzuteko gauza denean soilik iritsiko da ideia indar historiko ahaltu izatera.

Arazo biok, liderraren psikologia eta haren jarraitzaile den taldearena, jakina, elkarri lotu-loturik daude. Ideia berak biongan badu eragina, bata eta besteek karaktere-egitura antzekoa izan behar dute garrantzizko aspektu askotan. Liderrak pentsamendu eta ekintzarako duen talentu berezia bezalako faktoreak albo batera utziz, haren karaktere-egiturak, eskuarki, erakutsiko du, modu erabat eta argiro definituan, bere doktrinaren eragina jasotzen dutenek daukaten karaktere-egitura berezia; liderraren gaitasuna, bere jarraitzaileak jada hartzeko prest dauden ideien formulazio argiago eta zabalagora irits daiteke. Liderraren karaktere-egiturak haren jarraitzaileengan aurki daitezkeen zenbait ezaugarri bizikiago erakustea, ondoko faktoreetako baten edo bien konbinaketaren fruitu izan daiteke: lehenengoa, liderraren egoera soziala talde osoaren nortasuna moldatzen duten baldintzentzat tipikoa izatea; bigarrena, hezieran eta esperientzia indibidualetan izandako gorabehera akzidentalengatik, taldearengan egoera sozialaren ondorio diren ezaugarriak hark gradu oso markatuan garaturik izatea.

Protestantismo eta kalbinismoaren doktrinaren esanahiari buruzko gure analisisian ez dugu Kalvino eta Luteroen nortasuna aztertuko, euren ideiak zuzentzen zitzaizkien klase sozialen egoera psikologikoa baizik. Labur-laburki aipatu besterik ez dut nahi, teoria luthertarra estabaidatzen hasi aurretik, Lutero, pertsona moduan, «karaktere autoritarioaren» errepresentatzaile petoa zela, geroago deskribatuko den bezala. Besterik ez bezalako aita zorrotzak hezia eta umetan segurtasuna edo maitasuna urri jasotakoa izaki, haren nortasuna joera biren arteko anbibalentzia etengabea zebilen agintearekiko; gorroto zuen eta kontra altxatzen zi-

tzaion, baina aldi berean miretsi ere egiten zuen eta haren menpean jartzeko joera zuen. Bere bizitza guztian izan zuen aurka jartzen zitzaion aginte bat eta miresten zuen beste bat; gaztetan, aita eta monastegiko nagusiak; Aitasaindua eta printzeak geroago. Bakardade, ezintasun eta gaiztotasun-sentimendu bizi-biziz beterik zegoen, baina, aldi berean, domeinurako grinaz ere bai. Karaktere konpultsiboa duena bakarrik egon daitekeen neurrian zegoen ezbaiek alaturik, barne-segurtasuna lemaiokeen eta ezbaiaren oinazea leunduko liokeen zerbaiten bila taigabe. Gorroto zituen besteak, bereziki «jendaila», gorroto zuen bere burua, gorroto bizitza, eta gorroto guzti honetatik maitatua izateko gogo grinatsu eta desesperatua sortu zitzaion. Bere izate guztia zegoen beldurrak, ezbaiak eta barne-isolamenduak zulatua, eta oinarri pertsonal honexen gainean, hain zuzen ere, iritsi behar zuen berearen antz-antzeko egoera psikologikoan zeuden taldeen paladin izatera.

Komenigarri deritzogu ondoren datorren analisisan erabiliko den metodoari buruzko azken kontsidero bat egiteari. Gizabanako baten pentsamenduen edo ideia baten analisi psikologiko oro, ideia edo pentsamendu horien sorburu diren erro psikologikoak ulertzeri doa. Aipatu analisisirako lehen baldintza ideia baten kontestu logikoa eta bere auto-reak kontzienteki esan nahi duena zehatz-mehatz ulertzea da. Badakigu, hala ere, pertsona bati gerta dakiokela maiz, subjektiboki egiatia izan arren, berak bere burua darabilela uste duen motiboak barik beste batek oharkabean erabilia izatea; logikaren ikuspuntutik esanahi jakin bat daukan kontzeptu bat erabiltzea, eta beretzat, inkontzienteki, esanahi «ofizial» horretatik diferentea den zerbait adieraztea. Badakigu, honez gain, bere pentsamenduan diren zenbait kontraesan harmoniara ekartzen ere saia daitekeela, eraiketa ideologiko baten bidez, edo baita ideia bat estaltzen ere, berak kontrakoa adierazten duen arrazonamenduz erreprimitzen duena. Elementu inkontzientek nola jokatzten duten ulertzeak hitzekiko eskeptikoak izaten eta itxuraz duten balioan ez hartzen irakatsi digu.

Ideien analisiak egiteko birekin du nagusiki zerikusia: lehenengo, sistema ideologiko oso batean ideia batek duen pisua zehaztea da; bigarrena, pentsamenduen «benetako» esanahiaren ezberdina den arrazonamendua daukagun ala ez aurrean erabakitzea da. Lehen puntuaren adibide bat honako hau da: hitlertar ideologiaren barruan Versaillesko hitzarmenaren injustiziari emandako garrantziak paper itzela jokatzten

du, eta gainera egia zen Hitler bera haserre zela bake-hitzarmen horretaz. Baina haren ideologia politiko guztia aztertzen badugu, ikusiko dugu beronen oinarriak botere eta konkista-gose bizia direla eta, nahiz eta inportantzia handia damaion Alemaniari kontzienteki egin zitzaion injustiziari, pentsamendu honek pisu txikia duela, ukan, haren ideietan oro har. Pentsamendu baten kontzienteki bilaturiko esanahiaren eta beronen esanahi psikologiko benetakoaren artean dagoen aldearen adibide bat, kapitulu honetan jorratzen diren Luteroren doktrinen analisisan aurki daiteke.

Baiezten dugu hark Jainkoarekin dituen harremanak menekotasunezkoak direla gizakumearen ezintasunean oinarrituta. Lutero bera mintzo da menekotasun honetaz, nahitazko zertzat, ez beldurraren baizik eta maitasunaren ondorioztat joaz. Argudia liteke, orduan, logikotasunaren ikuspuntutik ez dagoela menekotasunik. Psikologikoki, ostera, Lutherren pentsamenduen egitura osotik maitasun edo fede moduko hau, izatez, menekotasuna dela ateratzen da, eta, nahiz eta «kontzienteki» Jainkoarenganako bere «menekotasunaz» nahitazko eta maitasunez beteriko alderdi horretatik pentsatzen duen, ezintasun eta bekatu sentimenduz blaituta sentitzen du, sentitu, bere izate guztia, honek Jainkoarekin dituen harremanei menekotasunezko izaera damaielarik (pertsona baten bestearenganako menpetasun masokista sarriaskotan kontzienteki «maitasuntzat» hartzen den bezalaxe). Analisi psikologikoaren ikusgunitetik, beraz, Lutero gure ustez egiaz (nahiz eta inkontzienteki) esan nahi duenetik diferentea den zerbait «dioelako» objektio horrek ez du garrantzi handirik. Uste dugu Luteroren sistemaren zenbait kontraesan haren kontzeptuen esanahi psikologikoaren analisisaren bidez soilik uler daitezkeela.

Jarraian datorren protestantismoaren analisisan, erlijio-doktrinak sistema osoaren testuinguruan duten esanahiaren arabera interpretatu ditut. Ez dut Lutero edo Kalvinoren zenbait doktrinarekin kontraesanean dagokeen esaldirik aipatuko, duten garrantzia eta zentzua benetako kontraesanak izateko adinakoak ez diren uste osora iristerik izan badut. Baina ematen dudan interpretazioa ez da oinarritzen nire interpretazioa indartzera datozen esaldiak aukeratzeko metodoan, baizik eta Kalvino eta Luteroren sistema osoaren, beronen oinarri psikologikoen, azterketan, elementu isolatuak sistema osoaren egitura psikologikoaren argipean interpretatzeko metodoaren arabera lan eginez.

Erreformaren doktrinetan zer den berria ulertu nahi badugu, lehenbizi Erdi Aroko Elizaren teologian zer den esentziala izan beharko dugu kontutan.³⁷ Hau egiten saiatzean, «Erdi Aroko gizarteak» eta «gizarte kapitalista» bezalako kontzeptuekiko eztabaidatu ditugun zailtasun metodologiko berei egin behar diegu aurre. Ekonomi eremuan egitura batetik besterako bapateko aldaketarik gertatzen ez den moduan, ideologi eremuan ere ez da horrelako aldeketarik izaten. Kalvino eta Luteroen zenbait doktrina Erdi Aroko Elizak zituenen hain antzekoak dira, non batzuetan zail gertatzen baita euren artean funtsezko alderik aurkitzea. Protestantismoak eta kalbinismoak bezalaxe Eliza katolikoak ere, beti ukatu izan zuen gizakumeak bere bertute eta merezimenduen indar hutsez salbazioa lor zezakeenik, ezinbesteko salbaziobide moduan Jainkoaren grazia eduki barik hori egin zezakeenik. Hala ere, doktrina berriak eta zaharrak elementu komunak eduki arren, Eliza katolikoaren izpiritua Erreformaren izpirituen esentzialki ezberdina izan zen, bereziki giza duintasun eta askatasunaren arazoari eta gizakumearen patuan beronen egintzak duten eraginari dagokienez.

Zenbait printzipio teologia katolikoaren ezaugarritzakoak izan ziren Erreformaren aurreko garaian, hala nola, giza izaerak, nahiz eta Adamen Bekatuak usteldua, sortzetiko onerako jaugina daukaneko doktrina, gizakumearen nahimena on dena gura izateko libre dela, gizakumearen ahaleginak balio diotela salbamenerako, eta Kristoren heriotzaren merezimenduetan oinarrituriko Elizaren sakramentuen bidez bekataria salba daitekeela.

Hala ere, teologo errepresentagarrietako batzuek, hala nola San Augustin eta Aquinoko San Tomasek, aipatu berri ditugun ikuspegiei eusten bazieten ere, aldi berean izpiritu sakonki ezberdineko doktrinak irakasten zituzten. Baina San Tomas, nahiz eta predestinazioa onartzen duen doktrina irakatsi, taigabe ari da azpimarratzen bere funtsezko doktrinen artean aukeramenaren garrantzia. Askatasunaren eta predestinazioaren teorien artean dagoen kontrastea gainditzeko, eraiketa korapilatsuenak erabili beharra dauka; baina, nahiz eta eraiketok ez bide dieten behar den moduko soluziobiderik ematen kontraesanei, San Tomasek, aukeramenaren eta salbamena lortzeko giza ahaleginak duen balioaren doktrinari ez dio ukorik egiten, nahimenak Jainkoaren graziaren laguntza behar badu ere.³⁸

Aukeramenari buruz Aquinotarrak dio Jainkoaren esentziarekin eta gizakumearen izaerarekin kontraesankorra litzatekeela gizakumea

ez dela erabakitzeke aske eta gizakumeak Jainkoak eskainitako grazia errefusatzeko ere askatasuna baduela onartzea.³⁹

Beste teologo batzuek Aquinotarrak baino bizikiago azpimarratu zuten salbamenean giza ahaleginak duen zeresana. Bonabenturak dioenez, Jainkoaren nahian dago gizakumeari grazia eskaintzea, baina beren merezimenduen bidez berau hartzeko prestatzen direnek bakarrik jasotzen dute.

Nabarmentze hau areagotu egin zen XIII, XIV eta XV. mendeetan Duns Scoto, Occam eta Bielen sistemetan; eta hau Erreformaren izpiritu berria ulertzeko inportantzia berezia duen garapena da, zeren Luteroen erasoak «Sau Theologen» deitzen zien Behe Erdi Aroko eskolastikoen aurka baitzihozten batipat.

Duns Scotok nahimenaren papera birbaieztu zuen. Nahimena aske da. Bere nahimena gauzatuz gizakumeak bere nia gauzatzen du eta gauzatze hau gizabanakoarentzat asebidetara goren da. Jainkoaren agindua denez nahimena ni indibidualaren egintza bat izatea, Jainkoak berak ere ez du eraginbide zuzenik giza erabakietan.

Biel eta Occamek norberaren merezimenduen papera azpimarratzen dute norberaren salbamenerako baldintza direnez, eta Jainkoaren laguntzaz ere mintzo badira ere, autore hauek bertan behera utzi zuten honen oinarritzko esangura, doktrinarik aintzinakoenek onartzen zutena.⁴⁰ Bielek gizakumea libre dela suposatzen du eta beti jo dezakeela Jainkoarengana, honen grazia laguntzera datorkiolarik. Occamek irakasten du bekatuak ez duela giza izaera egiazki usteldu; beronen ustez, bekatua egintza isolatu bat besterik ez da, gizakumearen substantzia aldatzen ez duena. Trentotarrak argi eta garbi baieztatu du aukeramenak Jainkoaren graziarekin lankidetzan jokatzen duela, baina lankidetzan hori burutu gabe ere gera daitekeela.⁴¹ Gizakumearen irudia Occamek eta azken aldiko beste eskolastiko batzuek aurkezten duten bezala, hura agertzen du ez bekatari gizagaixo moduan, izaki libre moduan baizik, zeinaren izaerak berak ona den orotarako gai egiten duen eta zeinaren nahimena berezko edo kanpoko beste indar orotarik aske den.

Erdi Aroaren azkenaldian gero eta indar handiagoa izan zuen eta Luteroen eraso nagusietako bat jaso zuen indulgentzi txartelen erosketak, gizakumearen nahimenari eta beronen ahaleginen balioari ematen zitzaion garrantzia gehitu izanarekin zeukan zerikusia. Aitasainduaren

mandatariei barkamenik erosiz gero, gizakumea salbuetsirik geratzen zen aldi bateko gaztigutik, betiko gaztiguaren ordezkotzat zegoena berau, eta, Seebergék seinalatu duen bezala,⁴² gizakumeak bere bekatu guztien barkamena espero izateko arrazoi guztiak zituen.

Lehen ikusian badirudike Aitasainduari garbitokiko zigorren barkamena erostea, salbamena lortzeko giza ahaleginek duten efikaziaren ideiarekin kontraesanean zegoela, barkamen honek eliz aginte eta haren sakramentuekiko dependentzia suposatzen baitu. Baina, hein batean hau egia bada ere, egia da baita ere, horrek nolabaiteko esperantza eta segurtasun-izpiritu bat daramala. Gizakumea hain aiseki geratu ahal bada gaztigutik libre, dexente arindua litzateke erruaren zama. Modu erraz samarrean askatu ahal izango litzateke iraganeko zamatik eta horrela aldetik kendu ahal izango luke obsesionatzen duen larritasuna. Honez gain, ez da ahantzi behar, eliz teoria esplizitu edo inplizituaren arabera, barkamenen efektua beraien erosleak damu ukan eta bekatuak aitortzearen mende zegoela.⁴³

Erreformaren izpiritutik garbiro diferenteak diren beste zenbait ideia, mistikoen idazkietan, predikuetan eta konfessoreen praktikorako arau landuetan aurki daitezke. Eurotan giza duintasuna eta beronen nortasun guztiaren adierazpenaren zilegitasuna baiezteko izpiritu idortzen dugu. Jarrera honekin batera Kristoren imitazioaren nozioa aurkitzen dugu, XII. mendea bezalako garai goiztiarrean zabaltzen dena berau, eta era berean gizakumea Jainkoaren antzeko izaten saia daitekeen ustea. Konfessoreentzako arauak gizabanakoa aurki zitekeen egoera konkretuen ulerpen handia erakusten zuten eta diferentzia indibidual subjektiboak aintzat hartzen zituzten. Ez zuten bekatua gizabanakoa zapaldu eta umiliatu behar zuten kargatzat hartzen, ulerpena eta errespetua zor zitzaizkion giza ahuleziazat baizik.⁴⁴

Laburbilduz: Erdi Aroko Elizak giza duintasunaren garrantzia, aukeramena eta salbamena jadesteko giza ahaleginen baliozkotasuna azpimarratzen zituen; Jainkoaren eta gizakiaren arteko antzekotasuna eta honek Jainkoaren maitasunean fidantza izateko duen eskubidea ere azpimarratzen zituen. Gizakumeak berdin eta elkarren neba-arrebatzat zeuden, Jainkoaren antzeko zirelako, hain zuzen ere. Erdi Aroaren azkenaldean, kapitalismoaren hasierarekin lotuta, ezbaia eta insegurantzak sortu ziren; baina aldi berean, berrindartu egin ziren nahimenaren eta giza ahaleginaren papera goraiatzat zuten joerak. Suposa dezakegu,

hala Errenaisantzako filosofiak nola Erdi Aroan nagusi zen doktrina katolikoak, euren egoera ekonomikoak emandako botere eta independentzi sentimendua nagusi zuten talde sozialen izpiritu isladatzen zutela. Beste alde batetik, Luteroren teologiak erdiko klasearen sentimenduei eman zien adierazpidea, zeina, Elizaren aginpidearen aurka burrukan eta dirudun klase berriaren aurka erreminduta zebilelarik, bere burua kapitalismo jaioberriaren mehatxupean eta ezintasun eta ezereztasun indibidualaren sentimenduak azpiratuta sentitu baitzen.

Lutherren sistemak, tradizio katolikotik bereizten den heinean, bi alderdi ditu, bata bestea baino gehiago azpimarratu izan delarik protestante herrietan egindako ohizko azalpenetan. Alderdi honek agertzen du Lutherrek independentzia eman ziola gizakumeari erlijio-arazoetan; Elizari zeukan aginpidea kendu eta gizabanakoari eman ziola; fedez eta salbazioaz zuen eritziak esperientzia indibidual subjektiboan duela eus-pidea, beronen arabera erantzunkizun guztia gizabanakoarengan dagoelarik eta mendrenik ere ez gizabanakoak lortu ezin duena eman liezaiokeen agintearengan. Bada arrazoirik Luteroren eta Kalbinen doktrinen alderdi hau goraiatzeko, gizarte modernoaren askatasun politiko eta izpiritualaren garapenaren iturrietako bat eurok direnez gero; nazio anglosaxoniarretan bereziki, puritanismoaren ideiekin bereizgaizki loturik da goen garapena berau.

Askatasun modernoaren beste alderdiak —gizabanakoari ekarri izan dion isolamendua eta ezintasun-sentimendua— protestantismoan ditu sustraiak, idenpendentzi sentimenduan adina. Liburu honek nagusiki askatasuna karga eta arrisku denez aztertzea duenez helburu, jarraian azaltzen den analisisa partziala da nahita, askatasunaren alde negatiboaren sustraiak diren Kalvino eta Luteroren doktrinen alderdi hauxe azpimarratzen baitu: gizakiaren oinarrizko ezintasuna eta gaiztotasunaren gorespina.

Luterorek giza izaerak sortzetiko gaiztotasuna zeukala uste zuten, gaiztotasun honek gaizkia egitera daramalarik gizakumearen nahimena, gizakume orori galeraziz edozein egintza on, bere izaeran soilik oinarrituz, burutu ahal izatea. Gizakiak izaera txar eta gaiztatua dauka («*naturaliter et inevitabiliter mala et vitiata natura*»). Gizakiaren izaeraren gaiztotasuna eta zuzena aukeratzeko duen erabateko askatasunik eza dira Luteroren pentsamendu guztiak dituen oinarrizko kontzeptuetako bat. Izpiritu honexekin hasten da hark San Pablok Erromatarrei idatzita-

rengan aurkitzen dugunaren antzekoa da: hots, ziurtasuna ni indibidual isolatua ezabatuz aurkitzea, nork bere nia botere indartsu menperatzaile eta gizabanakoarengatik kanpoko baten tresna bihurtuz. Lutherrentzat botere hau Jainkoa zen, eta menekotasun mugagabea, hain zuzen ere, bilatzen zuen ziurtasuna. Baina horrela hein batean bere ezbaia isilaraztea lortuta ere, ezabatu ez ziren inoiz ezabatu; bere azken egunetan eurretan ere, ezbaia erasoak izan zituen, menekotasunerako ahalegin berriztatuz azpiratu behar izan zituelarik. Alderdi psikologikotik fedeak bi esanahi erabat ezberdin ditu. Gizateriarekiko harreman min baten adierazpena eta biziaren baiezpena izan daiteke edo bestela gizabanakoaren isolamenduan eta bizitzarekiko jarrera ezkorrean erroturiko oinarrizko ezbaia sentimendu baten aurkako erreakzioa. Luteroren fedeak tankera konpentsakor horixe zeukan.

Bereziki garrantzizkoa da dudaren eta berau isilarazteko saialdien esanahia ulertzea, hau ez baita Luterorri bakarrik eta —laster ikusko dugunez— Kalvinoen teologiari bakarrik dagokien arazoa, ezpabere gizakume modernoaren oinarritzko arazoetako bat izaten segitzen duena. Ezbaia da filosofia modernoaren abiapuntua; berau isilarazi beharra filosofia eta zientzia modernoaren garapenerako eragilerik indartsuena izan zen. Baina duda arrazional asko erantzun arrazionalak emanez soluzionatu diren arren, ezbaia irrazionala ez da ezabatu eta ezin ezaba daiteke harik eta gizakumeak askatasun negatibotik askatasun positibora aurrera egin arte. Berau isilarazteko saialdi modernoek, dela arrakasta lortzeko jaugin konpultsiboaren bidez edo egitateen ezagutza mugagabeak ziurtasunaren bilaketari konponbidea eman diezaiokkeen ustearen bidez, dela «ziurtasunaren» erantzunkizuna bere gain hartzen duen liderrarekiko menekotasunaren bitartez, soluziobide guztiok, dudaren «kontzientzia» besterik ezin dute isilarazi. Ezbaia bera ez da suntsituko harik eta gizakumeak bere isolamendua gainditu arte eta berak munduan duen lekuak bere giza beharrez araberako zentzua hartu arte.

Zein da Luteroren doktrinek zuten lotura, Erdi Aroaren azkenaldere denak, aberats eta boteretsuak ezik, aurkitzen ziren egoera psikologikoarekin? Ikusia dugunez, ordenu zaharra gainbehera zetorren. Gizabanakoak galdua zuen ziurtasunaren segurtasuna eta ekonomi indar berrien, kapitalisten eta monopolioen mehatxupean zegoen; konkurrentziaren printzipioa gorpuzioarena ordeztzen ari zen; beheko klaseek, gero eta handiagoz zihuan hustirapenaren pisua jasan beharra zuten.

Lutheranismoak azken hauei zegien deialdia erdiko klaseari zuzentzen zionaren ezberdina zen. Hirietako pobreak, eta areago baserritarrak, egoera desesperatuan aurkitzen ziren. Kupidagabe hustiratuak ziren eta beren eskubide eta pribilegioez gabetuak. Gogo-egoera iraultzailean aurkitzen ziren, sentimendu honek baserritarren matxinadetan eta hirietako mugimendu iraultzaileetan izan zuelarik adierazpidea. Ebangelioak euren esperantza-itxarobideak artikulatzen zituen, esklabu eta lehen kristautasuneko langileentzat egina zuen bezalaxe, eta pobreak askatasunaren eta justiziaren bilaketara gidatzen zituen. Luterok, agintea atakatu eta ebangelioko hitza bere irakaspidearen erdigune egiten zuen neurrian, masa gerakor haiei, izaera ebangelikodun beste erlijio-mugimendu batzuek bere aurretik egina zuten bezalaxe hitz egiten zien.

Baina nahiz eta Luterok mason-atxekimendua onartu eta euroi lagundu, jarrera honetan puntu bateraino irauin zezakeen; aliantza hautsi beharra zeukan baserritarrak Elizaren aginpidearen aurkako erasoetatik eta hobakuntzak galdatze hutsetik aurrera jotzen hasi bezain laster. Haiek aurrera egin zuten, aginte oro hankaz gora bota eta ordenu sozialaren oinarriak, zeinaren iraupenean erdiko klasea biziki interesaturik zegoen, suntsitzeko mehatxu zen klase iraultzaile bihurtzeraino. Zeren, arestian deskribaturiko zailtasun guztiak izan arren, erdiko klaseak, beronen estraturik behekoenak ere, pobreen galdapenen aurka defendatu beharreko pribilegioak zeuzkan, eta horregatik aristokraziaren, Elizaren eta monopolioen pribilegioak bakarrik barik, erdiko klasearen pribilegioak ere suntsitzera zihozten mugimendu iraultzaileen etsai amorratu zen.

Erdiko klasearen aberats-pobre arteko egoerak korapilatsu bihurtzen zuen bere erreakziobidea eta puntu askotan kontraesankor ere bai. Lege eta ordenuari eutsi nahi zioten eta, hala ere, eurak ere, haziz zihuan kapitalismoaren mehatxupean zeuden ezinbestez. Erdiko klaseko edukitsuenak ere ez ziren kapitalista handien talde txikikoek bezain aberats eta boteretsuak. Gogorki burukatu beharra zuten biziraun eta arrakasta izateko. Klase dirutsuaren luxuak handiagotu egiten ziren txikitetasun-sentimendua eta bekaizkoz eta haserrez gainezka jartzen zituen. Beraientzat, batezbeste, ordenu feudalaren kolapsua eta kapitalismoaren jalgiera, mehatxu ziren laguntza baino gehiago.

Luterok zuen gizakumearekiko kontzepzioak hain zuzen ere dilema hauxe isladatzen zuen. Gizakumea agintari izpiritualekin lotzen

zuten lokarri guztietatik libre dago, baina askatasun honek beronek, bakarrik eta larritasunez beterik uzten du, bere ezerezaren eta ezintasunaren sentimenduak azpiratuta. Gizabanako libre eta isolatu hau ezerez indibidualaren esperientziak zapaldu egiten du. Luteroren teologiak desanparo eta ezbai-sentimendu hauxe agertzen du. Luterok erlijiozko terminoetan adierazten duen gizakumearen irudiak, bilakaera orokor, sozial eta ekonomikoak eragindako gizabanakoaren egoera deskribatzen du. Erdiko klaseko kidea ekonomi indar berrien aurrean, Luterok deskribaturiko gizakumea Jainkoarekiko harremanetan bezain babesgabe aurkitzen zen.

Baina Luterok bere predikua jasotzen zuten klase sozialetan jada nagusi zen ezereztasun-sentimendua agerian jarri baino zerbait gehiago egin zuen: aterabidea ere eskaini zien. Gizabanakoak Jainkoak onartua izateko esperantza eduki zezakeen, ez bakarrik bere ezereztasuna aitortzearren, baizik eta bere burua azkeneraino umiliatuz, bere nahimenaren aztarna oro utziz, bere indar indibidualari uko eginez eta gaitzetsiz. Luteroren Jainkoarekiko harremana menekotasun osokoa zen. Fedeaz zuen kontzepzioak, termino psikologikoetan adierazita, esan nahi du: erabat menekotzen bazara, zeure ezereztasun indibiduala onartzen baduzu, orduan Jainko Guztiahalduna gertu egon dakizuke zu maitatu eta salbatzeko. Azkenerainoko umiltasun egintza batez, zeure nortasun indibiduala beronen mugapen eta ezbai guztiekin jaurtikitzeko gauza bazara, zeure ezereztasunaren sentimendutik askatu egingo zara eta Jainkoaren loria- ren partaide izan zaitezke. Luterok, beraz, herria Elizaren aginpidetik askatzen bazuen ere, aginpide askoz tiranikoagoaren menpean jartzera behartzen zuen, hots, salbamen-baldintza esentzial moduan gizakumearen erabateko menekotasuna eta gizakumearen nortasun indibidualaren deuseztatzea exijitzen zuen Jainko baten menpean. «Luteroren «fedea», menekotuz bakarrik maitatua uste izan daitekeela sinestea da», gizabanakoa Estatuaren eta «liderraren» erabat meneko izatearen printzipioa- rekin gauza askotan bat datorren aterabidea berau.

Agintearekiko Luterok zuen beldurra eta maitasuna, haren uste politikoetan ere agertzen dira. Elizaren agintearen kontra burrukatzen bazuen ere, klase berri dirutsuaren kontra haserre bizitan sentitzen bazuen ere, beronen zati bat eliz hierarkiaren goi-geruzak osatzen zuelarik, eta baserritarren joera iraultzaileen alde maila bateraino jokatzeko bazuen ere, mundu honetako agintari eta printzeenganako menekotasun

erabatekoena eskatzen zuen. «Agintaritzan dihardutenak gaiztoak eta fedegabeak balira ere, daukaten agintea eta boterea onak dira eta Jainkoarengandik datoz... Boterea dagoen eta loratzen den guztian, Jainkoaren aginduei zor die izatea eta irautea.»⁵⁰ Eta dio: «Jainkoak nahiago luke gobernuak irautea, denik txarra dela ere, jendailaren mutinak baino, justifikatuenak izanda ere matxinatzeko dituen arrazoiak... Printzeak printze segitu behar du, denik tiranikoena izanda ere. Gutxi batzuk bakarrik lepamoz ditzake, agintari izateko menekoak behar baititu.

Aginteari zion atzekimendu eta izuaren beste aspektua masa indargabeei, «jendailari», zien gorroto eta mespretxuan agertzen zen, bereziki hau neurri batzuetatik gora zihoanean errebolta-saialdietan. Bere diatribetako batean, honako hitz famatuak idazten ditu: «Horregatik, utz diezaiegun egin ahal duten guztiei, zigortzen, hiltzen, zauritzen ezkutu- tuan edo agerian, zeren gogoan izan behar baitugu ezer ezin daitekeela izan pozointsuago, kaltegarriago edo deabruzkoagorik matxino bat baino. Txakur amorratua hil beharra dagoenean gertatzen den gauza berbera da: jo eta eraisten ez baduzu, berak eraitsiko zaitu zeu, eta zurekin batera herri guztia.»⁵¹

Luteroren nortasunak, eta baita haren irakaspenek ere, agintearekiko anibalentzia nabari dute. Alde batetik, agintearen beldur neurritz kanpokoak sentitzen du —bai mundu honetako agintearena, bai Jainko tiranikoarena— eta bestetik haren kontra —Elizaren agintearen kontra— errebelatzen da. Anibalentzia bera erakusten du masei buruz duen jarreraren ere. Masek berak jarritako mugean barruan errebelatzen diren neurrian, beraiekin dago. Baina berak onesten dituen agintariei eraso egiten dietenean, masenganako gorroto eta mespretxu bizia erakusten ditu. Ihes-mekanismo psikologikoei dagokien kapituluan, agertuko dugu ezen aginterik ez dutenenganako gorrotoarekin batera izaten den agintearekiko maitasun hau, «karaktere autoritarioaren» ezaugarri bereizgarria dela.

Puntu honetara iritsita, garrantzizkoa da ulertzea Luterok aginte sekulararekiko duen jarrera hertsiki erlasionaturik dagoela haren erlijio-irakaspenekin. Gizabanakoari, beronen merezimenduei dagokienez, ezerez eta baliogabe sentiaraztean, Jainkoaren eskuetan tresna pisiboa den kontzientzia ematean, bere buruarenganako fidantza eta giza duintasun-sentimendua kendu zizkion, eta hau agintari sekular zapal- tzaileen kontrako jarrera irmo orotarako behar-beharrezko premisa da.

Bilakabide historikoan zehar, Luteroren irakaspenen ondorioak are irispide handiagoa izan zuten. Behin gizabanakoak bere harrotasun eta duintasun-sentimendua galdua zuenean, psikologikoki prest zegoen Erdi Aroko pentsamenduaren ezaugarri zen sentimendu hura galtzeko, hots, gizakumea, beronen salbazioa eta beronen xede izpiritualak zirela bizitzaren xede; horretara prestaturik zegoen bete beharko zuen papera onartzeko: bere bizitza berarengandik kanpoko xedeetarako bitarteko bilakatuta, hots, produktibotasun ekonomiko eta kapitalaren metaketarako tresna bihurtuta jokatzea. Luterok arazo ekonomikoei buruz zituen kontzepzioak Erdi Aroko tipiko-tipikoak ziren, Calvinorenak baino areago. Biziki gorrotatuko zukeen giza bizitza xede ekonomikoetarako bitarteko bat izatea. Baina ekonomiari buruzko haren pentsamendua tradizionala bazen ere, gizabanakoaren ezereztasuna behin eta berriro azpimarratzea kontzepzio horrekin kontrastean zegoen eta bidea urratzen zuen, gizakumeak, agintari sekularrei obeditzea ezezik, bere bizitza lorpen ekonomikoen xedeen pean jartzea ere onar zezan. Gaurregun joera hau gailurrera iritsi da ideologia faxistetan, bizitzaren xedea «goragoko» botereengatik, liderrarengatik eta arrazazko komunitatearengatik sakrifikatzean datzala azpimarratzean.

Kalvinoren teologiak, Luterorena Alemaniarentzat bezain garrantzitsua izango zenak herri anglosaxoniarentzat, izpiritu bera erakusten du funtsean, hala teologiaren nola psikologiaren ikuspuntutik. Hau ere Elizaren agintearen eta haren doktrinak itsuan onartzearen aurka dagoen arren, erlijioa, berak uste, gizateriaren ezintasunean dago errotuta; nork bere burua apaltzea eta gizakumearen harrokeria suntsitzea dira haren pentsamendu guztiaren «leitmotiv»a. Mundu hau mespretxatzen duena bakarrik has daiteke geroko mundurako prestatzen.⁵²

Kalvinok irakasten du apaldu egin beharko genukeela geure burua eta bakoitzaren autoumilapen hauxe dela, hain zuzen ere, indar jainkotiarren segurtasuna geureganatzeko bidea. «Zeren ezerk ez garamatza Jaunari geure fidantza eta ziurtasuna izpirituala ematera, nola geure buruarenganako mesfindantzak eta geure miseriaren kontzientziatik jalgitzen den esturak.»⁵³

Gizabanakoa ez litzatekeela bere buruaren jabe sentitu behar predikatzen du: «Ez gara geure buruaren jabe; beraz, ez gure arrazoimenak ez gure nahimenak izan beharko lukete gure ebazpen eta egintzetan nagusi. Ez gara geure buruaren jabe; ez dezagun, beraz, xedetzat har ha-

ragiaren eskakizunen arabera komenien zaiguna bilatzea; ez gara geure buruaren jabe; ahantz gaitzen, beraz, geure ahalean, geure buruaz eta geure gauza guztiez. Alderantziz, Jainkoarenak gara eta, beraz, bizi eta hil gaitzen Berarentzat. Zeren, nola kiratsik suntsigarrienak pertsonen hondamendia eragiten duen, hauek beren buruari obeditzen diotenean, halaxe salbazio-portu bakarra ez baita nork berak dena jakitea edo dena nahi izatea, gure aurretik doan Jainkoa gidari dugula ibiltzea baizik.⁵⁴

Gizakumeak ez luke ahalegindu behar bertutea bertuteagatik beragatik jadesten. Honek harropuzkeriara besterik ez leramake: «Zeren aintzinako eta egiazko oharpena baita biziozko mundu bat dagoela gizakumearen ariman gordeta. Eta ezin aurki daiteke beste erremediorik, nork bere buruari uko egitea, kontsidero norbereko oro ezabatzea eta arreta guztia Jainkoak zuregandik nahi dituen gauza guztiak betetzen jartzea baizik, gauzok arrazoi bakar honexegatik bilatu beharko liratekeelarik: berak atsegin dituelako.»⁵⁵

Kalvinok baita ere ukatzen du egintza onek salbamenera eraman dezaketarik. Gu egintza onez zeharo gabeturik gaude: «Ez da inoiz gizakume jainkotiar baten egintza bakarrik ere izan, Jainkoaren judizio hertsipean aztertua izango balitz, gaitzesgarri agertuko ez litzatekeenik.»⁵⁶

Kalvinoren sistema psikologikoaren esanahia ulertu nahi badugu, printzipioz nahikoa litzateke Luteroren irakaspenei buruz esandakoa errepikatzea. Calvinok ere, hark bezala, erdiko klase kontserbadoreari predikatzen zion, arras bakarrik eta izaturik sentitzen zen jendeari, beronen sentimenduak adierazi zituelarik Calvinok gizabanakoaren ezereztasun eta ezintasunaren eta beronen ahaleginen balio gabetasunaren doktrinan. Hala ere, suposa dezakegu alde txikiren bat badagoela: Luteroren garaiko Alemania matxinada orokorreko egoeran zegoen bitartean, bertan ez bakarrik erdiko klasea ezpabere baserritarrak eta hiri-gizarte pobrea ere kapitalismoaren sorreraren mehatxupean aurkitzen zirelarik, Geneba komunitate erlatiboki prosperoa zen. Europako merkatu inportanteenetako bat izana zen xv. mendearen lehen erdian eta, nahiz eta Calvinoren garaian aspektu honetan Lyon zihuan berau eklipsatuz⁵⁷, oraindik bere ekonomi sendotasunaren zati handi bat mantentzen zuen.

Jeneralean ziur samar baieztatu daiteke Calvinok jarraitzaileak erdiko klase kontserbadoretik biltzen zituela batipat⁵⁸, eta Frantzian, Ho-

landan eta Ingalaterran ere haren jarraitzile printzipalak ez zirela talde kapitalista aurreratuak, ezpabere artisauak eta negozio txikietako gizonak, euron artean batzuk besteak baino aberatsagoak zirelarik, baina, talde moduan, kapitalismoaren sorreraren mehatxupean zeudenak denak.⁵⁹

Klase sozial honi kalvinismoak, luteranismoari buruz aztertua dugun mota bereko deialdi psikologikoa formulatzen zion. Askatasun-sentimendua adierazten du, baina baita gizabanakoaren baliogabetasun eta ezintasun-sentimendua ere. Soluziobide bat eskaini zuen gizabanakoari irakasteen ezen, erabateko menekotasunaz eta autoumiltzeaz ziurtasun era berri bat aurkitzeko esperantza ukan zezakeela.

Kalvino eta Luteroren irakaspenen artean badago zenbait alde xotil, baina garrantzizkoak ez direnak liburu honetako pentsamenduaren ildo nagusia garatzeko. Aski da bi puntutan dagoen aldea azpimaratzea. Lehenengoa Kalvinoren predestinazio doktrina da. Augustinengan, Aquinotarrarengan eta Luterorengan aurkitzen dugunarekin kontrastean, Kalvinorengan predestinazioari buruzko doktrina giltzarrietako bat bihurtzen da, agian bere sistema guztiaren erdigune. Beronen bertsio berri bat ematen du suposatzean ezen Jainkoak, batzuk graziaren objektu moduan predestinatu ez ezik, beste batzuk betiko kondenaziora destinatuak izatea erabakitzen duela.⁶⁰

Salbamena edo kondenazioa ez dira gizakumeak bere bizitzan egiten duen ezer on edo txarraren ondorioak, Jainkoak gizakumea bizitzaratu aurretik predeterminatuak baizik. Jainkoak zergatik hau aukeratu eta hura kondenatzen duen, gizonak arakatu behar ez duen sekretua da. Bere ahal mugagabea agertzea atsegin izan zuelako jokatu zuen horrela. Kalvinoren Jainkoak, Jainkoaren zuzentasun eta maitasuna salbatzeko ahalagin guztien aurka, maitasunik eta are justiziarik ere ez duen tirano baten ezaugarri guztiak dauzka. Itun Berriarekin kontraesan zizkolatsuan, Kalvinok, maitasunak duen paper gorena ukatuz, dio: «Eskolastikoen maitasunari fede eta esperantzarekiko lehentasuna emanaz adierazten dutenari dagokionez, irudimen destenplatuaren ameskeria hutsa da...»⁶¹.

Predestinazioari buruzko doktrinaren esanahia bikoitza da. Gizabanakoaren ezintasun— eta ezereztasun-sentimendua adierazi eta gehitzen du. Ezein doktrinak ere ez lezake indar handiagoz adieraz nahime-naren eta ahaleginaren baliogabetasuna. Gizakumearen destinoari

buruzko erabakia erabat beronen eskutik kanpo hartzen da eta gizakumeak ezertxo ere ezin du egin erabaki hori aldatzeko. Tresna indargabe bat da Jainkoaren eskuetan. Doktrina honen beste esanahia, Luterorena bezalaxe, ezbai irrazionala isilarazteko duen funtzioa da, zeina Kalvino eta beronen jarraitzaileengan Luterorengan aurkitzen dugun bera zen. Lehen ikusian predestinazioari buruzko doktrinak ezbaia isilarazi baino gehitu egiten duela ematen du. Ez ote luke gizabanakoak, jaio aurretik betiko kondenaziora edo salbamenera predestinaturik dagoela jakin aurretik zeuzkan baino ezbai oinazagarriagoak urratuta sentitu behar bere burua? Nola jakin lezake ziur zein izango den bere zoria? Kalvinoek ziurtasun horren froga konkreturik zegoenik irakatsi ez bazuen ere, berak eta bere jarraitzaileek uste osoa zuten eurak aukeratuena taldeko zirela. Uste oso honetara, Luteroren doktrinaren inguruan aztertua dugun autoapaltze-prozesuaren bidez iritsi ziren. Horrelako uste osoa izanda, predestinazioko doktrinak ziurtasunik ziurrena suposatzen zuen. Ezin zitekeen salbazio-egoera arriskuan jar zezakeen ezertxo ere egin, hau ez baitzegoen norberaren egintzei lotuta, nor bera jaio aurretik erabakia zenez gero. Honez gain, Luteroren kasuan legez, oinarrizko ezbaiak ziurtasun absolutuaren bilaketa zuen ondorio; baina predestinazioaren doktrinak ziurtasuna bazekarren ere, sakonean ezbaia geratzen zen, behin eta berriz isilarazi behar zena, nor bera kide zen elkarte erlijiosoa Jainkoak aukeraturiko gizateriaren zati huraxe zelako sinesmen fanatiko gehikorraz.

Kalvinoren predestinazio-doktrinak hemen esplizituki aipatu beharreko ondorio bat du, berragerpen indartsuena ideologia nazian izan duelako: gizakumeen oinarrizko ezberdintasunaren printzipioa. Kalvinoren ikusiz mota bitako pertsonak daude: salbatuak izango direnak eta betiko galbidera destinatuak direnak. Destino hau jaio aurretik erabakita dagoenez, eta predestinatuak aldarazteko ahalbiderik gabe euren bizitzetan egin edo egin gabe utzi lezaketena gorabehera, ukatu egiten da, hasieratik, gizateriaren berdintasuna. Gizakumeak ezberdin kreatuak dira. Printzipio honek gizakumeen arteko elkartasunik eza ere inplikatzten du, euren arteko elkartasunaren oinarri sendoena den faktorea ukatzen denez gero: giza destinoaren berdintasuna. Kalvinistek inozente-inozente sinesten zuten eurak zirela aukeratuak eta beste guztiak Jainkoak galbidera kondenatuak. Bidezko da sineskera honek, psikologi aldetik, gainerako gizakienganako mesprezio eta gorroto sakona adie-

raztea: Jainkoari egozten zien gorroto berbera besterik ez zena, izan. Pentsamendu modernoak gizakumeen arteko berdintasun gero eta handiagora jo izan badu ere, ez da, hargatik, erabat mututu printzipio kalbinista. Gizakumeak, duten arrazazko estratuaren arabera, funtsean ezberdinak direla dioen doktrina, printzipio beraren berrespena da arrazonaketa ezberdinaz. Suposatu psikologikoak berberak dira.

Beste diferentzia oso esanguratsu bat Luteroren doktrinarekiko, Calvinok ahalegin moralaren eta bizitza bertutetsuaren garrantzia hark baino gorespenago duela da. Esaten duena ez da gizabanakoak bere egintzaren baten bidez «bere destinoa aldatu ahal duela», baizik ahalegin hori egiteko gauza izatea bera dela bat aukeratuen taldekoa den seinale. Gizonak bereganatu behar dituen bertuteak dira: apaltasuna eta neurritasuna (*sobrietas*), justizia (*iustitia*), nori berea eman behar zaiola esan nahiz, eta gizakia Jainkoarekin batzen duen jainkozaletasuna (*pietas*).⁶² Kalvinismoaren geroagoko bilakaeran, bizitza bertutetsuaren gorespenak eta etengabeko ahaleginaren esanahiak garrantzi handiagoa hartzen du, bereziki ahalegin horien ondorioz, munduko bizitzako arrakasta salbazio-seinale delako ideiak.⁶³

Baina kalvinismoaren ezaugarri den bizitza bertutetsuaren gorespenak esangura psikologiko berezia ere bazuen. Kalvinismoak garrantzi handia ematen zion etengabeko giza esfortzuari. Gizakumeak Jainkoaren hitzarekiko adostasunez bizitzen saiatu behar du taigabe eta inoiz etsi ez helburu hori lortzeko ahaleginetan. Doktrina honek ematen du kontraesanean dagoela giza esfortzuak gizakumearen salbamenerako baliorik ez duela diotenarekin. Ahaleginik ez egiteko jarrera fatalista askoz ere erantzun egokiagoa dela dirudike. Hala ere, zenbait gogoramen psikologikok hau ez dela horrela jartzen dute agerian. Larritasun-egoe-rak, ezintasun— eta ezereztasun-sentimenduak, eta, bereziki, heriotzaz geroztiko norberaren destinoari buruzko ezbaiak, edonorentzat ere ia jasanezina den arima-egoera suposatzen dute. Horrelako beldurrak jotako ia inor ere ez litzateke gauza tentsioa baztertu, bizitzaz gozatu eta gero gertatu behar duenaz axolagabe geratzeko. Ziurtasunik gabeko egoera jasangaitz honi eta nork bere ezintasun-sentimendu elbarritzaileari alde egiteko litekeen bide bat, hain zuzen ere kalbinismoan hain gailen bilakatu zen bereizgarri hura da: iharduera frenetikoaren garapena eta «zerbait» egiteko jaugina. Iharduerak kasu honetan izaera konpultsiboa hartzen du: «gizabanakoak ihardunkor irauan behar du, daukan ezbai eta

ezintasun-sentimendua gainditzeko». Mota honetako ahalegin eta iharduera ez da barne-indarraren eta norberaren buruarenganako fidantzaren ondorio; aitzitik, esturari ihes egiteko modu desesperatu bat da.

Mekanismo hau gizabanako batzuek izaten duten izuzko larritasun-oldarretan ikus daiteke. Daukan gaixotasunaren diagnostikoa —fatala izan daitekeena— ordu batzuk barru hartzeko zain dagoen pertsona larritasun-egoeran dagoke, jakina. Ez dagoke, eskuarki, lasai jarrita itxaroten. Maizenik, bere esturak, zirkinik egin ezinik uzten ez badu, halako iharduera gehiago edo gutxiago frenetikora daramake. Batetik bestera ibiliko da, aurrean harrapatzen duenari galdezka eta berbaz ariko zaio edo bere lanmahaia garbitzeari ekingo dio edo gutunak idazten ihardungo. Bere ohizko lanari ekingo dio beharbada, baina besteetan baino lantsuago eta sutsuago. Nolanahikoa den ere haren ahaleginak hartzen duen bidea nolanahikoa dela ere, esturak bultzatua izango da eta iharduera frenetiko horren bitartez ezintasun-sentimendua gainditzeko joera hartuko du.

Ahaleginak, Calvinoren doktrinan, beste esanahi psikologiko bat ere bazeukan. Hain ahalegin etengabean ez nekatzea eta arrakasta izatea, hala egintza moraletan nola sekularretan, aukeratua izatearen seinale argia zen, gehiago edo gutxiago. Ahalegin konpultsibo honen irrazionaltasuna da ezen, «iharduerak, eskuratū nahi den xedea lortzera zuzendu beharrean», norberaren iharduera edo kontrolpearekin inolako zerikusirik gabe predestinatua izan den «zerbait jazoko denentz adierazteko balio duela». Mekanismo hau ezaugarri arrunt ezaguna da neurosi obsesibodunengan. Horrelakoek, afer garrantzitsu baten emaitzaren beldurretan daudenean, erantzunaren zain daudela, etxeetako leihoak edo kaleko arbolak kontatzen dihardukete; ateratzen zaien kopurua bikoitia bada ongi joango dela dena uste dukete, eta gaizki bakoitia izatera. Sarriaskotan duda hau ez da kasu zehatz bati buruzkoa, pertsonaren bizitza osoarekikoa baizik, eta, honen arabera, «seinaleak» bilatzeko jaugin konpultsiboa sortuko da. Askotan harriak kontatze, solitarioak egite edo dirua jokatze eta abarren, eta estura eta ezbaiaren arteko lotura ez da kontzientea. Norbaitek bakar-jokoak egiten urduritasun-sentimendu lanbrotsu batek eraginda ihardun dezake eta egiten ari den ihardueraren funtzio ezkutua, hots, etorkizuna igartzea, analisiak soilik desestalt dezake.

Kalvinismoan, ahaleginaren esanahi hau erlijio-doktrinaren zati zen. Hasieran ahalegin moralari zegokion funtsean, baina gerora, gero

eta inportantzia handiagoa eman zitzaion nork bere lanari eta beronen emaitzari dedikaturiko ahaleginari, hau da, negozioetan izandako arrakasta edo porrotari. Arrakasta jainkotiar graziaren seinale bilakatu zen; porrota, kondenaioarena.

Gogoramenok argi jartzen dute etengabeko ahalegin eta lanerako bulkada ez zegoela, ezta hurrik eman ere, giza ezintasunari buruzko konbentzimenduarekin kontraesanean; aitzitik, honen ondorio psikologikoa zen. Ahaleginak eta lanak, zentzu honetan, izaera arras irrazionala hartzen zuten. Ez ziren patua aldatzera zuzenduak, hau Jainkoak predestinatua baitzen, gizabanakoak buruturiko iharduera ezertarako kontutan hartu gabe. Aldez aurretik erabakitako patua auresateko bes-tetako ez zuten balio, eta, aldi berean, iharduera frenetiko hau bestela jasangaitz zatekeen ezintasun-sentimenduaren aurkako defentsabide indarberritua zen.

Iharduera eta lanari buruz, berez xede denez, sortzen den jarrera berri hau, gizakiak Erdi Aroaz geroztik izan duen eraldakuntza psikologikorik garrantzitsuentzat jo daiteke. Gizarte orotan gizabanakoak lan egin behar du, bizi nahi badu. Gizarte askok esklabei lan eraginez konpondu zuen arazoa, era honetan gizakume libreari ihardun «prestuagoe-tara» dedikatzen utziz. Gizarteotan lana ez zen gizakume librearen duintasunari zegokion iharduera. Erdi Aroko gizartean ere lanaren zama ezberdinki banaturik zegoen hierarkia sozialeko klase ezberdinen artean, bazen hustirapen gordin ugari. Baina lanarekiko jarrera gero, Aro Modernoan, izango zenetik diferentea zen. Lanak ez zeukan, merkatuan etekinarekin saldua izateko gauza zatekeen merkantziaren bat produzi-tzeko bide izatearen kalitate abstraktua. Aitzitik, eskaera konkretu bati eta helburu konkretu batekin lan egiten zen, hots, bizipidea ateratzeko. Bereziki Max Weberrek demostratu duen bezala, ez zegoen bizimaila tradizionala mantentzeko behar zenetik gora lan egiteko premiarik. Ba-dirudi Erdi Aroko gizarteko talde batzuen artean gozatu egiten zela la-naz, lanak produkzio-gaitasunen bat lantzeko aukera ematen zuelako, eta beste askok horretara «behartuta» aurkitzen zirelako egiten zutela lan eta konturatzen zirela premia hau kanpoko presioak eragina zela. Gizarte modernoan berria zena zen ezen gizakumeei lan egiteko bulka-da kanpoko presiotik baino areago, euren baitako jaugin konpultsibo batetik zetorkiela, beste gizarteetan ugazaba oso zorrotz eta gogor batek jendeari eragingo ziokeen moduan.

Barne-bulkadak efikazia handiagoa zuen indar guztiak lanera zu-zentzeko, edozein motatako kanpoko bulkadek baino. Kanpoko bulka-den aurka beti dago zelako halako errebelde gradu bat, lanaren efikazia murrizten duena edo argitasuna, ekimena eta erantzunkizuna behar duen edozein motatako lanbiderako jendea ezgai bihurtzen duena. Gizaku-mea bere buruaren esklabu bihurtzen duen lanerako jaugin konpultsi-boak, ez du horrelako eragozpenik. Kapitalismoa, dudarik ez, ez zateke-en garatuko, giza indar gehienak lanera bideratu ez balira. Ez dago historia guztian beste aldirik, gizakume libreek helburu batera, hots, la-nera, hainbeste energia dedikatu izandakorik. Lanerako jaugin konpul-tsibo etengabea indar ekoizkorrenetako bat izan zen, ez inportantzia gutxiagokoa gure industri sistemarako lurrina eta argindarra baino.

Honaino erdiko klaseko kideen nortasuna uieldua zuen estura eta ezintasun-sentimenduaz ari izan gara. Orain laburki baino aipatu ez du-gun beste ezaugarri bat hartu behar dugu aztergai: erdiko klasekoek zeukaten «etsaitasuna» eta «herragunea». Erdiko klaseak etsaitasun handia izateak ez gaitu harritu behar. Normala da beren adierazpen emozional eta zentzualen zapuzturik eta beren izatean ere mehatxatu-rik sentitzen diren guztiek, erreakzioz etsaitasun-sentimendua izatea. Ikusia dugunez, erdiko klasea oro har eta sortzen ari zen kapitalismoa-ren abantailarik jasotzen ez zuten kideak bereziki, zapuzturik eta serio-ski mehatxaturik sentitzen ziren. Bazegoen beste faktore bat ere beraien etsaitasuna gehitzen zuena, kapitalisten talde txikiak, Eliz agintari nugu-siak barne, eduki eta erakutsi ahal zuen luxua eta boterea. Ondorioa ho-nen kontrako bekaizko bizia zen. Baina, beren etsaitasun eta bekaizkoa gehituz bazihoan ere, erdiko klaseko kideek ez zuten beren sentimen-duak zuzenean adierazteko biderik, beheko klaseek zeukaten bezala. Hauek gorroto zituzten eurak hustiratzen zituzten aberatsak, beraien aginpidea deuseztatu nahi zuten eta, beraz, ezerk ez zien galera-zen gorroto izatea eta gorrotoa adieraztea. Goi-klaseak ere adieraz zezakeen bere erasokortasuna zuzenean botere-gosean. Erdiko klaseko kideak kontserbadoreak ziren funtsean; gizartea egonkortu nahi zuten eta ez irauli; kide bakoitzak aberatsago izateko eta aurreramendu orokorrean partaide izateko esperantza zuen. Etsaitasuna, beraz, ez zen ageriki adierazi behar, areago oraindik ezta nork bere baitan kontzienteki eduki ere: erreprimitu egin behar zen. Hala ere, etsaitasunaren errepresioak objektu erreprimetua kontzientziaren argitasunetik urrundu bai, baina

ezereztu ez du egiten. Honez gainera, etsaitasun erreprimitua, zuzenean adierazteko biderik ez idorotzean, handiagotu egiten da, nortasun guztia eta besteekiko eta geure buruarekiko harremanak kutsatu arteino, baina era arrazionaldu eta mozorrotuagoan.

Luther eta Kalvinok etsaitasun orokutsatzaile hauxe erreprezentzen dute. Ez bakarrik bi gizon hauek, pertsonalki, historiako figura nagusien artean eta are gorroto-sentimenduak bizikien izan zituzten lider erlijiosoen artean sar daitezkeelako, baizik —eta hau askoz garrantzitsuago da— berauen doktrinak etsaitasun horrez tindaturik zeudelako eta doktrinek berek ere etsaitasun bizi eta erreprimituaren eraginpean aurkitzen zen talde batengan bakarrik izan zezaketelako oihartzuna. Honen adierazpide nabarmenena beraiek Jainkoari buruz zeukaten kontzepzioan aurki daiteke, bereziki Kalvinoren doktrinetan. Kontzeptu hau arrunt eta etxeko badugu ere, sarriaskotan ez gara osoki kargutzen zer den Jainkoa, Kalvinoren Jainkoa bezalako izaki arbitrario eta kupidagaiztat bururatzea, gizateriaren zati bat betirako kondenaziora predestinatzeako gauza baita, bere jainko-boterearen adierazpidea azaltzea beste justifikazio edo arrazoirik gabe. Kalvin bera ere, jakina, kezkatu egiten zen kontzepzio honi egin zekizkiokeen objekzioengatik; baina Jainko justu eta maitasunez beterikoaren irudiari eusteko egiten zituen eraiketa sotilago edo ez sotilagoek ez zeukaten inolako konbentzimenik. Gizakiekiko botere mugagabea, berauen menekotasuna eta apalkuntza behar dituen Jainko despotiko honen irudia, erdiko klasearen gorroto eta bekaizkoaren proiektzioa zen.

Etsaitasuna eta herragunea besteekiko harremanen nolakotasunean ere adierazita geratzen ziren. Batipat hartzen zuen forma sumindura moralarena zen, behe-klasearen ezaugarri zena Luteroren garaietatik Hitlerrenetara. Aberastasun eta boterearen jabe zirenen eta bizitzaz gozatzen zutenen bekaizkoz bete-beterik zegoen klase honek, sumindura moralaren bidez eta goiko talde horiek sufrikario eternoaren zigorra jasoko zuten konbentzimenduaren bitartez arrazionaltzen zuen bere herragunea eta bekaizkoa.⁶⁴ Baina besteen aurkako etsaitasunezko tentsioak beste adierazpiderik ere aurkitu zuen. Kalbinek Geneban ezarri zuen erregimenaren ezaugarria susmo eta etsaitasun unibertsaleko giroa zen, bakoitza beste guztien kontra jartzen zuena, eta maitasun— eta anaitasun-izpiriturik ezer gutxi aurki zitekeen noski erregimen honetan. Kalbin ez zen fido aberastasunaz, eta, aldi berean, pobreziarekiko erruki

gutxi sentitzen zuen. Kalbinismoaren geroagoko bilakaeran atzerritarrekiko adiskidetasun-sentimenduen kontrako oharra maiz agertzen dira, eta halaber pobreenganako jarrera krudelak eta susmozko atmosfera orokorra.⁶⁵

Etsaitasuna eta jelsia Jainkoarengan proiektatzeaz eta berauek zeharka sumindura moralaren itxuran adierazteaz aparte, etsaitasuna agertzeko beste era bat, nork bere buruarengana zuzentzea zen. Ikusi dugu Kalvino eta Luterok zein gartsuki biek azpimarratzen zuten gizaikiaren gaiztotasuna eta autoumiltzea eta autobeheratzea bertute orenen eustazpi direla. Haiek buruan kontzienteki zeukatena ez zen noski puntarengo graduko umiltasun bat besterik. Baina autoakusazio eta autoumiltzearen mekanismoak ezagun dituenak, ezin du dudarik izan mota horretako «umiltasunak», arrazoi bat edo bestegatik kanpoalderako adierazpidea blokeaturik aurkitu eta orduan norberaren niaren kontra jokatzen duen gorroto bortitz batean dituela sustraiak. Fenomeno hau behar den moduan ulertzeko konturatu beharra dago ezen, norberaren buruarenganako eta besteenganako jarrerak, kontraesankorrek izatetik urrun, berez paraleloki doazela. Baina besteenganako etsaitasuna maiz kontzientea den eta ageriki adieraz daitekeen artean, geure buruaren kontrako etsaitasuna, eskuarki (kasu patologikoak kenduta), inkontzientea da eta modu zeharkako eta razionalduetan topatzen du bere adierazpidea. Bat da norberaren gaiztotasun eta ezereztasunaren azpimarratze aktiboa, esana dugun moduan. Beste bat kontzientzia edo betebehargisa ageri da. Nola baden norberaren buruarenganako gorrotoarekin inolako zerikusirik ez duen umiltasun-mota, halaxe badira baita ere jatorrak diren kontzientziaren aginduak eta etsaitasunean sustraiturik ez dagoen betebeharsena. Kontzientzia jator hau nortasun integratuaren osagai da, eta beronen eskabideei obeditzea ni osoa baiezte da. Aitzitik, «betebehar»-sena, Erreforma-garaitik hona, arrazionalizapen erlijioso edo sekularretan, gizakume modernoaren bizitza uiltzen ikusten duguna bezalakoa, niaren kontrako etsaitasunak biziki koloraturik dago. «Kontzientzia», gizonak bere barnean jarri duen esklabukari bat da, berak bereak direla «uste» duen desira eta xedeen arabera jokatzeri behartzen duena, izatez, barne exigentzia sozialen barneratzea besterik ez badira ere. Laztasunez eta krudeltasunez agintzen dio, plazerra eta zoriona debekatuz, eta haren bizitza osoa bekatu misterioetsuren bat ordaintzeko bide bihurtuz.⁶⁶ Baita ere bada hasierako kalbinismoaren eta geroagoko

puritanismoaren ezaugarri hain petoa zen «barne-aszetismo mundutar» haren oinarria ere. Umiltasun era eta betebeharen berri hau sustraitzen diren etsaitasunak, bestela nahasgarri litzatekeen kontraesan bat ere esplikatzeko du: ezen umiltasun hau besteenganako mespretxuarekin batera doala eta norberaren bertuteak maitasuna eta errukia ordeztu egin dituela. Benetako umiltasunak eta lagunurkoarenganako betebeharen ezingo zuketuen horrelakorik egin; baina autoumiltzea eta bere burua ukatzen duen «kontzientzia» etsaitasunaren alderdi bata besterik ez dira; bestean gorrotoa eta hurkoenganako mespretxua daude.

Komenigarri deritzot orain, Erreforma-garaiko askatasunaren esangurari buruzko analisi labur hau oinarritzat hartuta, orain komenizko iruditzen zait askatasunaren arazo espezifikoa buruz eta faktore ekonomiko, psikologiko eta sozialek gizarte-prozesuan duten elkarregiaren arazo orokorrari buruz erdietsitako konklusioak laburbiltzea.

Erdi Aroko gizarte feudalaren sistemaren eraispenak esanahi handia du klase sozial guztientzat: gizabanakoa bakarrik eta isolaturik geratu zen. Aske zen. Askatasun honek emaitza bikoitza du. Gizakumea zeukan segurtasunaz, nonbaitekoa zelako sentimendu eztabaidagaitzaz, gabetua izan zen eta bere segurtasun hala ekonomiko nola sozialerako irrika asetu zion mundu hartatik erauzia izan zen. Bakarrik eta estu sentitu zen. Baina libre ere bazen bere kabuz jokatu eta pentsatzeko, bere buruaren jabe bihurtzeko eta bere bizitzarekin ahal zuen guztia, eta ez agintzen ziotena, egiteko.

Hala ere, askatasun-mota bi hauek garrantzia ezberdina zuten, klase sozial diferenteetako kideen egiazko bizi-egoeraren arabera. Gizarteko klase edukitsuenak bakarrik jaso ahal izan zuen kapitalismo jaioberririk aginpideaz eta diruaz benetan jabetzeko adinako onura. Klase honetako kideek hedatu, konkistatu, agindu eta ondasunak metatu ahal izan zituzten, beren iharduera eta kalkulu arrazionalen emaitza bezala. Diruzko aristokrazia berri hau, jaiotzazkoarekin konbinaturik, askatasun berriaren konkistez gozatu ahal izateko eta domeinuaren eta ekimen individualaren kontzeptu berri bat bereganatzeko egoeran aurkitzen zen. Bestalde, masak domeinatu behar zituzten eta, aldi berean, euren artean norgehiagoka aritu; horrela euren egoera ere ez zegoen nolabaiteko oinarritzko larritasun eta segurtasun ezetik libre. Hala ere, jeneralean, kapitalista berrien artean askatasunaren alderdi positiboa zen nagusi. Hau aristokrazia berriaren soroan loratutako kulturaren

ageri zen: Errenaisantzako kulturaren. Beronen artean eta filosofian giza duintasun, borondate eta domeinuko izpiritu berri bat aurkitzen dugu, nahiz eta sarri samar eskeptizismoa eta etsipena ere bai. Iharduera individualaren indarraren eta nahimenaren gorespen berau aurki daiteke Eliza katolikoaren Behe Erdi Aroko irakaspen teologikoetan ere. Aldi honetako eskolastikoak ez ziren altxatu agintean aurka, onartu egin zuten haren gidaritzaz; baina indartsu seinalatu zuten askatasunaren esangura positiboa, gizakiaren partaidetza bere izangoa erabakitzean, beronen indarra, beronen duintasuna eta beronen nahimenaren askatasuna.

Bestalde beheko klaseak, hirietako biztanleria pobrea eta bereziki baserritarrak, ordura arte ezezaguna zuten askatasun-bilaketak eta zapalkuntza ekonomiko eta pertsonal gero eta handiagoari bukaera emateko esperantza sutsuak bultzatuak ziren. Galtzeko gutxi eta irabazteko asko zuten. Sotilezia dogmatikoak barik, oinarritzko printzipio biblikoak, hots, anaitasuna eta justizia, ziren ardura zietenak. Beraien esperantzak bide eginkorra hartu zuten zenbait altxamendu politikotan eta kristautasunaren hasiera-hasierako izpiritu amoregaitz tipokoa ezaugarri zuten erlijio-mugimenduetan.

Baina gure interes printzipala erdiko klaseak izandako erreakzioa aztertzea bideratua da. Goraka zihoan kapitalismoak, haren independentzia eta ekimena gehitzen laguntzen bazuen ere, mehatxu handi bat suposatzen zuen. XV. mendearen hasieran erdiko klaseko kidea ez zegoen oraindik askatasun berriaren bitartez aginpide eta segurtasun handirik lortzeko moduan. Askatasunak gizabanakoaren isolamendua eta ezereztasuna ekarri zuen indarra eta konfidantza baino gehiago. Honez gain, herragune bizi batek gainez eginda zegoen klase aberatsen botere eta luxuaren kontra, Eliza erromatarraren hierarkia ere barne zelaririk. Protestantismoak adierazpidea eman zien ezereztasun eta herragune-sentimenduei, Jainkoaren baldintzarik gabeko maitasunarekiko konfidantza deuseztu zuen, eta bere burua mespretxatzen eta bere buruaz eta besteez mesfidatzen irakatsi zion; xede barik bitarteko bihurtu zuen gizakumea, errendatu egin zen botere sekularren aurrean, eta botere sekularra, baldin printzipio moralekin kontraesanean badago, ez dela bere izate hutsaz justifikatzen dioen printzipioari uko egin zion; eta hau guztia eginaz judu-kristau tradizioaren zimenduen osagai ziren zenbait elementu alde batera utzi zituen. Haren doktrinek gizabanakoaren, Jainkoa-

ren eta munduaren irudi bat aurkeztu zuten, non sentimendu horiek justifikaturik baitzeuden gizabanakoak sentitzen duen ezereztasuna eta ezintazuna bere giza izaeraren fruitu zela, eta bakoitzak sentitzen zuen moduan sentitu «behar» zuela sinesteagatik.

Honekin erlijio-doktrina berriek erdiko klaseko kide arruntak zeuzkan sentimenduak ez bakarrik adierazi, ezpabere, jarrera hau sistematizatu eta razionaltzean, gehitu eta indartu ere egin zituzten. Bestalde, hori baino gehiago egin zuten; doktrinok gizabanakoari bere esturak isilarazteko era bat erakutsi ere egin zioten. Irakatsi zioten ezen bere ezintasuna eta izatezko gaiztotasuna aitortuz, bere bizitza osoa bekatuak ordaintzeko bidetzat hartuz, autoumiltzea mutur-muturreraino eramanez, eta, guzti honez gainera, etengabeko ahaleginaren bidez, iritsi zitekeela bere ezbaia eta estura gainditzera; bere erabateko menekotasuna bitarteko zela, Jainkoak maitatua izan zitekeela eta, gutxienez, Jainkoak salbatzea erabakitakoen artean egoteko esperantza eduki zezakeela. Protestantismoak, mundu berri batera jotzera eta berarekin erlazionatzea beharturik aurkitzen zen gizabanako beldurtu, deserrotu eta isolatua- ren giza premiei emandako erantzuna zen. Aldaketa ekonomiko eta sozialetik zetorren eta erlijio-doktrina berrien eraginez indar hartzen ari zen karaktere-egitura bera ere, geroko garapen ekonomiko eta soziala eratzeko faktore garrantzitsu bihurtu zen. Mota honetako karaktere-egituran errotuta zeuden kualitateak berak —lanerako jaugin konpulsiboa, aurrezteko grina, bere bizitza botere extrapertsonal baten xedeetarako tresna huts bihurtzeko gertutasuna, aszetismoa eta betebehar-sen konpulsiboa— izan ziren sozietate kapitalista eragin zuten indar bilakatu ziren karaktere-ezaugarriak, berauek gabe pentsaezina litzatekeelarik ekonomi eta gizarte-garapen modernoa; horiexek izan ziren giza energiak hartu zituen forma espezifikokoak eta indar sortzaileetariko bat izan zirenak prozesu sozialaren barruan. Izakera honi zegozkion ezaugarrien arabera jokatzeko abantailatsu gertatzen zen beharizan ekonomikoen ikuspuntutik begiratuta; psikologikoki ere asegarri gertatzen zen, zeren horrelako jokabideak, mota berri honetako nortasunak zeuzkan premia eta esturei erantzuten baitzien. Printzipio bera termino orokorrangoetan adierazteko, esan genezake: prozesu sozialak, gizabanakoaren bizimoldea, hau da, honen harremanak besteekin eta lanarekin, determinatzean, beronen karaktere-egitura moldatzen du; honetatik ideologia berriak sortzen dira —filosofikoak, erlijiozkoak edo politikoak—, karaktere-egi-

tura berorren baitan aldaketak eragiteko gauza direlarik, horrela berau azpimarratu, ase eta egonkortuz; karaktere-ezaugarri eraberriak, beren aldetik, garapen ekonomikoaren garantziko faktore bilakatzen dira eta eragina dute prozesu sozialean; funtsean elementu berrien mehatxuaren aurkako erreakzio moduan garatu izan baziren ere, astiro-astiro ekonomia- ren garapen berriari aurrera eragin eta areagotu zuten produkzio- indar bihurtu ziren.⁶⁷

IV

ASKATASUNAREN ALDERDI BIAK GIZAKUME MODERNOARENTZAT

Aurreko kapitulua protestantismoaren doktrina printzipalen esanahi psikologikoaren analisia egitera dedikatu dugu. Ikusi dugu erlijio-teoria berriak, Erdi Aroko sistema sozialak eta kapitalismoaren hasierak sorturiko beharrian psikikoei emandako erantzuna zirela. Analisia askatasunaren arazora fokatua zegoen honek duen zentzu bikoitzean: agerian jartzen zuen Erdi Aroko lokarri tradizionalatiko askatasunak, gizabanakoari ordura arte ezezaguna zen independentzi sentimendu bat eman bazion ere, aldi berean bakarrik eta isolaturik sentitzea ekarri ziola, esturaz eta zalantzez beterik utziz eta menekotasun-mota berrietara eta iharduera irrazional eta konpultsibora bultzatuz.

Kapitulu honetan azaldu nahi dut gizarte kapitalistaren geroagoko garapenak Erreforma-garaian hasi zen norabide berean izan zuela eragina nortasunaren baitan.

Doktrina protestanteek psikologikoki prestatu zuten gizabanakoa industri sistema berrian egokituko zitzaion papera betetzeko. Sistema honek, bera praktikatzek eta beronetatik atera zen izpirituak, bizitzako aspektu guztiak bere gain hartzean, zeharo moldatu zuen giza nortasuna eta aurreko kapituluan aztertu ditugun kontraesanak areagotu: garatu egin zuen gizabanakoa —eta babesgabeago bihurtu; gehitu egin zuen askatasuna —eta menpetasun-mota berriak sortu. Ez gara saiatuko deskribatzen kapitalismoak gizakumearen karaktere-egitura osoan izan zuen eragina, zeren problema orokor honen aspektu bakar bat fokatu baitugu: askatasunaren hazkunde-prozesuaren izaera dialektikoa. Gure xedea, aitzitik, gizarte modernoaren egiturak gizakumeari bi eratara aldi berean daragiola erakustea da: alde batetik, independenteago eta kriti-

koago egiten du, bere buruarenganako konfidantza gehiago emanez, eta bestetik, bakarrago, isolatuago eta beldurtuago ere bai. Askatasunaren arazoa bere osotasunean ulertzea, prozesuaren alderdi biak batera ikusteko eta batari begira bestea bistatik ez galtzeko gaitasunaren mende dago.

Hau zail gertatzen da, zeren modu ez-dialektikoan pentsatzen ohiturik baikaude eta aiher baikara dudan jartzera bi joera kontraesankor aldi berean kausa beretik sor litezkeenik. Honez gainera, bereziki askatasuna maite dutenentzat, zail da honen alde txarraz, gizakumeari ezartzen dion kargaz, konturatzeari. Askatasunaren aldeko burrukan, aro modernoan, arreta guztia aginpide eta mugaketa forma «zahar» guztiei atakea jotzera jarri zenez, bidezko zen pentsatzea zenbat eta lokarri tradizionalak deuseztenago, orduan eta askatasun gehiago irabaziko zela. Alabaina, ez ginen behar bezainbatean konturatu gizakumea askatasunaren lehengo arerioengandik libratu bada ere, izaera ezberdineko beste batzuk sortu direla; funtsean kanpotiko murrizketak ez diren arerioak, ezpabere nortasunaren askatasunaren gauzatze osobetea eragozten duten faktoreak. Konbentziturik gaude, esate baterako, erlijio-askatasuna askatasun izpirituaren garaitza behinbetikoetako bat dela. Baina ez gara ohartzeko, gizakumeari bere kontzientziaren arabera erlijiotasuna adierazten debekatzen dioten eliz eta estatu-botereen aurkako garaipena bada ere, gizabanako modernoak galdu egin duela hein handi batean natur zientzien arabera egiaztagarri ez datekeen zerbaitetan sinesteko barne-gaitasuna. Edo, beste adibide bat aukeratuz, uste dugu hitz-askatasuna azken etapa dela askatasunaren garaitzaren ibilaldian. Baina ahaztu egiten dugu, eskubide hau, katea «zaharren» aurka egindako konbetean, garaipen inportante bat bada ere, gizakume modernoak halako moldeko egoeran aurkitzen dela, non «berak» pentsatu eta esaten duenetik asko mundu guztiak berdinki pentsatzen eta esaten duena den; ahaztu egiten dugu ez duela originaltasunez —hots, bere kabuz— pentsatzeko gaitasunik bereganatu, zeinak bakarrik damaion gizakumeak bere pentsamenduen adierazpidean inor ez tartekatzeke duen galdapenari esanahia. Areago oraindik, harro sentitzen gara gizakumea, bere bizitzako jokabidean, zer egin edo egin gabe utzi behar zuen seinalatzen zioten kanpoko aginteetatik libratu izanaz. Ahantzi egiten dugu hain indartsuak diren izengabeko aginteen, hala nola eritzi publikoaren eta «sen komuna»ren garrantzia, joera sakon bat dugulako mundu guztiak guregandik itxaro-

ten duenera moldatzeko eta izu berdina sakona diogulako besteengandik diferente agertzeari. Bestela esanda, liluraturik sentitzen gara guregandik «kanpoko» aginteetatik erdietsi genuen askatasuna dela eta, eta itsu gara, askatasunak bere arerio tradizionalengandik lorturiko garaipenen esangurari azpijana egiteko joera duten «barruko» murrizketa, estura eta beldurren aurrean. Horregatik aiher gatazka sinesteari askatasunaren arazoa historia modernoan zehar eskuratu dugun askatasun-mota bera- ren «gradu handiagoa» oraindik lortzean datzala soilki, eta uste dugu egin behar den guztia askatasun honen aurka dauden botereetatik askatasuna defendatzea dela. Ahaztu egiten dugu, lorturiko libertate guztiak eta bakoitza indarrak handienaz defendatu behar baditugu ere, askatasunaren arazoa ez dela kantitatezkoa soilik, kalitatezkoa ere baizik; libertate tradizionalak zaindu eta gehitzera soilik ez dugula jo behar, ezpabere, honez gain, askatasun-mota berri bat erdietsi behar dugula, gure ni individualaren burutzapen osobeterako eta beronengan eta bizitzan fede- a ukateko ahalbidea emango diguna.

Mota honetako barne-askatasunean industri sistemak duen eraginar- en balioespen kritiko oro, kapitalismoak giza nortasunaren garapena- ri ekarri dion aurreramentu itzela guztiz ulertzetik hasi beharra dago. Jakina, koadroaren aspektu hau alde batera uzten duen gizarte moderno- arekiko erizpen orok, hau eginez, erromantizismo irrazionalean sustrai- turik dagoen froga bat emango du eta kapitalismoa, ez aurreramentua- ren onerako, baizik eta gizakumeak historia modernoan erdietsitako konkista esanguratsuenak deusezteko kritikatzearen susmagarri bihurtu- ko da.

Protestantismoak, gizakumea izpiritualki askatzean, hasitako la- nari kapitalismoak eman dio segida, honek ikuspuntu mental, sozial eta politikotik egin zuelarik. Askatasun ekonomikoa zen garapen honen oi- narria, eta erdiko klasea zen beronen aintzindaria. Gizabanakoa ez ze- goen jada, tradizioan oinarrituriko eta egoera pertsonalean muga tradi- zionalez haraindik aurrera egiteko bitarte erlatiboki estu bat besterik eskaintzen ez zion ordenu sozial tinko batek kateaturik. Orain zilegi zi- tzaion eta espero zuen bere artaz, argitasunaz, adorea, aurrezpenaz edo zorteaz erdiesteko gai zen irabazi ekonomikoko pertsonal guztietan arra- kasta izatea. Berea zuen arrakastarako aukera, berea galtzeko arriskua eta bakoitzak beste guztien kontra zegien bataila gogorrean hildako edo zauriturikoen arteko bat izatekoa. Sistema feudalarren menpean, bera

jaio aurretik ere, finkaturik zituen bere bizitzaren hedapenaren mugak; baina sistema kapitalistaren menpean, gizabanakoak —eta bereziki erdiko klaseko kideak—, mugapenik asko izan arren, bere merezimendu eta egintzen arabera garaile izateko aukera zuen. Xede bat ikusten zuen bere begien aurrean, zeina eskuratzen burruka zitekeen eta zeina erdiesteko aukera ere maiz zeukan. Bere buruarekin kontaktzen, erabaki erantzunkizuntsuak hartzen eta sineskeria kontsolagarriak zein beldur-garriak bazter uzten ikasi zuen. Poliki-poliki naturak jarritako mugapenetatik askatuz joan zen; naturaren indarrak aurreko aldietan sekula entzun ez amestu gabeko graduan menderatu zituen. Gizakumeek berdintasuna erdietsi zuten; etorki eta erlijiozko aldeak, aldi batean giza endaren batzea oztopatzen zuten muga naturalak izandakoak, suntsitu egin ziren, eta horrela gizakumeek gizakitzat elkar aintzatesten ikasi zuten. Mundua, gero eta gehiago, aztikerietatik liberatuz joan zen; gizakumea bere burua objektiboki ikusiz joan zen, gero eta irudikeria gutxiagoz. Askatasun politikoa ere hazi egin zen. Zeukan indar ekonomikoaren oinarriaren gainean, erdiko klase jaioberriak botere politikoa konkistatu ahal izan zuen, eta botere eskuraberri honek, bere aldetik, aurreremendu ekonomikorako ahalbide gehiago sortu zuen. Ingalaterra eta Frantziako iraultza handiak eta Iparramerikako independentziaren aldeko burruka izan ziren bilakaera honen giltzarriak. Politika-eremuko askatasunaren garapenaren gailurra Estatu demokratiko modernoa izan zen, gizakume guztien berdintasunaren printzipioan eta hiritar guztiek libreki aukeraturiko ordezkarien bidez gobernuan eskuhartzeko berdineko eskubidean oinarritua. Era honetan suposatzen zen nor bere interesen arabera eta aldi berean nazioaren ongizate komuna begiratuz jokatzeko gai zela.

Hitz batean, kapitalismoak gizakumea lokarri tradizionaletatik askatu ez ezik, indartsuki lagundu zuen askatasun positiboaren gehikuntza, hau da, ni eginkor, kritikoa eta erantzule baten hazkundera.

Hala ere, nahiz eta guzti hau kapitalismoak garatzen ari zen askatasunean eragindako efektuetariko bat izan, aldi berean gizabanakoa bakarrago eta isolatuago bihurtu zuen eta ezereztasun eta ezintasun-sentimendua sortarazi zion.

Honetan, aipatu beharreko lehenengo faktorea ekonomia kapitalistaren ezaugarri orokorretako bat da: iharduera indibidualistaren printzipioa. Erdi Aroko sistema feudalarrekin kontrastean, honen baitan nork

bere lekua baitzuen egitura sozial ordenatu eta garden baten barruan, ekonomia kapitalistak zeharo bere indarretara utzi zuen gizabanakoa. Zer egiten zuen eta nola egiten zuen, arrakasta zuen ala ez zuen, hori bere kontua zen erabat. Jakina, printzipio honek bizitu egin zuen gizabanakotze-prozesua, eta horregatik aipatzen da beti elementu inportante moduan kultura modernoaren ekarpenean. Baina «zertatik askatasuna» bultzatzean, printzipio honek gizabanako baten eta bestearen artean zeuden lokarri guztiak ebakitzen lagundu zuen, eta horrela gizabanakoa bere lagunurkoengandik banandu eta isolatu egin zuen. Garapen hau Erreformaren irakaspenek prestatua zen. Eliza katolikoan gizabanakoaren harremanak Jainkoarekin, Elizako kide izatean oinarritzen ziren. Eliza zen gizakumea eta Jainkoaren arteko bigizta, eta horrela, alde batetik bere gizabanakotasuna murrizten zuen bitartean, beste aldetik Jainkoaren aurrez aurre bakarrik barik talde baten baitako kide moduan egoten uzten zion. Protestantismoak, ostera, Jainkoaren aurrean bakarrik ipini zuen gizakumea. Fedea, Luterok ulertzen zuenez, esperientzia erabat subjektiboa zen, eta Kalvinoaren arabera, norberaren salbazioaren uste osoak izaera subjektibo berori zeukan. Jainkoaren ahal guztiari bakarrik aurre egiten zion gizabanakoak zapalduta sentitu behar zuen bere burua eta menekotasun erabatekoenean bilatu bere salbazioa. Ikuspegi soziologikotik indibidualismo izpiritual hau ez da indibidualismo ekonomikotik guztiz diferentea. Kasu biotan gizabanakoa erabat bakarrik aurkitzen da eta bere isolamenduan goi-botere bati egin behar dio aurre: dela berau Jainkoarena, konpetidoreena, edo indar ekonomiko inpersonalena. «Jainkoarekiko harremanen izaera indibiduala, izaera sekularreko giza iharduera indibidualistetarako prestakuntza zen.

Sistema ekonomikoaren izaera indibidualista egitate eztabaidaezina den eta indibidualismo ekonomiko honek gizabanakoaren bakardadearen gehikuntzan izan duen eragina bakarrik dudazko ager daitekeen bitartean, orain eztabaidatzera goazen tesia kontraesanean dago kapitalismoari buruz zabalduenetakoak diren kontzeptu konbentzional batzuekin. Kontzeptuon arabera, gizakumea, gizarte modernoan, iharduera ororen erdigune eta xede bilakatu da; egiten duen guztia bere buruarentzat egiten du; norberaren interesaren eta norberekoitasunaren printzipioak dira giza ihardueraren motibazio guztiahaldunak. Kapitulu honen hasieran esan denetik deduzitzen da baiezipen hauekin, puntu bateraino, ados gaudela. Gizonak asko egin du bere buruarentzat, bere asmoak be-

tetzeko, azken lau mendeotan. Hala ere, «bere» asmoa zela uste zuenaren zati handi bat ez zen «bere» asmoa, baldin «bera» esatean ulertzen badugu, ez «langilea, ez «industriaria», baizik eta giza izaki konkretua, dituen ahalbide emozional, intelektual eta setimenezko guztiekin. Kapitalismoak egiten duen gizabanakoari buruzko baiezenaren ondoan, hantxe daude autokazioa eta aszetismoa ere, hauek izpiritu protestantaren jarraipen zuzen direlarik.

Tesi hau azaltzeko lehenik eta behin aurreko kapituluaren ezarritako egitate bat aipatu behar dugu. Erdi Aroko sistemaren barruan kapitala gizakumearen morroi zen, baina sistema modernoaren barruan haren ugazaba bihurtu da. Erdi Aroko munduan iharduera ekonomikoak bitarteko ziren xedea lortzeko, eta xedea bizitza bera zen, edo —Eliza katolikoak ulertzen zuen bezala— gizakumearen salbamena izpirituala. Iharduera ekonomikoak beharrezkoak dira eta aberatsek eurek ere Jainkoaren asmoen zerbitzutan joka dezakete, baina kanpoko iharduera orok, bizitzaren xedeen alde doan heinean bakarrik hartzen ditu esanahia eta duintasuna. Erdi Aroko pentsatzaileak iharduera ekonomikoari eta lukuru-nahiari berenez xedetzat hartuta, modernoek euron ausentziari bezain irrazional zeritzeten.

Kapitalismoan, iharduera ekonomikoa, arrakasta, irabazi materialak, berenezko xede bihurtzen dira. Gizakumearen destinoa, sistema ekonomikoaren hazkundearen, kapitalaren metaketaren laguntzaile bihurtu da, ez bere zorion edo salbazioarako, berezko xedetzat baizik. Gizakumea makina ekonomiko gaitzaren engranaia bat bilakatzen da —engranaia inportantea kapitalik badauka, kaxkarra ez badauka—, baina kasu guztietan bereganatik kanpoko asmoen zerbitzutarako engranaia izaten segitzen du. Nork bere nia xede extragizatarraren menpean ipintzeko gertutasun hau protestantismoak prestatu zuen noski, nahiz eta ezertxo ere ez zegoen urrunago Kalvino eta Luteroren izpiritutik ekonomi ihardueren nagusigoaren onespenez hori baino. Baina beraien irakaspen teologikoak izan ziren prozesu honetarako lurra prestatu zutenak, gizakumearen bizkarrezur izpiritualari, haren duintasun eta harrotasun-sentimenduari, zart eragitean, eta iharduera gizabanakoarengandik kanpoko xedeetara zuzendu behar zela irakastea.

Aurreko kapituluaren ikusia dugunez, Luteroren irakaspenaren puntu printzipaletako bat giza izaeraren gaiztotasuna, haren nahimena-
ren eta ahaleginen alferrekotasuna, azpimarratzen zetzan. Antzera ba-

tean, Kalbinek gizakiaren gaiztotasuna nabarmentzen zuen eta bere sistema guztiaren erdigunean gizakumeak bere harrokeria umiliatu ahala umiliatu behar duela dioen ideia jarri zuen; honez gain, giza bizitzaren xedea Jainkoaren loria, eta ez norberarena, zela baieztu zuen. Horrela, Kalbin eta Luterorek, gizabanakoa psikologikoki prest jarri zuten gizartea modernoan bete behar zuen eginkizunerako: nork bere burua ezerez sentitzea eta prest egotea bere bizitza guztia bereak ez diren xedeen pean jartzeko. Behin gizakumea prest egon zenean bitarteko huts bihurtzeko ez justizia ez maitasuna errepresentatzen ez zituen Jainkoaren loriarako, behar bezainbatean prestatu zegoen makina ekonomikoaren morroi izateko funtzioa onartzeko eta, denborarekin, «Führerren» baten morroi izateko.

Gizabanakoa xede ekonomikoaren pean bitarteko moduan jartzea produkzio era kapitalistaren ezaugarrietan oinarritzen da, kapitalaren metaketa jartzen baitu giza ihardueraren xede eta helburutzat. Mozkina ateratzeko lan egiten da, baina batek ateratzen duen mozkina ez da gatzatzeko, kapital berritan inbertitzeko baizik; honela gehituriko kapitalak mozkin berriak dakartza, hauek ere inbertitu egiten direlarik, era honetan segi eta segi amaigabeko prozesu zirkularrean. Jakina, beti izan dira kapitalistak beren dirua luxutan edo «eralkitze nabarmenetan» gastatu izan dutenak; baina kapitalismoaren errepresentatzaile klasikoek lanean zuten gozamena —ez gastuan—. Kontsumorako erabili beharrean kapitala metatzaren printzipio hau gure sistema industrialaren konkista handiaren premisa da. Gizakumeak hartu ez balu lanarekiko jarrera aszetiko hau eta bere lanaren fruituak sistema ekonomikoaren produkzio-ahalmenak garatzeko inbertitu nahia, inoiz ez zatekeen gauzatuko natur indarren menerapenean lortu dugun aurreramentua; produkzio-indarren hazkunde hau izan da lehenengo aldiz historian, beharrezan materialak asetzeko burruka taigabe hau beharko ez duen etorkizuna ikusteko modua eman diguna. Hala ere, nahiz eta kapitalaren metaketa lortzeko lan egin behar dela dioen printzipio hau objektiboki balio itzelekoa den gizateriaren aurreramenturako, subjektiboki, gizakumeak xede extrapersonaletarako lan egitea ekarri du, berak eraikitako makinaren eskalabu bilakarazi du, eta, beraz, bere ezereztasun eta ezintasunaren sentimendua sortarazi dio.

Honaino kapitalaren jabe izanik beren mozkinak inbertsio berrietara zuzentzeko modua zuten gizarte modernoko gizabanakoez ari izan

gara. Kapitalista handiak ala txikiak ziren kontutan izan gabe, euren bizitza funtzio ekonomikoa, kapital-metaketa, betetzera emana zen. Baina, zer gertatu zitzaion, kapitalik ez eta beren lana salduz bizitza atera behar zutenei? Euren egoera ekonomikoaren efektu psikologikoa ez zen kapitalistak izandakoaren oso ezberdina izan. Lehenik eta behin, enpleguak zirenez, merkatuko legeen, goratzapen eta krisialdiaren eta beren ugazabak zeuzkan tekniken aurreramenduaren eraginaren mende zeuden. Honek zuzenean maneiatzeko zituen, eta eurentzat men egin beharreko goragoko indar baten adierazpen bihurtu zen. Hauxe izan zen bereziki langileen jarrera XIX. mendera arte eta mende honetan zehar. Ordudanik mugimendu sindikalak nolabaiteko boterea eman dio langileari, eta beronen bidez gainditu ahal izan du zeukan maneiagai huts eta pasiboaren egoera.

Baina, langileak enplegatuak diren zeukan menpetasun zuzen eta pertsonala alde batera utzita, kapital-jabearen ezaugarri bezala seinatu ditugun aszetismo-izpirituak eta xede extrapertsonalekiko menpetasunak langilearen buruera ere kutsatu zuten, gizarte guztiarena bezalaxe. Hau ez da harritzekoa. Edozein gizartean kultura guztiaren izpiritu bertako talde indartsuenak erabakita dago. Hori gertatzen da, zati batean, hezkuntz sistema, eskolak, eliza, prentsa, antzerkia kontrolpetzeko ahalmena dutelako, era honetan beren ideiak biztanlego guztiaren burueran sarraraziz; honez gain, talde ahaltsuok hain itzal handia dute, non beheko klaseak prest bai prest agertzen diren haien balioak onartu eta imitatzeko eta psikologikoki beraiekin identifikatzeko.

Honaino mantendu izan dugu produkzio era kapitalistak gizakumea xede ekonomiko suprapertsonaletako tresna bihurtu duela eta aszetismo eta ezereztasun indibidualari gorakada eragin diola, honetarako prestakuntza protestantismoak zuelarik burutu. Tesi hau, halabaina, kontraesan dago gizakume modernoan, ez sakrifizio eta aszetismoarako joerak, baizik eta, aitzitik, norberekotasun-gradu gorenak eta interes pertsonalaren bilaketak motibaturik dagoela, itxuraz bederen, egiaztatzearekin. Nola uztartu honako hauek, hots, gizakumea objektiboki bere interesak mugitzen zuela uste izatea? Nola uztartu protestantisismoaren izpiritu eta beronek egiten duen desinteresaren gorespina norberekotasunaren doktrina modernoarekin, zeinaren arabera —Machiavelok dioenez— norberekotasuna bailitzateke giza jokabidearen

motiborik indartsuena, abaintaila pertsonalak eskuratzeko grina balioespen moral oro baino sendoago eta gizakumeak, bere ondasunak galdu baino lehenago, nahiago bailuke bere aita hiltzen ikusi ere? Ba al dago kontraesan hau esplikatzetik desinteresaren gorespina norberekeria esaltzeko ideologia zela suposatze hutsez? Neurri bateraino hau egia izan baliteke ere, ez dugu uste erantzun osoa denik. Erantzuna zein norabidetan dagoen seinaltzeko, norberekotasuna den arazo psikologiko korapilatsua aztertu behar dugu.⁶⁸

Luteroren eta Kalvinoaren eta baita Kanten eta Freuden pentsaeraren azpian dagoen suposamena zera da: norberekotasuna eta nork bere burua maitatzea gauza bera dira. Besteak maitatzea bertute da, nork bere burua maitatzea bekatu. Are, besteenganako maitasunak eta norberaren buruarenganakoak elkar eskluditzen dute.

Teoriaz, maitasunaren izaerari buruzko zimarku bat aurkitzen dugu hemen. Maitasuna, lehenik eta behin, ez da objektu zehatz batek «eragindako» zera, pertsona batengan potentzian aurkitzen den kalitate bat baizik, «objektu» batek mugiarazten duenean gauzatzen dena. Gorrotoa, suntsitzeko desira grinatsua da; maitasuna, «objektu» baten baiezen grinatsua da; ez da «afektu» bat, jaugin eraginkor eta erlazio min bat baizik, bere objektuaren zoriona, hedapena eta askatasuna xede duena.⁶⁹ Bideratzez, edozein pertsona edo objektuarengana, are nork bere buruarengana, bidera dezakeen joera da. Maitasun eksklusiboa bere baitan da kontraesana. Bistan denez, pertsona bat beste baten maitasun nabariaren «objektu» bihurtzea ez da azare hutsa. Aukera hau baldintzatzen duten faktoreak gehiegi eta konplexuegi dira guk orain hemen eztabaidatzeko. Garrantzizkoa, hala ere, zera da, «objektu» berezi batenganako maitasuna, maitasun potentziala pertsona batengan gauzatzea eta biltzea besterik ez dela; ez da gertatzen, amodioaren ikuskera erromantikoak eskatzen duen bezala, maite daitekeen pertsona «bakar» bat dagoela munduan, bizitzako zortetik handiena pertsona hori aurkitzea dela, beraganako maitasunak gainerako guztienganako maitasun ukatze-ara garamatzala. Amodio-mota honek, pertsona bakar batengana senti daitekeenak, horrexegatik berorregatik, argi erakusten du maitasuna barik lotura sadomasokista dela. Maitasunak bere baitan daraman oinarritzko baiezen maite den pertsonarekikoa da, berau esentzialki giza atributuaren hezuramitza denez. Pertsona batenganako maitasunak gizaki denez gizakiarenganako maitasuna inpliketzen du. Gizaki denez

gizakiarenganako maitasuna ez da, maiz suposatzen den bezala, pertsona konkretu batenganako maitasunaren ondoren sortzen den «abstrakzio» bat, edo «objektu» espezifikoko batekiko sentiturikoa esperientziaren jeneraltzea; aitzitik, beharrezko premisa bat da, genetikoki gizabanako konkretuekin izandako harremanetan sortzen bada ere.

Hemendik ondorioztatzen da nork bere burua ere, printzipioz, maitagai izan dezakegula, beste pertsona bat izan dezakegun hein berean. Norberaren bizitzaren, zorionaren, hedapenaren eta askatasunaren baiezipena, baiezipen hori egiteko gertutasun eta ahalmenean erroturik daude. Gizabanakoak hori badauka, bere buruarekiko ere badauka; besteak bakarrik maitatzeko gai bada, ez da maitatzeko gauza, beste barik.

Norberekoitasuna ez da nork bere burua maitatzea, honen aurkako baizik. Norberekoitasuna gutizia-mota bat da. Gutizia oro bezala, asezina da, eta, beraz, inoiz ere ezin erdiets dezake benetako asetasuna. Gutizia hondo gabeko putzu bat da, gizabanakoa premia asetzeko amagabeko ahaleaginean ahiturik uzten duena, asetasuna sekula lortu gabe. Hurbiletik begiratuz gero, aurkitzen da, norberekoia, etengabe bere buruaren arduraz estu eta larri ibiltzen bada ere, sekula asetu barik ikusten dela, beti artega, behar adina ez edukitzeko, zeozer galtzeko, zeozerez gabeturik geratzeko beldurretan. Berak baino gehiago daukatenekiko bekaizkoak erreta ibiltzen da. Eta prozesu hau oraindik hurbilagotik behatzen badugu, aurkituko dugu norberekoiak, funtsean, ez duela bere buruarenganako sinpatiarik, gaitzerizko sakona baizik.

Itxurazko kontraesan honetako puzzlea osaeraza da. Norberekoitasuna, nork bere buruarenganako duen gaitzerizko honexetan, hain zuzen ere, dago errotuta. Bere buruaren zale ez den pertsona, bere buruaz konforme ez dagoena, bere burua dela eta etengabeko esturan aurkitzen da. Ez du, maitazarre jatorraren eta autobaiezipenaren oinarriaren gainean bakarrik izan daitekeen barne-segurtasun hura. Bere buruaren arduraz bizi behar du, gutiziatsu gauza guztiak beretzat lortzeko, ez baitauka oinarrizko segurtasunik ez asetasuna erdiesteko ahalmenik. Gauza bera gertatzen da narzisista deritzanarekin ere, zeina beretzat gauzak eskuratzeari baino gehiago bere burua miresteaz arduratzen baita. Azalez badirudi ere horrelako pertsonak beren burua biziki maite dutela, sakoenez eta egiatan ez diote sinpatiarik, eta euren narzismoa —norberekoitasuna bezala— beren buruarenganako oinarrizko maitasunik ezaren «gainkontentsazioa» da. Freudek seinatu du narzistikak besteengana-

ko maitasuna erretiratu eta bere buruarengana zuzendu duela: baiezipen honen lehen zatia egia bada, bigarren zimarkua da. Ez du maite ez besterik ez bere bururik.

Itzul gaitzen orain atzera norberekoitasunaren analisi psikologiko honetara ekarri gaituen arazora. Gogoratuko denez, honako kontraesan honekin topo egina genuen, hots, gizakume modernoak interes pertsonalak motibatua dela uste duen bitartean, bere bizitza bereak ez dituen gauzetara dedikatua zuela; Kalvinoen ustez, giza existentziaren helburua, gizakia barik Jainkoaren aintza den zentzu berean. Saiatu gara argi jartzen norberekoitasuna ni egiazkoaganako, hau da, gizaki konkretu osoarenganako bere potentzialtasun guztiarekin, autobaiezipenik eta maitasunik ezean sustraitzen dela. Gizakume modernoak jokatzeko intereseko duen nia ni «soziala» da, gizabanakoak jokatu behar duela espero den paperak sortua funtsean, eta izatez, gizakumeari gizartearen baitan esleituriko funtzio objektiboaren mozorro subjektiboa besterik ez dena. Modernoen norberekoitasuna ni errearen zapuzketak sorturiko gutizia, ni soziala objektu duena, besterik ez da. Gizakume modernoaren ezaugarria niaren baiezipena dela dirudien bitartean, egiazki ahuldu ta eta ni osoaren segmentu batera —entelegu eta nahimen indarrera— murriztuta dauka bere nia, nortasun osoaren beste alderdi guztiak kanpoan utziz. Hau guztiau egia bada ere, ez al du naturarekiko domeinu gero eta handiagoak, ni indibidualaren indarraren hazkuntza izan ondorio? Hein batean egia da hau, eta egia den neurrian, bistatik galdu behar ez dugun garapen indibidualaren alderdi positiboaren zati da. Baina, gizakiak naturarekiko domeinua gradu dexentean hartu izan badu ere, gizarteak ez du berak sorturiko indarren kontrolperik. Gure produkzio-sistemak bere aspektu teknikoetan duen arrazionaltasuna, dituen aspektu sozialen irrazionaltasunarekin batera agertzen da. Gizakiaren patua krisialdi ekonomikoaren, desenpleguaren eta gerraren mende dago. Gizakumeak bere mundua eraiki du, etxeak eta tailerrak altxatu ditu, jantziak eta kotxeak produzitzen ditu, laboreak eta fruituak hazten. Baina bere eskuen ekoizkinetatik aldendu dute eta ez da, izan, berak eraiki duen munduaren jabe; gizakiak egindako mundu hau, aitzitik, jabe bilakatu zaio, beronen aurrean makurtu beharra duelarik, berau otzantzen edo maneatzen saiatu behar duelarik. Bere eskuen obra bere Jainko bihurtu zaio. Gizakumeak bere interesak bultzatua dirudi, baina egiaz bere ni osoa, dituen potentzialitate konkretu guztiarekin, bere eskuek erai-

ki duten makinaren beraren helburuak betetzeko tresna bihurtu zaio. Unibertsoaren erdigune den ilusioari eusten dio, eta, hala ere, ezereztasun— eta ezintasun-sentimendu bortitz batek, bere arbasoak Jainkoarekiko kontzienteki izan zutenaren modukoak barrua hartuta sentitzen da.

Gizakume modernoaren isolamendu eta ezintasun-sentimendua hazi egiten da are gehiago, haren gizarte-harremanek hartzen duten izaeraren eraginez. Gizabanako batek beste batekin dituen harreman konkretuek galdu egin dute izaera berehalako eta gizatarra, tresnatasun —eta manipulazio-izpiritua hartuz. Harreman pertsonal eta sozial guztietan, araua merkatuko legeek jartzen dute. Jakina da konpetitzaile arteko harremanek elkarrekiko aihergatasunean oinarritu behar dutela. Bestela balitz, konpetitzaile batek zein besteak gerarazita aurkituko luke bere burua bere ekonomi egitekoa betetzeko: elkarren kontra burruka egiteko eta elkarren deuseztapen ekonomikora ere, behar izanez gero, heltzeko.

Enplegatu eta enplegatzailearen edo ugazabaren arteko harremanak horrelakoxe aihergatasun izpirituz beterik daude. «Enplegatu» hitzak historia guztia dauka barruan: kapitalaren jabeak giza izaki bat «enplegatzeko» du makina bat «enplegatzeko» duen bezalaxe. Ugazaba eta langileak elkar erabiltzen dute beren xede ekonomikoak lortzeko; berauon harremanen ezaugarria zera da, biak direla xede baterako bitarteko, tresna direla elkarrentzat. Ez dira inola ere elkarren erabilgarritasun honetan bestearen interesik duten giza izaki biren arteko harremanak. Tresnatasun berau da arau negoziogizonaren eta beronen bezeroaren arteko harremanetan ere. Bezeroa maneiatu beharreko objektu bat da, eta ez negoziogizonari erantzutea ardura zaion helbururik dukeen pertsona konkretua. Lanarekiko jarrerak ere tresnatasunaren jitea dauka; Erdi Aroko artisauaz bestera, industri gizon modernoaren interesa ez da lehenik eta behin zer produzitzen duen; hark kapitalaren inbertsioetik mozkina ateratzeko produzitzen du funtsean, eta produzitzen duena merkatuko baldintzen pean dago funtsean, zeinak seinatzen dion halako sektore batean kapitala inbertitzeak irabazia ekarriko diola.

Alienazio hau ez da ekonomi harremanetan soilik gertatzen, pertsonaletan ere baizik; gauzarteko harremanen izaera hartzen dute pertsonartekoena barik. Tresnatasun eta alienazio fenomeno honen kasu agian inportanteena, eta suntsikorrena, gizabanakoak bere buruarekin dituen harremanak dira.⁷⁰ Gizakumeak ez ditu merkantziak soilik sal-

tzen, bere burua ere saltzen baitu, merkantziatzat hartuz. Eskulangileak bere energia fisikoa saltzen du; salerosleak, medikuak, klerigo enplegatuak beren «nortasuna» saltzen dute. «Nortasun» bat ukan beharra dute denek, beren produktuak edo zerbitzuak saldu nahi baldin badituzte. Euren nortasunak atsegina izan behar du, baina beste baldintza batzuk ere eduki beharko dituzte: energia, ekimena, hau, hori eta bestea, eta euren egoera edo lanbideak behar dituen kalitate guztiak. Gainerako merkantziekin gertatzen den bezalaxe, merkatuari dagokio giza kalitateon balioa, eta izatea bera ere, erabakitzea. Pertsona batek eskaintzen dituen kalitateak erabilpiderik ez badute, ez dira «existitzen», merkantzia salgaitz batek balio ekonomikorik ez duen modura, erabil-balioa izan lezakeen arren. Horrela norberaren buruarenganako konfidantza, «niaren sentimendua», besteek norberari buruz pentsatzen dutenaren adierazpena besterik ez da; nik ezin dut neure balioan sinetsi, jendartean dudak harrera eta merkatuan dudak arrakastatik aparte. Bila badabilkit, banaiz norbait. Popularrak ez banaiz, ez naiz inor soilki. Autoestimua norberaren «nortasunaren» arrakastaren mende egote haxe da, populartasunak gizakume modernoarentzat zergatik duen hain garrantzi handia esplikatzen duen arrazoia. Beronen mende dago ez bakarrik batek aurrera egitea ala ez gauza materialetan, ezpabere nork bere autoestimuari eustea ala gutxiagotasun-sentimenduen leizearen hondoraino amiltzea ere.⁷¹

Saiatu gara azaltzen kapitalismoak gizabanakoari ekarri zion askatasuna, protestantismoaren erlijio-askatasunak ordurako beronengan izandako efektuei erantsi zitzaioela. Gizabanakoa bakarrago eta isolatua go sentitzera iritsi zen; tresna bilakatu zen beregandik kanpoko indar itogarrien eskuetan; «gizabanako» bihurtu zen, baina gizabanako aztoratu eta ez-segur. Baziren zenbait faktore azpian zeukan segurtasunik ezaren agerkizun nabarmenak gairitzen lagun ziezaioketenak. Lehenik eta behin bere niak ondasunen jabegoaren euskarria zuen. «Bera», pertsona zenez, eta bereak zituen ondasunak ezin ziren bereizi. Gizakume bakoitzaren jantziak edo etxea, bere niaren zati ziren bere gorputza zen bezainbatean. Zenbat eta gutxiago sentitzen zen nor, hainbat eta premia handiagoa zuen ondasunak edukitzeko. Gizabanakoak ondasunik ez bazekukan edo galduak bazituen, bere «niaren» zati inportante bat falta zitzaion eta neurri bateraino ez zuten pertsona osotzat hartzen, ez besteek ez berak bere burua.

Niaren euskarri ziren beste faktoreak itzala eta boterea ziren. Aldez ondasunen jabe izatetik zetozen ondorioak ziren, alde, berriz, konkurrentzi eremuan izandako arrakastaren emaitza zuzen. Besteen mirespena eta beraiengan zuen boterea, edukitzeak eskaintako euskarriari erantsiko zitzaizkion, ni indibidual ez-segurari eutsiz.

Ondasun eta gizarte-itzal urria zeukatenentzat, familia zen itzal indibidualaren iturri. Etxekoen artean gizabanakoa «nor» senti zitekeen. Emazteak eta seme-alabek obeditua, bera zen eskenategiko erdigunea, paper hori berea zatekeen berezko eskubide bailitzen inozoki onartuz. Hutsaren hurrengo izan zitekeen gizarte-harremanetan, baina etxean errege zen beti. Familiaz gain, nazio-harrotasunak ere —eta European, maiz, klase-harrotasunak— garrantzi-sentimendua zemaion. Bera berez inor ez izan arren, halarik ere beste batzuk baino handiagotzat jo zezakeen taldekoa izateaz harro sentitzen zen.

Ondo bereizi behar ditugu seinalaturiko faktoreak, ni ahulduari eusten diotenak, kapitulu honen hasieran aipatu direnetatik, zeintzuak izan baitira: askatasun politiko eta ekonomiko efektiboa, ekimen indibidualari eskaintako aukera eta ilustrazio arrazionalista hazkorra. Faktoreek egiazko laguntza izan ziren nia indartzeko eta indibidualtasuna, independentzia eta razionaltasunaren garapena ekarri zuten. Niari laguntzeko faktoreek, ostera, segurtasunik eza eta estura konpentsatzen beste ezertan ez zuten lagundu. Ez zituzten errotik atera sentimendu biok, berauok estaltzera mugatu baitziren, era honetan gizabanakoari kontzienteki segur sentitzen lagunduz; baina segurtasun hau azalekoa zen alde eta berau sortua zuten euskarrizko faktoreak zirauten heinean bakarrik zirauen.

Erreformatik gure egunotara datorren Europa eta Amerikako historiaren analisi zehatz-mehatz orok erakutsi lezake nola paraleloki doazen, edo zehatzago esanda, etengabeki elkarrekin lotzen diren «zerbaitetiko askatasunetik zerbaitetarako askatasunera» dagoen bilakaerari datxezkion bi joera kontraesankorrak. Zoritxarrez honelako analisisa liburu honi jarritako mugez handik dago eta hurrengo argitarapen baterako utzi beharko da. Aldi batzuetan eta zenbait gizarte-taldetan giza askatasuna zentzu positiboan —niaren indar eta duintasuna— faktore nagusi zen; esan daiteke, orokorki, hau Ingalaterran, Frantzia, Iparmerikan eta Alemanian gertatzen zela, klase ertainak bere garaipen ekonomiko eta politikoak lortu zituenean ordenu zaharraren ordezkarien

aurka. Askatasun positiboaren aldeko burruka honetan erdiko klaseak, giza autonomia eta gizakiaren askatasuna goستن zuen protestantisismoaren aspektu horrexetara jo zezakeen; bitartean, ostera, Eliza katolikoa, beren pribilegioak zaintzeko gizabanakoaren askapenaren aurka burrukatu beharra zeukaten taldeekin aliatzen zen.

Aro Modernoko pentsamendu filosofikoan ere aurkitzen dugu askatasunaren alderdi biek elkarloturik dirautela, Erreformaren doktrina teologikoetan ere horrelaxe egonak ziren bezala. Horrela, Kant eta Hegeli dagokienez, gizabanakoaren autonomia eta askatasuna euren sistemen erdiguneko postulatuak dira, eta hala ere, Estatu ahalguztidunaren helburuen menpean jartzen dute gizabanakoa. Frantziako Iraultzaren garaiko filosofoek, eta XIX. mendean Feuerbach, Marx, Stirner eta Nietzschek, itzulgingururik gabe azaldu zuten berriro ere gizabanakoak ez zuela bere hazkunde edo zorionetik ateko helburuen pean egon behar. Mende bereko filosofo atzerakoiek, ostera, gizabanakoak aginte izpiritual eta sekularren pean behar zuela postulatu zuten esplizituki. Giza askatasuneranzko joera, zentzu positiboan, XIX. mendearen bigarren erdialdean eta XX. mendearen hasieran heldu zen gailurrera. Aurreramentu honetan erdiko klasez aparte, langileak ere partaide izan ziren, ihardule libre eta eginkor, beren interes ekonomikoen eta aldi berean gizateriaren xede zabalagoen aldeko burrukalarri bihurtu baitziren.

Kapitalismoaren fase monopolistarekin batera, azken hamarkadetan hazkorki garatu zen bezala, giza askatasunerako joera bion garrantzia errespektiboak aldaketaren bat edo izan zuela dirudi. Pisu handiagoa hartu zuten ni indibiduala ahultzera doazen faktoreek, berau indartzeko zirenek, ostera, erlatiboki pisua galdu zuten bitartean. Gizabanakoaren ezintasun eta bakardade-sentimendua hazi egin zen, lokarri tradizionala «askatasuna» areagotu, arrakasta ekonomikoa lortzeko ahalbideak murriztu. Gizabanakoa indar erraldoien mehatxupean sentitzen da, eta egoera, alderdi askotan, XV. eta XVI. mendeetan zegoenaren antzekoa da.

Prozesu honetako faktorerik garrantzitsuenak kapital monopolistaren hazkuntza da. Kapitala (ez aberastasuna) gure sistema ekonomikoaren zenbait sektoretan kontzentratzeak gizabanakoaren ekimen, adore eta zuhertasunari ahalbideak murriztu zituzkion. Pertsona askoren independentzia ekonomikoa deuseztatu egin da kapital monopolista nagusi paratu den eremuetan. Burrukan segitzen dutenentzat, erdiko kla-



searen zati handi batentzat bereziki, burrukak hain izaera ezberdina hartzen du, non ekimen eta adore pertsonalarekiko konfidantza sentimendua ezintasun eta etsipenak ordeztuta geratzen baita. Biztanleriaren zati handi baten izangoa bere erabakipean duen talde txiki batek botere eskerga, nahiz eta sekretua, darabil gizarte guztiarengan. Alemaniako inflazioak, 1923, edo krak amerikarrak, 1929, ziurgabetasun-sentimendua gehitu, askorengan nor bere ahaleginaren bidez aurrera irteteko esperantza haustu eta arrakasta-ahalbide mugagabeetan jarritako sinespi-dea ezereztu zuten.

Egia da negoziogizon txiki edo ertainak, bere burua kapital nagusiaren botere itogarriak birtualki mehatxaturik ikusten duenak, badaukala etekinak eskuratzen eta independentzia zaintzen segitzeko ahalbiderik, baina buruaren gainean zintzilik duen mehatxuak ziurgabetasuna eta ezintasuna gehitzen dizkio, lehenago atzeman zitekeen baino askoz neurri handiagoan. Konpetitzaile monopolisten aurka egin behar duen burrukan erraldoiak ditu aurrez aurre, lehen bere mailakoekin burrukan ari zen bitartean. Baina negoziogizon independente hauen egoera psikologikoa ere, zeinentzat industria modernoaren garapenak funtzio ekonomiko berriak sortu baititu, lehenagoko negoziogizon independenteek zeukatenetik diferentea da. Diferentzia honen exenplu bat erdiko klasean bizimolde ezberdin bat sortu dela adierazteko kasu moduan aipatzen den gizakume-mota da: gasolindegijabea, alegia. Eurotako asko ekonomiaz independentea da. Beren negoziorearen jabe dira, biltegi-jabea edo jostuna berenaren jabe diren bezalaxe. Baina, aldea makala lehenago negoziogizonaren eta oraingoaren artean dagoena! Biltegi-jabeak espe-rientzia eta trebezia handia behar zituen. Handizkako hainbat saltzaile-tarik bat aukeratu behar zuen egokien zeritzen salneurri eta kalitateen araberrako erosketak egiteko; bere hainbat bezeroren premiak ezagutu behar zituen, erosketak egin orduan lagundu eta krediturik eman behar zientz ere erabaki behar zuelarik. Oro har, aintzinako tankerako saleroslearen funtzioak independentzia suposatzez gain, trebetasuna, banan-banango zerbitzu indibidualizatua, ezagutza eta lana ere behar zituen. Gasolindegijabea, aldiz, egoera arras diferentean aurkitzen da. Salgai-mota bakarra saltzen du: olioia eta gasolina. Petrolio- konpainiekin errekararitzeko aukera oso mugatuak ditu. Gauza bera egiten du mekanikoki behin eta berriz: gordailuak bete eta olioia saldu. Aintzinako biltegi-zainak baino egokiera gutxiago dauka bere trebezi, ekimen eta ener-

gi gaitasunak erabiltzeko. Faktore bik erabakitzen ditu haren mozkinak: gasolina eta olioia erosteko ordaindu behar duen prezioak eta gasolindegian geratzen zaizkion kotxe edo motordunen kopuruak. Faktore biok daude haren domeinutik kanpo hein handi batean; handizkako saltzailearen eta kontsumitzailearen arteko bitartekaritzan lan egin behar du besterik gabe. Alderdi psikologikoari dagokionez, alde txiki-txikia dago konpainiaren enplegatu izatetik salerosle «independentea» izatera; banaketako makina handigaitzaren engranaia huts da beti.

Enpresa hedatu ahala ugarituz joan den langile «idun-zurien» erdiko klase berriari gagozkiolarik, jakina da duen egoera lehenago garaietako negoziogizon txiki independenteak zuenaren oso ezberdina dela. Argudia daiteke, zentzu formalean independenteak ez badira ere, izatez, aintzinako tankerako biltegi-zainak edo jostunak adina aukera duela arrakastarako, gehiago ez bada, ekimen indibidualaren eta adimenaren garapenaren bidez. Zentzu batean hau egia da, zail gertatzen bada ere jakiten noraino den egia. Baina psikologikoki, enplegatu idun-zuriaren egoera ezberdina da. Makina ekonomiko handigaitz baten osagai da, egiteko oso berezitua burutzen du, egoera berdinean ari diren ehundaka bere antzekorekin lehia gogorrean jokatu beharrean aurkitzen da eta, atzean gelditzen bada, kanpora botako dute errukirik gabe. Labur esanda, arrakastarako dituen probabilitateak batzuetan handiagoak izan arren, galdua du lehenagoko negoziogizonaren segurtasun eta independentziaren zati handi bat; eta lan-erritmoa ezartzen dion, kontrolpetu ezin duen eta haren ikusian nor bera ezerez hutsa den makineria baten engranaia, batzuetan txiki, bestetuetan handiago bihurtua da.

Enpresa handiaren handigaiztasun eta botere-nagusigoaren ondorio psikologikoak langilearengan ere izan dute eraginik. Lehenagoko enpresa txikiagoan langileak pertsonalki ezagutzen zuen bere ugazaba eta etxekotasun handia zuen lantegiarekiko, beronen funtzionamendu osoa ikus zezakeelarik; merkatuaren beharrezanaren arabera kontratatua eta kaleratua bazen ere, beti zegoen ugazaba eta beronen enpresarekin nolabaiteko harreman konkreturen bat zolu etxetiar eta ezaguna zapaltzen ari zen sentimendua sentiarazten ziona. Oso ezberdina da milaka langile lanean dabiltzan fabrikako gizakumearen egoera. Ugazaba figura abstraktu bihurtu da; ezin du inoiz ikusi; zuzendaritza botere anonimo bat da berarekin beti zeharka tratatzen duena, haren aurrean, gizabako denez, ezer gutxi delarik. Hain dimentsio handiak ditu enpresak,

non berari dagokion lanarekin zerikusia duen sektoretik kanpoko ezer ezagutzeko modurik ez duen.

Egoera hau sindikatuak konpentsatu izan dute nolabait. Berauek langilearen egoera ekonomikoa hobetzez gain, efektu psikologiko garrantzitsua eragin dute, burukatu behar dituen digante ekonomikoaren aurrez aurre duen indar eta esanguraren sentimendua eman baitiote. Zoritxarrez, sindikatuak eurak ere hazi egin dira, banakako kidearen ekimenari leku handirik uzten ez dioten erakunde eskerga izatera helduz. Kideak kuota ordaintzen du eta lantzean behin botu-eskubidea erabiltzen du, baina hemen ere, han bezalaxe, makineria handi baten engranaia txiki bat besterik ez da. Kontu garrantzitsu bai garrantzitsua litzateke sindikatuak beren kide guztien lankidetzara eginkorrean oinarrituriko organo bilakatzea, entitatearen bizitzan denen eskuharmena segurtatu eta beronen funtzionamenduaren erantzule sentiaraziko lituzkeen antolaketa gauzatu.

Gure garaiotako gizabanakoaren ezereztasuna ez dago lotuta negoziogizon, enplegatu edo eskulangile denez duen funtzioarekin soilik, kontsumitzaile edo bezero denez duen paperarekin ere baizik. Azken funtzio honek aldaketa drastikoa izan du azken hamarkadotan. Salerosle independente baten dendara zihoan bezeroak, ziur zekien han tratua pertsonala emango ziotela; egiten zuen erosketak garrantzia zuen jabearentzat; saleroslearentzat zerbait suposatzen zuen pertsona legez hartzen zuten; beraren gurariak aztergai ziren; erosketa egiteak berak bere garrantzia eta duintasunaren sentimendua zemaion. Zein bestelakoak diren bezeroak saltegi handiekin dituen harremanak! Eraikinaren handiak, enplegatuen andanak, erakutsitako salgaien ugariak inpresio sakona dargiote; txiki eta konparazioz garrantzirik gabeko sentiarazten du guzti honek; gizabanako denez, ez du inolako interesik saltegiarentzat. Izan ere, bezero denez bakarrik da inportantea; dendak ez du galdu nahi, bera galtzeak zeozer gaizki dabilela eta beste bezero batzuk ere arrazoi bera medio gal daitezkeela adieraziko bailuke. Inportantea bezero abstraktu denez da; baina bezero konkretu denez ez du inolako garrantzirik. Inor ez da pozten saltegiara etorri delako, ez dago inor bere gurariei bereziki erantzuteaz arduratzen denik. Erosketak egitea, postetxera joan eta seiluak erostearen antzeko bihurtu da.

Egoera hau areagotu egiten da publizitate modernoaren metodoak direla eta. Aintzinako tankerako negoziogizonaren merkatal argu-

dioak funtsean razionalak ziren. Bere salgaiak eta bezeroak ere ondo ezagutzen zituen, eta ezagupenok oinarrian zituela saiatzen zen salmentan egiten. Beronen argudioak, jakina, ez ziren erabat objektiboak, ahalik ondoen bezeroa konbentzitzen ahalegintzen baitzen; egia esan, efizientea izan eta bere helburuak erdiesteko, konbentzitzeko modu arrazional eta zentzuduna erabili beharra zuen. Propaganda modernoa, sektore zabal batean, arras diferentea da; ez doa arrazoimenera hunkimenera baizik; hipnosizko sugestio era guztiak bezala, subjektuengan hunkipenezko eragina gauzaten saiatzen da, gero adimen aldetik ere harrapatzeko. Propaganda-mota honek, edozertariko bitartekoetara jotzen du bezeroarengan eragina izateko: formula beraren taigabeko errepikapenez; itzal handiko pertsonaren baten irudiaren eraginaz, hala nola aristokraziako andereren bat edo boxeolari ospetsuren bat honen markako zigarroak erretzen agertuz; neska politen sexu-xarma erabiliz, modu honetan bezeroaren arreta erakartzeko eta era berean beronen kritika-ahalmena ahultzeko; izuaz baliatuz, izen misterioetsuko eritasunen baten edo «halitosiaren» arriskua adieraziz; edo itzarrik amets eraginez, honelako alondara edo horrelako xaboia erosiz gero, bizimodu guztia aldatuko zaiola eta. Metodo guztiok irrazionalak dira funtsean; ez dute inolako zerikusirik erosgaiaren kalitatearekin eta gutxitu edo ito egiten dute bezeroaren kritika-ahalmena, opioak edo erabateko hipnosiak egin lezakeen bezala. Nolabaiteko ahetasuna emateko gauza dira, itzarrik amets eragiten baitiote bezeroari, filmeek bezala, baina aldi berean gehitu egiten diote ezereztasun-eta ezintasun-sentimendua.

Pentsamendu kritikoraño ahalmena kamusteko metodook arris-kugarriagoak dira gure demokraziarako; izan, eraso gordin asko baino, eta immoralagoak —giza osotasuna kontutan izanda— argitaratzea zigoriturik daukan literatura zantarra baino. Kontsumitzaile-elkarteak saiatu izan dira bezeroaren kritika-ahalmena, duintasuna eta nor delako sentimendua zuzpertzten, mugimendu sindikalaren norabide berean jokatuz. Orain arte lortu dutena, hala ere, hasiera apaletik gora ez doa.

Ekonomi arloari buruz esandakoak politika-eremurako ere balio du. Demokraziaren hasierako aldiaren zenbait bide zegoen gizabanakoak konkretu eta eginkorki partehar zezan bere botuaz, karguren baterako hautagaiaren bat aukeratzeko edo zenbait erabaki hartzeko; ezagun zituena hala erabaki beharreko arazoak nola hautagaiak; botaketa, hiritar guztien batzarrean egiten zena maiz, zer konkretu-konkretua zen eta

bertan «nor» zen gizabanakoa. Gaurregun bozemaileak, partidu politiko eskergak, industri erakunde erraldoiak bezain handioso eta urrunduak, ditu aurrean. Berez ere korapilatsuak diren arazo politikoak nahaspilatuago bihurtzen dira berauek iluntzera doazen edozertariko baliabideak erabiltzen direlako. Bozemaileak ikusi ahal izango du inoiz edo behin bere hautagaia hauteskunde-garaian; baina irratia etorri zenetik, ez dauka lehen bezain maiz ikusterik, «bere» kandidatua neurtzeko zeukan azken bideetako bat ere galduz. De fakto, partiduen aparatuek aurkezten dioten bizpahiru pertsonen artetik bat aukeratu behar du, baina hautagaiok ez dira berak aukeratuak; hautatzaileak eta hautagaiek elkarren ezer gutxi ezagutzen dute, eta elkarrekin dituzten harremanak gainerako gehienak bezain abstraktuak dira.

Merkatal publizitateko metodoek kontsumitzailearengan bezala, propaganda politikoko metodoek bozemailearen ezereztasun-sentimendua handitzera doaz. Sloganen errepikapenak eta aztergai den gaiarekin zerikusirik ez duten faktoreen azpimarraketak, moteldu egiten diote kritika-ahalmena. Bozemailearen pentsamenari garbi eta arrazonamenduz formulaturiko deia, salbuespen da, eta ez arau, propaganda politikoan, are herri demokratikoetan eurretan ere. Beraien propagandan agertzen zaizkion bezalako partiduen botere eta handitasuna aurrean dituelarik, bozemaileak txiki eta garrantzirik gabeko sentitu behar bere burua.

Azaldu berri denak ez du esan nahi merkatal publizitateak eta propaganda politikoak agerian azpimarratzen dutenik gizabanakoaren baliogabetasuna. Batak zein besteak, aitzitik, lausengatu egiten dute inportantea dela agertuz eta bere erizpen kritikora, gauzak bereizteko duen ahalmenera, zuzentzen direlako eginez. Baina fikzio hauek gizabanakoaren susmoak iraungi eta berak hartutako erabakiaren autonomiaz bere burua engainatzen laguntzeko metodo bat dira funtsean. Ez dago zehaztu beharrik aipatu dudana propaganda ez dela erabat irrazionala, eta bai alderdi eta bai hautagai ezberdinen propagandan badela alderik bakoitzaren faktore razionalen pisuari dagokionez.

Faktore hauez aparte, beste batzuk ere badaude gizabanakoaren ezintasuna gero eta handiagotzen laguntzen dutenak. Eskena ekonomiko eta politikoa lehen baino konplexuago eta handiagoa da; gizabanakoak bertan gertatzen denaz ohartzeko ahalbide gutxiago dauka. Hark aurre egin behar dien mehatxuek ere dimentsio handiagoak hartu dituz-

te. Milioika pertsonaren egiturazko desenpleguak, areagotu egin du lehen zeukaten segurtasun ezaren sentimendua. Desenpleguatuari baliabide publikoak erabiliz emandako laguntzak asko egin duen arren derrigorrezko langabeziaren ondorioak konpentsatzeko, hala ekonomi nola psikologi ikusguneak, zutik dirau honako honek, hots, herriaren gehiengo handi batentzat lanik gabe egotea psikologiaz nekez eraman daitekeen karga dela eta desenpleguak sortzen dien beldurrak hantxe segitzen direla bizitza osoa ilunduz. Enplegua izateak —zeinnahi dela ere—, askoren ikusiz, bizitzari eska dakiokkeen guztia laburbiltzen du eta eskerronez bizitzeko moduko motiboa da. Langabeziak zahartzaroari beldur handiagoa izatea ere ekarri du. Kasu askotan gazteei soilik deitzen zaie lanerako, esperientzia gabekoak izanda ere, hala ere egokitzeko gaitasuna dutelako oraindik; hau da, erraz samar moldarazi daitezkeenak makineria konkretu baten beharizanetara doituriko engranaia txiki moduan aise funtzionatzera, horietan onartzen dira.

Gerra-mehatxuak ere lagundu izan du ezintasun indibidualaren sentimendua areagotzen. Jakina denez, ez zuten gerrarik falta izan XIX. mendean zehar; baina lehenengo mundu-gerratik hain ikarragarriro gehitu dira suntsipen-ahalmenak —gerrak uki ditzakeen biztanlego-mailak mundu guztia salbuespenik gabe hartzeraino gehitu dira—, non gerra-mehatxua ameskaitez bihurtu den, zeinak, nahiz eta pertsona askoren kasuan inkontzientean mantendu beren nazioa gerra barruan zuzen sartuta ikusi arteino, pertsona horien bizitzak zeharo ilundu eta izu eta ezintasun-sentimendua handiagotu baitie.

Aldi guzti honetako «tankera» ados dago zirimarratu dudana koadroarekin. Hirien handitasun amaigabea, gizabanakoa eurretan galtzeko modukoa, mendien pareko eraikinak, irratia hitz-bonbardaketa eten-gabea, egunkari-titular handiak, egunean hiru bider aldatu eta jendea zer den benetan inportantea erabaki ezinik uzten dutenak, ehun neskatila erloju-doitasunez beren trebezia demostratzen erakusten diguten ikuskinak, gizabanakoa ezabatu eta makina indartsu eta aldi berean ezti baten moduan ihardunez, jazzaren mailuketa erritmikoa..., zehaztasun guzti hauek eta asko gehiagok konstelazio oso berezi bat adierazten dute, non gizabanakoa dimentsio kontrolaezinetako mundu bat aurrez aurre duela aurkitzen den, beronekin konparatuta bera ez delarik partikula txiki bat besterik. Egin dezakeen guztia bere pausua ezartzen zaion erritmora doitzea da, martxan doan soldaduak edo langileak amaigabe-

ko katearen aurrean bezala. Ihardun dezake, ihardun, baina independentzi sentimendua, zerbait delakoa, hori joan zitzaion.

Zenbateraino dagoen iparramerikar normala beldur eta ezereztasun-sentimendu horrek harrapatuta, Mickey Saguaeren populartasunaren fenomenoak adierazten duela dirudi. Filme horietan gai bakarra —eta beronen amaigabeko bariazioak— honako hauxe da beti: zer txiki baten atzetik zer handi eta izugarri bat dabil, txikitxoa harrapatu eta grisk-grausk irentsi nahirik; txikiak ihes egiten dio eta geroago salbu geratzea lortzen du eta are bere etsaia zigortzea ere. Jendea ez legoke hain gertu behin eta berriro gai bakar honen mila bariazioak ikustera joateko, bere sentimendu-bizitza bete-betean ukitzen duen zerbait ez balitz. Itxuraz etsai zital indartsu batek mehatxaturiko zer txikia ikuslearen beraren irudi da: hau hura sentitzen da, hango egoerak berearekin bat eginez. Baina, jakina, amaiera zoriontsurik ez balego, ikuskizunak ez luke erakarmen iraunkorrik izango. Horrela, ikusleak bere beldur eta txikitasun-sentimendua bizi du, eta azkenean bere burua salbu ikusteko eta are etsai indartsua menderatzeko zirrara kontsolagarria jadesten du. Hala ere, —eta hauxe da «amai zoriontsu» honen alderdi esanguratsu eta aldi berean tristea— haren salbamena, iheserako duen trebezian eta munstroari bera harrapatzen galeraziko dioten ezusteko istripuetan datza.

Gizabanakoak gure aldian duen egoera XIX. mendeko zenbait pentsalari profetikok aurrikusia zuten. Kierkegaardek, babesik gabe, ez-baiak oinazeztatu eta urratua, bakardade eta ezereztasun-sentimenduak abaildua deskribatzen du. Nietzschek etortzear zegoen nihilismoaren, gero nazien ideologian agertuko zenaren ikuspena du eta «supergizona», errealtatean ikusi ahal zuten gizabanako ezerez eta helburu gabe-koaren ukazioa, marrazten du. Gizakumearen ezintasunaren gaiak Franz Kafkaren lanean aurkitu zuten bere adierazpide doiena. «Gaztelua» bere liburuan, gaztelu bateko bizilagun misteriotsuekin hitz egin nahi duen gizon bat deskribatzen du, uste duelarik haiek esango diotela zer egin behar duen eta zein den munduan duen lekua. Gizon honen bizitza guztia pertsona horiengana iristeko, sekula ere lortu barik, egingo dituen ahalegin frenetikoetara laburbiltzen da: azkenean bakarrik geratzen da, bere ezgauza eta desbabesaren sentimenduarekin.

Isolamendu-eta ezintasun-sentimendua Julian Greenek adierazi du edertasun handiz honako pasarte honetan: «Banekien guk ezer gutxi balio genuela unibertsoarekin konparatuz, banekien ezer ere ez ginela;

baina hain neurtezinki ezer ere ez izateari, zentzu batean, abailagarri deritzot eta era berean esportzagarri. Zenbaki haiek, pentsamenduaren irispidez handiko dimentsio haiek, azpiratu egiten gaituzte erabat. Ba al da ezer, dena delakoa dela, atxeki gakizkiokkeenik? Buru-belarri murgilduta gauden ilusioen kaos honetan, gauza bakar bat dago egiazko dirauena: maitasuna. Gainerako guztia ezereza da, espazio hutsa. Leize-muturretik hondo eskerga beltzera begiratzen dugu. Eta beldur gara.⁷²

Hala ere, gizabanakoaren isolamendu eta ezintasun-sentimendu honenez, aipatu idazleek adierazi zuten moduan eta neurotiko deritzatenetariko askok jasaten duten bezala, gizakume arrunta ez da kontziente. Kontu beldurgarriegia da, izan ere. Eta hortxe ditu sentimendu hau estaltzeko bere ihardueren eguneroko errutina, harreman pribatu eta sozialetan aurkitzen duen segurtasun eta onespina, negoziatiko arrakasta, edozertariko lekora-pena («jostatu», «harremanak egin» «hara eta bestera joan»). Baina iluntasunean txistua jotzeak ez dakar argirik. Bakardadea, beldurra eta aztorape-na hantxe geratzen dira; jendeak ezin du eurok pairatzen betiraun. Ezin dute eraman «zerbaitetiko askatasunaren karga»; honi ihes egiten saiatu beharra dute, askatasun negatibotik positibora aurrerapausua ematea lortzen ez badute. Ihesbide sozial nagusiak gure aldian, lider batekiko menekotasuna, faxista herrietan gertatu zen bezalaxe, eta gure demokrazietan gailen den konformismo konpultsiboa dira. Sozialki egituraturiko ihesbide-motok deskribatzera pasa aurretik, irakurleari eskatuko nioke ihes-mekanismo psikologiko korapilatsuen eztabaidan segi nazan. Eurotako batzuk aztertu ditugu aurreko kapituluetan; baina faxismoaren esangura psikologikoa eta demokrazia modernoko gizakumearen automatizazioa ulertu nahi badugu, fenomeno psikologikoak ez orokorki bakarrik, baizik euren funtzionamenduko zehaztasun konkretuetan ere ulertu behar ditugu.

Itzulungurua dirudike agian honek; baina gure eztabaidaren beharrezko zati bat da, izan. Nola ezin diren behar den moduan ulertu arazo psikologikoak euron kultur eta gizarte substratua ezagutu barik, halaxe fenomeno sozialak ere ezin dira ulertu beraun azpian dautzan mekanismo psikologikoak ezagutu barik. Hurrengo kapitulua mekanismoon analisisa egiten saiatzeko izango da, gizabanakoaren baitan gertatzen dena agerian jartzeko eta, bakardade eta ezintasunari ihes egiteko ahaleginetan, geure ni indibidualaz gabetzeko prest jartzen garela erakusteko, dela aginpide-mota berrien pean jarriz dela indarrean dauden arau sozialekiko konformismo konpultsiboaren bidez.

V IHES-MEKANISMOAK

Gure azalpenean helduak gara oraingo aldira eta orain faxismoaren esangura psikologikoa eta askatasunak aginkeriazko sistemetan eta gure demokrazian bertan ere duen esangura jorratzeari ekitea legokiguke. Baina gure argudiaketaren balioa gure premisa psikologikoen baliozkotasunaren gainean finkatzen denez, komeniago dirudi hemen pentsamenduaren hari nagusia eten eta kapitulu bat, aipatuak ditugun eta gero ere aztertuko ditugun mekanismo psikologikoen eztabaida konkretu eta zehaztuagoari ematea. Premisok azterketa zehatza behar dute, zeren indar inkontzienteei eta berauek arrazionaltzeetan eta karaktere-berezitasunetan adierazteko duten erei buruzko kontzeptuetan oinarritzen baitira, kontzeptuok irakurle askori, arrotz ez bada ere, landu beharreko bederen gertatuko zaizkiolarik seguraski.

Kapitulu honetan psikologia indibiduala eta prozedura psikoanalitiko kasu indibidualen azterketa zehatzetan lortutako hautemateak ukituko ditut. Psikoanalisiak oso-osoan betetzen ez badu ere urte askotan zehar psikologia akademikoaren ideala izana den araua, hots, natur zientzien metodo esperimentaletara hurbiltzea, ezin da ukatu, hala ere, metodo erabat enpirikoa denik, zentzuraz gabeturiko gizabanakoaren pentsamendu, amets eta fantasia indibidualen behaketa zail eta arretatsuan oinarritua. Indar inkontzientearen kontzeptua erabiltzen duen teoria psikologikoa soilki, sartu ahal izango da gizabanakoa edo kultura analizatzean aurkitzen ditugun arrazionalizazio ilunetan barrena. Itxuraz askaezin diren korapilo asko eta asko ezabatu egiten dira berehala honako ideia hau baztertzearabaki bezain laster, hots, jendeak bere egintza, pentsamendu eta hunkipenen kausa «uste» dituen zioak direla nahitaez, benetan modu konkretu horretan jokatu, sentitu eta pentsatzera bultzatzen dutenak.

Irakurle batek baino gehiagok planteatuko du ea badagoen gizabanakoak hautematekik lortutako aurkikundeak taldeen psikologia ulertzeko aplikatzerik. Gure erantzuna honi baietz biribila da. Talde oro gizabanakoek eta ez beste ezerk osatua da; beraz, talde baten baitan aritzen aurkitzen ditugun mekanismoak, gizabanakoengan ari diren mekanismoak baino ezin dira izan. Psikologia indibiduala psikologia soziala ulertzeko oinarritzat estudiatzean, objektu baten behaketa mikroskopikoarekin konparagarri den zerbait dagigu. Honexek gaitzen gaitu, gizarte-prozesuan eskala handian aritzen ikusten ditugun mekanismo psikologikoen xehetasunak aurkitzeko. Fenomeno psikologikoei buruzko gure analisia jokabide indibidualaren azterketa zehatzean oinarrituko ez balitz, ez luke enpirikotasunik izango eta, beraz, baliorik ere ez.

Baina, gizabanakoaren jokabidearen estudioak hain garrantzi handia duela onarturik ere, zalantzan jar daiteke neurotikoen legez eskuarri etiketaturiko pertsonen azterketak ezer probetxuzkorik ba ote dakarren, psikologia sozialeko arazoak jorratzeko. Hemen ere erantzunak baiezkotzea izan behar duela uste dugu. Neurotikoen hautematen ditugun fenomenoak ez dira printzipioz pertsona normalengan aurkitzen ditugunen ezberdinak. Nabarmenagoak, definituagoak eta maiz neurotikoen autokontzientziarako agerikoagoak dira, besterik ez, gizabanako normalengan diren baino, hau ez baita ohartzen aztertu beharreko ezein arazoz.

Guzti hau argiagotzeko neurotikoen eta normalen edo sanoen terminoen ezaugarriak labur batek ongari dirudi.

Normal edo sano hitza bi eratarik defini daiteke. Lehenbizi, funtzionamenduan ari den gizartearen perspektibatik, pertsona bati normala edo sana esango zaio, gizarte horretan duen paper soziala betetzeko gai bada. Konkretukiago, honek zera esan nahi du, pertsona horrek lan egin dezakeela bera kide duen gizarte horrek eskatzen dituen pauten arabera eta, gainera, gizartearen ugalpenean parte hartzeko gai dela, hots, familia bat sor dezakeela. Bigarrenik, gizabanakoaren perspektibatik, sano edo normaltzat, hedapen eta zioriontasun indibidualaren mailarik onena jada duen pertsona daukagu.

Gizarte jakin baten egitura zioriontasun indibidualerako ahalbidetarik onena emateko modukoa balitz, bat egingo lukete perspektiba biok. Baina, ezagutzen ditugun gizarterik gehienetan, geurea ere barne, ez da kasu hau gertatzen. Euren artean hedapen indibidualaren xedea zenbat

bultzatu aldea badago ere, bada ezadostasunik arribide samurra segurtatzeko xedearen eta gizabanakoaren garapen osobetea bultzatzekoaren artean ere. Honek osasun edo normaltasun kontzeptu biak definitu-definituki bereiztera behartzen gaitu. Batean-gizarte premiek agintzen dute, bestean existentzia indibidualaren xedeekiko arau eta balioek.

Zoritarrez, bereizpen hau maiz ahanzten da. Psikiatrarik gehienek beren gizartearen egitura supostu eztabaidaezintzat daukate onartuta, halako moldez non, beren ikusiz, gizartera guztiz moldatu gabeko pertsonak balio gutxiko gizabanakoaren estigma baitarama. Aitzitik, suposatzen dute ondo moldatua den pertsona balio handiagokoa dela, giza balioen eskalan ikusita. Normal eta neurotikoen kontzeptuak bereizten baditugu, honako konklusio honetara iristen gara: ondo moldatzen delako normaltzat dagoen pertsona, neurotikoa baino gaixoa da sarri, giza balioen eskalaren arabera. Sarritan, gehiago edo gutxiago, gizarteak galdatzen diola uste duen moduko pertsona bilakatzearren bere nia alboratu duelako bakarrik da ondo moldatua. Espontaneitatea eta benetako nortasuna galduak dirateke seguraski. Bestalde neurotikoen ezaugarria izan daiteke, niaren aldeko burrukan erauki hitza esateko prest egon ez den pertsona izan dela. Jakina, ni indibiduala salbatzeko egin zuen saialdiak ez zuen arrakastarik izan, eta bere nortasuna emankorki adierazi beharrean, sintoma neurotikoen bilatu beharra izan zuen salbamea, fantasiako bizitzara zokoratuz. Giza balioen ikuspuntutik, halabaina, gertatzen da neurotikoa hau ez dela bere nortasun guztia galdua duten horietako pertsona normala bezain murriztua. Esan beharrik ez dago badela gizabanakorik, neurotikoa izan gabe, moldatze-prozesuan bere indibidualtasuna hondoratu ez duenik. Baina neurotikoen ezaugarriak ezartzen zaion estigmari oinarriturik gabeko deritzogu eta neurotikoa efizientzia sozialaren arabera juzkatzen badugu bakarrik justifikatzekoa. Azken zentzu honetan neurotikoen terminoa ezin aplikatu dakioke gizarte osoari, gizarteak ez bailuke izaterik bere kideek sozialki ari ez balira. Hala ere, beste zentzuan, giza balioengan, gizarte bati neurotikoa esan dakioke bertako kideek beren nortasunaren hedapena moztua dutenean. Neurotikoen terminoa aritze sozialik eza adierazteko hain maiz erabiltzen denez, nahiago dugu gizarteaz ez hitz egin bere izate neurotikoen arabera, giza zioriontasuna eta auto-gauzatzearen aurkako bere izatearen arabera baizik.

Kapitulu honetan ezaugarrietako ditugun mekanismoak, gizabanako isolatuaren segurtasunik ezetik datozen ihes-mekanismoak dira.

Behin gizabanakoari segurtasuna zemaioten lokarri primarioak ebaki ondoren, behin gizabanakoak, entitate zeharo banandu denez kanpoko munduari aurre egin behar dionean, bi bide ezberdin zabaltzen zaizkio, nahitaez atzean utzi beharra duen bakardade eta ezintasun-egoera jasanezina gainditzeko. Bide batean zehar abiatuz, «askatasun positiborantz» aurrera jo ahal izango du; berez jarri ahal da munduarekin harremanetan maitasunean eta lanean, bere hunkipen, zentzu eta adimen-ahalmenen zinezko adierazpenean; era honetan berriz batuko da gizadiarekin, naturarekin eta bere buruarekin, bere ni indibidualaren osotasun eta independentzia bertan behera utzi gabe. Aurrean zabaltzen zaion beste bidea atzera egitea da, askatasuna bertan behera uztea eta bakardadea gainditzeko saiatzea bere nortasun indibidualaren eta munduaren artean sortutako horzkada ezabatuz. Bigarren bide honek ez du sekula lortzen munduarekin berriz elkartzetik, «gizabanako» moduan jalgi aurretik zegoen bezala, ez baitago jada banandu izanari buelta ematerik; luzatuz gero, bizia ezinezko bilakaraziko liokeen egoera jasanezinari ihes egiteko modu bat da. Ihes egikera hau, beraz, bere konpulsibotasunak karakterizatzen du, izu mehatxuzkotik ihes egite denak bezala; niaren indibidualtasun eta osotasunaren errendatze handiago edo txikiagoa ere badu ezaugarri. Ez da zoriontasunera eta askatasun positibora daraman soluziobidea; fenomeno neurotiko guztietan hauteman daitekeen soluziobidea da printzipioz. Estura jasanezin bat leundu eta bizitzea ahalbidetzen du izua ekiditean; hala ere, ez du «konpontzen» azpian datzan arazoa eta, ordainez, maiz izaera automatiko edo konpulsiboko ihardueretara mugatzen den bizitza-mota eramatea galdatzen du.

Ihes-mekanismo hauetako batzuk garrantzi sozial erlatiboki txikiak dira; gradu nabarmenean buru eta hunkipen-nahasmendu larriak dituzten gizabanakoengan soilik aurkitzen dira. Kapitulu honetan, kulturalki esanguratsuak diren eta hurrengo kapituluetan aztergai izango ditugun fenomeno sozialak, hots, sistema faxista eta demokrazia modernoak, analizatzeko nahitaez ulertu beharrekoak diren mekanismoak baka-rik eztabaidatuko ditut.⁷³

1. Autoritarismoa

Askatasunari ihes egiteko lehenbizi aztertuko dudan mekanismoa zera da, nork bere ni indibidualaren independentzia alde batera utzi

eta beregandik kanpoko zerbait edo norbaitekin bat egiteko joera, ni indibidualari falta zaion indarra hartzeko; edo, beste berba batzuk erabiliz, «lokarri sekundario» berriak bilatzeko joera, galduak diren primarioen ordezkio izan daitezten.

Mekanismo honen formarik garbienak menekotasun eta domeinurako jauginean ikusi ahal dira edo, zehatzago esanda, jaugin sadiko eta masokistetan, pertsona normal eta neurotikoarengan gradu diferentean daudenez. Lehenbizi jauginok deskribatuko ditugu eta, gero, bai bata eta bai bestea jasanezin egiten zaigun bakardadeari ihes egiteko erak direla argi jartzen saiatuko gara.

Jaugin «masokistak» agertzeko maizen izan ohi dituzten erak, gutxiagotasun—, ezintasun— eta baliogabetasun-sentimenduak dira. Sentimendu hoiekiko obsesionaturik dauden pertsonen analisiak demostratzen du, berauok kontzienteki sentimenduez kexatzen eta beraiengandik libratu nahi dutela badiote ere, botere inkontzienteren bat dagoela, hala ere, beren barnemuinean, txikiago eta ezteusago sentitzera bultza egiten diena. Berauen sentimendu hauek, eduki dauzkaten akats eta ahulezien isladapena baino gehiago den zerbait dira (normalean akatsok arrazionaldu egiten badira ere, duten garrantzia handituz, horrela psikikoki sentitzen duten gutxiagotasuna justifikatuz); horrelako pertsonak beren burua txikitzen, ahul bihurtzen, dute jaugina, gauzak menderatzeari uko eginez. Beraiengandik kanpoko botereengandiko, beste pertsonengandiko, edo erakundeengandiko, edo naturarengandiko dependentzia oso markatua erakusten dute ia beti. Autobaiezpena ukatzera jo ohi dute, nahi luketena ez egitera eta kanpoko indar horien aginduei, ostera, men egitera, benetakoak zein irudituak izan aginduok. Sarri askotan zeharo ezgauza dira «Ni naiz» edo «Nik nahi dut» sentimendua izateko ere. Bizia, oro har, izugarriki ahaltsuago den zerbait legez sentitzen dute, beraiek ez dutelarik hura menderatu edo kontrolpetzerik.

Ertzeko kasuetan —eta asko dira—, nork bere burua txikiagotzen eta kanpoko indarren mende jartzera duten jauginaren ondoan, nork bere burua zigortu eta sufrimenduak eragiteko bulkada agertuko da.

Jaugin honek era ezberdinak har ditzake. Pertsona batzuk aurkitzen ditugu euren etsairik okerrenak ere formulatzen nekez ausartuko lirakeen salaketa eta kritika astunak egiten dizkietenak beren buruari. Beste batzuk, hala nola zenbait neurotiko konpulsibo, beren buruak errito eta pentsamendu konpulsiboez torturatzen dituztenak. Nortasun

neurotikodun beste jende-mota baten artean, gaixotzera dutela jaugina aurkitzen dugu, edo gaixotasunen bat sor dakien espero izatera, Jainkoaren dohai bat balitz bezala. Sarritan istripuen biktima gertatzen dira, eurotara bultza egiten dien jaugin inkontzienteren bat bitartean ez balitz, horrelakorik gertatuko ez litzaiekeelarik. Norberaren kontrako bulkadok era ez hain ageriko edo dramatikoa agertzen dira sarritan. Adibidez, badira pertsonak azterketa bateko galderei ihardesteko gai ez direnak, nahiz eta dagozkien erantzunak ondo ezagutu, hala azterketa unean nola gero. Beste batzuek maite dituzten pertsoneri edo beren arduradaramatenei min emateko gauzak esaten dizkie, nahiz eta eurenganako adiskidetasunezko sentimenduak dituzten, ukan, eta inola ere ez zuten esandakoak esateko asmorik. Horrelakoek, euren buruarentzat kaltegarrien den jokaerara bultza legien etsairen batek iradokitako aholkuak beteko balituzte bezala jokatzeko dutela ematen dute.

Sarriaskotan jaugin masokistak agerkitzen irrazional edo patologiko moduan sentitu ohi dira. Maizago, arrazionaldu egiten dira. Dependentsia masokista maitasun edo leialtasuntzat hartzen da, gutxiagotasun-sentimenduak benetako ments-akatsen adierazpen egokitzat, eta norberaren sofrikarioak zirkunstanzia aldarazkaitzen fruitu bailiren.

Jaugin masokisten ondoan, berauen erabat aurkako diren beste batzuk ere, zehazki jaugin «sadikoak», erregulartasunez aurki daitezke karaktere-mota berean. Duten indar graduan ezberdinak eta kontzienteagoak edo inkontzienteagoak dira, baina gehiago edo gutxiago hantxe izaten dira beti. Horrelako jauginen hiru mota hauteman ditzakegu, elkar bigiztaturik gehiago edo gutxiago. Lehenengoa besteak menderatzea doana da, hain aginpide mugagabe eta absolutua erabiltzera, non menderatuak tresna huts, «buztina buztinlariaren esku», bilakarazten baititu. Beste bat, hurkoekin horrelako aginpide absolutua erabiltzera soilik barik, beraiek hustiratzea, erabiltzera, lapurtzea, erraiak ateratzea, eta, nolabait esateko, daukaten xurgagarri guztia norberenganatzea doan jaugina da. Desira hau, hala gauza materialekikoa nola ez-materialekikoa izan daiteke, hala nola pertsona batek eskain ditzakeen adimen edo hunkimen-kualitateekikoa. Jaugin sadikoaren hirugarren mota besteei sufriarazteko edo beraiek sufritzen ikusteko desira da. Sufrimendu hau fisikoa ere izan daiteke, baina dolore psikikoa izaten da maizago. Duen helburua besteak eginkorki zigortzea, apalaraztea, lotsaraztea, edo egoera lotsagarri eta apalgarrietan ikustea da.

Bidezko diren arrazoiengatik, jaugin sadikoak, sozialki berauek bezain kaltegarriak ez diren bulkada masokistak baino inkontzienteagoak eta arrazionalduagoak dira. Sarritan zeharo ostenduta egon ohi dira, ontasun gehiegizko edo besteekiko ardura gehiegizko erreakzioen azpian. Maizenik gertatzen diren arrazionaltzeak hauexek dira: «Nik agintzen dizut badakidalako zer zaizun komenien, eta muturtu barik obeditu behar zenidake zeure onerako». Edo: «Hain miresgarria eta barkarra naizenez, eskubide osoa daukat besteengandik obedientzia espero izateko. Sarri hustirapenerako joera estaltzen duen beste razionaltze bat honako hauxe izaten da: «Hainbeste egin dut nik zuregatik, ezen orain nahi dudan guztia zuri exijitzeko eskubide osoa baitut». Bultzadura sadikoaren mota oldarkorrenak honako forma bi hauetan aurkitzen du arrazionaltze naharoena. «Zauririk asko egin didate, eta besteak zigortzeko dudan desira ordainezko mendekua besterik ez da»; edo: «Lehen kolpea neuk ematean, neure burua edo lagunak eraso-arriskutik defendatu besterik ez dut egiten».

Bada faktore bat, sadikoaren eta bere sadismoaren objektu denaren arteko harremanetan, sarri ahanzten dena eta, beraz, gure arreta berezia behar duena: pertsona sadikoak bere objektuarekiko duen dependentsia.

Masokistaren dependentsia begien bistakoa den bitartean, sadikoari buruz alderantzizkoa itxaroten dugu hain zuzen: hain indartsu eta menderatzaile dirudi berak, eta bere sadismoaren objektu denak hain ahul eta meneko, ezen zail gertatzen baita indartsua, berak agindupean daukanaren menpekotzat pentsatzea. Baina, hala ere, analisi arretatsuak horrelaxe dela agertzen digu. Sadikoak, berak menderatzen duen pertsonaren premia du eta ezinbestekotasunez behar du, zeren berak dituen indar-sentimenduak bera norbaiten jaun eta jabe izatean daude errotuta. Dependentsia honek erabat inkontziente iraun dezake. Horrela, adibidez, gizon batek emazteari tratu tipikoki sadikoa eman diezaioke eta behin eta berriz esan libre dela etxetik alde egiteko, zeren, hori eginez gero, bera poztu egingo bailitzateke. Sarriaskotan emaztea hain jausi sentituko da, ezen alde egiten saiatu ere ez baita egingo, eta horrela, biak segituko dute uste izaten gizonak esandakoa egia dela. Baina emazteak gizonari bera uztera doala esateko adina kurraia bereganatzea lortzen badu, batak ez besteak espero ez dutena gerta daiteke: gizona desesperatu egingo da, eta, bere burua apalduz, bera ez uzteko eskatuko

dio erreguka; bera barik ezin bizi dela esango dio, zein amodio berok maite duen deklaratu dio... eta horrelako beste zinkurin asko egingo. Eskuarki, emaztea, tinko mantentzeko beldur denez, gizonari sinestera eta geratzera izango da aiher, erabakia aldatuz. Une honetatik komedia berriz hasten da. Senarrak lehengo jokabidea abiarazten du, emazteari gero eta zailago egiten zaio gizonarekin geratzea. Errebelatzen da berriro ere, eta senarra berriz umiliatu, emaztea geratu egingo da berriro, eta gauza bera gertatu zaie askotan.

Milaka eta milaka senar-emazteren artean eta bestelako pertsonarteko harremanetan ere ziklo hau behin eta berriro errepikatzen da, zirkulu magiko hau sekula apurto gabe. Gezurra esan al zuen senarrak, bere emazteari hain biziki maite zuela eta ezingo zuela bera barik bizi esatean? Maitasunari dagokionez, hitz horrekin zer ulertzen den jakitean dago koska. Bera barik ezin dela bizi baiezenari dagokionez, —hitzez hitz hartzen ez badugu— oso-oso da. Ezin du bera barik bizi, edo behintzat pertsonaren bat izan gabe eskuetan tresna pasibo moduan maneiatu ahal izateko. Kasu honetan maitasuneko sentimenduak harremanak apurtzeko zorian daudenean agertzen badira ere, beste batzuetan pertsona sadikoak nabarmenki ditu «maite» bere boterearen pean dituenak. Dela bere emaztea, edo umea, edo laguntzailea, dela berrereko zerbitzaria edo kaleko eskalea, beti dauka «maitasun» edo are eskerron-sentimendua bere domeinuaren objektu ditueganako. Berak uste izan dezake hain biziki maite dituelako menderatu nahi dituela. Baina, «de fakto, domeinatzen dituelako ditu «maite». «Erosi egiten ditu erregalu materialez, laudorioz, maitasun-segurtasunez, agudezia eta zorroztasuneko agerkizunez edo eurekiko ardura erakutsiz. Dena eman diezaieke, dena gauza bat ez ezik: aske eta independente izateko eskubidea. Konstelazio hau maiz ikus daiteke, gurasoek seme-alabekin dituzten harremanetan batipat. Honelako kasuetan domeinuzko —eta jabetzazko— jarrera, seme-alabekiko ardura «naturala» edo eurenganako babes-sentimendu logikoa eman lezakeenaren atzean gordetzen da maiz. Era honetan haurra urrezko kaiolan sartuta uzten da; dena lor dezake, bere urrezko presondegitik irten nahi ez badu. Guzti honen ondorioa, maiz, semeak edo alabak handi egiten denean sentitzen duen maitasunaren beldur sakona izaten da, «maitasunak», berari dagokionez, harrapatzen uztea eta bere askatasun-nahia itota ikustea inpliketzen duelako.

Sadismoari behaketari askok masokismoari baino korapilo gutxiagoko arazo eritzi zioten. Besteei min eman edo kalte egin nahi izateak, ezinbestez ona ez behar bada, baina erabat naturala behinik behin ematen zuen. Hobbeseak «gizateriaren aiherkunde orokortzat» hartu zuen amairik ez etenik gabeko botere-desira, Heriok bakarrik ezabatuko zuena.⁷⁴ Autore honen arabera, botere-desirak ez du inolako deabruzko izaerarik, oso alderantziz, osterera, gizakiaren plazer eta segurtasun-desiraren ondorio erabat logikoa baita. Hobbestik Hitler arte, zeinak domeinatzekeo desira, trebeenak bizirauteko burrukaren emaitza logiko bezala esplikatzeko duen —biologikoki baldintzaturik dagoen begibistatik haragoko burruka delarik berau—, botere-irrika beti ulertu izan da esplikaziorik behar ez duen giza izaeraren zatitza. Baina bulkada masokistek, norberaren niaren kontra doazen jauginak izanik, enigma bat ziruditen. Nola ulertu pertsona batzuek beren burua txikiagotu, ahulagotu eta zigortu nahi ez ez ezik, hau eginez gozamina hartzen dutela? Ez al du masokismoaren fenomenoak kontraesanean jartzen giza psikismoaz dugun kontzepzioa, hots plazertera eta autokontserbaziorako joera garbia duela. Nola esplikatu gizon batzuk erakarriak izatea guztiok ekiditen saiatzen garenerantz, hots, min eta sufrimendurantz, eta eurok eragiteko egintzetan erortzea?

Bada fenomeno bat, hala ere, sufrimendua eta ahulezia giza ahaleginaren xede izan «daitezkeela» egiaztatzen duena: «perbertsio masokista». Kasu honetan, modu batera edo bestera sufritu nahi duten eta sufrimenduaz gozatu egiten duten pertsonak ikusi ahal ditugu. Perbertsio masokistan gizabanakoak kilikadura sexual bat izaten du besteak egiten dion mina sentitzean. Baina hau ez da modu bakarra. Sarritan, bilatzen dena ez da egiazko sufrikarioa, fisikoki menperatua, ahul eta babesgabe sentitzetik sortzen den kilikadura eta atsegina baizik. Beste batzuetan, perbertsio masokistan nahi dena «moralki» ahul sentitzea da, haur bat bezala tratatua izanez edo modu askotako agirakak edo umiliazioak jasoz. Perbertsio sadikoan, osterera, sufrikario horiek inori eragitetik datorren atsegina aurkitzen dugu, hau da, besteak fisikoki zigortzetik, sokaz edo kateaz lotzetik, egintzaz edo hitzez apalaraztetik.

Perbertsio masokistak, minaren eta apalduaren gozamen kontziente eta nahitakoarekin, karaktere masokistak (edo masokismo moralak) baino lehenago erakarri zuen psikologoaren arretra. Hala ere, gero eta oharitzenago ziren lehenbizi deskribatu ditugun moduko jaugin masokis-

tek eta perbertsio sexualek duten elkarren antzekotasun handiaz, masokismo-mota biok funtsean fenomeno bera zirela ikusiz.

Psikologo batzuek jo dute ezen, menekotasuna eta sufrimendua nahi duten pertsonak daudenez gero, xede bera duen instinturen bat izan behar duela. Soziologoak ere izan ziren, Vierkand adibidez, konklusio berera iritsi zirenak. Lehenengo saialdia esplikazio teoriko osobeteagoa eraikitzeko, Freudi zor diogu. Hasieran autore honek uste zuen sadomasokismoa funtsean fenomeno sexual bat zela. Haur txiki-txikitxoek ere praktika sadomasokistak zeuzkatela ohartu ondoren, sadomasokismoa, instintu sexualaren garapenean erregulariki agertzen den «bulkada partziala» zela suposatu zuen. Uste zuen helduen jaugin sadomasokistak, gizabanakoaren garapen psikosexuala haur-fase goiztiar batean finkatzearen edo atzera fase horretara bihurtzearen fruitu zirela. Geroago, Freudek arreta gero eta handiagoa eman zien berak masokismo morala izenez izendatu zituen fenomenoari, hau da, sufrimendu psikikorako (ez fisikorako) jauginari. Beste hau ere azpimarratu zuen, jaugin sadikoak eta masokistak batera gertatzen direla, itxuraz elkarrekin kontraesanean egon arren. Edonola ere, autore honek aldarazi egin zuen fenomeno masokistei buruzko bere esplikazioa. Onartuz badela suntsimendura bideraturiko eta besteen zein nor bere buruaren aurka zuzen dezakeen jaugin bat, izaera biologikoa duena, Freudek iradoki zuen masokismoa funtsean heriotz instintua deritzanaren sorkari zela. Gainera, gehitu zuen heriotz instintu hau, zuzenean hauteman ezinezkoa, instintu sexualarekin nahasten dela, eta fusio honetan masokismo moduan agertzen dela nork bere aurka bideratzen duenean, edo sadismo moduan besteen aurka bideratzen duenean. Autore honek suposatzen zuen instintu sexualarekin nahasita egoteak babestu egiten duela gizona heriotz instintu nahasgabeak eragingo liokeen efektu arriskugarririk. Laburbilduz, Freuden arabera gizakumeak suntsikortasuna instintu sexualarekin nahasi ezean, hautabide hauxe besterik ez du: bere burua suntsitu edo besteak suntsitu. Teoria hau Freuden hasierako hipotesirik diferentea da. Hasieran sadomasokismoa batez ere fenomeno sexual bat da, teoria berrian, ostera, fenomeno ez-sexuala da funtsean, daukan faktore sexuala, heriotz instintua instintu sexualarekin fusionatzeari zor baitzaio.

Freudek, urte askotan zehar eraso ez-sexualaren fenomenoari arreta handirik eman ez bazion ere, Alfred Adlerrek, ostera, bere sistemaren erdigunean jarri zuen hemen aztergai dugun jaugina. Baina auto-

re honek ez dio sadomasokismoa deitu, «gutxiagotasun-sentimenduak» eta «botere-nahia» baizik. Adlerrek fenomenoon aspektu arrazionala soilik ikusten du. Gu geure burua gutxiagotzera edo txikitzera garamatzen jaugin irrazional batez hitz egiten ari garen bitartean, hark uste du gutxiagotasun-sentimenduak objektiboki den gutxiagotasunaren aurrez aurre, hala nola haur baten akats organikoen edo maldertasun orokorren aurrez aurre daukagun erreakzio egokia direla. Eta guk botere-nahia, besteak menderatzeko bultzadura irrazionalaren adierazpentzat jotzen dugun bitartean, Adler erabat alderdi arrazionaletik ari da arazoa ikusten eta, botere-nahiaz mintzatzean, erreakzio egokia dela dio, gizabanakoa bere segurtasun ezetik eta gutxiagotasunetik sorturiko arriskuetatik babesteko. Adler hemen, beti bezala, ez da iristen giza jokabidearen motibazio arrazional eta helburudunaz haratago ikustera; eta, motibazioaren arazo korapilatsura ikuspuntu oso baliozkoak ekarri baiditu ere, azalean geratzen da, inoiz ere jaitsi barik, Freudek egin duen bezala, bulkada irrazionalen leizera.

Psikoanalisisiko literaturan, Freudenetik diferenteak diren ikuspuntuak, Wilhelm Reichek⁷⁶, Karen Horneyk⁷⁷ eta nik neuk ere aurkeztu ditut.

Reichen teoria, libidoaren jatorrizko freudar teorian oinarritzen bada ere, autore honek seinalatzen du masokistaren azken xedea plazerren bilaketan datzala, eta hartzen duen mina xede bat berez barik subproduktu bat dela. Horney izan zen nortasun neurotikoa jaugin masokistek duten funtsezko funtzioa asmatu zuen lehenengoa, eta orobat karaktere masokistaren ezaugarrien deskribaketa zehatz eta osobetea eman eta karaktere-egitura osoaren emaitza dela esanez teorikoki esplikatatu zuena. Beraren idazkietan, nireetan bezala, ez da admititzen karaktere masokistaren ezaugarriak perbertsio sexualen erroturik egon daitetzkeenik, ezpabere azken hau karaktere-egitura berezi batetik sortzen diren jaugin psikikoen adierazpen sexualtzat hartzen da.

Orain arazo printzipalera nator: Zein da, errespektiboki, perbertsio sexualaren eta karaktere masokistaren ezaugarrien sustraia? Honez gain, zein da jaugin masokista eta sadikoen sustrai komuna?

Zein norabidetan bilatu behar den erantzuna, iradokia dugu jada kapitulu honen hasieran. Hala jaugin masokistak nola sadikoak gizabanakoari bere bakardade eta ezintasun-sentzazio jasangaitzari ihes egiten laguntzeko joera dute. Psikoanalisiak, eta gizabanako masokistengan

egin diren beste hautemate enpiriko batzuek ere, froga zabal bat (liburu honi jarritako mugak gainditu ezean hemen aipatzerik ez dagoena) luzatzen dute, horrelako pertsonak beren ezereztasun eta ezintasunak eragindako beldur biziak hartuta sentitzen direla egiaztatzen duena. Sentimendu hau sarri ez da kontzientea; beste batzuetan beronen perfekzio eta bikaintasuna goستن duten sentimendu konpentsakorren ostean ezkutatzen da. Hala ere, horrelako pertsonen dinamika psikiko inkontzientean sakonki sartzeko, hutsik gabe aurkitzen dira bertan sentimendu horiek. Gizabanakoak bere burua libre aurkitzen du zentzu negatiboan, hau da, bere nia mundu etsai eta arrotz baten aurrez aurre duelarik. Horrelako egoeran, Dostoievskik *Karamazov Anaiak* obran idatzitako deskribaketa esanguratsu bat aipatzeko, ez dauka «beharrizan premia-tsuagorik norbait aurkitzea baino, berari entregatzeko, ahalik arinen, berak, kreatura gaixoak, jaiotzatik zoritxarrez jaso zuen askatasunaren dohaina.» Gizabanakoa izuaren izuz zerbait edo norbait bilatzen hasten da bere nia berari lotzeko; ezin du jada jasan bere ni indibiduala eta apoderatuki ahalegintzen da beronengandik askatzen eta berriro ere seguru sentitzen, karga hori, nia, suntsituz.

Masokismoa da honetara garamatzen bideetako bat. Jaugin masokistek hartzen dituzten izakera ezberdinek helburu bakar bat dute: «ni indibidualarengandik libratzea, nork bere burua galtzea; beste berba batzuekin esanda: «askatasunaren zama astunetik libratzea». Xede hau argi eta garbi agertzen da gizabanakoa indar izugarriaren jabetzat duen pertsona edo botere baten pean jartzen saiatzera daramaten jaugin masokistetan. (Gehi dezakegu beste pertsonaren indarrari buruzko ustea neurri erlatiboetan ulertu behar dela beti. Edo gizabanako baten egiazko indarrean edo beraren ezintasun eta ezereztasun amaigabearen ustean egon daiteke oinarrituta. Azken kasu honetan, sagu bat edo hosto bat bera ere izugarritzat har daitezke). Bulkada masokisten beste erei dago kienez, funtsezko xedea berbera da. Txikitasun— sentimendu masokistan, jatorrizko ezintasun-sentimendua sustatzera bideraturiko jaugina aurkitzen dugu. Nola esplikatzen da hau? Onargarri ote da suposatzea beldurra kentzeko erremedioa berau txarragotzean datzala? Eta, hala ere, honelaxe jokatzeko du masokista den pertsonak. Nik independente eta sendo mantendu nahiaren eta neure ezereztasun-edo ezintasun-sentimenduaren arteko ezbaian segitzen dudana bitartean, gatazka hagarantzaille baten atzaparretan harrapatuta biziko naiz. Neure ni indibiduala

ezereztasun ekartzea lortzen badut, gizabanako bereizia naizen kontzientzia ezabatzea heltzen banaiz, gatazka honetatik salbu izango naiz. Amaigabeki txiki eta babesgabe sentitzea da xede hau erdiesteko bide bat; minari eta agoniari gu habaitzen uztea da beste bat; eta hirugarrena nork bere izatea intoxikazioaren ondorioen pean bertan behera uztea. Suizidioaren fantasia da azken esperantza beste bide guztiek bakardadearen zama arintzea lortu ez dutenean.

Zenbait baldintza direnean, bulkada masokistok arrakasta erlatibo lortzen dute. Gizabanakoak jaugin masokista horiek asetzeko zenbait kultur bide aurkitzen badu (ideologia faxistan liderrarekiko menekotasuna bezalakoak), nolabaiteko segurtasuna bereganatzen du, sentimendu beren partaide diren milioika gizakumerekin elkartuta sentitzean. Hala ere, honelakoxe kasuetan ere «soluziobide» masokista agerkizun neurotikoa izan daitezkeen bezain desegokia da: gizabanakoak sufrimendu bistakoena kentzea lortzen du, baina ez du honen oinarrian dagoen gatazka ezabatzea erdiesten, ezta bere zoritxar isila ere. Bulkada masokistak honelako kultur biderik aurkitzen ez duenean edo beraren intentsitatea taldean dagoen batazbesteko masokismo-gradutik gorakoa denean, soluziobide masokistak ez du ezer konpontzen erlatiboki ere. Egoera jasangaitz batetik sortzen da, berau gainditzera doa eta gizabanakoa sufrikario berrien atzaparretan uzten du. Giza jokabidea beti arrazionala eta xededuna balitz, masokismoa agerkizun neurotikoa oro eskuarki den bezain esplikagaitza litzateke. Baina hor dugu nahas-mendu emozional eta psikikoen ikerketak irakatsi diguna: giza jokabidea esturak edo bestelako edozein egoera psikiko jasangaitzek eragindako bulkadek motibatua izan daiteke; bulkadok egoera emozional hori kentzen saiatzen dira, baina agerkizun bistakoenak estaltzea besterik ez dute lortzen eta batzuetan horixe ere ez. Agerkizun neurotikoa izu kasuetan gertatzen den jokabide arrazionalen antzekoak dira. Horrela, suak harrapatutako gizona, leihotik oihuka jartzen da laguntza eske, erabat ahantziz inork ez diola entzuten, eta oraindik baduela laster bera ere zeharo sutan egongo den eskilaran behera ihes egiteko modua. Oihu, salba dezaten nahi duelako egiten du, eta une horretan duen jokabideak helburu hori lortzeko pausu dirudi; jokabide horrek, halabaina, galbidera eramango du. Era beretsuan, bulkada masokisten kausa ere ni indibidualarengandik libratu nahia da, beronen mugapen, gatazka, ezbaia, arrisku eta bakardade jasangaitz eta guzti, baina sufrimendu-mota bista-

koena besterik ez dute ezabatzea lortzen eta are dolore biziagoetara eramaz lezakete masokista. Masokismoaren irrazionaltasuna, beste agerkizun neurotiko guztiena bezalaxe, egoera jasangaitz bat gainditzeko harziren diren bitartekoen erabateko fiskerian datza.

Gogoramen hauek iharduera neurotikoaren eta arrazionalaren artean dagoen alde garrantzitsu bati dagozkionak dira. Bigarrenean, «emaitzak» ihardueraren «motibapenei» dagozkie, bertan zenbait ondorio lortzeko jokatzen baita. Jaugin neurotikoetan, ostera, izaera negatiboa duen bulkada baten eraginez jokatzen da: egoera jasangaitz batetik ihes egiteko. Jaugina soluziobide fikziozko hutsa suposatzen duen norabidetik abiatzen da. *De facto*, emaitza gizabanakoak nahi duenaren aurkakoa da; sentimendu jasangaitzetik libratzeko premia hain gogorra da, non ez dion uzten fikziozko soluziobidea barik egiazkoa izan daitekeen joka-ildoak aukeratzen.

Masokismoari dagokionez, seinalaturiko prozesuaren ondorioa, gizabanakoa bakardade eta ezereztasun-sentimendu batek menderatuta sentitzea da. Saiatzen da, orduan, hau gainditzeko, bere niarengandik (entitate psikologiko, eta ez fisiologiko, denez) libratuz; horretarako darabilen bitartekoa bere burua txikitzea, sufritzea, erabat ezereztitzea. Baina mina eta sufrimendua ez ditu helburu; bai bata eta bai bestea, konpulsiboki jadetsi nahi duen helburua lortzeko derrigor ordaindu behar duen prezioa dira. Prezio oso garestia da. Eta gero eta garestiago bihurtuko zaio, gero eta zor handiagoen pean jartzea besterik lortzen ez duen peoiaren pare geratuz, zor duena inoiz kitatu gabe eta nahi duena, bere baitako bakea eta lasaitasuna, sekula ere bereganatu gabe.

Perbertsio masokista aipatu dut, beronek sufrimendua helburu bilatua izan daitekeela zalantzarik gabe frogatzen duelako. Hala ere, ez perbertsio-mota honetan ez masokismo moralean, sufrimendua ez da egiazko xede; kasu biotan, xedea, hots, nor bere niaz ahanztea, lortzeko bitarteko da. Perbertsioaren eta karaktere masokistaren ezaugarrien arteko aldea ondoko honetan datza funtsean: perbertsioan nor bere niarengandik libratzeko joera gorputzaren bidez adierazten da eta sentimendu sexuarekin lotuta dago. Masokismo moralean jaugin masokista pertsona osoaz jabetzen da eta nia kontzienteki lortzen saiatzen den xede guztiak suntsiarazteko joera du; perbertsioan, ostera, jaugin masokistak gehiago edo gutxiago eremu fisikora mugaturik aurkitzen dira; are sexualtasuna-

rekin duten fusioak, sexu-eremuan gertatzen den deskargan partaide izateko ahalbidea damaie, arintzeko modu zuzen bat erdietsiz.

Ni indibidualaren deuseztatzea eta horren bidez ezereztasun-zentzazio jasanezina gainditzeko saialdia, bulkada masokisten alderdi bat baino ez dira. Beste alderdia pertsona baino goragoko entitate handiago eta boteretsuagoren baten zati bihurtzeko eta beraren baitan murgildu eta partaide izateko ahalegina da. Entitate hau gizabanako bat, erakunde bat, Jainkoa, nazioa, kontzientzia edo bulkada fisiko bat izan daiteke. Irmoki indartsu, betiereko eta lilugarri ikusi eta sentitzen den botere baten zati bilakatzean, gizabanakoa haren indar eta aintzaren partaide da. Bere nia entregatzen du eta bere nortasunaren indar eta harrotasun guztiari uko egiten dio; gizabanako denez duen osotasuna galdu eta askatasuna entregatzen du; baina segurtasuna eta murgildua den boterean partaide izategatiko harrotasuna bereganatzen ditu. Ezbaia den torturaren aurka ere segurtasuna bereganatzen du. Masokista den pertsona, hala kanpoko agintari baten menpean jartzen denean nola niaren baitara, kontzientzi forman edo konpulsio psikikoren baten eran, sartu zaion agintzaile bat ugazaba duen kasuan, salbu geratzen da erabakiak hartu beharretik, niaren izangoaren azken erantzunkizuna bere gain hartu beharretik, eta, beraz, erabakiarekin batera doan ezbaitik ere bai. Bere biziaren zentzuari eta «bera» nor den galderari buruzko ezbaitik ere arinduta ikusten du bere burua. Horrelako galderek, gizabanakoak bera loturik dagoen boterearekin daukan erlazioan dute erantzuna. Haren biziaren esangura eta haren niaren identitatea, nia murgildua den entitate handiagoak ditu erabakiak.

Lokarri masokistak funtsean dira lokarri primarioen ezberdinak. Hauek baziren gizaletze-prozesua osatu baino lehen. Harako hartan, gizabanakoa «bere» mundu sozial eta materialaren osagai zen oraindik eta ingurugirotik guztiz jalgi gabe zegoen. Lokarri primarioek egiazko konfidantza eta nongoa zen jakinaren segurtasuna zemaioten. Lokarri masokistak ihesbide bat dira. Ni indibiduala jalgia da jada baina bere askatasuna gauzatzeko ezgai sentitzen da; esturak, ezbaiek eta ezintasun-zentzazioak itota sentitzen da. Nia, «lokarri sekundarioetan» —izen horixe eman geniezaieke lotura masokistei— segurtasuna aurkitzen saiatzen da, baina saialdi hau inoiz ere ezin da arrakastatu izan. Ni indibidualaren jalgitzeak ez du itzulbiderik; bere kontzientzian gizabanakoa senti daiteke seguru eta nonbaitekoa balitz bezala, baina gehien bat

bere niaren murgilduraren pean sufritzen ari den atomo ezindua izan behar beti. Gizabanakoak eta bera datzekion entitateak ez dute sekula bat egiten, beti dirau oinarritzko antagonismo batek, eta honekin batera, bulkada batek, zeharo inkontzientea ere izan daitekeena berau: dependenzia masokista gainditu eta berriz ere aske izateko bulkadak.

Zein da jaugin sadikoen muina? Berriz ere hau ez datza besteei min emateko desiran. Hauteman ahal ditugun sadismo era ezberdin guztiak oinarritzko bulkada bakar batera biltzen dira, hau da, pertsona batekiko domeinu osoa lortzea, hura nork bere nahimenaren objektu pasibo bihurtzea, beraren jaun eta jabe, beraren Jainko bihurtzea, berarekin nahi den guztia egitea. Umiliatu eta esklabutzea xede honexetara zuzenduriko bitartekoak baino ez dira, eta bitarteko nagusia besteari sufriaraztea da, zeren ez baita botere handiagorik, min emateko, besteak, defendetzako betarik eman gabe, sufritzera behartzeko boterea baino. Beste gizabanako batengan (edo beste izaki bizidun batzuegan) domeinurik erabatekoena erabiltzeko plazerra da jaugin sadikoaren muin-muina.⁷⁸

Badirudi beste baten jabe absolutu bihurtzeko joera hau jaugin masokistaren kontrakoa dela, eta txundigarri da bulkada biok hain hertsiki elkarbigizaturik egotea. Dударik ez da, ondorio praktikoei dago kienez, menpeko izateko edo sufritzeko desira besteak domeinatu edo sufriaraztekoaren aurkakoa dela. Ikuspuntu psikologikotik, halabaina, jaugin biok nor bere niaren isolamendu eta ahulezia jasateko gai ez izatetik erretzen den oinarritzko premia bakarraren emaitza dira. «Sinbiosi» deitzea proposatzen dut bai sadismoaren eta bai masokismoaren oinarrian dagoen xedeari. Sinbiosia, zentzu psikologiko honetan, ni indibidual bat beste batekin (edo norberaren niaz kanpoko beste edozein botererekin) batzeari dagokion hitza da, batasun hau bata eta besteari bere nortasunaren osotasuna galerazteko gauza delarik, elkarrekiko dependente eginez. Sadikoak bere objektuaren premia du, masokistak berea gabe bizi ezin duen bezalaxe. Alde bakarra zera da, segurtasuna beste bati bera irensten uztean bilatu beharrean, bera dela bestea irensten duena. Kasu biotan niaren osotasuna galtzen da. Lehenengoan kanpoko botere baten baitan disolbatzean galtzen naiz; bigarrean luzatu egiten dut neure burua beste izaki bat neure niaren zati egitean, eta, hori eginaz, izaki independente izanik ez daukadan indarra neureganatzen dut. Neure ni indibidualaren bakardadeari eutsi ezina da beti besteren bate-

kin harreman sinbiotikoetan hasteko jaugina dakarrena. Guzti honetatik garbi ateratzen da zergatik dauden beti nahasirik joera masokista eta sadikoak. Azalean kontraesankorrak badirudite ere, muinean oinarritzko premia berean errotuta daude. Jendea ez da sadikoa ala masokista, etengabeko oskilazioa baitago konplexu sinbiotikoaren alde aktibo eta pasiboaren artean, halako moldez non zail gertatzen den sarriaskotan zehazten alderdi biotako zein ari den ihardunean momentu konkretu batean. Kasu biotan indibidualtasuna eta askatasuna galtzen dira.

Sadismoaz pentsatzean, beronekin hain nabarmenki lotuta dauden sunsikortasuna eta etsaitasuna datozkigu burura. Dударik gabe, beti ikusten da, gradu handiago edo txikiagoan, lotura bat sunsikortasunaren eta jaugin sadikoen artean. Baina gauza bera esan daiteke masokismoari buruz ere. Bereztasun masokisten analisi orok jartzen du egerian etsaitasun hori. Badirudi alde nagusia zera dela, sadismoan etsaitasun hau kontzienteagoa eta ekintzan zuzenki adierazia izan ohi dela, masokismoan etsaitasuna gehien batez inkontzientea eta zeharkako adierazpidea bilatzen duena den bitartean. Gero saiatuko naiz sunsikortasuna gizabanakoaren hunkipen, adimen eta zentzumenezko hedapenaren porrotaren emaitza dela erakusten; instintu sunsikorrak, beraz, sinbiosi-premiara garamatzaten baldintza beren ondorio bide dira. Honi buruz nabararazi nahi dudana da sadismoa eta sunsikortasuna ez direla gauza bera, bata bestearekin nahasita badaude ere. Sunsikorra den pertsonak objektua suntsitu egin nahi du, hau da, ezabatu eta berarengandik libratu. Sadikoak, ordea, domeinatu egin nahi du, eta, beraz, galera bat du bere objektua suntsitzen bada.

Sadismoa, ezarri diogun zentzuan, erlatiboki izaera sunsikorrik gabeko eta bere objektuarenganako adiskide-jarrerarekin nahasita gerta daiteke. Sadismo-mota «lagunkoi» honek adierazpen klasikoa aurkitu du Balzacen *Ilusio galduak* obran, non sinbiosi-premia deitu dugun ezaugarri berezi horri dagokion deskribaketa bat ere aurkitzen dugun. Pasarte honetan Balzacek, Lucien gaztearen eta Abadea dela itxura egiten duen galeote baten arteko harremanak deskribatzen ditu. Bere burua hiltzen orduantxe saiatu zen gaztea ezagutu eta lasterrera, abadeak dio: «... gazte honek ez du orain hil den poetarekin ezer amankomunean. Neuk salbatu zaitut, neuk eman dizut bizia, eta neurea zaitut, kreaturak kreaizailearenak diren bezalaxe, ekialdeko ipuinetan izpirituak Ifrita berea duen bezalaxe, gorputza arimarena den bezalaxe. Esku indartsuz

eramango zaitut artez boterera doan bidean; eta, hala ere, plazerrez, ohorez, festa amaigabez beteriko bizitza agintzen dizut. Ez duzu inoiz diru faltarik izango, distiratsu izango zara; nik ostera, zu altxatzeko lanean makurtuta, zure arrakastaren eraikin distiratsua segurtatuko dut. Boterea botereagatik beragatik dut maite. Beti gozatuko ditut zure plazerrak, nik neuk uko egin beharko badiet ere. Labur esanda: zurekin pertsona bakar bera izango naiz... Maite izango dut neure kreatura: moldata egingo dut, neu zerbitzatzeko heziko dut, aitak bere semea bezalaxe maite izateko. Zure ondoan, lagun maite, paseatuko dut zure «tilburian». Emakumeekin dituzun arrakastak direla eta poza daridala ibiliko naiz. Esan ahal izango dut: neu naiz gazte eder hau. Neuk sortu dut Rubenpréko Markes hau eta aristokrazian jarri dut; beronen arrakasta neuk sortu da. Bera isilik dago eta neure ahotsaz mintzatzen da; neure aholkuei men egiten die edozertan.»

Sarri, eta ez bakarrik herri-erabileran, sadomasokismoa maitasunarekin nahastu ohi da. Fenomeno masokistak, batipat, maitasun-adierazpentzat hartzen dira. Beste pertsona baten aldeko autoukazio-jarrera eta nork bere eskubide-galdapenak beste pertsonari entregatzea «maitasun handiaren» esenplu moduan goraiatu izan dira. Badirudi ez dela «maitasun» froga handiagorik maite dugun pertsonaren onerako sakrifikatzea eta geure burua galtzeko prest egotea baino. De fakto, horrelako kasuetan, «maitasuna» irriks masokista da funtsean eta pertsona horren sinbiosi-premian oinarritzen da. Baldin eta maitasuntzat ulertzen badugu pertsona baten baiezen grinatsua eta beraren esentziarekin aktiboki egindako lotura, maitale bien independentzia eta osotasunean oinarrituriko batasuna, orduan masokismoa eta maitasuna elkarren aurkako kontuak dira. Maitasuna berdintasun eta askatasunean oinarritzen da. Menpekotasunean eta pertsona bietako baten askatasunaren galeran oinarrituko balitz, ez litzateke dependentzia masokista besterik izango, zeinnahi izanda ere berau arrazionaltzeko hartutako bidea. Sadismoa ere maitasun-itxuraz agertzen da sarri. Beste pertsona batengan agintzea, hori beraren onerako egiten dugula baiezerik dagoenean, maitasuna bailitzen agertzen da maiz, baina funtsezko faktorea domeinua gauzatzetik erretako gozamen da.

Une honetan galdera bat sortu bide zaio irakurle bat baino gehiagori. Ez al da sadismoa, deskribatua dugun bezala, botere-gosearen antzekoa? Erantzuna da ezen, sadismo era suntsikorrenak, zigortzea eta

hagorantzea xede dutenak, eta botere-nahia gauza bera ez diren arren, azken hauxe dela sadismoaren adierazpide esanguratsuen. Arazoa gero eta garrantzi handiagoa hartuz joan da gure egunotan. Hobbesetik aurrera boterean ikusi izan da giza jokabidearen oinarritzko zioa; gerotiko mendeetan, hala ere, pisu handiagoa eman izan zaie boterea mugatzeko joera duten faktore moral eta legalei. Faxismoaren sorreraz, botere-goseak eta botereak dituen eskubideekiko konbentzimenduak goiera berriak erdietsi ditu. Milioika gizakumek damaiote lekua goragoko botere baten garaipenak eragindako zirrari eta indar-seinaletzat hartzen dute. Dudarik ez dago gizabanakoengan erabilitako boterea indar adierazpide dela zentzu material hutsean. Pertsona batengan bera hiltzeko boterea badarabilt, ni bera baino «indartsuagoa» naiz. Baina zentzu psikologikoan, «botere-desira ez da indarrean errotzen, ahulezian baizik». Bakarrik eutsi eta irauteko ni indibidualak duen ezgaitasunaren seinale da. Egiazko indarra faltatzean indarraren ordezkoko bat erdiesteko saialdi etsi bat da, izan.

«Botere» hitzak esangura bikoitza du. Lehenengoa inorengan aginpidea izateari dagokio, hura domeinatze ahalmenari; beste esanahia zerbait egiteko ahalmenari, ahaldu izateari loturik dago. Azken esangura honek ez du inolako zerikusirik inor domeinatzearekin; domeinua, ahalmen zentzuan adierazten du. Ezintasunaz ari garenean esangura honixe gagozkio; ez dugu adierazi nahi ezin dituela besteak domeinatu, baizik eta nahi duena egiteko gauza ez dela. Horrela, botere hitzak gauza biotako bat adieraz dezake: «domeinua» edo «ahalmena». Gauza bera izatek urrun, kualitate biok elkar baztertzaila dira. Ezintasunak, sexu-eremuari buruz soilik barik giza ahalmenen arlo guztiei buruz erabilia, domeinurako jaugin sadikoa du ondorio; gizabanako ahaldu den heinean, hau da, niaren askatasun eta osotasuna oinarri dituela bere ahalmenak gauzatzeko gai den heinean, ez du inor domeinatu beharrik eta botere-irrikatik salbu aurkitzen da. Boterea, domeinu zentzuan, ahalmenaren gaiztotzea da, sadismo sexuala amodio sexualaren gaiztotzea den bezalaxe.

Badaiteke pertsona guztietan aurkitzea berezitasun sadikoak eta masokistak. Mutur batean, beren nortasun osoa horrelako berezitasunen menpean duten gizabanakoak daude, eta berriz bestean, berezitasun sadomasokista horiek ezaugarritzat ez dituztenak. Karaktere sadomasokistaz ari garenean lehenengoei bakarrik gagozkie. «Karaktere» hitza Freudek

finkatu zion zentzu dinamikoan darabilgu hemen. Zentzu honetan zerari dagokio, ez pertsona baten ezaugarri diren jokabide era ezberdinen gutxitakoari, baizik beraren jokabidea motibatzean duten jaugin nagusiei. Freud, oinarritzko indar motibatzaileak sexualak zirela onartuz, «uzki-», «aho-» edo «ernaltze»-karakterek bezalako nozioetara iritsi zen. Premisa hau onar ez dezana, karaktere-mota ezberdinak formulatu beharrean aurkituko da. Baina kontzeptu dinamikoak lehengo bere horretan dirau. Ez da nahitaezko indar mugiarazleone mende dagoen pertsona berauez kontziente izatea. Pertsona bat jaugin sadikoen mende egon daiteke erabat eta, hala ere, uste izan betebeharrak eta ez beste ezerk motibatzen duela. Egintza sadiko nabaririk sekula ez burutzea ere gerta daiteke, dituen jaugin sadikoak azalean bederen normalak emateko adinean erreprimatuz. Hala ere, haren jokabide, fantasia, amets eta zeinuen azterketa arretatsu orok erakutsiko du haren nortasunaren geruza sakonagoetan bulkada sadikoek dihardutela.

Jaugin sadomasokistak nagusi dituzten gizabanakoen karaktereari sadomasokista dei badakioke ere, horrelako pertsonak ez dira ezinbestez neurotikoa. Karaktere-mota bat «neurotikoa» edo «normala» izatea, gizabanakoe, nork bere gizarte-egoeran, bete behar dituzten egiteko berezien eta beren kulturaren dituzten sentimendu-eta jokabide-arauen mende dago neurri handi batean. Esan daiteke behe klase ertainari dagokionez, Alemanian eta Europako beste herrialde batzuetan, karaktere sadomasokista tipikoa dela, eta gero azalduko den bezala, karaktere-mota honexetan izan zuen eraginik indartsuena ideologia naziak. «Sadomasokista» hitza perbertsio eta neurosiaren nozioekin elkaturik dagoenez, «karaktere autoritarioa» esamoldea erabiliko dut, bereziki gizabanako normalez ari garenean, aztergai dugun karaktere-mota adierazteko. Terminologia hau justifikatuta dago, sadomasokista den pertsona aginpidearekiko duen jarrerak bereizten baitu beti. Miretsi egiten du aginpidea eta beraren mende izateko joera du, baina aldi berean berak ere aginpidedun izan nahi du eta besteak bere menpean eduki. Beste arrazoi bat ere badago termino hau aukeratzeko. Sistema faxistak autoritarioa deitu zion bere buruari, aginpideak beraren egitura politiko eta sozialean funtzio domeinatzailea zuelako. Horrela «karaktere autoritarioa» esamoldeaz faxismoaren giza oinarria den nortasun-egitura adierazten dugu.

Karaktere autoritarioaren azterketan aurrera egin baino lehen, «aginpidea» hitza argitu beharra dago pixkat. Ez da pertsona batek

«daukan» kalitate bat, ondasunen edo dohain fisikoen jabetza izatea bezala. Aginpideak, pertsona batek beste bat bera baino goragokotzat duenean ematen diren pertsonarteko harremanekin du zerikusia. Baina funtsezko aldea dago arrazionalak dei dakiekeen nagusitasun-menpeko-tasun motako harremanen eta aginpide inhibitzaile legez deskriba daitezkeen artean.

Adibide batez azalduko dut esan nahi dudana. Maisu eta ikaslearen arteko harremanak eta esklabu-ugazabaren eta esklabuaren artekoak batoren besteenganako nagusigoan oinarritzen dira. Maisuaren eta ikaslearen interesak norabide berean doazenak dira. Maisua kontent dago ikasleari aurrera eragitea lortuz gero; eta lortzen ez badu, porrota berea eta ikaslearena da. Esklabu-ugazabak, aitzitik, ahalik gehien hustiratu nahi du esklabua, eta zenbat eta beroni gehiago atera, orduan eta poza-ago. Aldi berean esklabuak ahalik ondoen defendatu nahi du gutxieneko zorionerako duen eskubidea. Berauen interesak garbi aurkakoak dira, zeren batarentzat abantailatsua dena bestearentzat kaltegarria baita. Kasu batean eta bestean nagusigoak funtzio ezberdinak ditu: lehenengoan, aginpidearen pean dagoen pertsonari laguntzeko baldintza da; bigarrenean berau hustiratzeko baldintza.

Aginpidearen dinamika ere, mota biotan, diferentea da: zenbat eta gehiago ikasi ikasleak, hainbat eta estuago izango da bera eta maisuaren arteko bitartea. Lehenengoa bigarrenaren gero eta antz handiagoa hartuz doa. Beste hitzez, aginpidezko erlazioak ezabatze bide darama. Baina nagusigoaren funtzioa hustirapenaren oinarri izatea denean, pertsona bien arteko distantzia, denbora iragan ahala, gero eta handiago egiten da.

Egoera psikologikoa ezberdina da aginpidezko egoerotako ba-koitzean. Lehenengoan maitasun, mirespen edo eskerroneko elementuak dira nagusi. Aginpideduna aldi berean eredu bat da, berarekin guttiz edo aldez identifikatu nahi lukeelarik nor berak. Bigarrenean herragunea edo etsaitasuna sortuko da hustiratzailaren aurka, beronekiko menekotasuna norberaren interesen kaltetan baitoa. Baina sarriaskotan, esklabuaren kasuan bezala, beronen gorrotoak gero eta sufrimendu handiagoak lezarzkitan gatazkabidera eramanez besterik ez luke egingo, garaile ateratzeko inolako perspektibarik gabe. Horregatik, jeneralean joera, gorrotoa erreprimatzea izango da eta batzuetan gorrotoa mirespen itsuz ordeztara. Jokabide honek bi funtzio ditu: 1) gorroto-senti-

mendu mingarri eta arriskutsua kentzea; 2) apaldura arintzea. Agintzen duen pertsona zoragarria eta perfektua bada, orduan ez daukat berari men egiteaz zertan lotsatu. Ezin naiz bera den bezainbatekoa izan, bera ni baino askoz ere indartsuagoa, jakintsuagoa, onagoa... delako. Mota inhibitzaileko aginpidearen ondorioa, edo gorroto edo gainestimu-sentimendua haziz joango dela da. Mota arrazionalako aginpidean, ostera, txikitzeko joera izango dute, meneko pertsona indartuz eta, beraz, aginpidunaren antzekoago eginez doan hein zuzenean.

Aginpide razional eta inhibitzailearen arteko aldea erlatiboa da soilik. Esklabu eta ugazabaren arteko harremanetan eurretan ere esklabuarentzako abantailos diren elementuak daude. Honek gutxienezko elikagaiak eta babesa jasotzen ditu, ugazabaren onurarako lan egiteko gai behinik behin egiten dutelarik. Bestalde, ikasle eta maisuaren arteko erabateko antagonismorik eza, harreman idealetan bakarrik aurki daiteke. Gradazio pila bat dago mutur bi hauen bitartean, industri langilearen eta ugazabaren artean, adibidez, gertatzen den moduan, edo baserriko semearen eta aitaren artean, edo etxeoandarearen eta bere senarraren artean. Baina aginpide-mota biak de facto nahasirik dauden arren, beti dago funtsezko alde euren artean, eta aginpidezko egoera konkretu baten analisiak, beti jarri beharko luke agerian aginpide-mota bakoitzak duen pisu espezifikoa.

Agintaria ez da nahitaz hau agindu edo hori permititzen duen pertsona edo erakunde bat; kanpoko dei geniezaiokeen aginpide honez gain, beste bat ere ager daiteke, barnekoa, betebeharra, kontzientzia edo superego izenez. Izan ere, protestantismotik Kanten filosofiaraino, pentsamendu modernoaren garapenaren ezaugarria aginte barneratua kanpokoaren ordezt hartzea da. Gorantz zihoan erdiko klasearen garaitza politikoez, kanpoko aginteak bere itzala galdu zuen eta gizakumearen kontzientziak hartu zuen lehen hark zuen lekua. Aldaketa honi askatasunaren garaitza eritzi zioten askok. Kanpoko botere batetik sorturiko aginduei men egitea (gai-arazo izpiritualetan bederen), gizakume askeak egiteko ezduin zirudien; baina gizabanakoaren alde batak —beraren arrazoimen, nahimen edo kontzientziak— beronen grina naturalak menderatzea eta beste aldearekiko —beraren naturarekiko— domeinua ezartzea, askatasunaren muina bera zela zirudien. Analisiak, alabaina, erakusten du kontzientziak agintariekin konparagarri den laztasanaz agintzen duela eta, honez gain, gizakumearen kontzientziak emandako

aginduak ez daudela, azken batean, arau etikoen duintasuna berenganduriko eskabideek eraenduta. Kontzientziaren gobernamentua kanpoko agintariena baino are gogorragoa izan daiteke, gizabanakoak haren aginduak bere-bereak dituela sentitzen baitu; nola, beraz, jaiki bere buruaren kontra?

Oraintsuko hamarkadetan «kontzientziak» galdu egin du lehen zuen garrantziarik asko. Ematen du ez kanpoko ez barruko agintariek dutela jada funtzio esanguratsurik gizabanakoaren bizitzan. Denak dira erabat «libreak», beti ere besteen legezko eskubideetan tartekatu ezean. Baina aurkitzen da aginpidea ezabatu baino gehiago ikusezin bihurtu dela. Ageriko aginpidearen ordezt, nagusi dena «aginpide» «anonimoa» da. Sen komunez, zientziaz, osasun psikikoz, normaltasunez, eritzi publikoz mozorrotzen da. Berez begibistakoa dena besterik ez du eskatzen. Ezein presioz ere ez dela baliatzen dirudi, izatekotan ere, pertsuasio moduren batez. Dela bere alabari «nik badakit ez zaizula gustatuko mutil horrekin ateratzea» diotson kasuan, dela «erre ezazu horrelako edo halako zigarro-marka...», freskura gustagarria aurkituko diozu» iradokitzen duen iragarkiarenean, gizarte-bizitza guztia inguratzen duen atmosfera sotil berarekin egiten dugu topo beti. Aginpide anonimoa ageriko aginpidea baino askoz ere eraginkorragoa da, ez baita susmatu ere egiten bete beharreko agindurik eman lezakeenik ere. Kanpoko aginpidearen kasuan, ordea, nabariak dira hala aginduak nola berauok ematen dituen pertsona; burrukatu ahal izango dugu, beraz, eta burruka honetan independentzia pertsonala eta balio morala garatu ahal izango dira. Baina, niaren baitaratu den aginpidearen kasuan, agindua, barnekoa izanda ere, oraindik hautemangarria den bitartean, aginpide anonimoaren kasuan, hala agindua nola agintzailea ikusezinak dira. Ikusi ezin dugun pertsonak botatako tiroa hartzea bezala da. Ez duzu inoren ez ezeren kontra erantzuterik.

Karaktere autoritarioari buruzko eztabaidara atzera berriz etorriz, seinalatu behar den berezitasun garrantzikoena boterearekiko duen jarrerara da. Karaktere autoritarioarentzat, nolabait esateko, bi sexu dira: boteretsuak eta boteregabeak. Maitasuna, mirespena eta menekotasunerako prestasuna automatikoki sortzen zaizkio boterearen presentzian, zein pertsona bat zein erakunde bat izan boterearen jabe dena. Botereak, ez balio sistema konkretu bat defendatzen duelako, boterea delako baidzik liluratzen du. Eta botereak «maitasuna» automatikoki sortarazten

dion bezala, halaxe jende edo erakunde boteregabeek mesprezioa sortarazten diote. Pertsona babesgabeak ikuste hutsak eragiten dio berauek eraso, menperatu eta umiliatu nahia. Beste mota bateko karakterea izaturik sentituko litzatekeen bitartean gizabanako babesgabe bat erasotzea pentsatze hutsaz, karaktere autoritarioa hainbat eta bultzatuago sentitzen da hori egitera, zenbat eta ahulago izan beste pertsona.

Bada karaktere autoritarioaren ezaugarri bat behatzaile asko engainatu duena: agintariari desafioa botatzeko eta «goitiko» sarkeria oroz haserretzeko joera. Batzuetan desafio honek koadro guztia desitxuratzzen du; menekotasunerako jauginak gerizatan geldituz. Horrelako pertsona etengabe altxatuko da edozein motatako aginteren aurka, are bere interesen alde ari den eta errepreziobiderik ez duenaren aurka ere. Batzuetan agintarekiko jarrera abartuta aurkitzen da. Horrelakoek burruka dezakete aginte-mota baten aurka, agintari horrek botererik ez duelako haserre badira batipat, eta aldi berean, edo geroago, botere handiagoa edo promesa hobeak erakusten dituztelako beren irrits masokistak asetzeko gai direla diruditen beste aginte-mota baten pean jarri. Azkenez, bada beste mota bat errebelamendurako jauginak erabat erreprimituak dituen, kontrolbide kontzientea ahultzen denean bakarrik azaleratzen direlarik; edo «ex posteriori» hauteman daitezke agintari konkretu baten aurka sorturiko gorrotoan, honen boterea ahuldu eta loka jartzen hasten denean. Lehenengo motako pertsonen, hots, errebelamendu-jarrera koadroaren erdi-erdian ageri dutenei, dagokienez, erraz sinets daiteke izakera masokista menekorria dutenen aurka-aurkako karaktere-egitura daukatela. Aginte ororen aurka dauden pertsonak bailiren agertzen dira, omen duten independentzi gradu demasa oinarritzat hartuta. Omen duten barne-indar eta osotasunarengatik, beren independentzia eta askatasunari traba egiten dien indar guztien aurka burrukatzen duten pertsonak dirudite. Hala ere, karaktere autoritarioaren burruka agintearen aurka, desafioa besterik ez da funtsean. Bere burua baieztu eta ezintasun-sentimenduak agintearen aurka burrukatuz gainditzeko saialdia besterik ez da, menekotasun-irritsak, hala ere, hantxe dirauelarik, kontzientea edo inkontzienteki. Karaktere autoritarioa ez da sekula «iraultzailea»; «bihurria» dela esan nahiago nuke. Gizabanako asko eta mugimendu politiko piloa dago azaleko behatzailearentzat nahasgarri direnak, «erradikalismotik» ertzeko autoritarismorako aldaketa ulertezina dirudiena bitarteko dela. Ikuspuntu psikologikotik, horrelakoak «bihurri» tipikoak dira.

Karaktere autoritarioaren jarrera bizitzaren aurrean, haren filosofia osoa, dituen hunkipen-bulkadek determinatua da. Karaktere autoritarioak giza askatasunaren mugagarri diren baldintzak hobesten ditu; destinoaren mende jartzea du atsegin. «Destinoak» berarentzat duen esangura, daukan egoera sozialaren mende dago. Soldaduaarentzat menpetasuna gustura eskaintzen dien bere goikoen nahia edo nahikeria izan daiteke destinoa. Negoziogizon txikiarentzat lege ekonomikoak dira egokitu zaion destinoa. Ugaritasuna eta krisia ez dira harentzat giza iharduerak alda ditzakeen fenomenoak, menpetasuna eskaini behar zaion goragoko boterearen adierazpen baizik. Piramide sozialaren gainurrean daudenentzat gauzak ez dira funtsean ezberdinak. Nork berak men dagion boterearen handitasun eta orokortasunean soilik datza alde, eta ez dependentzi sentimenduan berez.

Eta ez bakarrik norberaren bizitza zuzenean erabakitzen duten indarrak, baizik eta bizitza orokorrean moldatzen dutenak ere destino aldaezin moduan sentitzen dira. Destinoaren sorkari da gerrak izatea eta gizateriaren zati batek gobernatua izan beharra beste zatia. Destino da sufrimendu-gradua beti izan den baino txikiagoa ez izatea ezartzen duena. Destinoa razionaldua izan daiteke filosofikoki «berezko lege» edo «giza destino» bezala, erlijio ikuspuntutik «Jainkoaren nahi» moduan, etikoki «betebehar» bezala. Karaktere autoritarioarentzat gizabanakoarengandik kanpo dagoen goragoko indar bat da, gizabanakoak beronen meneko izan beste erremediorik ez duelarik. Karaktere autoritarioak adoratu egiten du iragana. Behin izan dena, betierean izango da. Lehen izan ez den zerbait nahi izatea edo horretarako lan egitea, krimena edo zorakeria da. Kreatzeko mirakulua —eta kreatzea beti da mirakulu— bere hunkipen-esperientzi mailatik at dago.

Schleiermacherren esperientzia erlijiosoari buruzko definizioa dependentzi absolutuzko sentimendutzat hartuz, orokorrean esperientzia masokistaren definizioa da; dependentzi sentimendu honetan bekatuak funtzio berezia jokatzen du. Ondorengo belaunaldi guztiengan pisatzen duen jatorrizko bekatuaren kontzeptua, esperiantzia autoritarioari dago-kion ezaugarria da. Porrot morala, bestelako porrot oro bezala, gizakumeak inoiz ihes egin ezingo dion patu bihurtzen da. Behin bekatu egin duena, bere hutsegiteari burdinazko katez loturik dago betiko. Giza egintzak eurak, gizakumea gobernatu eta inoiz libre uzten ez duten botere bihurtzen dira. Bekatuaren ondorioak leun daitezke ordaintzearen

bidez, baina honek ezingo du sekula errua suntsitu⁷⁹. «Zure bekatuak gorrinak badira ere, zu elurra bezain zuria izango zara» Isaiasen hitzek filosofia autoritarioaren aurka-aurkakoa adierazten dute.

Pentsamendu autoritario ooren ezaugarri komuna, bizitza giza-banakoaz, beraren interesez, beraren desiraz kanpoko indarrek determinaturik dagoen konbentzimenduan datza. Zoriona aurkitzeko bide bakarra indar horiekiko menekotasunean datza. Gizakumearen ezintasuna da filosofia masokistaren leitmotiva. Moeller van der Bruck-ek, nazismoaren aita ideologikoetako bat berau, argitasun handiz adierazi du pentsamendu hau. Idazten du: «Kontserbadoreak nahiago du katastrofean, berau ekiditeko gizonak duen ezintasunean, beronen beharrezkotasunean eta optimista ameslariaren desengainu ikaragarrian sinetsi».⁸⁰ Hitlerren idazkietan buruera berberonen adibide gehiago aurkituko dugu.

Karaktere autoritarioa ez da iharduera, adore edo fede gabekoa. Baina kualitate hauek berarentzat esangura erabat ezberdina dute menekotasuna irrikitzen ez dutenentzat daukatenetik. Zeren karaktere autoritarioaren iharduera oinarritzko ezintasun-sentimenduan dago sustraituta, ihardueraren bidez gaintu nahi duelarik sentimendu hau. Ihardueraren esanahia zentsu honetan, nork bere niaren goitiko zerbaiten izenean jokatzea da. Joka daiteke Jainkoaren, iraganaren, naturaren edo betebeharraren izenean, baina sekula ere ez geroaren, jaiotzeke dagoenaren, boteretik ez duenaren edo biziaren beraren izenean. Karaktere autoritarioak goragoko botere horretan euskarrituz ateratzen du iharduteko indarra. Botere hori ezin da sekula eraso ez aldarazi. Indargetasuna berarentzat erruduntasun eta gutxiagotasunaren seinale nahastezin da, eta karaktere autoritarioak sinesten duen izakiak ahultasun-seinaleak ematen baditu, maitasuna eta begirunea gorroto eta mespretxu bihurtzen dira. Horrela, aurretik beste botere indartsuago baten mende sentitu ezik, botere eratua atakatzeko «indar erasokorra» falta du.

Karaktere autoritarioaren kuraia funtsean, patuak edo beronen ordezkari den pertsona edo «liderrak» asignatu diona pairatzeko adorean datza. Hileta jo barik sufritzea da bertuterik handiena, eta ez, ostera, sufrimendua bukaraztea edo leuntzea bederen. Karaktere autoritarioaren heroitasuna ez datza patua aldatzean, haren meneko izatean baizik.

Aginpidearekiko fedeari eusten dio, honek indartsu eta agintzaile diraeino. Sakonean, bere dudetan errotuta dauka fedea eta haiek gain-

ditzeko saialdi bat besterik ez da. Baina ukan ez du federik, fedea orain izangaitasun moduan existitzen dena gauzatuko den konfidantza segurua ulertzen badugu. Filosofia autoritarioa esentzialki erlatibo eta nihilista da, nahiz eta sarritan erlatibismoa gaintu duela bortizki aldarrikatu eta ihardun-erakutsiak egiten ibili. Etsipenik etsianean, fedegabetasun absolutuan erroturik dago eta nihilismora, biziaren ukaziora, darama.⁸¹

Filosofia autoritarioan ez dago berdintasun-kontzepturik. Karaktere autoritarioak batzuetan berdintasun terminoa erabil dezake era konbentzional hutsean edo bere helburuetako ondo datorkiolako. Baina ez du berarentzat benetazko esangurarik edo garrantzirik, bere esperientzia emozionalez kanpoko zera baita. Haren eritzirako, mundua boterea daukaten pertsonak, alde batetik, eta ez daukatenek, bestetik, osatzen dute; nagusiek eta menekoeak. Bulkada sadomasokistotan oinarrituta, domeinua edo menekotasuna sentitzen du soilik, sekula ere ez elkarkidetasunik. Aldeak, sexuzkoak zein arrazazkoak, gehiagotasun-edo gutxiagotasun-seinale dira nahitaez haren ikusirako. Konnotazio hau ez duen alderik bururatzeko ere ez da gauza.

Bulkada sadomasokisten eta karaktere autoritarioaren deskribaketa, ahulezi era ertzekoenekin dago lotuta eta, beraz, adoragai edo domeinugai denarekiko erlazio sinbiotikoaren bidez, beraiei ihes egiteko modu ertzekoenekin.

Bulkada sadomasokistak pertsona askorengan aurki daitezkeen arren, zenbait gizabanako eta talde sozial bakarrik jo daitezke sadomasokista tipikotzat. Bada, hala ere, beste dependentzi mota bigunago bat, gure kulturaren hain orokorra dena, non salbuespeneko kasuetan bakarrik falta dela dirudien. Dependentzia honek ez du sadomasokismoaren ezaugarri arriskugarri eta oldartsurik, baina duen garrantzi handia kontutan izanik, ezin dugu ukitu barik utzi arazoaz egingo dugun eztabaidan.

Beren bizitza kanpoko botereren bati sotilki bigizaturik duten pertsonak ari naiz.⁸² Egin, senti edo pentsa dezaten ezertxo ere ez dago botere horrekin nolabaiteko erlaziorik ez duenik. «Berarengandik» espero dute babesa, «berak» zain ditzan nahi dute, eta «bera» egiten dute beren egintzetatik gerta daitezkeen ondorioen erantzule. Gizabanakoa maiz ez da inondik ere ohartzen berak duen dependentziaz. Nolabaiteko dependentziaren kontzientzia, nahiz eta iluna, baduten arren, beraien dependentziaren subjektu den pertsona edo boterea nebuloso geratzen

da. Ez dago botere horrekin loturiko irudi definiturik. Duen kualitaterik muinekoena funtzio bat betetzen duela da, hots, gizabanakoa babestu, lagundu eta garatu, berarekin egon eta bakarrik sekula utzi ez. Kualitateok dauzkan X gizabanakoari «laguntzaile magikoa» [magic helper] dei lekiok. Sarriaskotan, jakina, «laguntzaile magiko» honek nortzapenen bat dauka, Jainkoa, printzipio bat edo egiazko pertsona bat, hala nola norberaren gurasoak, ezkontidea edo nagusiak, izan daitezkeelarik. Garrantzizkoa da ohartaraztea ezen, laguntzaile magikoaren funtzioa hartzen duena pertsona erreala denean, tasun magikoak egozten zaizkiola eta, orduan, hark daukan esangura, duen funtzioaren ondorioa dela. Laguntzaile magikoaren nortzapen-prozesu hau «maitemintzea» deritzanean ikus daiteke maiz. Laguntzaile magikoarekin lotura hori behar duen pertsona, hezur eta haragizko pertsona batengan aurkitzen ahalegintzen da. Arrazoi bat edo bestegatik —desira sexualean oinarriturikoa sarri—, gizabanako batek bereganatzen ditu tasun magikoak eta, era honetan, besteak bizitza guztian menpekotasuna izango dion pertsona bilakatzen da. Beste pertsonak hori bera egiteak lehenengo pertsonarekiko, ez du erlazioa ezertan aldatzen. «Zinezko maitasuna» den inpresioa sendotzen lagundu besterik ez du egiten.

Laguntzaile magikoa behar izate hau baldintza ia esperimentaletan azter daiteke prozedura psikoanalitikoan. Analizaturiko pertsonak, maiz, afektu sakona hartzen dio psikoanalitari eta bere bizitza guztia, egintzak, pentsamenduak eta sentimenduak lotzen ditu harekin. Kontziente edo inkontzienteki analisispean dagoen pertsonak bere buruari galdetzen dio: Gustatuko ote zaio hari (psikoanalitari) hau edo bestea, ados egongo ote da honetan, agiraka egingo ote dit honengatik?. Maitasunezko harremanetan pertsona hau edo bestea aukeratzea, «beragatik» eta ez beste ezergatik maite den frogatzat hartzen da; baina egoera psikoanalitikoan ilusio honek ezin iraun lezake zutik. Mota ezberdinenetako gaixoez sentimendu berberak izaten dituzte mota ezberdinenetako psikoanalistenganako. Maitasun-harremanak dirudite; desira sexualak ere tartean izaten dira sarri; eta, hala ere, laguntzaile magiko nortuarekiko lotura da muinez, psikoanalistak ondo betetzeko moduko papera berau, horretarako baldintzetan aurkitzen baita, agintaritzaren duten beste zenbait pertsona bezalaxe (medikuak, apaizak, maisu-maistrak).

Printzipioz, pertsonak laguntzaile magikoarekin harremanetan jartzera daramatzaten kausak bultzadura sinbiotikoaren oinarri moduan

aurkitu ditugunak dira; bakarrik irauteko eta bere ahalmen indibidualak osoro adierazteko ezintasuna. Bulkada sadomasokisten kasuan, ezintasun honek ni indibidualaz gabetzeko jaugina sortzen du, laguntzaile magikoaren mende egotera iraganez; aztertu berri ditugun era bigunagoetan, gidatua eta babestua izateko desira besterik ez du sortzen. Laguntzaile magikoarekin duen loturaren sendotasuna, alderantzizko proportzian dago pertsonak adimen—, hunkipen— eta zentzu-ahalmenak bere kabuz adierazteko duen gaitasunarekin. Bestela esanda, bizitzan espero den guztia laguntzaile magikoarengandik eta beronen nortzapengandik lortzea espero da, nor bere egintzetatik espero beharrean. Zenbatenaz eta kasu honetatik hurbilago, hainbatenaz desplazatzengoa da gure bizitzaren erdigunea gugandik laguntzaile magikoarengana eta bere nortzapengana. Orduan arazoa ez da nor bera nola bizi, baizik eta «hura» nola erabili gal ez dezagun eta nola lortu hark geuk nahi duguna egitea, eta are geure egintzen erantzule bihurtzea.

Kasurik ertzekoenetan, pertsona baten bizitza guztia «hura» maneiatzen saiatzera mugatzen da ia soilik; jendeak bitarteko ezberdinak erabiltzen ditu: batzuek, obediencia; beste batzuek «ontasuna», eta, azkenez, zenbait pertsonak, sufrimendua du hau lortzeko bitarteko nagusia. Ikusten dugu, orduan, ez dagoela sentimendu, ideia edo hunkipenik laguntzaile magiko nortua maneiatzeko premiak pixkat bederen koleztatu gabekorik; beste hitz batzuetan, egintza psikiko bat bera ere ez da berezkoa edo librea. Berezkotasuna blokeatzetik sorturiko eta, aldi berean, blokeatzera daraman dependentsia honek, nolabaiteko segurtasun-gradua ematen du, baina ondorioz ahulezia eta mugapen-zentzazioa dakar. Kasu hauetan laguntzaile magikoaren mende dagoen pertsona, «hark» esklabatuta ere sentitzen da —nahiz eta inkontzienteki—, «haren» aurka errebelatuz, gradu handiago edo txikiagoan. Geure zoriontasun— eta segurtasun-esperantzak jarriak ditugun pertsonarenganako errebelamendu honek gatazka berriak sortzen ditu. Erreprimitu beharra dago «hura» galduko ez bada, baina azpian datzan antagonismoak iraunkorki mehatxatzen du harremanetan bilaturiko segurtasuna.

Laguntzaile magikoa pertsona errealean batengan nortuta badago, beragandik itxaroten denetik motz geratzean sortzen den desengainuak —eta, itxarobide hori ametsezkoa denez gero, pertsona erreal orok desengainura garamatza ekidinezinki—, pertsona horri nor bere burua entregatu izanaren herraguneaz gain, etengabeko gatazkek sortzen ditu.

Gatazkok, banantzeaz soilik bukatzen dira batzuetan eta ondoren, eskuarki, laguntzaile magikoarengan jarritako esperantza guztiak beteko dituela espero den beste objektu bat aukeratzea etortzen da. Harreman berriok ere porrot egiten badute, berriro ere apurtzea gerta daiteke, edo baita ere jazo daiteke pertsona horrek «bizitza horrelaxe dela» eta etsitzea. Baina aitortuko ez duena da bere porrota ez dela laguntzaile magikoaren hautapenean izandako errakuntzetatik etorri funtsean, baizik gizabanakoak bere indarrez bakarrik, bere kabuzko ihardueraz, erdiets dezakeena, indar magiko bat maneiatuz lortu gura izatearen ondorio zuzena dela.

Norberagandik kanpoko objektu baten bizi guztiko menpetasunaren fenomeno Freudek hauteman zuen. Eta hau, gurasoekiko txiki-txikitako lokarri funtsean sexualen iraupen moduan interpretatu izan zuen. Izan ere, fenomeno honek hain eragin handia egina zion, non Ediporen konplexua neurosi ooren gune dela uste izan zuen, garapen normalerako arazo nagusia hura ondo gainditzea zela pentsatzeraino.

Ediporen konplexua psikologiaren fenomeno zentrala dela ikusteaz, Freudek zientzia psikologikoko aurkikunderik handienetako bat egin du. Baina ez zuen lortu beronen interpretazio egokia egiterik; zeren, nahiz eta guraso eta seme-alaben arteko sexu-erakarpena badagoen, egon, eta hortik sorturiko gatazkak batzuetan garapen neurotikoaren zati bat badira ere, ez sexu-erakarpena ez bertotik sorturiko gatazkak dira seme-alabak gurasoengan finkatzearen funtsezko motiboa. Haurra txiki den bitartean, gurasoengandik duen dependentzia erabat naturala da, baina menekotasun honek ez du ezinbestez inpliketzen hauraren berez-kotasunaren urritzerik. Gurasoek, ostera, gizartearen eragile moduan jokatuz, umearen berez-kotasuna eta independentzia erreprimitzen dituztenean, hazten ari den haurra gero eta ezgaiago sentitzen da bere buruari eusteko; beraz, laguntzaile magikoaren bila hasten da, eta askotan bere gurasoak bihurtzen ditu «haren» nortzapen. Gerora gizabanakoak beste pertsona batengana, adibidez, maisuarengana, senarrarengana edo psikoanalistarengana transferitzen ditu sentimendu horiek. Gainera, agintearen sinbolo horrekin harremanetan jartzeko premia, ez da gurasoetako batarenganako hasierako erakarpen sexualaren jarraipenak sortua, hauraren hedapenaren eta berez-kotasunaren zapuzketak eta hemendik ermetzen den larritasunak baizik.

Neurosi ooren muinean ikus daitekeena, eta garapen normalean ere bai, askatasun eta independentziaren aldeko burruka da. Pertsona askori dagokionez, burruka hori, amore eman eta beren ni pertsonala erabat uzteaz bukatu izan da, eta horrela gizartera moldatu eta normalizat hartuak dira. Pertsona neurotikoa, menekotasunaren kontra burrukatzeari erabat utzi ez diona da, baina laguntzaile magikoaren irudiari lotuta geratu den gizabanakoa da, dena delakoa dela «hark» hartu duen forma. Beronen neurosia oinarritzko dependentziaren eta askatasun-irritsaren arteko gatazka konpontzeko arrakastarik lortu ez duen saialdi moduan ulertu behar da kasu guztietan.

2. Suntsikortasuna

Ukitua dugu bultzadura sadomasokistak eta suntsikorrek bereiztu beharra, nahiz eta biok nahasirik egoten diren gehienetan. Suntsikortasuna sadomasokismotik diferentea da sinbiosi aktibo edo pasibora barietate objektua ezabatzea jotzen duelako. Baina bultzadura suntsikorren sustraia ere isolamendu— eta ezintasun-sentimenduari eutsi ezina da. Kanpoko munduarekin neure burua gonbaratzean ermetzen den sentimendu honetatik, berau suntsituz ihes egin dezaket. Hori bai, ezintasun-sentimendua ezabatzea lor badezat ere, beti geratuko naiz bakarrik eta isolaturik, baina isolamendu zoragarri bat da hau, ezingo bainau jada zapaldu inguruan ditudan objektuen indar abailagarriak. Mundua suntsitzea azken saialdia da —saialdi ia desesperatua— hark birrintzetik salbatzeko. Sadismoak ni objektuarenaganatzea du helburu; suntsikortasuna objektua desegitera doa. Sadismoa gizabanako atomizatua sendotzera doa, besteak domeinatzea duelarik honetarako bide; suntsikortasunak helburu bera lortu nahi du kanpoko mehatxu guztiak ezabatzea bidetzat hartuz.

Gure gizartean burutzen diren pertsonarteko harremanen behar-tzaile orok nahitaez inpresionaturik geratu behar du alde guztietan dagoen suntsikortasun gradua ikusita. Gehien batean, ez da kontzienteki sentitzen suntsikortasun moduan, era ezberdinez arrazionalduta baizik. Izan ere, ez da ezer suntsikortasuna arrazionaltzeko bidetzat erabilia izan ez denik. Maitasuna, betebeharra, kontzientzia, abertzaletasuna, mozorrotzat erabili izan dira besteak edo nork bere burua suntsitzeko. Hala ere, jaugin horietan bi mota bereizi behar ditugu. Berariazko egoe-

ra batetik sortuak dira batzuk, nork bere edo inoren bizi edo osotasunari, edo bere ideiei ere egindako erasoen kontrako erreakzio moduan sortutakoak. Kasu honetan, suntsikortasuna, norberaren biziaren baieztapenak nahitaz lagun eraman behar duen faktorea da.

Aztergai dugun suntsikortasuna, hala ere, ez da etsaitasun arrazional —edo erreakziozkoa dei genezakeen— hau, ezbabere gizabanakoaren baitan etengabe dagoen jaugina, zelatan beti, nolabait esateko, kanporatzeko betaren zain. Suntsikortasunaren agerkizun bat justifikatzeko inolako «arrazoi» objektiborik ez dagoenean, buruz edo hunkipeenez gaixorik dagoen pertsona dela esaten dugu (nahiz eta pertsona horrek eraikiko duen beti ere nolako edo halako arrazionalizazioen bat). Hala ere, kasurik gehienetan, halako moldez arrazionaltzen dira bultzadura suntsikorrak, non pertsona mordo bat bederen, eta are gizarte-talde osoa ere, arrazionaltze horietan partaide izaten baita; horrela, taldekide guztiek arrazionaltzeok «errealistak» direla deritzote. Baina suntsikortasun irrazionalaren sufrimendua jasan behar duten objektuak eta eurok aukeratzeko arrazoi bereziak bigarren mailako garrantzia duten faktoreak dira; bultzadura suntsikorrak pertsonaren baitan diharduten grinak dira eta beti lortzen dute objekturen bat aurkitzea. Zerbaitengatik beste pertsona bat suntsikortasunaren objektu bihurtu ezin bada, orduan norberaren nia bihurtzen da objektu. Hau gertatzen denean, eta gradu astun samarrean izanez gero, ondorioz gaixotasun fisikoren bat eta suizidatzeko saialdia ere etor daiteke.

Suposatu izan dugu suntsikortasuna ezintasun sentimendu jasangaitz bati ihes egiteko bide dela, gizabanakoa bere buruarekin konparatu behar dituen objektu guztiak ezabatzerako baitoa. Baina, kontutan badugu jaugin suntsikorrek giza jokabidean betetzen duten funtzioa, interpretazio honek ez dirudi behar bezainbateko esplikazioa; isolamendua eta ezintasunaren baldintzak eurak ere beste suntsikortasun-iturri biren erantzule dira: estura eta biziaren zapuzketarena. Esturaren pape-rari dagokionez, ez dago asko esan beharrik. Bizi-interesen (materialen eta emozionalen) aurkako mehatxu orok estura sortzen du⁸³, eta jaugin suntsikorrek beronen aurrez aurre erreakzionatzeko modu arruntena dira. Mehatxua egoera jakin batean pertsona jakin batzuegandik etor daiteke. Kasu honetan suntsikortasuna egoera horretan dauden pertsona horiengana bideratzen da. Estura iraunkorra ere izan daiteke —nahiz eta kontzientea izan ez nahitaz—, kanpoko munduaren etengabeko meha-

txuaren zentzazioak sortarazia. Estura mota hau gizabanako isolatu eta indargabea aurkitzen den egoeratik dator, eta berarengan garatzen den suntsikortasun-erresebaren beste iturria da.

Oinarrizko egoera beraren beste ondorio garrantzitsu bat biziaren zapuzketa deitu dudana da. Gizabanako isolatu eta indargeak butxatuta ikusten du bere zentzu—, hunkipen— eta adimen— potentzialtasunen bidea. Ez dauka burutzapen horren baldintza diren barne-segurtasunik eta berezkotasunik. Barne-butxaketa hau handitu egiten da plazer eta zorionari jarritako tabu kulturalen eraginez, hala nola, Erreforma-garaitik erlijioaren eta erdiko klasearen ohituren bidez indarrean izan direnen eraginez. Gaurregun kanpoko tabua ezabatu egin da birtualki, baina barne-oztopoek oso indartsu diraute, plazer zentzualak onspen kontzientea jaso arren.

Freudek aztertua du bizitzaren zapuzketaren eta suntsikortasunaren arteko erlazioari buruzko arazo hau, eta, haren teoria eztabaidatzean, geure iradokizun batzuk adierazteko aukera izango dugu.

Freud konturatu zen gutxietsi egin zituela bultzadura suntsikorraren pisua eta garrantzia bere teoriaren lehen eraiketan, beronen arabera giza jokabidearen oinarrizko motibazioak sexu-bultzadura eta autokontserbazioa baitira. Geroago jaugin suntsikorrek sexualak bezain inportanteak zirela sinetsirik, gizakiarengan oinarrizko bi jaugin zeudela onartzera jo zuen: bata bizira bideratua, «libidoaren» berdin samarra, eta heriotz instintu bat, bizia suntsitzea helburu duena. Suposatu zuen baita ere azken hau sexu-energiarekin nahas daitekeela eta orduan norberaren niaren edo kanpoko objektuen aurka jo zezakeela. Honi gehituz, heriotz instintua organismo orori datzekion karakteristika biologiko batean errotua dagoela, biziaren elementu beharrezko eta aldaezin izanik, beraz.

Heriotz instintuaren hipotesia egokitzen jo daiteke aurreko freudar teoriatan ahantziriko bultzadura suntsikorraren garrantzi guztia aintzat hartzen duenez. Baina ez da egokia, suntsikortasun-gradua gizabanakoen artean eta gizarte-taldeen artean arras-ezberdina dela behar bezainbatean kontutan hartzen ez duen esplikazio biologiko batera jotzen duenez. Freuden hipotesia zuzena balitz, bultzadura suntsikorraren intentsitateak —geure buruaren edo besteen aurka— gutxi gorabehera konstante iraun beharko lukeela admititu beharko genuke. Baina ikusten duguna aitzitikoa da. Suntsikortasunaren garrantzia asko aldatzen da, eta

ez bakarrik gure kulturako gizabanakoen artean, zeren gizarte-talde diferenteeen artean ere ezberdina baita. Horrela, adibidez, erdiko klase europarreko kideen karakterean hautematen dugun suntsikortasunaren pisua, langile klasekoena eta goi-klaseetakoena baino askoz handiagoa da, zalantzarik gabe. Ikerketa antropologikoek ikus-arazi digute badirela herriak ezaugarritzat suntsikortasun-gradu handia daukatenak, beste batzuetan, ostera, bultzadurok, dela besteen aurkako dela norberaren aurkako etsaitasun eran, aurkitzen ez diren bitartean.

Uste dugu suntsikortasunaren sustraiak bilatzeko ahalegin orok goian aipaturiko diferentzietatik hasi behar duela, eta gerozein diren beste faktore bereizgarriak eta hauek suntsikortasun-graduan gertatzen diren aldeak nola esplikatu ditzaketen aztertu behar dela.

Arazo honek hain zailtasun handiak ditu non obra honetan aboratu ezin den tratamendu zehatza beharko lukeen. Hala ere, zein norabidetan aurki daitekeen erantzuna iradoki nahi dut. Balirudike gizabanakoengan hauteman daitekeen suntsikortasun-gradua, euron biziaren hedapena moztuta aurkitzen den graduarekiko proportzionala dela. Honetan ez gagozkio instintuzko desira honen edo haren zapuzketa indibidualari, bizi osoa zapuzten eta gizakumearen zentzu, hunkipen, eta adimen-potentzialtasunen espontaneitatea eta adierazpidea itozten dituenari baizik. Biziak bere-berea duen dinamismo berezi bat dauka; haztera, adieraztera, bizi izatera du joera. Badirudi jaugin hau zapuzturik gertatzen bada, bizirantz kanalduriko energiak usteldura-prozesu bat izaten duela eta suntsipenera bideraturiko indar bilakatzen dela. Bestela esanda, bizirako eta suntsipenerako bulkadak ez dira elkarretarik independenteak diren faktoreak, alderantziz proportzionalak baizik. Bizirako jaugina zenbatenaz eta zapuztuago, hainbatenaz eta indartsuago bihurtzen da suntsipenerako joera duena; zenbat eta burutzapen osobe-teagoa lortzen duen biziak, orduan eta txikiagoa da suntsikortasunaren indarra. «Suntsikortasuna bizi gabeko biziaren emaitza da». Bizia kentzera doazen baldintza indibidual eta sozialok dira suntsitzeko grina sortzen dutenak, berau delarik, nolabait esateko, geure buruaren eta besteentz aurkako etsai ditugun jaugin partikularrak elikatzen diren gordailua taituzten duena.

Esan beharrik ez dago zein garrantzitsua den ez bakarrik prozesu sozialean suntsikortasunaren funtzio dinamikoa gauzatzea, baizik eta beraren intentsitatea erabakitzen duten berariazko funtzioak zein diren

ulertzea. Aipatu ditugu Erreforma-garaian erdiko klasearen ezaugarria izan zen etsaitasuna, zeinak protestantismoaren zenbait erlijio-kontzeptutan aurkitu baitzuen bere adierazpidea, bereziki orduko izpiritu asketikoan eta Kalvinok Jainko errukigabeaz, gizateriaren zati bat egin gabe ko hutsegiteengatik kondenatzea atsegin zuenaz, zeukan kontzeptzioan. Orduan, geroago ere gertatu zen bezalaxe, erdiko klaseak haserre moralaren itxurapean estaliz adierazi zuen bere etsaitasuna, sentimendu honen biziaren gozatzeko bitartekoak zeuzkatenei zien inbidia arrazionaltzen zuelarik. Gure egunotako eskenan erdiko klasearen suntsikortasuna faktore garrantzitsua izan da Nazismoaren sorreran, zeinak bulkada suntsikorretara jo eta bere etsaien kontra erabili baitzituen. Klase ertain behearen zegoen suntsikortasunaren sustraia erraz topa daiteke gure eztabaidan aztertu ditugun elementuetan: gizabanakoaren isolamendua eta hedapen indibidualaren errepresioa; biok ere klase horrengan, goiko eta beheko klaseengan baino gradu handiagoan agertu ziren faktoreak direlarik.

3. Konformitate automatikoa

Orain arte aztergai izan ditugun mekanismoetan, gizabanakoa, kanpoko munduaren botere itogarriarekin konparatzean sentitzen duen ezereztasun-sentimendua gainditzen saiatzen da, bere osotasun indibidualari uko eginez edo, mundua hain mehatxagarri izan ez dadin, besteak suntsituz.

Beste ihes-mekanismo batzuk honako hauek dira, hots, kanpoko mundutik alde egitea hain zeharo, non mehatxua desegin egiten baita (zenbait egoera psikotikotan aurkitzen dugun koadroa⁸⁴) eta nork bere burua hanpatzea kanpoko mundua konparazioz txiki bihurtzeraino. Ihes mekanismo hauek gizabanakoaren psikologiari dagokionez garrantzitsuak badira ere, kultur ikusgunetik esangura txikiagoa dute. Horregatik, ez diet hemen gehiago eragingo, garrantzi sozial handia duen hirugarren mekanismo bat aztertu ahal izateko.

Mekanismo hau gizarte modernoko gizabanako normal gehienek hartzen duten soluziobidea da. Hitz gutxiz adierazteko: gizabanakoak bera izateari uzten dio; kultur arauak damaioten nortasun-mota hartzen du, eta, beraz, mundu guztia bezalakoxe eta mundua guztiak bera izan dadin espero duen bezalako izaki bilakatzen da. «Niaren» eta mundua-

ren arteko besterizkoa ezabatu egiten da, eta beronekin batera bakardade eta ezintasunaren beldur kontzientea. Zenbait animalia-aren mimetismoaz konpara litekeen mekanismoa da. Ingurunearen hain antzekoak dira, non zail gertatzen baitzaigu hartatik bereizten. Bere ni indibidualaz gabetu eta inguruan dituen milioika automata bezalakoxe automata bihurtzen den pertsonak, ez dauka zertan bakar eta estu eta larri sentitu. Baina horregatik ordaindu behar duen prezioa oso garestia da: zer eta bere nortasuna galtzea.

Bakardadea gaintzeko metodo normala automata bihurtzea dela dioen hipotesia, gure kulturaren dagoen gizakumeari buruzko ideia-rik zabalduenetako batekin kontraesanean dago. Suposatzen da gutariko gehienak geure gogara pentsatu, sentitu eta jokatzeko libre garelara. Hau, jakina, ez da soilik garai modernoetako indibidualismo modernoaz dagoen iritzi orokorra, gizabanako orok bere buruari dagokionez zinez uste duena ere bai baita; hau da, bera «bera» dela eta bere pentsamendu, sentimendu eta nahiak «bereak» dituela. Eta hala ere, nahiz eta gure artean egiazko gizabanakoak diren pertsonak egon, uste hori, kasurik gehienetan, ilusio bat da, eta ilusio arriskutsu bat, zeren itxi egiten baitu gauzen egoera hori sorterazten duten baldintzak kentzera laramakeen bidea.

Psikologiako problemarik nagusienetako bat aztertzen ari gara, galdera-zerrenda luze bat sor dezakeena azkar asko. Zer da nia? Nolako izaera dute gizabanakoarengan bere nahimenaren sorkari diren ilusioa sortarazten duten egintza horiek? Zer da berezkotasuna? Zer ulertu behar da egintza mental originaltzat? Eta azkenez, zernolako zerikusia du guzti honek askatasunarekin? Kapitulu honetan saiatuko gara erakusten sentimenduak eta pentsamenduak niaren kanpokaldetik sor daitezkeela eta aldi berean nor bereak bailiren sentitu, eta nor bere sentimendu eta pentsamenduak erreprimi ditzakeela, era horretan nor bere niaren zati izateari utziz. Hemen hasitako eztabaida «Askatasuna eta demokrazia» izeneko kapituluaren segituko dugu.

Arazoaren azterketa, «nik sentitzen dut», «nik uste dut», «nik...nahi dut» hitzez adierazten den esperientzia analizatuz hasiko dugu. «Nik uste dut» esaten dugunean, adierazpen honek badirudi inolako anbiguotasun gabeko baieztapen argia dela. Badirudi arazo bakarra nik pentsatzen dudana egia ala gezurra den dela, ez ni naizen ala ez hori pentsatzen duena. Eta, hala ere, egoera esperimental konkretu batek era-

kutsiko digu arazo horri buruzko erantzuna ez dela ezinbestez suposatzen duguna. Ikus dezagun esperimentu hipnotiko bat⁸⁵. Hemen A subjektua dago, B hipnotizatzaileak hipnosizko lotan jarri eta iradoki diona ezen, esna dadinean, aldean ekarri uste duen eskueskribu bat irakurtzeko gogoia ukan dezala, eta berau aurkitzen ez-eta, uste ukan dezala C pertsonak ebatsi diola, orduan berarekin haserre bizian jarri behar duen larrik. Baita iradoki dio ahantz dezala hipnosizko lotan jasotako sugestioa izan dela dena. Gehitu beharra dago subjektua sekula ez dela C pertsonarekin haserretuta egon eta, oraingo zirkunstantzietan, ez daukala inondiko arrazoirik berarekin haserre egoteko; gainera subjektuak ez du inolako eskueskriburik eraman.

Zer gertatzen da? A itzartzen da eta, apur batean solasean ihardun ondoren, dio: «A bai, honek neure idazlanean idatzi dudana zerbait gogorarazten dit. Irakurri egingo dizut». Aldean eta inguruan begiratu eta C-rekin sartzen da, bera izan daitekeela kendu diona erdiesanez; gero eta sutuago jartzen da C-k irmoki arbuiatzean horrelako erdiesanik, eta azkenean gordinki suminduta, eskueskribua lapurtzeaz akusatzen du zuzenean. Are urrunago doa: arrazoiak jartzen ditu C izan dela lapurra onargarri bihurtzeko. Entzun omen die beste pertsona batzuei C-k bere eskueskribuaren premia larria zuela, beraz jabetzeko aukera on bat eduki duela eta horrelako beste arrazoi batzuk. Horrela, entzun dugu ez bakarrik C akusatzen, baizik bere akusazioa txalogarri agertzeko behar dituen beste «arrazionalizazio» mordo bat eraikitzen ere. (Eta, jakina, bat bera ere ez da egiazkoa eta A-ri ez zitzaion inola ere otuko horrelakorik lehenago.)

Suposa dezagun une honetan beste pertsona bat sartzen dela gelan. Ez du honek inolako dudatan jarriko A-k berak pentsatzen eta sentitzen duena dioela. Pertsona honen galdera edo duda bakarra salaketa egiazkoa denentz izango litzateke, hau da, A-ren pentsamenduen edukina ados dagoenentz egitate objektiboekin. Hasieratik prozedura guztia- ren lekuko izan garenok, ostera, salaketa egiazkoa denentz jakiteko ardurarik ez daukagu. Badakigu hau ez dela arazoa, ziur baitakigu A-ren pentsamendu eta sentimenduak ez direla harenak, beste pertsona batek buruan sarturiko inoren elementuak baizik.

Gelara esperimentuaren erdian sartu den pertsonaren konklusioa zera izan liteke: «Hemen dago bere pentsamenduak zein diren argi adierazten duen A. Berak daki ondoen zer pentsatzen duen eta ez dago be-

rak bere sentimenduez dioena baino froga hoberik. Hor daude beste pertsona horiek ere, pentsamendu horiek beste batek ezarriak eta kanpotik etorritako elementu arrotzak direla diotenak. Garbi jokatura ezin dezaket erabaki nor dagoen zuzen; bata zein besteak egon daitezke oker. Agian, bi baten kontra daudenez, probabilitate handiagoa dago gehien-goak dioena egia izateko». Hala ere, guk, esperimentu guztian izan garenok, ez genuke dudarik izango, eta etorberriak ere ez luke izango hipnosiko esperimentuetan izana balitz. Ikusiko luke orduan horrelako esperimentuak mila aldiz errepika daitezkeela modu askotako pertsonekin eta edukin ezberdinekin. Hipnotizatzaileak iradoki dezake patata gordin bat anana delizioso bat dela, eta subjektuak ananari atera ohi zaion zapore guztiarekin jango du. Edo subjektua ez dela jada ezer ikusteko gauza, eta itsu bihurtuko da; edo mundua biribila barik laua dela pentsatzeko, eta subjektuak berotasunez sostengatu du mundua benetan dela laua.

Zer egiaztatzen du hipnosizko esperimentuak, eta bereziki hipnosiondokoak? Eduki genitzakeela pentsamendu, sentimendu eta guriak, subjektiboki geureak bagenitu bezala sentitzen baditugu ere, kanpotik ezarriak ditugunak, funtsean arrotz zaizkigunak eta egiaz pentsatzen, deseatzten edo sentitzen dugunarekin bat ez datozenak.

Zer agertzen digu aipatu dugun hipnosizko esperimentu konkretuak? (1) Subjektuak zerbait «nahi» du, hots, eskueskribua irakurri. (2) zerbait «pentsatzen» du, hots, C-k hartu diola, eta (3) zerbait «sentitzen» du, hots, C-ren aurkako sumina. Ikusi dugu hiru buru-egintzok —nahia, pentsamendua, sentimendua— ez dituela bereak, bere buru-ihardueraren emaitza diren zentzuan; ez dira bere niaren baitan sortuak, kanpotik ezarriak baititu bere baitan, eta bereak bailiren sentitzen ditu. Hipnosian zehar ezarri ez zaion zenbait pentsamendu ere adierazten du subjektuak, hots, eskueskribua C-k lapurtu dion suposamena «esplikatzeko» behar dituen «arrazionalizazioak». Hala ere, pentsamenduok zentzu formalean bakarrik ditu bereak. Badirudikeen arren lapurretasusmoa esplikatzeko dutela, badakigu susmoa aurretik daukana eta pentsamendu arrazionalduak sentimendu hau onargarri bihurtzeko asmatu-rikoak direla: pentsamenduok ez dira, izan, esplikatzekoak, *post factum* datozenak baizik.

Hipnosizko esperimentutik hasi gara, erarik dudagaitzenezan agerian jartzen digulako ezen, nor bera konbentziturata egon arren bere buru-

egintzen berezkotasunaz, egintzok, egoera berezi bateko baldintzen pean, beste pertsona batek gudan izandako eraginaren emaitza izan daitezkeela. Fenomeno hau, halabaina, ez da inola ere mugatzen hipnosizko esperimentuetara. Gure pentsamendu, nahi eta sentimenduak jatorrak ez izatea eta beraien edukina kanpotik sortzea, hain maiz eta zabalki gertatzen den kontua da, non pseudoegintzok arau orokorra diren inpresioa sortzen baita, buru-egintza jator eta norberarenak, ostera, salbuespena diren bitartean.

«Pentsamendua» faltsua izan daitezkeela, nahimenaren eta hunkimenaren eremuetan gertatzen den fenomeno berdina baino ezagunagoa da. Hobe izango da, beraz, pentsamendu jatorraren eta pseudopentsamenduaren arteko bereizpenari buruzko eztabaidatik hasia. Jo dezagun arrantzaleak eta hiritik etorritako udatiarrak dauden irla batean gaudela. Nolako eguraldia egingo duen jakin nahi dugu eta irratian eguraldiaren iragarpena entzun dutela dakigun arrantzale bati eta udatiar biri galdeztzen diegu. Arrantzaleak, gai honi buruz esperientzia luzea eta interes handia baitauka, pentsaketan hasten da, guk galdera egin aurretik eritzia eginga ez badu. Haizearen nondik norakoak, tenperaturak, hezetasunak, eta abarrek eguraldiaren iragarpenean duten eragina ondo ezaguturik, fakore ezberdinak izango ditu kontutan bakoitzaren garrantziaren arabera, era horretan ziurtasun handiago edo txikiagoko eritzira helduz. Seguru asko irratia emandako iragarpena gogoratuko du eta bere iragarpenaren alde edo kontrako baieztapen moduan aipatuko du; azken kasuan, gure arrantzaleak aparteko ardura jar dezake bere eritzia euskarri diren arrazoiak balioestean; baina —eta hauxe da funtsezkoa— «berea» du eritzia, «bere» pentsamenduaren emaitza, eta horixe diosku.

Lehenengo udatiarrak, eguraldiari buruzko galdera entzutean, badaki berak ez duela askorik ulertzen kontu horretaz eta ulertu beharrik ere ez duela. Horregatik hauxe besterik ez du erantzuten: «Ezin nezake neure eritzirik eman. Dakidan bakarria irratia iragarpena hauxe eta hauxe dela da». Beste udatiarra, ordea, gizon modu diferentea da. Eguraldiari buruz asko dakiela uste du, jakin oso gutxi badaki ere. Galdera guztiei erantzuteko gai izan behar dutela uste duten horietakoa da. Apur batean pentsaketan ari ondoren, «bere» eritzia jakinarazten digu, zeina irratia iragarpena berbera baita. Horretarako dituen arrazoiak galdatzen dizkiogu eta berak diosku, haizearen nondik norakoa, tenperatura, e.a. kontutan izanda heldu dela konklusio horretara.

Pertsona honen jokabidea, kanpotik ikusita, arrantzaleak izan duen berbera da. Eta, hala ere, hurragotik aztertzen badugu, argi geratuko da irratiko iragarpena entzun eta onartu egin duela. Baina kontu honetan «bere» eritzia ukatera beharturik sentitzen delarik, ahantzi egiten du inoren baiezipen oinarriak errepikatu besterik ez duela egiten, berak bere pentsamenduak jadesitakoa dela uste izanez. Modu honetan, iruditzen du bere eritzia sostengatzeko ematen dizkigun arrazoiak honen aurretikoak direla, baina aztertzen baditugu, konturatuko gara arrazoiok ezin izan dutela eraman eguraldiari buruzko ezin konklusiotara, lehenago eritzia eginda izan ez badu bederen. Izatez, eritzi hori bere buru-ahaleginaren emaitza bailitzen agertaraztea beste helbururik ez duten pseudoarrazoiak dira. Eritzi propioa izatera iritsia den ilusioa dauka, baina egiaz gertatu dena autoritate batena hartu besterik ez duela egin da, prozesu honez konturatu barik. Erraz gerta liteke berau zuzen egotea eta arrantzalea oker, baina kasu honetan ez litzateke «bere» eritzia zuzen legokeena, nahiz eta arrantzalea, erratuta egongo litzatekeen «bere» eritzian.

Fenomeno berbera hauteman daiteke jendeak zenbait gairi buruz, politikaz adibidez, duen eritzia aztertzean. Galde dagoen egunkari-irakurle normal bati zer uste duen arazo politikoren bati buruz. «Bere» eritzizat kontatuko digu doitasun handiago edo txikiagoz irakurri duena, eta, hala ere, —eta hauxe da hemen funtsezkoa— konbentziturik dago esaten duen guztia bere pentsamenduaren emaitza dela. Eritzi politikoak gurasoengandik seme-alabengana iragaten diren herri txiki batean bizi bada, «bere» eritzia, aita larderiatsu baten aginpide etengabeak berak une batez uste baino askoz ere eraenduagoa izan daiteke. Edo beste irakurle baten eritzia, konpromezu-momentu batean, gaizki informaturik agertzeko beldurrez emandako erantzuna izan daiteke eta, beraz, kasu honetan «pentsamendua» itxurak salbatzeko modu bat izango litzateke batez ere, eta ez esperientzia, guraria eta jakintzaren konbinaketa naturala. Gauza bera gertatzen da estetikari buruzko erizpenetan ere. Museo batera joan eta pintore ospetsu baten koadroa, demagun, adibidez, Rembrandtena, ikusten duen gizabanako arruntak, artelan eder eta zirraragarria deritzola dio. Eritzi hori aztertzen badugu, aurkituko dugu pertsona horrek ez duela inolako barne-erreakziorik izan koadroaren aurrean, eta eder dela uste badu, horixe delako beraren-gandik espero den eritzia dela. Fenomeno bera nabari da musikari bu-

ruzko eritzietan eta baita hautemateko egintzari dagokionez ere. Giza-banako askok, paisaia sonaturen bat ikustean, hainbeste alditan postaletan adibidez, miresteke beta izan duten pinturak edo argazkiak ikusten dituzte, ikusi, eta paisaia «ikusi» uste duten bitartean, begien aurrean eduki daukatena irudi horiexek dira. Edo beren aurrean gertatu den istripua bizi izatean, hura aurreratzen duten kazetal kronikak erabiliko litzatekeen terminoetan ikusten edo entzuten dute jazo dena. Askorentzat, izan ere, eurak bizi izandako esperientzia bat —arte-ikuskitzuna bat eta eurak egondako bilera politiko bat—, berri hori egunkarian irakurrita gero bakarrik bihurtzen direla erreal.

Pentsamendu kritikoa ezabatzea ozo goiz hasten da jeneralean. Bost urteko neskatxo bat, adibidez, kontura liteke amaren zintzotasunik ezaz, sotilki ohartu delako, esate baterako, maitasuna eta adiskidetasuna aho-mihitan dabilen bitartean, euren ama hotz eta berekoi agertzen dela, edo adibide gordinagoa jarrita, euren ama beste gizon batekin amodiozko harremanetan dabilela atzematean, aldi berean bere moraltasun-maila goraiatzen duelarik. Neskatxoak desadostasuna sentitzen du. Bere justizi eta egi senak kolpea hartzen du, baina, inolako kritikarik egiten utziko ez liokeen amaren menpean dagoenez, eta, bestalde, aitarengan konfidantzarik jarri ezin duenez, ahula baita, neskatxoa bere kritika-ahalmena erreprimitzera behartuta aurkitzen da. Handik lasterrera ez da ohartuko amaren toleskeriaz edo infidelitasunaz. Pentsamendu kritikoa izateko ahalmena galduko du, itxuraz baliogabea eta arriskutsua dela eta. Bestalde, neskatxoak, euren ama andre zintzo eta dezentea dela eta gurasoen ezkonbizitza zorientzua dela diotson arau kulturalaren eragina dauka, eta ideia hau berea balitz bezala onartzeko prest egongo da.

Aurreko adibide guztietan planteatzen den arazoa, ea pentsamendua nork berak pentsatutakoaren ondorio, hots, norberaren ihardunaren ondorio, den ala ez jakitea da. Arrantzalearen kasuan seinatu den bezala, «haren bere» pentsamendua erratuta egon daitezke, eta ezarri zaiona errepikatu besterik egiten ez duenarenak, oster, egia izan; gainera, pseudopentsamendua ere erabat logikoa eta arrazionala izan daiteke. Beronen pseudotasunak ez du ezinbestez elementu ilogikoetan agertu beharrik. Hau ondoen zerean egiazta daiteke, elementu arrazional edo errelistetan oinarrituriko egintza edo sentimendu bat esplikatzeko erabiltzen diren arrazionalizazioetan, nahiz eta, izatez, faktore irrazional

eta subjektiboek deteminaturikoa izan. Razionalizazioak egitateekin edo pentsamendu logikoaren araukin kontraesanean egon daitezke. Baina sarritan logikoak eta arrazionalak izango dira berenez. Kasu honetan euren irrazionaltasuna, eragin omen duten egintzaren egiazko zioa ez izatean egongo da.

Razionalizazio irrazionalaren adibide bat oso ezaguna den txiste honetan daukagu. Pertsona batek auzo bati beirazko pitxer bat uzteko eskatu eta apurtu egin zuen; honek itzultzeko eskatu zionean, besteak erantzun zion: «Lehenik, itzulia dizut; bigarrenik, sekula ez dizut uzteko eskatu; eta azkenez, apurturik zegoen utzi zenidanean». Razionalizazio «razionalaren» adibide bat, oster, honako hau dugu: diruz txarto dabilen pertsona batek, A-k, bere senide bati, B-ri, dirua mailegatzeko eskatzen dio. B-k ukatu egiten dio dirua eta dio ezen, horrela jokatu badu, A-ri dirua mailegatuz honen axolagabekerirako joera eta besteengan euskarria aurkitu nahia areagotu besterik ez lukeelako egingo, izan dela. Orain bada, arrazonamendu hau erabat zindoa izan daiteke, baina kasu honetan ere razionalizazioa izaten segituko luke, zeren B-k ezin kasutan ere ez ziokeen dirurik mailegatu A-ri eta, nahiz eta kontzienteki uste duen bere ezezkoa A-ren ongizateaz duen ardurak eragina dela, benetazko motiboa bere zikoizkerian datza.

Beraz ezin dugu jakin razionalizazio bat daukagunentz aurrean, pertsona baten baiezipenen logikotasuna aztertuz soilik, ezpabere eragin dioten motibazio psikologikoak ere kontutan izan behar ditugu. Kontu erabakiorra ez da «zer» pentsatzen den, «nola» pentsatzen den baizik. Pentsamendu eraginkorraren ondorio diren ideiak berriak eta originalak dira beti; originalak ez ezinbestez une horretara arte inork sekula pentsatu gabekoak direlako, pentsatu izan dituen pertsonak pentsamendua, inguruko munduan edo bere barruan «berria» den zerbait aurkitzeko erabili duelako baizik. Arrazionalizazioak, esentziaz, dira, aurkikunde-edo errebelazio-izaera hori gabekoak; nork bere baitan dituen aurreritzi emozionalak berrestera mugatzen dira. Arrazionalizazioa ez da errealtatean sartzeko tresna, post faktum nork bere gurariak errealtatearekin harmonian jartzeko saialdi bat baizik.

Sentimenduekin ere gauza bera gertatzen da: bereizi beharra dago sentimendu jatorra, geure baitan sortzen dena, alde batetik eta pseudosentimendua, bestetik, geurea dugula uste izan arren, gurea ez dena. Aukera dezagun eguneroko bizitzatik hartutako adibide bat, bes-

teekiko harremanetan ditugun sentimenduen pseudotasuna isladatzen duena. Errepara dezagun jai batera joana den gizon bat. Alegere dago, barreka, lagunartean solasean, eta erabat pozik eta zoriontsu ematen du. Agur egitean irribarre dagi adiskidetasunez, ezin hobeto pasa duela esanez. Atea bere atzean itxi da... eta heldu da unea arreta osoz so egiteko. Aurpegian bapateko aldaketa nabari zaio. Irribarre ezabatu egin zaio; hau, jakina, aurrikustekoa zen, orain bakarrik baitago eta ez baitaukagu irribarre eragiteko ezer ez inor. Baina nik diodan aldaketa irribarrearen ezabaketa baino zerbait gehiago da. Tristura sakona, desesperaziozkoa ia, nabari zaio aurpegikeran. Hau segundo batzuez bakarrik seguruasko; gero ohizko aurpegikera hartzen du, maskara batena bezalakoa. Bere kotxera sartu eta utziberri duen gau-jaiaz pentsaketan hasten da gizona, inpresio ona egin duenentz galdetzen dio bere buruari eta baietz erantzuten dio. Baina, egon ote da gero «bera» pozik eta zoriontsu? Eta aurpegikeran lipar batez agertu zitzaion tristura eta etsipena? Esangura gabeko une bateko errektzioa besterik ez ote da izan? Ia ezinezkoa litzateke galderoi erantzutea, gizon honi buruz zerbait gehiago jakin ezean. Bada gertakari bat hala ere, haren pozaren esangura ulertzeko arrastoa eman diezagukeena.

Gau horretan amets dagi soldadutzara bihurtu eta gerran dagoela. Fronteko lerroak zeharkatu eta etsaiaren koartel nagusira iristeko agindua hartu du. Ofiziale alemanen antzeko uniforme darama soinean, eta, halako batean, aleman ofizial-talde baten erdian aurkitzen da. Harritu egiten da etsaien koartel nagusian hain eroso aurkitzeaz eta denak hain lagun agertzeaz, baina ispia zela igarriko ote zioten beldurrak gero eta harrapatuago sentitzen zen. Ofiziale gazteenetako bat, berak sinpatiarik handiena ziona, hurbildu eta diotso: «Nik badakit nor zaren zu. Salbatzeko era bakar bat duzu. Konta iezazkiezu txisteak, eragiezu barre, adia gal eta arretarik eman ez diezazuten». Aholkuarengatik eskerak eman eta gure gizona txisteak esaten eta barreka hasten da. Gero eta handiagoa da hark agertzen duen alaitasuna eta beste ofizialeek susmatzen hasten dira, eta zenbat eta handiagoa haien susmoa, orduan eta eznaturalago eta bortxatuagoak dirudite gure gizonaren txisteek eta alegeretasunak. Azkenean, hainbestean izutzen da, non ezin duen han geratu: jezarrita dagoen aukitik salto batez zutitu eta arinari ematen dio, ofiziale guztiak atzetik dituela. Orduan, eskena aldatzen da eta bere etxaurrean geratzen den tranbia batean jezarrita doa. Traje zibil arrunt

bat darama soinean, lasaitasuna sentitzen du, gerra bukatua dela pentsatzean.

Demagun orain hurrengo egunean galde diezaiokegula ea zer uste duen ametsaren osagai diren elementu bakoitzari buruz. Gure intereseko puntu nagusia ulertzeko bereziki esanguratsuak diren elkarlotze gutxi batzuk bakarrik jasotzen ditugu hona. Uniforme alemanak, bezpera-gaueko jaiari azentu aleman bortitzez mintzo zen gonbidatu bat zegoela gogorarazten dio. Oroitzen da pertsona honek nekarazita sentitu zela, ez ziolako kasu handirik egin, nahiz eta bera (gure ameslaria) hura erakartzen eta impresio ona egiten ahalegindu. Pentsamenduotan zehar ibiliz, gogoratzen du, jaiaren momentu batean, azentu aleman bortitza zuen pertsona hori beraz burlatzen ari ote zen eta bere esaldi batzuen aurrean irribarre desagokia ateratzen zitzaion zentzazioa izan zuela. Koartel nagusiko gela konfortagarriaz pentsatzean, aurreko gaueko jaiko eskenategiaren antza zeukala otu zitzaion, baina hango leihoak egun batean examinetan guttiegi eman zioten aretokoak bezalakoak zirela. Elkarlotze honek harrিতa, gogoratzen segitzen du festara joan aurretik han egingo zuen impresioaz kezkatu samarrik zebilela, gonbidatueta bat bera atzetik zebilkion neska baten neba zelako eta, baita, etxeko jaunak eragin handia zuelako ere bere nagusietako batengan, beronengan zegoelarik bere arrakasta profesionalaren zati handi bat. Nagusi honez mintzatzean dio antipatia handia diola eta apalduta sentitzen dela haren aurrean lagunkoi agertu beharraz; etxeko jauna ere antipatiko samar egin zitzaiola gehitzen du, nahiz eta honen inolako kontzientziarik izan ez zuen. Beste elkarlotze bat izan zen, ezen, burusoil bati buruzko gertaera komiko bat kontatu ondoren, etxeko jaunari min emanaren beldur samar izan zela, berau ere burusoila baitzen. Tranbiakoari bitxi zerritzon, itxura batean inolako loturarik ez zeukan eta. Baina honetaz hitz egitean, umetan eskolara eramaten zuen tranbiaz gogoratzen da, eta, gainera, beste zehaztasun bat datorkio burura, hots, gidariaren lekua hartu zuela tranbian eta tranbia gidatzea eta autoa manciatzea oso antzekoak zirela pentsatu zuela. Bistakoa da tranbia etxeratzeo erabili zuen kotxearen sinboloa dela, eta honek eskolatik etxera bihurtzen zen momentua gogorarazten ziola.

Ametsen esangura ulertzen ohituta dagoen edonork atzemana duke argi eta garbi kontatu dugunaren eta beroni buruzko elkarlotzeentzua, nahiz eta batzuk bakarrik aipatu diren eta gure gizonaren norta-

sunaren egituraz eta beronen iraganeko eta oraingo egoeraz ia ezer ere esan ez den. Ametsak, bezpera-gaueko jaiari zituena egiazko sentimenduak agertzen dizkigu. Urduri zegoen, impresio onik egingo ez ote zuen beldur, zenbait pertsonarekin haserre, irrigarri uzten zutela eta ez zitzaiela sinpatiko gertatzen uste zuelako. Alaitasuna, larritasuna eta sumina estaltzeko bide zela erakusten du ametsak, eta aldi berean baita haserrearen pertsonak mantsotzeko ere. Agertzen zuen poztasuna maskara bat zen; ez zetorkion bere baitatik, ezpabere estaldu egiten zituena beraren egiazko sentimenduak: beldurra eta sumina. Guzti honek bere egoera osoa ez-segur bihurtzen zuen, halako moldez non ispia etsaiaren zelaian bezalaxe sentitzen baitzen, edozein momentutan nor edo zer zen igarri ziezaioten arriskutan. Jaia uztean momentu batean ikusi genion tristura eta etsipenezko aurpegikeraren baiezen eta esplikabidea ere aurkitu ahal da orain; momentu horretan haren aurpegiak, «berak» benetan sentitzen zuena adierazi zuen, bera horretaz inola ere konturatzen ez bazen ere. Ametsean sentimendu hau dramatikoki eta aldi berean esplizituki adierazita aurkitzen da, sentimenduon jopuntu ziren pertsonen esplizituki ari ez bada ere.

Gizon hau ez da neurotikoa eta hipnosiaren eraginpean ere ez zegoen: gizabanako normal samarra zen, gizakume modernoak ohizko duen estura eta onspen-beharra zeukana. Ez zen konturatzen bere poztasuna ez zela benetan «berea», zeren, hain ohituta baitzegoen egoera jakin batean mundu guztiak sentitu behar omen zuen huraxe sentitzera, non gizon hau «estrainioa» zen zerbaitez konturatu izana araua baino areago salbuespena zatekeen.

Pentsamendu eta hunkipenarekiko egia denak, nahimenarekiko ere berdina balio du. Jenderik gehiena konbentziturik dago, zerbaitetara kanpotik indarrez behartu ezean, bere erabakiak bereak direla, eta zerbait nahi duenean benetan bera dela nahi duena. Baina hau geure buruari buruz daukagun ilusio handienetako bat da. Gure erabakietarik asko ez ditugu benetan geureak, kanpotik iradoki zaizkigunak baizik; geure buruari geuk eginak direla sinestaraztea lortu dugu, benetan egin duguna besteak espero zutenera moldatu besterik izan ez den arren, isolamenduaren beldurra eta geure bizitzaren, askatasunaren eta erosotasunaren aurkako mehatxu are zuzenagoek bultzatuta.

Haurrei eskolara joan nahi duten galdetu eta beraiek «Bai horixe» ihardesten dutenean, egia al da erantzun dutena? Kasu askotan ziur

ezetz. Askotan umeak eskolara joan nahi izango du, baina sarriago agian jolastu edo beste zerbait egin nahiago izango du. Honako hau sentitzen badu: «Nik egunero joan nahi dut eskolara», gertatzen zaiona agian, eskolako lanaren erregularitasunari dion ezinikusia erreprimitua duela besterik ez da. Beregandik espero dena egunero eskolara joatea dela nabaritzen du, eta presio hau, horretara behartuta dagoelako doan sentimendua itozteko adinakoa da. Haurra zorientsuago sentituko litzateke konturatu ahal izango balitz batzuetan joan nahi duela eta beste batzuetan agintzen diotelako doala. Eta, hala ere, presioa, betebeharraren forma hartuta, gizartean nahi izan behar duela suposatzen dena «berak» nahi duela sentiarazteko bezain indartsua da.

Eskuarki uste da gizakumerik gehienak, nahi dutelako ezkontzen direla. Kasu batzuetan ezkontzeko zioa eginbehar edo obligazio-sentimendua izaten da, izan. Eta beste batzuetan gizakumea «berak» benetan nahi duelako ezkontzen da. Baina badira kasuak, eta ez gutxi, zeinetan, gizonak (edo emakumeak) pertsona batekin ezkondu «nahi» duela kontzienteki uste izan arren, ezkontzera daramaten eta itxuraz ihes egiteko bide guztiak itxi dizkioten gertaera pila baten biktima den. Ezkonaurerako hiletan irmoki konbentzituta dago «berak» nahi duela ezkondu, eta horrela ez den lehenengo seinalea —eta berantiar samarra— da, zeremoni egunean bertan bapateko beldurrak eta ihes egiteko gogoak hartuta sentitzen dela. Pertsona «zentzuduna» bada, sentimendu honek minutu batzutan besterik ez dio iraungo, eta ezkontzeko asmoari buruzko galderari berak horixe nahi duela erantzungo dio konbentzimendu lokagaitzaz.

Eguneroko bizitzako beste mila adibide jartzen segi dezakegu, zeinetan jendeak itxuraz erabakiak hartzen dituen, itxuraz hau edo hori nahi duen, baina, egiaz, egitera doana egin «behar» izateko presioari, barrukoari edo kanpokoari, ematen diote amore. Izan ere, giza erabakiaren fenomeno behatzean, txundigarria da ikustea zenbat aldiz erratzen den jendea, izatez konbentzionalismoei, betebeharrari edo gizartearen presioari men egitea besterik ez dena nork «bere» erabakitza hartuz. Iaria esan daiteke erabaki «originala», fenomeno konparazioz bitxia dela, bere existentziaren giltzarri erabaki indibiduala omen duen gizarte batean.

Pseudonahimenaren beste adibide bat gehitu nahi dut, sintoma neurotikorik gabeko pertsonengan sarritan hauteman daitekeek-

na. Exenplu hau ekartzeko arrazoi bat da ezen, kasu indibidualak irispide handiagoko problema kulturalerikiko —berauek ditugularik aztergai liburu honetan— zerikusi handirik ez duen arren, indar inkontzienteen mekanismo-kontuetan gutxi ibilia den irakurleari fenomeno hau ezagutzeko parada bat gehiago ematen diola. Gainera, exenplu honen puntu bat azpimarratzen du, lehenago implizituki seinalatua badugu ere, esplizituki nabararaztea komeni dena: errepresioaren eta pseudoe-gintzen arazoaren artean dagoen lotura. Errepresioa, indar erreprimiteuek, ametsek eta abarrek, jokabide neurotikoa duten eraginaren ikuspuntutik batipat kontutan hartzen bada ere, azpimarratzea komeni dela uste dugu errepresio orok gizabanakoaren benetako niaren zenbait zati ezabatzen duela eta pseudosentimendu bat jartzera behartzen duela erprimitua izan dena ordeztzeko.

Orain aipatu nahi dudana kasua hogeita bi urteko ikasle batena da. Interesatzen zaio bere lana eta jendearekin harreman normalak ditu. Ez da sentitzen bereziki dohakabe, nahiz eta sarri nekatu samar eta bizitzeko animu handi barik aurkitu bere burua. Psikoanalisiaren pean jarri nahi izateko duen arazoia teorikoa da, psikiatra izan nahi baitu. Sentitzen duen eragozpen bakarra, medikuntza gaiak ikasteko halako zailtasun bat da. Sarritan ezin izaten du gogoratu irakurri duena, klaseetan gehiegi nekatzen da eta azterketetan emaitza erlatiboki ez oso onak ateratzen ditu. Honek harritu egiten du, zeren beste gai batzuetarako oroi-men askoz hobea duela dirudi. Ez du inolako dudatan jartzen medikuntza ikasi nahi duela, baina batzuetan karrera hori egiteko gai ote den zalantzan izaten du barrena.

Analisian aste gutxi batzuk igaro ondoren, honako amets hau kontatzen du: berak eraiki duen etxeorraz bateko azken solairuan dago inguruko eraikinei goitik behera so garaipen-sentimendu arin batekin. Bapatean etxeorrazta behera dator eta gure gizona hondakin artean ehortzita aurkitzen da. Bera erreskatatzeko zaborrei eragiten dabiltzala konturatzen da eta norbait larriki zauriturik dagoela eta medikua laster etorriko dela esaten entzuten du. Baina bukaezin egiten zaio itxaroten egon behar duen denbora. Eta azkenean medikua etorri denean, hau konturatzen da ahaztuta utzi dituela bere tresnak eta ezin diola ezertan lagundu. Medikua kontrako sumin itzela pizten zaio eta, bapatean, zutik aurkitzen da, inondiko zauririk ez duela izan ohartuz. Mespretxuz begiratzen dio medikuari, eta momentu horretan itzartu egiten da.

Mutilak ez du elkarlotze askorik amets honekiko, baina hona hemen esanguratsuenetako batzuk. Eraiki duen etxeorratzean pentsatzean, zein arkitekturazale den aipatzen du bide batez. Umetan jolasbide gutukoena, urte askotan, eraikin-jolasak zituen eta hamazazpi urte zituela arkitekto izatea pentsatua zuen. Aitari esan zionean, honek adiskidetsu erantzun zion libre zela, jakina, berak nahi zuen karrera aukeratzeko, baina bera (aita) ziur zegoela hori haur-gurarien hondakina zela eta benetan ikasi nahi zuena medikuntza zela. Mutilak, aitik arrazoi zuela pentsatu zuen eta ordutik ez zion kontu hau inoiz gehiago aipatu, eta medikuntza-ikasketak hasi zituen problemarik egin gabe. Medikua berandu heldu eta tresnak ahantzi izanaren inguruko elkarlotzeak lanbrotsu eta urriak ziren. Hala ere, ametsaren zati honez hitz egitean, bere psikoanalasi-kontsultarako jarrita zeukan ordua aldarazi ziotela otu zitzaion, eta, aldaketa eragozpenik gabe onartu bazuen ere, orain, ostera, nahiko haserre sentitzen zela. Hitz egiten ziharduen momentuan haserrea haziz zihoakiola nabari zezakeen. Analista-nahikeriak erretakotzat salatu eta azkenean oihuka dio: «Ongi, edozein modutan ere, ezin dut nahi dudarik inola egin». Arras txunditurik geratzen da bere suminaz eta esanberri duen esaldiaz, momentu horretara arte sekula ez baitzuen inolako antagonismorik sentitu analistaren eta psikoanalisiaren kontra.

Handik aldi batera beste amets bat izan zuen eta beronen zati bat baino ez du gogoratzen: euren aita kotxe-istripu batean zauriturik geratzen da. Bera medikua da eta aita atenditu behar du. Miatzen dabilela zeharo elbarrituta geratzen da eta ezin du ezer egin. Beldurrak jota, iratzartu egiten da.

Bere elkarlotzeetan gogorik gabe aipatzen du azken urteetan pentsatu izan zuela euren aita ustekabeen hil zitekeela, eta pentsamendu horrek ikaratu egin zuela gehitzen du. Batzuetan heredentzian hartuko zituzkeen ondasunetan eta diruarekin zer egingo zukeen ere pentsatu izan zuen. Ez zen urrunegi joana horrelako fantasietan, agertu bezain laster erreprimitu egiten zituelako. Amets hau lehen kontatu dugunarekin konparatzean, arretagarri zaio medikua ez dela gauza, ez kasu batean ez bestean, behar den laguntza emateko. Inoiz baino argiago ikusten du bere mediku-ezgaitasuna. Lehenengo ametsean sumin-eta laido-sentimendu definitu bat hauteman daitekeela seinalatzen zaionean, gogoratzen du ezen sarritan medikua gaixoa salbatzeko gauza

izan ez den kasuak irakurri edo entzuten dituenean, lehen inoiz hauteman gabeko halako garaipen-zentzazio bat edo izaten duela.

Analisiaren hurrengo etapetan erreprimituriko beste materiale batzuk agertzen dira. Ezusteko handia hartuz aitaren aurkakó herragune-sentimendu handia duela aurkitzen du, eta gainera, mediku bezala duen ezintasuna bere bizitza guztian zehar hedatzen den ezintasun-sentimendu orokorrago baten zati dela. Nahiz eta azalean bizitza bere plannen arabera konpondua zuela uste izan, orain sakonagoan etsipen-sentimenduz beterik zegoela nabaritzen du. Horrela, kontzientzia hartzen du berak nahi zuenik ezin zuela egin, beragandik espero zutenera moldatu behar zuela baizik. Orain gero eta argiago ikusten du sekula ez zuela nahi ukan mediku izan, eta gaitasunik ezaren ondorioztat zeuzkan gauzak, erresistentzia pasiboaren adierazpen besterik ez zirela.

Kasu hau, pertsona batek bere benetako desirak erreprimitu eta besteek espero dutena bere desiratzat hartzen dituen esenplu tipiko bat da. Esan genezake desira originala pseudodesira batek ordeztzen duela.

Pentsamendu, sentimendu eta nahikari originalen lekuan pseudoegintzak jartze honek, ni originala pseudoniaz ordeztara garamatza. Lehenengoa buru-iharduerak sortarazten dituen «da». Pseudonia, ostera, pertsonak bete behar duela espero den funtzioa antzeztan duen egilea besterik ez da, baina egiazko nia bailitzen jokatuz. Egia da gizabanako berak paper ezberdinak antzez ditzakeela eta konbentziturik egon subjektiboki bera «bera» dela eurotako bakoitzean. Baina paper guzti haue-tan, gizabanakoa, besteek bera izatea espero dutena besterik ez da; era honetan pertsona askorengan, gehienengan ez bada, ni originala pseudoniak erabat itota geratzen da. Batzuetan ametsetan, fantasietan edo gizabanakoa mozkortuta dagoenean, ni originalaren zer edo zer azalera daiteke, urte askotan izan gabeko sentimenduak eta pentsamenduak. Askotan pentsamendu txarrak eta gizabanakoa beldur edo lotsa zelako erreprimituriko hunkipenak dira. Beste batzuetan, ostera, agertuz gero besteek eraso edo barre egin ziezaioten beldurrez erreprimituriko sentimenduak bere nortasunak duen gauzarik onena dira.⁸⁶

Nia galdu eta haren lekuan pseudonia jartzeak segurtasunik gabeko egoeran uzten du gizabanakoa. Dudek obsesionaturik sentitzen da, zeren, besteek beregandik espero dutenaren isladapen izanik funtsean, bere identitatea galdu baitu, hein batean. Galera honetatik datorkion izua gainditzeko, ados egotera, bere identitatea besteen aintzatespenean

eta taigabeko onespenean bilatzera beharturik aurkitzen da. Berak ez dakienez bera nor den, besteek bederen jakingo dute... beti ere «berak» jendearen itxarokizunen arabera jokatzeko badu; eta besteek badakite, berak ere jakingo du... haien erizpena onartuz besterik gabe.

Gizabanakoa gizarte modernoan automatatu izanak, gehitu egin du erdiko gizabanakoaren desanparoa eta segurtasunik eza. Era horretan, gertu dago segurtasuna eskaini eta zalantzak leuntzeko gauza diren agintari berrien mende jartzeko. Hurrengo kapituluan, horrelako eskaintza onartzeko Alemanian behar izan ziren badintza bereziak aztertuko dira. Ikusiko da nola mugimendu naziaren muinaren —erdiko klase behearearen— ezaugarria, batez ere mekanismo autoritarioa izan zela. Obra honen azken kapituluan gure demokrazien kultur eskenarekiko konformitate automatikoari buruz eztabaidatzen segituko dugu.

VI NAZISMOAREN PSIKOLOGIA

Aurreko kapituluan tipo psikologiko biri fokatu diegu geure aditasuna: karaktere autoritarioari eta automatari. Espero dut tipo horien deskribaketa zehaztua laguntza izango dugula kapitulu honetan eta hurrengoan aztertzen diren arazoak —nazismoaren psikologia eta demokrazia modernoa— ondo ulertzeko.

Lehenengoari oratzean, lehenik eta behin, aurretiko gai bat aipatu behar dugu: faktore psikologikoak nazismoa ulertzeko duten garrantzia eta esangura. Zientzi mailako eztabaidetan, eta are herri-mailakotan, elkarren kontrako bi iritzi aurkeztu ohi dira maiz: lehenengoa, psikologiak ez duela esplikaziorik eskaintzen faxismoa den bezalako izaera ekonomiko eta politikoko fenomeno batekiko; bigarrena, faxismoa, batipat, fenomeno psikologikoa dela.

Lehenengo iritziak ideologia nazia, ekonomikoa soilik den dinamismoaren —inperialismo alemanaren hedakunderako joeraren— emaitzat, edo funtsean politikoa den fenomenotzat dauka —alderdi politiko batek, industriariak eta Junkerrek lagunduta, egindako Estatuaren konkista—; labur esanda, nazien garaitza gutxiengoak herriaren gehiengoarekiko buruturiko engainoaren eta kohertzioaren ondorio dela.

Bigaren ikuspuntuak, bestalde, nazismoa termino psikologikotatik bakarrik, edo psikopatologikotatik hobeto, esplika daitekeela sostengatzen du. Hitler ero edo «neurotikotzat» jotzen da eta analogoki beronen jarraitzaileak zoro edo desorekatutzat hartzen dira. Horrelako esplikabidearen arabera, L. Mumfordek azaltzen duen moduan, faxismoaren egiazko iturria giza ariman aurkitu behar da, eta *ez ekonomian*. «Harrokeria handi batean, krudel izatean hartutako plazerrean, desintegrakuntza neurotikoa —dio autore honek— datza, hain zuzen ere, faxismoaren esplikazioa, eta ez Versalleseko Hitzarmenean edo Errepublikan Alemanaren gaitasun eskasean».⁸⁷

Gure aburuz, esplikazio hauetako bat ere —faktore ekonomiko eta politikoen garrantzia azpimarratu eta psikologikoak ezabatzen dituztenak edo alderantziz— ezin da zuzentzat hartu. Nazismoa problema psikologiko bat da, baina faktore psikologikoak eurak ere kausa sozioekonomikoek moldaturikotzat hartu behar dira; faxismoa fenomeno ekonomiko eta politikoa da, baina herri oso batek onartu izana eremu psikologikoa oinarri duela ulertu behar da. Kapitulu honetan azken hau, hau da, nazismoaren giza oinarria, aztertuko dugu. Honek bi arazo iradokitzen ditu: faxismoaren deialdia zuzendu zitzaizkien gizabanakoen karakteren egitura eta gizabanako berauekiko hain tresna eraginkor gertatu zen ideologiaren ezaugarri psikologikoak.

Nazismoaren arrakastaren oinarri psikologikoa aztertzean, bereizpen hauxe egin beharra dago hasieratik: biztanlegoaren zati bat erresistentzi handirik erakutsi barik makurtu zen erregimen nazira, baina nazien ideologiaren eta praktika politikoen miresle ere bihurtu gabe. Herriaren beste zati bat, ordea, ideologia honek sakonetik erakarrita sentitu zen, berau aldarrikatzen zutenekin hertsiki lotuz. Lehen taldea langile-klaseak eta burgeseria liberalak eta katolikoak osatzen zuten nagusiki. Bikainki antolatuta zegoen arren —langileak bereziki—, talde hauek, nazismoaren etsai izateari sekula, hasieratik 1933ra arte, utzi ez bazioten ere, ez zuten erakutsi beren ideia politikoa kontutan izanda espero zitekeen barru-barruko erresistentziarik. Erresistitu nahia arin etorri zen behera eta ordudunik ez zioten lan handirik eman nazismoari (salbu utzita, jakina, urte guzti hauetan zehar tiraniaren aurka burrukatu zuen gutxiengo txikia). Ikuspuntu psikologikotik, badirudi erregimen berriaren mende jartzeko prest egote hau barru-barruko neke eta etsipen egoerak eragina zela, zeina, hurrengo kapituluaren seinalatuko den moduan, gaurreguneko aroko gizabanakoaren ezaugarri berezi bat baita, herrialde demokratikoetan ere aurki daitekeen ezaugarria delarik. Alemanian, gainera, langile-klasea ukitzen zuen beste baldintza bat zegoen: 1918ko iraultzako lehen garaipenen ondoren beronek jasan zituen derrotak. Proletalga, sozialismoa gauzatzeko, edo behinik behin bere egoera politikoa, ekonomiko eta sozialean aurrerapausu erabakiorra lortzeko esperantza sendoarekin sartua zen gerraondoko aldiari; baina, diren arrazoiak direla, derrota-erreskada etengabearen lekuko izan beharra ukan zuen, honek haren esperantzen eraispen erabatekoena eragin zuelarik. 1930aren hasieran ia erabat galduak ziren haren hasierako ga-

raipenen fruituak, eta honen ondorioz etsipen sakonak, bere buruzagiekiko mesfidantzak eta edozertariko erakunde edo iharduera politikoa ororen baliagarritasunari buruzko zalantzak jota geratu zen. Langileek beren alderdian afiliaturik segitu zuten, eta, kontzienteki, haien doktrinatan sinesten, baina beren kontzientzien hondo-hondoan erabat galdua zuten ekintza politikoa erikaziarekiko esperantza.

Hitler agintera heldu ondoren, beste bultzagarri bat sortu zen biztanlegoaren gehiengo nazien erregimenarekiko leialtasunari atxeki zekion. Milioika pertsonentzat, Hitlerren gobernamentua «Alemaniarekin» identifikatu zen. Behin Führerrak Estatuaren agintea eskuratu zutenean, haren aurka burrukan segitzeak alemanen komunitatetik aldentzea esan nahiko zukeen; gainerako alderdi politikoa guztiak abolitu eta alderdi nazia Alemania bilakatu zen unetik, nazismoarekiko aurkakotasuna aberriarekiko aurkakotasuna besterik ez zen. Gizakume arruntarentzat ez dirudi ezer jasangaitzagorik dagoenik bere burua talde sozial handiago batetik kanpo ikustea baino. Hiritar alemanak, printzipio nazien aurkakoena izanda ere, isolaturik geratu ala bere Alemaniartasunari eutsi aukeratu behar bazuen, gehienek bigarrena aukeratu zuten. Naziak ez diren baina hala ere atzerritarren kritikaren kontra nazismoa defendatzen duten pertsona askoren kasuak aurki daitezke, erregimen honi erasotzea Alemania erasotzea dela uste dutelako. Isolamenduaren beldurra eta printzipio moralen ahultasun erlatiboak, edozein alderdiri laguntzen dio, behin Estatuaren botereaz jabetu denean, biztanlegoaren zati handi baten atxekimendua bereganatzen.

Gogoramenok propaganda politikorako oso garrantzitsua den axioma bat sortarazten dute: Alemaniari egindako eraso orok, «alemaniarrei» buruzko propaganda iraingarri orok (azken gerraren sinbolo den «Hunok» terminoa bezalakoak), sistema naziarekin erabat identifikatu barik daudenen leialtasuna gehitzeko baino ez dute balio. Arazo hau, hala ere, ezin da behinbetiko konpondu propaganda-jokaera trebe batez, oinarritzko honako egia honek herrialde guztietan lortutako garaitzaren bidez baizik: printzipio etikoak nazioaren existentziaren gainetik daudela, eta, printzipio horiei atxekitzean, gizabanakoa fede hori orain konpartitzen duten, iraganean konpartitu zuten eta etorkizunean konpartituko duten guztien komunitateko kide dela.

Langile-klaseak eta burgeseria liberal eta katolikoak harturiko jarrera ezkor eta etsipenezkoarekin kontrastean, saltzaile txikiak, arti-

sauek eta enplegatuek osaturiko erdiko klasearen behe-geruzek, gartsu onartu zuten nazien ideologia.⁸⁸

Talde hauetan, belaunaldi zaharrenetako gizabanakoek osatu zuten masa-oinarririk pasiboena; hauen seme-alabek eskuharmen aktiboa izan zuten burrukan. Ideologia naziak —liderrarekiko bere obedientzia itsuarekin, arrazazko eta politikazko gutxiengoarekiko bere gorrotoarekin, bere konkista— eta domeinu-gosearekin eta aleman herriaren eta «ipartar arrazaren» gorespenarekin— erakarpen emozional handia eragin zuen gazte hauengan, helburu nazietarako bereganatu zituen eta burrukari eta sinestedun grinatsu bilakarazi zituen. Ideologia naziak izandako eraginaren zioei buruzko galderarekiko erantzuna, erdiko klase behearearen karaktere sozialaren egitura aurkitu behar da. Hau, langile-klasearen, erdiko klasearen goiko geruzen eta nobleziaren ezberdina zen nabarmenki. Izan ere, bada zenbait berezitasun, klase honen ezaugarritzat jo daitezkeenak beronen historia guztian zehar: indartsuari dion maitasuna, ahulari dion gorrotoa, beronen doilorkeria, etsaitasuna, zikoizkeria, ez bakarrik diruari dagokionez, sentimenduei dagokienez ere baizik, eta batez ere beronen asketismoa. Bizitzari buruz zuen ikuspegia hertsia zen, etsaiarekiko beti goganbehartsu eta gorrotoz beterik; beren lagunei buruzko jakinnahiz beterik, inbidia handia zieten eta haserre moralaren bidetik razionaltzen zuten beren sentimendu hau: beraien bizitza guztia urritasunaren printzipioan zegoen oinarriturik, hala ikuspuntu ekonomikotik nola psikologikotik.

Erdiko klase behearearen karaktere soziala langileenaren ezberdina zela baiezteak, ez du esan nahi karaktere-egitura hau azken klase honetako kideen artean ere ez zegoenik. Esan nahi dena da erdiko klase behearearen tipikoa dela, langileen artean, ordea, karaktere-egitura hori, horrela markatu-markaturik, gutxiengo batek besterik ez zeukan bitartean. Hala ere, ezaugarri banaka batzuk, ez hain bizi, baina langile-klaseko gehiengoarengan aurki zitezkeen, hala nola, aurrezpenari eta aginteari zion begirune handia. Bestalde, badirudi langile idun-zurien zati handi baten karaktere-egitura —gehiengoarena agian— esku-langilearen karakterearen (lantegi handietakoen karakterearena batipat) antzekoagoa zela erdiko klase zaharrarenarena baino, zeinak ez baitzuen kapitalismo monopolistaren garapenaren onurarik jaso, beronen mehatxua baizik.⁸⁹

Erdiko klase behearearen karaktere soziala 1914ko gerra baino askoz lehenagotik berbera izan zela egia bada ere, egia da baita ere ge-

rraondoko gertaerek areagotu egin zituztela ideologia naziari erakarpen indartsua zemaiteen berezitasun berberak: menekotasun-irritsa eta botere-gosea.

1918ko alemaniar iraultzaren aurreko aldiaren erdiko klasearen behe-estratuen, hots, saltzaile txiki independenteen eta artisauen, egoera ekonomikoa gainbehera etortzen hasia zen, baina ez zen desesperatua eta haren egonkortasunaren euskarri ziren zenbait faktore zutik zeuden.

Monarkiaren agintaritzaren eztabaida ezina zen, eta beraren aurrean makurtzean, berarekin identifikatzean, erdiko klase beheareko kideek segurtasun eta harrotasun narzisistaz beteriko sentimendua hartu zuten. Beste alde batetik, erlijioaren eta moraltasun tradizionalaren autoritateak ere irmoki sustraiturik zirauen oraindik. Familia lokatu gabe zegoen oraindik eta mundu etsaitik babesteko aterpe segurua izaten segitzen zuen. Gizabanakoa sistema sozial eta kultural egonkor bateko kide sentitzen zen, berak han leku ondo markatua zuelarik. Agintean zeudenei zien menekotasun eta leialtasuna, bere bultzadura masokisten soluziobide aski onargarria zitzaion; erabateko errendapenera, hala ere, heldu gabe eta bere nortasunaren garrantziari nolabait eutsiz oraindino. Segurtasun eta oldarkortasun kontuan gizabanako zenez falta zitzaiona, menekotasuna eskaintzen zien agintarien indarraz kontentsaturik aurkitzen zuen. Labur esanda, zeukan egoera ekonomikoa bere buruarekiko errespetu eta segurtasun erlatiboko sentimendua emateko bezain sendoa zen, eta makurtzen zitzaien agintarietaz bazuten egoera indibidualak eman ezin zion gehigarritzeko segurtasuna luzatzeko adina indar.

Gerraondoan, egoera hau dexente aldatu zen. Lehenik eta behin, erdiko klase zaharraren gainbeherakada ekonomikoa areagotu egin zen, inflazioaren eraginak, gainera, azeleratu egin zuelarik, intentsitate handienera 1923an iritsiz eta urte askotako lanean aurreztutakoa ia erabat hondatuz.

1924-28 bitarteko tartean hobekuntza ekonomikoa izan bazen ere eta erdiko klase beheareari esperantza berriak ekarri bazizkion ere, metatu ahal izan zituen irabazi guztiak 1929az geroztiko krisialdiarekin ezabaturik geratu ziren. Inflazio-aldiaren gertatu izan zen bezalaxe, erdiko klasea, proletalgoaren eta goi-klasearen artean estutua, talderik babesgabeena zen, eta, beraz, egurtuena.⁹⁰

Baina faktore ekonomiko hauen ondoan aspektu psikologikoak ere hantxe ziren egoera larriagotuz. Hauetako bat gerran izandako ausiabantzeren eta monarkiaren erorreran aurkitzen dugu. Estatuak eta erregimen monarkikoa burgueseria txikiak bere existentziaren oinarri bihurturiko haitz sendo izan zirenez, beraien porrotak eta derrotak birrintu egin zuten haren bizitzaren zimentarria bera ere. Kaiserra publikoki irigarri utzi ahal bazen, ofizialeak eraso ahal baziren, Estatuak berak ere bere era aldatu behar badu eta ministrotzat «agitatzaile gorriak» eta presidentetzat zelagile bat onartu, zertaz izan zitekeen fido orain gizakume arrunta? Bere menekotasun-jarreraz, erakundé guztiokin identifikatua zuen bere burua; suntsituak ziren honetan, nora jo behar zuen?

Inflazioak, bestalde, efektu ekonomikoak soilik barik, psikologikoak ere eragin zituen. Aurrezkiaren printzipioari, eta Estatuaren aginpideari ere, emandako kolpe hilgarria zen. Hainbeste urtetako aurrezkiak, plazer txiki askori uko eginaren fruitu zirenak, norberaren inolako errurik gabe galdu ahal baziren, zertarako aurreztu? Estatuak bere banku-txartel eta —tituluetan inprimaturiko bere agintzariak hautsi ahal bazituen, zernolako agintzarietz fido zitekeen handik aurrera?

Eta gerraondoan ez zen erdiko klase behearearen egoera ekonomikoa bakarrik izan gainbeherakada azkarragoa izan zuena, haren itzal sozialak ere antzerako jaitsiera jasan baitzuen. Gerraurrean klase hori langilea baino maila altuagoan senti zitekeen. Iraultzaondoan, ordea, langile klasearen itzal sozialak gorakada dexentea izan zuen, eta, ondorioz, erdiko klase behearena horren arabera jaitsi zen. Ez zeukan jada nor mesprextatu, dendari txikien eta beronen antzekoen bizitzako abantailarik sendoenetako bat izandako pribilegio hau ere galduz.

Faktore guztiok beste bat gehitu behar diegu: erdiko klasearen segurtasunaren azken bastioia —familia— ere hautsia zen. Gerraondoko garapen sozialak, Alemanian agian beste inon baino handiagoak, aitaren agintea eta erdiko klase zaharraren moralitasun tipikoa ahulduak zituen. Belaunaldi gazteenak bere gogara jokatzen zuen, bere jokabiderako familiaren onespeneren edo gaitzezpeneren ardurarik gabe.

Prozesu honen arrazoiak hemen zehaztasunez jorratzeko baino gehiago eta konplexuagoak dira. Batzuk bakarrik aipatuko ditut. Estatuak eta monarkia bezalako aginte-sinbolo sozial zaharren gainbeherakadak, gurasoek errepresentaturiko aginpide indibidualak ukitu zituen. Gurasoek errepresentatzen irakatsi zieten aginteek ahultasuna erakusten bazu-

ten, orduan berauek ere itzalik eta aginpiderik gabekoak ziren. Beste faktore bat zen belaunaldi zaharragoak, bizkor eta aktiboagoak ziren belaunaldi gazteak baino askoz ere kezkatuago eta galduago eta baita moldagaitzago sentitzen zirela egoera sozial aldakorren —bereziki inflazio-egoeren— aurrez aurre. Horregatik gazteak zaharren gaintetik sentitzen ziren eta ez zegoen jada haien irakaspenak aintzat hartzea lortzeko modurik. Azkenez, erdiko klasearen ekonomi beherakadak, kendu egin ziren seme-alaben etorkizun ekonomikoaren eusle izateko funtzioa.

Era honetan erdiko klase beheko belaunaldi zaharra gero eta garrastuago eta erreminduago bilakatuz joan zen, baina pasibotasunez; belaunaldi gaztea, ostera, ekintzarako irritsez sentitzen zen. Euren ekonomi egoera larriagoa zen, galdua zutelako beren gurasoek gozatu izan zuten bizimodu diruz independentearen oinarria; profesio liberalen merkaturia saturaturik zegoen eta mediku-edo abokatu-lanean bizipidea ateratzeko zeuden ahalbide urriak besterik ez zegoen. Gerran burukatu zutenek, eskaintzen zitzaaien baino tratu hobea zor zitzaizela uste zuten. Ofizial gazte pila bati bereziki, zenbait urtetan agintean egoten eta gauzarik naturalena bailitzen agintzen ohitua zenari, ezinezko egiten zitzaion enplegatu edo artekari izatera moldatzea.

Zapuzketa sozial hazkor honek nazionalsozialismoarentzat faktore inportante bat bihurtu zen proiektio batera eramane zuen: erdiko klase zaharraren destino ekonomikoaz eta sozialaz ohartu beharrean, beronen kideek euren destinoa nazioarekin bat egin zuten ohartuki. Ausiabantzeria nazionala eta Versailleseko Hitzarmena, horrela, zapuzketaren sinbolo bilakatu ziren, egiazko zapuzketa —soziala— nazionala izatera aldatu baitzen.

Behin eta berriz esan izan da 1918an potentzia garaileek Alemaniari emandako tratamendua nazismoa sortzeko arrazoi nagusienetako bat izan zela. Baiezpen honek zenbait argibide behar ditu. Aleman gehienek injustutzat zuten bake-hitzarmena; baina erdiko klaseak sumindura biziz erreakzionatzen zuen bitartean, langile artean askoz txikiagoa zen Versailleseko Hitzarmenarekiko herragunea. Hauek erregimen zaharraren aurka burukatuak ziren eta hauentzat gerra galtzea erregimen horren derrota zen. Adorez burukatu zutela uste zuten eta ez zegoela, beraz, beren buruaz lotsatzeko arrazoirik. Bestalde, iraultzaren garaipenak, monarkiaren derrotaren bitartez bakarrik gauzatu ahal izan baitzen, giza, ekonomi eta politika-konkistak ekarriak zizkien. Versailles-

seko Hitzarmenaren aurkako herragunearen oinarria erdiko klase behe-rean aurkitzen zen; herragune nazionalista ez zen haren gutxiagotasun soziala gutxiagotasun nazional bezala proiektatzeko erabiltzen zen arrazionaltzea besterik.

Proiektzio hau nabari-nabari agertzen zen Hitlerren garapen personalean. Erdiko klase beheko kide petoa zen, etorkizunerako perspektibarik gabeko inor-ez bat. Paria paperean kokaturik sentitzen zen biziki. Sarritan, *Mein Kamp*-en, «inor-ez» bat denez hitz egiten du bere buruaz, gaztaroan izandako «gizon ezezaguna» gogoratuz. Baina hau nagusiki bere maila sozialaren ondorio zen arren, sinbolo nazionalen forman arrazionaldua zuen berak. Reichetik at jaioa, bertatik baztertua sentitzen zen, ikuspuntu sozialetik baino areago ikuspuntu nazionaletik, eta era honetan Aleman Reich Handia, zeinetara bere seme-alaba guztiak itzuli ahalko ziren, itzal sozialaren eta segurtasunaren sinbolo bihurtu zen harentzat.⁹¹

Erdiko klase zaharraren ezintasun, estura eta gizartearen osotasunetiko isolamendu-sentimendua eta egoera honen emaitza zen suntsikortasuna, ez ziren nazismoaren iturri psikologiko bakarra. Nekazariak erreminduta zeuden zordun zitzaizkien hiriko hartzedunekin, eta langileak, bitartean, nahigabeturik eta adorerik gabe sentitzen ziren 1918ko hasierako garaipenez geroztik, ekimen estrategiko oro galdua zuen buruzagitza baten eraginez etengabeki jasaten ari ziren atzerakada politikoak zirela eta. Biztanlegoaren gehiengo zabalak, orokorrean kapitalismo monopolistaren aldiko tipikotzat deskribatu dugun ezereztasun indibidual eta ezintasun-sentimenduan erori zen.

Baldintza psikologiko hauek ez ziren nazismoaren «kausa» izan, baina bai haren giza oinarria, berau barik hark ez zuelarik garatzerik. Horregatik nazismoaren sorrera eta garaitzaren fenomenoaren analisiak, kontutan izan beharko lituzke hala baldintza hertsiki politiko eta ekonomikoak nola psikologikoak. Lehenengo aspektuak dagoen bibliografia eta liburu honen berariazko xedeak kontutan izanik, ez dago premiarik mugimendu horrekin zerikusia duten gai-arazo ekonomiko eta politikoak eztabaidatzen hasteko. Besterik gabe aski izango da industria nagusiaren ordezkariak eta diruz erdiporrot egindako Junkerrek erregimen naziaren ezarpenean jokatu izan zuten papera irakurleari gogoraraztea. Euron laguntzarik gabe Hitlerrek ez zuen sekula garaitzarik jadetsiko, eta eurok mugimenduari euskarria luzatzea eragin zuena, faktore psiko-

logikoez baino askoz gehiago, beren interes ekonomikoak zein ziren ulertu izana izan zen.

Jabe-klase hau honako era honetan osoturiko Parlamentuaren aurrez aurre aurkitzen zen, hots, ehuneko 40an diputatu sozialista eta komunistak ziren, zegoen sistema sozialarekin pozik ez zeuden taldeen ordezkariak, eta gero eta gehiago ziren naziak ere hantxe ziren, hauek, beren aldetik, kapitalismo alemanaren ordezkari boteretsuenekin burruka latzean zebiltzalarik. Gehiengoak bere interes ekonomikoen aurkako joerak zituen Parlamentuari, arriskugarri eritzi behar eta arrazoiz. Demokraziak ez zuela funtzionatzen esan zuten orduan. Esan behar zatekeena, esan, demokraziak ondoegi funtzionatzen zuela zen. Parlamentua aleman herrian zeuden klase ezberdinen interesen ordezkariak aski egokia zen, eta honexegatik parlamentu-sistema ezin uztartu zen jada industria handiaren eta lurjabe semifeudalen pribilegioak jagon beharraz. Talde pribilegiatu hauen ordezkariak espero zuten nazismoak herragune emozionala beste arto batzuetara eramango zuela eta aldi berean indar nazionalak arteztuko zituela beren interes ekonomikoen zerbitzutan jarritz. Oro har, haien esperantzak ez ziren zapuzturik gertatu. Zehaztasun batzuetan, hori bai, erratu egin ziren. Hitler eta bere burukrazia ez ziren Thyssen darren eta Krupp-tarren aginduetara jarritako tresna bihurtu, hauek, aitzitik, buruzagi naziekin konpartitu behar izan zutelarik beren boterea eta batzuetan berauon meneko izan ere bai; baina, nahiz eta nazismoa, ekonomiaren ikuspuntutik, kaltegarri gertatu zen klase guztientzat, industria alemaneko talde boteretsuenen interesak, osterak, bultzatu egin zituen. Sistema nazia gerraurreko inperialismo alemanaren bertsio «aerodinamiko» da, monarkiak porrot egin zuen puntutik berrabiatu zelarik. (Hala ere, errepublikak ez zuen benetan eten kapitalismo monopolista alemanaren garapena, sustatu baizik eskuan zituena bitartekoez).

Puntu honetan, irakurle bati baino gehiagori burura etorriko zaion galdera bat sortzen da. Nola uztar daitezke honako baiezpene biok, hots, nazismoaren oinarri psikologikoa erdiko klase zaharrak egiten zuela, alde batetik, eta erregimen berriak inperialismo alemanaren interesen alde ziharduela, bestetik? Galdera honi dagokion erantzuna, printzipioz, kapitalismoaren sorreraren garaian erdiko klase hiritarrek izan zuten funtzioari buruz eman zena bera da. Gerraondoan, erdiko klasea zen, erdiko klase behekoa bereziki, kapitalismo monopolistaren meha-

txupean sentitzen zena. Beronen esturak eta, beraz, beronen gorrotoak, mehatxu horixe izan zuten sorburu; izu-egoeran jarria ikusi zuen bere burua, menekotasun-irrits grinatsuak hartu zuen eta, aldi berean, ahulagoekiko domeinu-grinak. Sentimendu hauek klase erabat ezberdinak erabili zituen, bere interesetarako lan egingo zuen erregimen bat zutik jartzeko. Hitler hain tresna efikaz bihurtu bazen, honexegatik izan zen, hots, burjes txiki, erremindu eta gorrotoz betearen ezaugarriak —erdiko klase beheara eurekin emozionalki eta sozialki identifikatzeko moduko—, industriari handien eta Junkerren interesen zerbitzutan jokatzeke prest zegoen oportunistaren ezaugarriekin konbinatzen zituelako. Hasieran erdiko klase zaharraren Mesias papera jokatu zuen, almazen handien suntsipena, banka-kapitalaren menerapena haustea eta horretarikoak aginduz. Ondoren etorri zen historia denok ezagutzen dugu. Agintzariok ez ziren sekula bete. Hala ere, horrek ez zuen garrantzi handirik izan. Nazismoak ez zuen egundo egiazko printzipio politiko eta ekonomikorik izan. Konturatu beharra dago duen oportunismo erradikalean datzala nazismoaren hastapena bera. Ardura zuena zen garai normaletan dirua edo boterea eskuratzeko aukera oso gutxi izango zuketan ehundaka mila burjes txikik, orain, burokrazia naziko kide bihurtuta, goi-klaseak beraiekin konpartitzera beharturik aurkitu ziren botere eta prestigioaren zati dexentea lortzen zutela. Alderdi naziaren eraketako kide izatera heldu ez zirenek, judutarrei eta etsai politikoei kenduriko enpleguak eskuratu zituzten; eta gainerakoei dagokienez, ogi gehiagorik lortu ez bazuten ere, «zirku» gehiago bai izan zuten. Ikuskizun sadiko hauek eta gizateria guztiaren gainteko gehiagotasun-sentimendua ematen zion ideologiatik sorturiko asetasun emozionala, nahikoa zen konpenstatzeko —aldi batez bederen— beren bizitzak kulturaz eta ekonomiaz pobreturik geratu izana.

Ikusi dugu, beraz, nola zenbait aldaketa sozioekonomikok, bereziki erdiko klasearen gainbeherakadak eta kapital monopolistaren botere hazkorrak, efektu psikologiko sakona izan zutela. Ondoriook, ideologia politiko batek haziak, edo sistematizatuak, gertatu ziren —xvi. mendeko erlijio-ideologiek gertatu izan zen bezalaxe—, eta horrela sorturiko indar psikikoek eragin efektiboa izan zuten klase horren jatorrizko interesen kontrako norabidean. Nazismoak erdiko klase behearen berbizkunde psikologikoa eragin zuen eta aldi berean beronen lehengo egoera sozioekonomikoaren suntsipenean lagundu zuen. Haren

energia emozionalak mugiarazi zituen, inperialismo alemanaren xedeetan alde gauzaturiko burrukan garrantzitsua izango zen indar bilakaraziz.

Hurrengo orrialdeetan saiatuko naiz agerian jartzen Hitlerren nortasunak, haren irakaspenak eta sistema naziak, «autoritarioa» deitu dugun karaktere-egituraren muturreko forma bat adierazten dutela, eta, honexegatik beronegatik, eragin sakona izan zuela karaktere-egitura bera —edo beretsua— zeukaten biztanlego-sektoreengan.

Hitlerren autobiografia karaktere autoritarioaren ilustraziorik onenetako bat da, eta, honez gain, literatura naziko dokumenturik errepresentagarriena denez, nazismoaren psikologia aztertzeke iturri nagusi legez erabiliko dut.

Karaktere autoritarioaren muina, jaugin sadiko eta masokisten aldi bereko presentzia bezala izan da deskribatua. Sadismoa mugarik gabe inorengan erabilitako eta gradu biziago edo motelxeagoan suntsigarritasunez nahasirik botere bezala ulertu zen; masokismoa, ordea, nork bere burua botere guztiahaldun baten baitan disolbatzera, haren aintzaren partaide izateko, zuzenduriko bultzadura bezala. Hala jaugin masokistak nola sadikoak, gizabanako isolatuak bere buruari eusteko duen ezintasunak eta bakardade hau gainditzeko behar duen harreman sinbiotikoak eragindakoak dira.

«Botere-irrits sadikoak» hainbat adierazpen ditu *Mein Kampf*-en. Hitlerrek era tipikoki sadikoan mespretxatu eta «maite» dituen aleman masekin dituen harremanen ezaugarri da, eta baita sadismoaren osagai inportante bat diren aspektu suntsikorrek erakusten dizkien etsaiekiko harremanena ere. Masak domeinatuak izatean aurkitzen duten asetasunaz mintzo da. «Haiek nahi dutena indartsuenaren garaitza da eta ahularen deusezpena edo baldintza gabeko errendapena.»⁹² «Nola emakumeak ... gizon ahula domeinatu baino gizon indartsuaren menpean izan nahiago duen, masek ere halaxe, agintzen duena dute maiteago erreguka dabilena baino, eta, beren baitan, lehiakiderik jasaten ez duen doktrina atseginago dute erregimen liberalak bermatzen duen askatasuna baino; berarekin zer egin ez dakitela, galduta sentitzen dira maiz, errazegi abandonatuak izan direla uste izateraino. Eta ez dira ohartzen ere zein lotsagarriro izutuak diren izpiritualki, ez hautematen dute zein iraingarriro murrizten zaizkien giza askatasunak, inondik inora ere ez baitira doktrina honek egiten dien iruzurraz konturatzen.»⁹³

Hitlerrek dio hizlariaren goi-indarrak publikoaren nahimena haustea dela propagandaren funtsezko faktorea. Eta are zalantzarik ez du entzulegoaren mekazioa sugestioa eragiten laguntzen duen baldintzarik aiposena dela baiezteko. Masa-bilera politikoak egiteko zein den eguneko ordurik egokiena aztertzean, zera dio: «Badirudi goizez eta egunean zehar ere gizakumeen nahimenaren indarra energiari handienaz agertzen dela, inoren nahi eta eritziaren pean ez jartzeko. Gauez, ordea, errazago erortzen dira goragoko nahimenaren indar menperatzailearen pean. Izan ere, halako mitin bakoitzak aurkako bi indarren arteko burruka ahalegintsua dakar. Apostolu-izaera domeinatzailea duen hizlariaren goi-talentuak, errazago lortuko du kausa naturalengatik euren eusmenaren ahuleziaren bat izan duten pertsonen nahimena bereganatzea, oraindik euren energia izpiritualaren eta nahimen-indarraren erabat jabe direnena baino.»⁹⁴

Hitler bera ondo konturatzen da menekotasun irritsa sortzen duten baldintzez, masa-mitin batera doan morroiaren deskribaketa bikaina eskaintzen digularik:

«Masa-mitina beharrezko da, mugimendu berri bati atxekitzean bakarrik senti eta bere burua isolaturik ikusteko beldurrak har dezakeen gizabanakoak, lehenengo aldiz komunitate handiago baten ikuspena bereganatzea baino ez bada ere, jendearengan ondorio indargarri eta animagarria eragiten duen zerbaite berau... Lehenengo aldiz ateratzen bada tailer txikitik edo hain bakar sentitzen den enpresa handitik, masa-mitinerat joan eta han konbentzimendu berdinak dituzten milaka eta milaka pertsonaz inguraturik sentitzeko..., berak ere erori egin beharko du masa-sugestioa deitzen dugunaren eraginpe magikoaren magalera.»⁹⁵

Goebbelsek ere berdin deskribatzen ditu masak. «Jendeak, gano-raz gobernatu dezaten besterik ez du gura», dio Michael izeneko bere nobelaren.⁹⁶ «Masak ez dira liderrarentzat eskultorearentzat harria dena besterik». «Liderra eta masak kolorea eta pintorea bezain arazo sinplea dira.»⁹⁷

Beste liburu batean Goebbelsek sadikoak bere sadismoaren objektuekiko duen menpetasunaren deskribaketa doi-doi egiten du; zein indarge eta huts sentitzen den bere boterea inorengan erabili ezin duenean eta nola ematen dizkion indar berriak botere horrek. Hauxe da Go-

ebbelsek berak sentitzen zuenaz kontatzen diguna: «Batuetan bat depresio sakon batek jota sentitzen da. Berriz ere masen aurrez aurre aurkitzean bakarrik lortzen da gaitztea. Herria da gure boterearen iturri.»⁹⁸

Naziek lidergoa deitzen dioten gizakumeekiko botere era bereziaren deskribaketa esanguratsu bat Ley izeneko Lanaren Fronteko liderraren idazki batean aurkitzen dugu. Buruzagi nazi batek behar dituen tasunez eta aginterako hezkuntzak dituen xedeez mintzo delarik, zera dio: «Gizakume hauek aginte-nahirik, jaun eta jabe izan nahirik, hitz batean, gobernatu nahirik dutenentz jakin nahi dugu... Gobernatu nahi dugu eta gustatu egiten zaigu... Gizakume hauei zamalkatzen irakatsiko diegu... izaki bizidun batekiko erabateko domeinua senti dezaten.»⁹⁹

Hitlerrek hezkuntzaren helburuez egiten duen formulazioan ere, boterearen gorespena bera aurkitzen dugu. Zera dio: «Ikaslearen hezkuntza eta garapen orok besteak baino erabat goragokoa dela konbentzitzera bideratua behar du izan».

Beste nonbait, mutikoari injustiziak errebelatu gabe pairatzen irakatsi behar zaiola deklaratu izanari ez deritzoke dagoeneko harrigarri irakurleak. Botere eta menekotasun-irritsen arteko anbigualentzia masokistari bete-betean dagokion kontraesan tipikoa da hau.

Masekiko botere-desira da «eliteko» kidea, lider nazia, bultzatzen duena. Arestian seinalaturiko aipamenek demostratzen duten bezala, botere-desira hau, maiz, xalotasun txundigarriaz agertzen da. Beste batuetan erasokortasun txikiagoz formulatzen da, masak eurak direla agindupean jokatu gura dutenak. Egokiera batuetan masak lausengatu beharrak eta, beraz, beraiekiko duen mespretxu zirikoa estaldu beharrak honelako amarratuera eramaten du: Hitlerrentzat, gero ikusiko dugunez, aginterako bultzaduraz gutxi gorabehera bat datorren autokontserbazio-senaz hitz egitean, instintu horrek erarik jatorrena ar-yarrarengan aurkitu duela dio, «bere egoa komunitatearen bizitzaren pean jartzeko eta, horretarako premiarik izanez gero, sakrifikatze ere prest dagoelako».¹⁰¹

«Liderrak» badira ere lehengo eta behin aginteaz gozatzen dutenak, masek ere inola ere ez daude atsegin sadikoz gabeturik. Arraza eta politika-gutxiengoak Alemania barruan, eta, kasua iritsita, indarge eta jaiskortzat jotako beste nazio batuetako herria, dira masen sadismoaren

asegaia. Hitlerrek eta beronen burokraziak masa alemanekiko aginteaz gozaten duten aldi berean, masa berauek beste nazio batzuekiko botereaz gozaten eta mundua domeinatzeo grinaren bultzadurapean jarzen ikasten dute.

Hitlerrek ez du ezbairik mundu-domeinapena gura duela adierazteko bere eta alderdiaren xede bezala. Bakezaletasuna irrigarri utzi nahirik, dio: «Izan ere, bakezaletasun-ideia gizatarra erabat ona da, agian, beti ere aurretik balio handiagoko gizakumeak, bera lurbira osoaren jaun eta jabe bakar izateraino mundua konkistatu eta meneratua duenean.»¹⁰²

Baita dio: «Arraza-pozinketa garaian bere arraza-elementurik onenak bultzatzera dedikatzen den Estatuak, munduaren jabe izatera heldu behar du egunen batean.»¹⁰³

Normalean Hitler bere botere-gosea arrazionaltzen eta zuritzen saiatzen da. Zuribide nagusiak hauek dira: berak beste herriekiko gauzaturiko domeinapena, haien beraien onerako eta mundu-kulturaren alde burutzen da; aginte-nahia Naturaren lege eterneltan errotuta dago eta berak lege horiek aintzatetsi eta bete besterik ez du egiten; berak ere goragoko botere baten pean —Jainkoa, Patua, Historia, Natura— jokatzen du; bere domeinu-saialdiak besteek bera eta herri alemana domeinatzeo darabiltzaten saialdien kontrako defentsa-egintzak besterik ez dira. Berak bakea eta askatasuna besterik ez du gura.

Lehenengo arrazionalizazio-motaren exenplu moduan *Mein Kampf*-eko paragrafo hauxe aipa dezakegu:

«Herri alemanak bere bilakaera historikoan beste herri batzuek ezaugarri izana duten batasun soziala ukan balu, Reich alemana orain, seguraskitik gora, munduaren jaun eta jabe litzateke.» Germaniarren mundu-domeinapenak, dio Hitlerrek, mundua eramango luke ez emakume negartsu bakezale profesionalen olibondo-adarrek sostengaturiko bakera, baizik mundua goi-kulturaren zerbitzuan jartzen duen goi jaun-herri baten ezpata garaileak eutsitakora.»¹⁰⁴

Oraintsuko urteetan, bere xedeak Alemaniaren ongizterako baka-
rrik barik, orokorrean zibilizazioaren zerbitzutan ere badiren baieztapenak, egunkari-irakurle orok ezagutu ahal izan ditu ongi.

Bigarren razionalizazioa, hots, bere botere-desira naturaren legeetan dagoela oinarrituta, razionalizazio huts bat baino gehiago da;

hau ere inoren agintepean jartzeko gogotik sortzen da, Hitlerrek egindako darwinismoaren herri-dibulgazio gordinean bereziki adierazita gertatuko den bezala. Ikusi ere, «espeziearen kontzerbazio-senean» ikusten du giza komunitateen sorreraren lehen kausa.¹⁰⁵

Autokontserbazio-instintu honek indartsuak indargea domeinatu nahirik egindako burrukara garamatza eta, ekonomiaren ikusgunean, gaienaren biziraupenera. Autokontserbazio-senak eta besteekiko agintedesirak Hitlerren baieztapen honetan aurkitzen du adierazpide bereziki esanguratsua: «Gizateriaren lehen kultura abere heziaren pentsutan gutxiago zegoen behe-mailako herriak erabiltzearen pentsutan baino.»¹⁰⁶ Bere sadismoa Naturarengana proiektatzen du, «Jakinduria ororen Erregina krudel»¹⁰⁷ izendatzen duelarik, beraren kontserbazio-legea «beharren eta onenen eta indartsuenen garaitzarako eskubidearen brontzezko legeari kateaz lotuta dagoelarik mundu honetan.»¹⁰⁸

Interesgarri da ohartzea, darwinismo gordin honekin loturik, Hitler «sozialista» murrizketa gabeko konkurrentzia liberalaren alde gailentzen dela. Talde nazionalista ezberdinen arteko lankidetzaren aurkako polemika batean, dio: «Horrelako konbinapenez traba jartzen zaio energien jokaera libreari, onena aukeratzeko burruka gerarazten da eta, beraz, gizakume osasuntsu eta indartsuenaren beharrezko eta azken garaitza betiko galerazita gelditzen da.»¹⁰⁹ Beste zati batzuetan energien jokaera librea biziaren jakinduriatzat hartuaz mintzo da.

Darwinen teoria bera, izatez, ez zen karaktere masokistaren sentimenduen adierazpen. Teoria honi atxekiriko asko, aitzitik, goragoko kultur etapeterantz eboluzionatzeko esperantzarengatik sentitzen ziren beronetara erakarriak. Hitlerrek, ordea, bere sadismoaren adierazpide eta, aldi berean, zuribidetzat zeukan. Hitlerrek berak tolesgabe asko agertzen digu zernolako esangura psikologikoa zuen beretzat doktrina darwiniarrak. München bizi zenean, oraindik erabat ezezaguna zela, goizeko bostetan itzarri ohi zen. «Gela txiki hartan zebiltzan saguei ogi-puxkak botatzeko eta animaliatxo xeble hauek apurreria horiek harrapatzen saltoka eta pelikan nola aritzen ziren ikusteko aztura zuen hartua.»¹¹⁰ «Joko» hau «biziraupenaren aldeko burruka» darwiniarra zen eskala txikian. Hitlerrentzat hura, burges txikiaren ordezkaria zen Erromako Zesarren zirkuetarako, eta berak sortuko zituen zirku historikoen aurrekari bat.

Haren sadismoaren azken razionalizazioak, bere domeinua inoren erasoei aurre egiteko defentsatzat hartzeak, adierazpide pila bat

dauka haren idazkietan. Errugabeak bera eta herri alemana dira beti eta etsaiak, ordea, patari basatiak dira. Haren propagandaren zati handi bat berariazko gezur kontzienteak dira. Nolabaiteko graduan, hala ere, akusazio paranoikoek duten «egiazaletasun» emozional berbera dauka. Akusaziook haren sadismoa eta suntsikortasuna agertzea galerazteko funtzioa dute. Honako formula honen arabera burutzen dira: Zeu zara asmo sadikoak dituzuna; ni, beraz, errugabe naiz. Hitlerrengan, defentsa-mekanismo hau ezin irrazionalagoa da, zeren berak badituela xalo bai xalo admititzen duen asmo berberak ukateaz akusatzen ditu bere etsaiak. Era honetan, juduak, komunistak eta frantsesak, bere egingai zilegizkoenak omen dituen gauza berberaz akusatzen ditu. Eta ia arduratu ere ez da egiten razionalizazioen bat eginez estaltzen. Horrela juduak akusatzen ditu tropa frantses beltzak Rhineraino eramateaz, arraza zuria deusezteko asmoz —ondoreneko bortasuna medio—, «horrela jaun eta jabe izatera iritsiz».¹¹¹ Hitler, hala ere, berak bere arrazaren xederik nobleentzat aldarrikatzen zuen gauza berberaz besteak akusatzearen kontraesanaz jabetu bide zen nonbait, eta kontraesan hori arrazionaltzen saiatzen da juduei buruz esanez, haien kontserbazio-senak ez daukala aryarren domeinurako jauginean aurki daitekeen ezaugarri idealistarik.¹¹²

Akusazio bera du frantsesentzat ere. Alemania irato eta indargeturik utzi nahiaz akusatzen ditu. Akusazio hau «Frantsesek duten hegonia europarrerako joera»¹¹³ deuseztu beharraren argudiotzat erabiliz batera, Clemenceauk bere lekuan egingo zukeen bezala jokatu zuela aitortzen du.¹¹⁴

Komunistak basakeriaz akusatzen ditu, eta marxismoaren arrakasta beraien borondate politikoari eta jokabide basatiari iratxekitzen zaio. Hitlerrek honekin batera deklaritzen du «Alemaniari falta zitzaiona, botere basati eta asmo politiko burutsu baten arteko lankidetzaz estua zen».¹¹⁵

1938ko krisialdi txekiarrak eta bigarren mundu-gerrak mota bereko enxerplu piloa eskaintzen digu. Ez zen nazien zapalketarik bat bera ere izan inoren zapalkuntzatik defendatzeko bidetzat esplikatatu ez zenik. Uste ukan daiteke salakuntzok faltsupen huts zirela eta ez zeukatela judu eta frantsesei iratxekitakoek eduki zezaketen «egiazaletasun» paranoikoaren kutsurik. Salakuntzok propagandarako balioa ukaten segitu zuten eta izan ziren biztanlego-sektore batzuk, erdiko klase beherekoak batipat, salakuntza paranoiko hauez, beren karaktere-egitura medio, harkor jokatu zutenak, eurretan sinesten segituz.

Hitlerrek botere gabekoei zien mespretxua, bereak ere ba omen zirenen antzeko xede politikoak —askapen nazionalaren aldeko burruka— zeuzkan jendeaz hitz egitean nabaritu zen bereziki. Agian, inoiz ere ez zen hain zizkolatsu gertatu Hitlerrek nazioen askapenaz interesa agertzean zuen toleskeria, iraultzaile ahul eta indargeei erakutsi zien mespretxuan baino. Horrela, ironiaz eta mespretxuz hitz egiten ikusten dugu München bildu zen Nazionalsozialisten talde txikiari buruz. Hona hemen bera izan zen lehenengo mitinetik atera zuen inpresioa: «Ikara-garria; ikaragarria; mota eta tankerarik txarreneko klub bat besterik ez huan hau. Eta ni orain hain zuzen ere klub honetara afiliatu behar ote ninduan, bada? Gero afiliazio berriak eztabaidatzen hasi hituan eta honen ni segidan eroria nintzela esan nahi zian.»¹¹⁶

Nazionalsozialista hauez «erakunde kaxkar ganora gabekoa» dela dio, abantaila bakar bat zeukana: berari «egiazko ihardunbide pertsonalerako aukera»¹¹⁷ eskaintzen ziola. Hitlerrek esaten zuen inoiz ez zatekeela alderdi handietako ezeinetara afiliatuko, eta jarrera hau bere izakerari bete-betean zegokiona zen. Behe-mailako eta ahultzat zeukan talde batean hasi behar zuen nahitaez bere ihardunbidea. Haren adore eta ekimenak ez zuketeten bizgarririk aurkituko, aurretik zegoen botereen bat eraso beharreko edo berdinen artean lehian ihardun beharreko konstelazio batean.

Iraultzaile hinduez idazten duenean ere antzerako mespretxua erakusten du. Bere helburuetarako askatasun nazionalaren slogana beste inork ez bestean erabilia zuen gizonak, mespretxua besterik ez zuen sentitzen, indarrak eduki ez eta britainiar inperioa erasotzeko ausardia zuten iraultzaileekiko. Iraultzaileok, dio Hitlerrek, zera gogorazten dute: «...asiar fakirren bat edo benetako «askatasunaren aldeko burrukalari» hindu batzuek, Europan zehar zebiltzanak, jende burutsuari berari ere Britainiar Inperioa, zeinaren giltzarri India den, orduantxe bertan amiltzear zegoen ideia finkoa derrigorrean sartu nahirik... Errebelde hinduek, halabaina, sekula ez dute lortuko... Ezinezko du elbarrien koalizio batek Estatu boteretsu bat asaltatzea...Euren arrazazko gutxiagotasuna ezagutzen dudalako soilik ere, ezin dut neure nazioaren destinoa «nazio zapalduak» deritzaten hauenakin bigiztatu.»¹¹⁸

Karaktere sadomasokistaren hain portaera tipikoak diren botere-tsuenganako maitasunak eta indargearenganako gorrotoak esplikatzen dute hein handi batean Hitler eta bere jarraitzaileen ekintza politikoa.

Gobernamendu errepublikarrak uste zuen arren «mantso» zitzakeela naziak biguintasunez tratatuz, ez bakarrik ez zuen helburu hau lortu, ezpabere gorroto-sentimenduak sortarazi zituen, agertzen zuen botere eta ir-motasun falta horrexegatik hain zuzen ere. Hitlerrek gorroto zuen Weimarren errepublika ahula zelako, eta buruzagi industrialak eta mili-tarrak, ostera, maite zituen boterea zeukatelako. Inoiz ere ez zuen burukatu ezein botere indartsu eta tinko ezarririk kontra, esen-zialki indargetzat zeuzkan taldeen kontra baizik. Hitlerren «iraultza», eta honetan Mussolinirena ere bai, zeuden agintarien babespean burutu ziren, eta haren jopuntu gogokoenak beren buruak defendatzeko modu-rik ez zeukatenak izan ziren. Eta suposatzen ausartu ere egin gintezke konplexu psikologiko honexek, beste faktoreez gain, hartaratu zuela Hitlerrek Britainia Handiaren zuzen jarrera. Estatu ahaltsu zeritzonei-no, maite zuen eta mirespena zion. Bere liburuak Ingalaterraganako aipatu maitasuna adierazten du. Baina, Munich baino lehenago eta on-doren, ingelesaren egoeraren ahultasunaz jabetu zenean, haren maitasuna gorroto eta hura deusezteko desira bihurtu zen. Ikuspuntu honetatik, Hi-llerrena bezalako nortasuna daukana «mantsotzen ibiltzea» adiskideta-suna barik gorrotoa bizteko politika zen.

Honaino Hitlerren ideologiaren alderdi «sadikoaz» ari izan gara. Baina, karaktere autoritarioa aztertzean ikusi dugun bezala, aspektu «masokista» bat ere bada sadikoaren ondoan. Bada indar itogarriko bo-tere baten meneko izateko desira, nork bere nia deuseztekoa, boteretik gabeko pertsonengan beratu erabiltzeko desira dagoen bezala. Ideologia eta praktika naziaren alderdi masokista hau begibistakoa da batez ere masekiko. Etengabe esan eta berresaten zaie: gizabanakoa ez da ezer eta ez du inolako esanahirik. Horrela gizabanakoa bere ezereztasun per-sonala onartu behar luke, goi-botere baten baitan urtu, eta gero harro sentitu botere horren aintza eta indarrean partaide izatearren. Hitlerrek argi asko adierazten du ideia hau idealismoaz egiten duen definizioan: «Idealismoak bakarrik daramatza gizakumeak indarrak eta botereak du-ten pribilegioa gogo onez aitortzera, modu horretan unibertso guztiari egitura eta forma ematen dion ordenuaren partikula bilakatzu.»¹¹⁹

Goebbelsek antzerako definizio bat formulatzen du berak sozia-lismoa deitzen duenari buruz: «Sozialista izateak —idazten du— nia hiaren menpean jartzea esan nahi du; sozialismoa, gizabanakoa bere burua osotasunari sakrifikatzea da.»¹²⁰

Gizabanakoa sakrifikatu eta hauts-fits, atomo, bihurtzeak, Hi-llerren esanetan, nork bere eritzi, interes eta zoriontasun indibiduala baiezteko eskubideari uko egitea inplikatzeko du. Uko hau da «giza-banakoak bere eritzi pertsonala eta interesak errepresentatzeari uzten dion...» erakunde politikoaren muina.¹²¹ «Altruismoa» goraitpatzen du eta «bere zorionaren bilaketan jendea gero eta amiltzenago dela zeru-tik infernura» irakasten du.¹²² Hezkuntzaren xedea, gizabanakoa bere nia ez baiezten irakastea da. Eskolatik bertatik mutikoak ikasi be-har du, «ez bakarrik isilik egoten arrazoiz agiraka egiten zaionean, baizik eta baita ere injustizia txintik esan gabe jasaten.»¹²³ Bere azken helburuari dagokionez idazten du: «Herriaren Estatuan bizitzaren ikuspegi herritarrek azkenean lortu behar du, gizakumeek beren ardu-ra txakur, zaldi eta katuen hazkuntza hobean barik gizateriaren bera-ren hezkuntzan jarriko duten aroa, batek ondo konturatuta eta isilik uko egingo duen eta besteak pozarren eman eta sakrifikatuko den ga-raia.»¹²⁴

Esaldi hau harrigarri samarra da. Espero zitekeen «ondo kontura-tuta eta isilik uko egiten duen» gizabanakoaren deskribaketaren ondo-ren, haren aurkako giza mota deskribatuko zukeela, agintzen duena, erantzunkizunak beregain hartzen dituena, edo horrelakoren bat. Baina hau esan beharrean, «bestea» sakrifikatze gaitasuna duena dela dio Hitlerrek. Zail gertatzen da «isilik uko egitea» eta «gogo onez sakrifi-katzea»-ren artean dagoen aldea ikusten. Aieru bat adieraz baneza, nik esango nuke Hitlerrek bere baitan, uko egitea dagokien masen eta agin-du behar duen gobernarien arteko aldea adierazi nahi zuela. Baina, zen-baitetan bere (eta bere «elitearen») botere-desira argi asko admititzen badu ere, sarriaskotan ukatu egiten du. Esaldi honetan, dirudienez, ez zuen izan nahi hain tolesgabe eta, beraz, gobernatzeko desiraren ordez «eman eta gogo onez sakrifikatze» desira jarri zuen.

Hitlerrek argi eta garbi aitortzen du bere autokapen eta sakrifi-ziozko filosofia, euren ekonomi egoerak zorionaz gozatzeko inondiko biderik eskaintzen ez zientzat zela. Ez du gauzatu nahi denontzako zoriontasuna ekarriko duen ordenu sozialik; aitzitik, masen txirotasuna bera hustiratu nahi du, predikatzen duen autodeusezpeneko ebangelioan sinetsarazteko. Garbi asko deklaritzen du: «Euren bizitza pertsonalak esangura txikienik ere ez edukitzearaino txiro direnen armada handiari zuzentzen gatzazkio...»¹²⁵

Autosakrifiziozko prediku guzti honek helburu jakina dauka: masek etsi egin behar dute eta nagusien menpean jarri, liderraren eta «elitearen» botere-desira gauzatuko bada benetan. Baina irritis masokista bera aurki daiteke Hitlerrengan ere. Honentzat, bera menpean jartzen zaion goi-boterea Jainkoa, Patua, Beharizana, Historia, Natura da. Ukan, termino guzti hauek esangura berbera dute Hitlerrentzat: indar itogarriz hornituriko boterearen sinbolo dira. Bere autobiografia ere honako hau oharraraziz hasten du: «Zorte handia izan zen «Patuak» Braunau Inn-ekoa aukeratu izana nire sorterritzat».¹²⁶ Eta jarraituz dio, aleman herri guztiak Estatu bakar batean batu behar duela, zeren orduantxe bakarrik, hau denentzat txikiegia gertatzean, beharizanak emango diolako «zolu eta lurraldea eskuratzeko eskubide morala».¹²⁷

1914-18ko gerrako ausiabantza, haren ustez, «merezitako zigorra zen, «ordain eternalak» ezarria».¹²⁸ Beste arrazekin nahasten diren nazioek, «Probidentzia» eternalaren aurka egiten dute bekatu»¹²⁹, edo beste leku batean dioenez, «Kreatzaile» eternalaren aurka.¹³⁰ Alemaniaren eginkizuna «unibertsoaren Kreatzaileak»¹³¹ agindua da. «Zerua» gizakumeez gaidikoa da, zeren, zorionez, hauei iruzur egin baitakieke, «Zerua, ordea, ez dago erosterik.»¹³²

Baina Hitlerrengan Jainkoa, Probidentzia edo Patuak baino eragin handiagoa zuen boterea «Natura» zen. Azken lau mendeetako garapenaren joera gizakumeak domeinatzea barik natura menperetzea zen bitartean, Hitlerrek behin eta berriro dio gizakumeei ahal eta behar zaie-la agindu, baina ezinezkoa dela naturarengan gobernatzea. Aipatua dut haren honako baiezen hau, hots, gizateriaren historia ez zela seguraski animalien hezketaz hasi, behe mailako herrien domeinapenez baizik. Hitlerrek irigarri uzten du gizakumeak natura konkista dezakeen ideia, eta barre egiten die domeinatzaile izatera hel daitezkeenei «zeren pertsona hauek —dio— «ideia» bat beste armarik ez baitaude». Horrela baiezen du gizakumeak ez duela natura domeinatzen, ezipabere, zenbait natur lege eta sekreturen ezagupena oinarritat hartuz, ezagutza hori ez duten izakien jaun eta jabe bihurtu dela.¹³³ Berriro ere ideia bera aurkitzen dugu hemen: natura da menekotasuna eskaini behar diogun botere nagusia eta, bizidun izakiengan, hain zuzen ere, erabili behar dugu geure domeinua.

Saiatu naiz erakusten karaktere autoritarioari buruz funtsezkotzat deskribatu ditudan bi joeren presentzia Hitlerren idazkietan: gizakumeen-

ganako botere-irritsa eta kanpoko botere guztiahaldunarenganako menekotasuna. Hitlerren ideiak alderdi naziaren ideologiaren berdintsuak dira. Bere liburuan adierazten dituen ideiak, masengandik bere alderdiarekiko atxekimendua lortzeko kontatu ezin ahala hitzalditan erabili izan zituen berberak dira. Ideologia bere nortasunetik sortua da, zeina bere gutxiagotasun, bizitzarekiko gorroto, aszetismo eta bizitzaz gozatzen dutenenganako bekaizko sentimenduekin, bulkada masokisten iturburu baita, eta horrelakoxe irakaspenek erakarria eta kilikatua sentitzen zen jendeari zuzentzen baitzitzaizkien, era horretan, beren sentimendu berberak adierazten zituen gizonaren aldeko gartsu bihurtzen zirelarik. Baina ez zen soilik ideologia nazia erdiko klase behekoa asetzen zuena; praktika politikoak gauzatzen zituen ideologiaren agintzariak. Era honetan hierarkia bat sortu zen, bakoitzak nagusiren bat zuelarik beraren pean jartzeko eta menpekoren bat berarengan boterea erabiltzeko; gailurrean zegoen gizonak, liderrak, Patua, Historia, Natura zituen bere gainetik, euron goi-boterearen baitan murgiltzeko. Era honetan, ideologia eta praktika naziek biztanlegoaren zati baten karaktere-egituratik zetozen desirak asetzen zituen eta zuzendaritza eta orientabidea zemaiteen, boterea erabiltzean edo menekotasunean inolako gozamenik aurkitu ez arren ere, bizitzan, nor bere erabakietan eta gainerako guztian zuten fedea bertan behera uzteko erabaki etsia hartua zutenei.

Ba ote damaigute gogoramenok nazismoak gerora izango duen egonkortasunari buruz pronostikoren bat formulatu ahal izateko moduko arrastorik? Horrelako auresanik egiteko bereziki prestaturik sentitzen ez banaiz ere, uste dut merezi duela zenbait puntu esanguratsu seinalatzeak, eta bereziki honaino eskuartean erabili ditugun premisa psikologikoetatik eratorritakoak. Dauden baldintza psikologikoak ikusita, asetzen ote ditu nazismoak biztanlegoaren beharizana emozionalak eta funtzio psikologiko hau beraren egonkortasun hazkorra ekar dezakeen faktore ote da?

Orain arte esandakotik bistakoa da galdera honekiko erantzunak ezezkoa behar duela izan. Gizakiaren gizabanakotzea, «lokarri primario» guztien deusezteza, ezin da itzulbidean jarri. Erdi Aroko munduaren deusezpenak lauhun urte behar izan ditu eta geure aroan ari da guztiz burutzen. Industri sistema guztia eta produkzio era deuseztatu eta aro preindustrialean zeuzkan dimentsioetara ekarri ezean, gizakumeak, inguratzen duen mundutik erabat ialgitako gizabanako izaten segituko du.

Ikusia dugu gizakumeak ezin jasan duela askatasun negatiboa; utzitako lokarri primarioak ordeztuko diren lokarri berrietarantz ihes egiten saiatzen dela. Baina lokarri berriok ez dakarkioten benetako elkarketarik munduarekin. Ordaindu egin behar du segurtasun eskuraberria, bere niaren osotasunaz gabetuz. Bera eta aginte hauen arteko dikotomia ez da horregatik ezabatzen. Aginteek zapuztu eta hondatu egiten diote bizitza, kontzienteki eta nahita menekotu bazaie ere. Aldi berean, atomo bihurtu den mundu batean bizitzez gain, gizabanako bilakatzeko ahalbide guztiak luzatzen dizkion munduan ere bizi da. Industri sistema modernoak, ekonomiz denontzako segurra den bizimodurako bitartekoak produzitzeko ahalmen birtuala ez ezik, gizakumearen adimen, zentzu eta hunkipen-ahalmen guztien adierazpen osobetea ahaleztatuko duten oinarri materialak sortzekoa ere badauka, lanorduak, aldi berean, dextentzen murriztuz.

Ideologia eta praktika autoritarioaren funtzioa sintoma neurotikoen funtzioarekin konpara daiteke. Hauek baldintza psikologiko jasan ezin izaten dituzte, eta, aldi berean, bizitza posible egiten duen soluziobide bat eskaintzen dute. Hala eta guztiz ere, ez dira zoriontasunera edo nortasunaren hedakuntzara eramateko gauza den soluziobide. Soluziobide neurotikoa behar izan zuten baldintzak aldatzeke uzten dituzte. Giza izaeraren dinamismoa, soluziobide asebetegarriagoak bilatzeko joera duen faktore garrantzitsu bat da, eurok erdiesteko modurik izanez gero. Gizabanakoaren bakardade eta ezintasuna, garatuak dituen potentzialtasunak gauzatzeko ahalegina, industria modernoaren produkzio-ahalmen hazkorra den egitate objektiboa.., elementu guztiok, askatasun eta zoriontasunaren bilaketa gero eta gartsuagoaren oinarria egiten duten faktore dinamikoak dira. Sinbiosian aterpetzeak arin ditzake aldi batez sufrikarioak, baina ez ditu kentzen. Gizateriaren historia ez da bakarrik gizaletze-prozesu hazkorra, baizik eta baita askatasun hazkorreko prozesua ere. Askatasun-irritsa ez da indar metafisiko bat eta ezin esplika dezake lege naturalak; aitzitik, gizaletze-prozesuaren eta kulturaren hazkuntzaren ezinbesteko ondorioa da. Sistema autoritarioek ezin dituzte kendu askatasun-irritsa sortarazten duten oinarriko baldintzak; ezta baldintza berrietatik sortzen den askatasun-irritsa suntsitu ere.

VII ASKATASUNA ETA DEMOKRAZIA

1. Indibidualtasunaren ilusioa

Aurreko kapituluetan demostratzen saiatu naiz orokorrean industri sistemaren eta bereziki beronen fase monopolistaren faktore batzuek, indargabe eta bakarrik, larri eta ez-segur sentitzen den nortasun-mota garatzera eramaten dutela. Aipatu ditut Alemanian zeuden berariazko baldintzak, hango biztanlegoaren zati batengan lur emankorra aurkitu zutenak autoritario moduan deskribatu dudak karaktere-mota horrengan eragina izateko gauza izan zen ideologia eta praktika politikoa garatzeko.

Baina zer esan dezakegu guri geuri buruz? Gure demokrazia Atlantikoaz handiko faxismoak eta geure iladetan dugun «bostgarren zutabeak» bakarrik mehatxaturik aurkitzen al da? Hau balitz kasua, egoera serioa litzateke baina ez larria. Baina, nahiz eta kontutan izan behar ditugun faxismoaren barru eta kanpoko mehatxuak, aitortu beharra dago ez dagoela jokaera okerragorik eta arrisku handiagorik, gure geure gizartean faxismoa edonon sortzeko moduko lur emankorra den fenomeno berori edukirik, hots, gizabanakoaren ezereztasun eta ezintasuna, aurrez aurre daukagula ez ikustea baino.

Baiezpen honek errefusatu egiten du demokrazia modernoak, gizabanakoa kanpoko lokarri guztietatik askatzean, benetako indibidualismoa jadetsi duelako uste konbentzionala. Harro sentitzen gara kanpoko ezein aginteren menpean ez egoteaz, gure pentsamenduak eta sentimenduak adierazteko libre izateaz, eta egintzat jotzen dugu askatasun honek —ia automatikoki— bermatzen duela gure indibidualtasuna. «Gure pentsamenduak adierazteko eskubideak», hala ere, «gure geure pentsamenduak edukitzeko ahalmena badaukagu bakarrik du esangurarik»; kanpoko agintetik libre izatea, barru-barruko baldintza psikologikoak egiazko indibidualtasun gure geurea lorrarazteko modukoak badira ba-

karrik izango da garaitza bat. Erdietsi ote dugu helmuga hori, edo ari ote gara, bederen, horra hurbiltzen? Liburu hau giza faktoreaz ari da: beronen egitekoa, beraz, galdera hori kritikoki aztertzea da. Hau egitean lehen utzitako gai batzuk hartu behar ditugu berriro kontutan. Gizakume modernoaren askatasunaren aspektu biak eztabaidatzean, gaurreguneo garaian gizabanakoaren ezintasun eta isolamendura daramaten baldintza ekonomikoak seinalatu ditugu; egitate hauen ondorio psikologikoak jorratzean, erakutsi dugu ezintasun honek karaktere autoritarioan aurkitzen dugun iheste-mota horretara eramaten duela, edo konformetasun konpultsibora, zeinak eraginda gizabanako isolatua automatata bihurtzen baita, bere nia galduz eta, hala ere, aldi berean kontzienteki libre eta bere erabakimenaren pean bakarrik sentitzen baita.

Garrantzitsu da kontutan hartzea kulturak zenbateraino bultzatzen dituen konformismorako jaugin hauek, esenplu irrentxoentzat bakarrik lekua badago ere. Sentimendu espontaneon errepresioa, eta, beraz, indibidualtasun jatorraren garapenarena, goiz hasten da, umearen hezieraren hasiera-hasieratik.¹³⁴ Honek ez du esan nahi hezkuntzak ezinbestez eraman behar duela haurra espontaneitatearen errepresiora, baldin eta benetako helburua haurraren barne-independentzia eta indibidualtasuna, eta halaber haren hedakuntza eta osotasuna, sustatzea bada. Horrelako hezikerak umeari beronen garapen-aldian hala behar eta ezar diezazkiokeen murrizketak, neurri iragankorrek dira soilik, izatez hedaketa eta hazkunde-prozesua bultzatzeko balio dutenak direlarik. Gure kultura barruan, halabaina, hezkuntzak, sarriegi, espontaneitatea kentzera eta egintza psikiko originalen ordez kanpotiko emozio, pentsamendu eta desirak ezartzera jotzen du. (Originala esatean ez dut esan nahi, seinalatua dugun bezala, lehenago beste inork pentsatu gabeko ideia denik, baizik gizabanakoarengan sortua dela, beronen ihardueraren emaitza dela eta zentzu honetan «bere» pentsamendua duela). Adibide bat auke-ratzearen, «sentimenduen» errepresio-modu goiztiarrenetako bat etsaitasun eta gaitzerizkoari dagokiona da. Ume askok etsaitasun eta errebel-di-graduren bat agertzen du inguruan duten munduarekin dituzten gatazken ondorioz, hedabidea ixten baitie, haren aurrean, ahulagoak izanik, amore eman beharra izaten dutelarik eskuarki. Hezkuntz prozesuaren funtsezko helburuetako bat antagonismozko erreakzio hauxe ezabatzea da. Metodoak ezberdinak eta askotarikoak dira: haurra ikartzuten duten mehatxu eta zigorretatik hasi eta umea nahasi eta bere etsai-

tasuna uztera eramaten duten eroskeria edo «esplikazioko» metodoetaino doaz. Horrela haurra bere sentimenduen adierazpena ezabatzen hasten da, eta denbora joan ahal sentimenduok zeharo ezabatzen iristen da. Honekin batera, besteengan etsaitasuna eta zintzotasunik eza dagoenik ere ez erreparatzen irakasten zaio; batzuetan hau ez da hain erraz gertatzen, zeren haurrek badute besteengan kualitate negatibo horiek hautemateko nolabaiteko gaitasuna, hitzek errazegi engaina ditzaten utzi gabe, helduei eskuarki gertatzen zaien moduan. Haurrek norbaitenganako gaitzerizkoa sentitzen segitzen dute «inolako arrazoirik gabe», pertsona horrek irradiatzen duen etsaitasuna edo zintzotasunik eza den arrazoi sendoa salbu. Handik oso lasterrera erreakzio horrek gaitzespena jasotzen du: eta denbora luzerik ez da igaroko, haurrak helduen batez-besteakoaren «heldutasuna» hartu eta pertsona onestu eta doilor baten arteko bereizpena egiteko gaitasuna galdu arte, pertsona horrek nabarmenkeriaren bat jauki ez badu bederen.

Bestalde, laster bai laster haurrari hezkuntzan inondik inora ere «bereak» ez dituen sentimenduak izaten irakasten zaio; bereziki, jendearenganako sinpatia sentitzen, denekin adiskidetsu agertzen, bereizkeriarik egin gabe, eta irribarre egiten. Hezkuntzak lortu ezin duena gizar-tearen presioz erdiesten da gero. Irribarrerik egiten ez baduzu, ez daukazula «karaktere atsegina» esango da... eta eduki egin behar duzu, dela zerbitzari, dendari edo mediku-ihardunez eskaintzen dituzun zerbitzuak saldu nahi badituzu. Piramide sozialaren oinarrian daudenak, hots, beren lan fisikoa besterik saltzen ez dutenak, eta gailurrean daudenak dira bereziki «atseginak» izateko premiarik ez duten bakarrak. Adiskidetasuna, alaitasuna eta irribarre batek adierazten duela susposatzen den guztia, argiaren giltza moduan biztu eta itzaltzen den erantzun automatiko bilakatzen da.¹³⁵

Kasu askotan, jakina, gizabanakoa koturatzen da keinu hutsa dela berak egiten duena; baina gehienetan galdu egiten da nozio hau eta beronekin batera zer den pseudosentimendua eta zer berezko adiskidetasuna bereizteko ahalmena ere bai.

Eta ez da soilik etsaitasuna zuzenean ezabatzen dena eta adiskidetasuna hiltzen dena, euroi faltsutasuna ezartzean, ezpabere emozio espontaneoen gama zabal bat da erreprimitu eta pseudosentimenduez ordeztzen dena. Freudek kontutan izan du errepresio hauetako bat eta bere sistemaren erdigunean jarri du: sexuaren errepresioa hain zuzen. Nik

neuk uste dudan arren gozamen sexualaren mugapena ez dela erreakzio espontaneoan errepresio garrantzitsu bakarra, beste askoren artean bat baizik, ezin gutxiets daiteke, inola ere, beronek duen garrantzia. Honen ondorioak begibistakoak dira inhibizio sexualen kasuan eta baita sexualtasuna, izaera konpulsiboa hartu eta aparteko gusturik ez onurarik ez duen droga bat legez nor bere buruaz ahanzteko soilik asetzen den kasuetan ere. Ondorio batean zein bestean, errepresioak, bortitza izaki sexu-desira, ez du eragina esfera espezifikoa honetan soilik, beste eremu guztietan ere ahuldu egiten baitu gizabanakoak bere sentimenduak espontaneoki adierazteko duen gaitasuna.

Gure gizartean gaitzetsi egiten dira, eskuarki, sentimenduak. Pentsamendu sortzaile oro, beste edozein iharduera espontaneo bezalaxe, emozioei aldentezinki bigizaturik daudela zalantzan nekez jar daitekeen arren, eurok barik bizi eta pentsatzea idealtzat jarria da. «Hunkiberra» izatea gaixotia edo desorekatua izatearen sinonimo bihurtu da. Arau hau onartzean, gizabanakoa zeharo ahuldu da; pobretu eta kamustu egin zaio pentsamendua. Bestalde, hunkipenak erabat ezabatu ezin direnez, nortasunaren adimen-alderditik erabat aldenduriko existentzian iraun beharra dute; emozio-gose diren milioika bezerori zineak eta herri-musikak eskaintzen dion sentimendu merke eta zintasunik gabekoa, guzti honen ondorio besterik ez da azken batean.

Bereziki aipatu nahi dut, askoren artean, hunkipen debekatu bat, beronen errepresioak sakonki ukitzen dituelako nortasunaren erroak: tragedi sena. Aurreko kapitulu batean ikusia dugunez, heriotzaren eta bizitzaren alderdi tragikoaren kontzientzia —argiro edo ilunki hautemateak garrantzirik ez duelarik—, gizakumearen oinarrizko ezaugarri bat da. Kultura bakoitzak bere erara egiten dio aurre heriotzaren problemari. Gizaletze-prozesuak aurrerakada handirik egin ez duen gizarteetan, bizi indibidualaren bukaera ez da arazo, bizi horren esperientzia bera ere ez baita oraindik garapenera iritsi. Ez daukate heriotza bizitzatik funtsean ezberdintzat. Gizaletzearen garapen handiagoa hautematen den kulturetan, ostera, kultura horren egitura psikologiko eta sozialaren araberako aintzatespena ematen zaio. Greziarrek biziaren garrantzia azpimaratzen zuten eta existentziaren iraupen lanbrotsu eta iluna besterik ez den zerbait legez iruditzen zuten. Egiptoarrak giza gorputzaren suntsie-zintasunean oinarritzen zituzten beren esperantzak, behintzat beren bizitzan aginpide suntsiezina izandakoen kasuan. Juduek errealismoz

onartzen zuten hil beharra, eta bizi indibidualaren hondamendiaren ideiarekin bakeak egiteko modua zuten, gizateriak zorientasun eta justizi egoera azkenean mundu honetan lortuko zuela ikusten baitzuten. Kristautasunak heriotza irreal bihurtu du eta gizabanako zorigaitzokoa kontsolatzen saiatu da, geroko biziaren aginduz. Gure garaia heriotza ukatzera mugatzen da, eta, honekin batera, biziaren alderdi funtsezko bat. Heriotza eta sufrimenduaren autokontzientzia bizitzako bultzagarrikerik indartsuenetako bat, giza elkarkidetasunaren oinarria bera eta zorientasunari eta entusiasmoari bizitasuna emateko ezinbesteko esperientzia izaten utzi beharrean, gizabanakoa berau erreprimitu beharra dauka. Baina, errepresioan beti gertatzen den moduan, bistatik kentze hutsak ez du ezeztatzen elementu erripimituen iraupena. Bizirik dirau, ukatzen ahalegindu arren, baina erreprimetua izanik antzu geratzen da. Era honetan heriotzaren beldurra existentzia ez legezkoa bizi du gure artean. Beste esperientzien kamusketaren, bizitzan sartzen den goganbeharraren kausetako bat da, eta, hau ere ausartuko nintzateke esaten, berak esplikatzeko du herri honetan hiletengatik jendeak ordaintzen duen dirutza gehiegizkoa.

Hunkipenen debekuaren prozesuan, psikiatria modernoak paper ambiguo jokatu du. Alde batetik, beronen errepresentatzaile esanguratsuenak, Freudek, giza izpirituari izaera arrazional helburutsua iratxekitzen zion fikzioa jo eta hautsi egin zuen, giza grinen leizera begiratze-ko aukera eman zigularik. Beste aldetik, psikiatria, Freuden aurkikunde berek aberastuta, seinatuak ditugun giza nortasunaren manipulaketan gailenen diren joeren tresna bihurtu da. Psikiatra askok, psikoanalistak ere barne, sekula ere tristeezia, suminduegia edo urduriezia ez den nortasun «normalaren» koadroa marraztu dute. «Haur-...» edo «neurotikoa» bezalako berbak erabiltzen dituzte gizabanako «normalaren» eredu konbentzionalarekin ados ez datozen berezitasunak edo nortasun-motak salatze-ko. Jokaera-mota hau, zentzu batean, arriskugarriagoa da gauzei izena jartzeko aintzina erabiltzen ziren era gordinagoak baino. Orduan gizabanakoak bazekien bederen pertsona edo doktrinaren bat zegoela bera kritikatzeko zuena eta defentsarako bidea zuen, baina orain nor defendatu «zientziaren» kontra?

Sentimenduak eta hunkipenak bezalakoxe nahasmendua jasaten du «pentsamendu» originalak ere. Hezkuntzaren hasiera-hasieratik, gaitzetsia da pentsamendu originala eta jendeak inork prestatutako pen-

tsamenduz betetzen du burua. Hau umeekin nola lortzen den, erraz erraz hautematen da. Munduari buruz jakinguraz gainezka daude, oratu egin nahi diote fisikoki eta intelektualki. Egia ezagutzeko irrikaz daude, horixe delako mundu indartsu eta estrainioan orientatzeko bide ziurrena. Baina inork ez ditu seriotan hartzen, eta honetan ez dio axola jarrera horrek hartzen duen formak: nabariki kasurik egin gabe edo etorkortasun sotilez hartuz (botererik ez dutenak, hala nola haurrak, zaharrak edo gaixoak, tratatzeko ohizko era). Trataera honek berez ere pentsamendu independenterako gogoia sakonetik kentzen badu ere, zailtasun handiagorik bada: zintasunik eza —intenziorik gabekoa maiz—, helduaren haurrarenaganako jokabidean hain tipikoa dena. Zintasunik ez hau, haurrei ematen zaien munduaren irudi hain fikziozkoan ageri da alde. Sahararako espedizio baterako nola prestatu behar duen galdetzen duenarentzat, Arktikoan bizitzeko argibideak jasotzea bezain baliagarria da hau. Munduarekiko aldrebeskeria honez gain, gezur zehatzik ere asko dago egitateak ezkutatzeko erabiltzen direnak, hainbat eratako arrazoi pertsonalak medio, helduek haurrak jakiterik nahi ez dutelako. Haurren portaerarengatik deskontentamendu justutzat arrazionaltzen den haserrealdi batetik hasi eta gurasoen arteko harreman sexualak eta errietak estaltzeraino, beti dira haurrek «jakin behar ez dituzten» kontuak, eta haren galderak ezespena aurkitzen dute beti, gogorra edo biguna.

Horrela prestaturiko haurra lehen eskolara edo goragokora hasten da. Pentsamendu originala eragozten duten hezkuntz metodo batzuk aipatu nahi ditut. Lehenengoa egitateei, edo hobeto, informazioari ematen zaion garrantzia da. Nagusi da honako sineskeria patetiko hau, hots, egitateak eurrez jakinez gero, errealtatea ezagutzera irits daitekeela. Horrela ehundaka egitate isolatu eta lotura gabeko deskargatzen dira ikasleen burura; euren denbora eta energia gero eta egitate gehiago ikasten galtzen dira, halako moldez non pentsamendua erabiltzeko zirrikiturik ez baitzaie geratzen. Egia da egitateen ezagupen egokirik gabe pentsatzea hutsa eta gezurrezkoa litzatekeela; baina teoria gabeko «informazioa» berau ez edukitzea bezainbeteko oztopoa izan daiteke pentsamendurako.

Pentsamendu originalerako gogoia kentzeko beste era bat, aurrekoarekin hertsiki lotua, egia oro erlatibotzat hartzea da.¹³⁶ Egia kontzeptu metafisikotzat dago eta norbaitek egia aurkitzeaz hitz egiten duenean, gure garaiko pentsalari «aurrerakoiek» atzerakoitzat jotzen dute. Egia

zeharo subjektiboa dela deklaratzeko da, gustu kontu hutsa ia. Ahalegin zientifikoa faktore subjektiboetatik aske izan behar du, eta munduari grinarik ez interesik gabe begiratzea du xede. Jakintsuak eskuak esterilizatuta hurbildu behar du egitateetara, kirurgilaria bere gaixoarengana bezalaxe. Sarriaskotan enpirismoaren edo positibismoaren izenean aurkezten den edo hitzen erabilera doiaeren ardurak karakterizatzen duen erlatibismo honen ondorioa, pentsamenduak bere funtzezko bizgarria hots, pentsatzen duen pertsonaren desira eta interesak galtzea da; honen lekuan, aitzitik, «egitateen» erregistragailu bat sortzen da. Pentsamendutik, orokorrean, bizi materiala menderatzeko beharrezana sortzen den moduan, egiaren bilaketa gizabanako eta talde sozialen interes eta premietan errotzen da. Interesok barik, egia bilatzeko pozkari oro ezabatuko litzateke. Beti daude taldeak egia euren interesen alde dutenak, eta berauen ordezkariak izan dira giza pentsamenduaren aintzindariak; eta egiazkoa dena estaltzeak mesede egiten dien taldeak ere badaude. Kasu honetan bakarrik gertatzen da interesa egiaren xedeetarako kaltegarri. Arazoa ez da, beraz, interesen bat jokoan izatea, «zernolakoa» den jokoan dagoen interesa baizik. Esan genezake, gizaki guztietan egi irriksik dagoen heinean, gizakume orok nolabaiteko horren premia daukalako dela.

Guzti hau egia da, lehenik eta behin, gizabanakoak kanpoko munduan hartu beharreko orientabidearekiko, eta bereziki haurrei dago kienez. Haurtzaroen gizaki orok ezintasun-egoera izaten du, eta egia da tresnarik ahaltsuenetako bat botererik ez daukatentzat. Baina egia gizabanakoaren interesei lotuta dago, ez bakarrik kanpoko munduan hartu beharreko orientabideari dagokionez; gizabanakoaren indarra ere, bere buruarekiko duen egiazko ezagupenaren mende dago hein handi batean. Norberaren buruarekiko ilusioak makulu baliagarriak izan daitezke, agian, bakarrik ibiltzeko modurik ez dutenentzat; baina, zalantzarik ez, gehitu egiten dute gizabanakoaren ahultasuna. Haren indarrak handiena nortasunaren integrazio ahalik handienez oinarritzen da, eta honek bere buruarekiko ahalik gardentasun handiena esan nahi du. «Ezagut ezak heure burua» manamendu funtsezkoenetako bat da gizakumeen indar eta zoriona segurtatzeko.

Aipatu berri ditugun faktoreez gain, badira beste batzuk ere erdi-mailako gizabanakoari pentsamendu originalerako ahalmenetik gertatzen zaiona nahasten aktiboki laguntzen dutenak. Bizitza indibidual eta

sozialeko oinarritzko problema guztiekiko, arazo psikologiko, ekonomiko, politikoa eta moralekiko, gure kulturako sektore handi batek funtzio bakar bat betetzen du: gauzak lanbrotu. Ke-errediza mota bat, arazoak gizakume arruntak atzemateko baino konplexuagoak direla esatea da. Guk, aitzitik, uste dugu bizitza indibidual eta sozialeko arazorik asko oso sinpleak direla, hain sinpleak non, eurok ulertzeko baldintzetan denak daudela suposatu beharko baikenuke. Arazoak ulertzeko «espezialista» bat, eta bere eremu mugatuan bakarrik, behar izaterainoko korapilatsu demasak bailiren agertarazteak, mesfidantza sortzen du —intenzioz batzuetan— gizabanakoengan, benetan interesatzen zaizkien arazoez pentsatzeko gaitasunik ote duten. Gizakumeak datu-masa kaotiko batek harrapatuta aurkitzen dira ezer egin ezinik, eta pazientzia patetikoz geratzen dira espezialistak zer egin eta norantz jo esan arte zain.

Eragin-mota honen emaitza bikoitza da: alde batetik eskeptizismoa eta zinismoa esan edo idatz dadin guztiaren aurrean eta, bestetik, autoritatez baieztan denaren haur-onarpena. Zinismo eta xalotasunaren konbinapen hau gizabanako modernoaren ezaugarri tipikoa da. Beronen funtsezko ondorioa, pertsona horri bere kabuz pentsatu eta erabakitze gogoa kentzen zaiola da.

Kritikamenez pentsatzeko ahalmena gerarazteko beste era bat, munduaren ideia egituratu oro deusezte da. Egitateek, egitura oso baten zati direlako soilik duten kalitate galdu egiten dute, eta esangura abstraktu eta kantitatezkoa soilik mantentzen dute; egitate bakoitza, «beste egitate bat» baino ez da, eta axola diona gehiago dakigun ala ez besterik ez da. Irratiak, zinemak eta prentsak eragin errausgarria dute honetan. Hiri baten bonbardaketaren eta ehundaka pertsonen heriotzaren albisteari, xaboi edo ardo baten propaganda-iragarkiak darraikio, edo eteten du, lotsagabeki. Iragartzai bera, egoera politikoaren larritasunaz konbentzitzeko erabili berri duen ahots iradokarri, sarkin eta autoritario beraz saiatzen da orain bere publikoari albiste emanaldia ordaindu duen xaboi-marka horren merezimenduak sarrarazten. Zinemako albistegiak modako erakuskariak aurkezten dizkigute ontzi torpedatuen irudien ondoren. Egunkariak izar berriren baten ideia zarpailez edo gossaritako azturez ari zaizkigu garrantzi zientifikoa edo artistikodun gertakariak tratatzen diren seriotasunez eta lekune berdina emanez. Hau dela eta, entzuten dugunarekiko benetako interes guztia galtzen dugu. Ez gaitu kilikatzen, gure hunkipenek eta erizmen kritikoak oztipoak aur-

kitzen dituzte, eta denbora joan ahala munduan jazotzen denarekiko dugun jarrera, aiherga eta kamuts bihurtzen da. «Askatasunaren» izenean bizitzak egitura oro galtzen du, pieza txikiak murrizten baita, bakoitza besteetatik banandua, eta osotasun bezala zentzurik bat ere gabe. Gizabanakoa bakarrik utzita sentitzen da piezon aurrez aurre, haurren burohauskarriaren aurrean bezala; alde batekin, hala ere: honek etxe bat zer den eta, beraz, jolasaren zatietan etxearen zatia igartzen ere badakien bitartean, heldua ez da iristen eskuan dituen zatiei dagokien «osotasunaren» esangura ikustera. Txunditurik eta beldurrez dago eta zentzu gabeko piezatxoak begiratu besterik egiten ez du asmatzen.

Pentsatu eta hunkitzeko «originaltasunik» ezaz esan denak, nahimenarekiko ere balio du. Honetaz konturatzen bereziki zaila da; edonola ere badirudi gizakume modernoak desira gehiegi edo dituela, eta bere arazo bakarra, hain zuzen ere, zer nahi duen jakin arren, eskuratu ezin izatea dela. Indar guztiak erabiltzen ditugu geure desirak bete nahian, eta pertsonarik gehienek sekula ez dituzte eztabaidatzen iharduera horren premisak; inoiz ere ez die beren buruei galdetzen zeintzuk diren beren egiazko desirak. Ez dira geratzen pentsatzen ea erdietsi nahi dituzten xedeak berek, berek eurek, nahi dituztenak direnentz. Eskolan nota onak nahi dituzte eta handi egiten direnean gero eta arrakasta handiagoa lortu nahi dute, gero eta diru gehiago metatu, lekuri onenetara joan eta horrelakoxeak. Hala ere, iharduera apoderatu honetan sartu-sarturik daudela, galdera bat erne dakieke izpirituan: enplegu berri hau lortzen badut, kotxe hobe bat erosten badut, bidaiak hiru egiten badut... zer erdietsiko dut? Zein da benetan guzti honen xedea? Ez ote da zoriontsu egin beharko nindukeen helbururen baten atzetik nabilela, eta, egiaz, lortu besterik ez eskutik ihes egiten didala. Horrelako galderak agertzen direnean izaturik sentitzen da bat, gizakumearen iharduera guztiaren euskarri den oinarria, norberaren desiren euren ezagupena, jartzen baitute zalantzan. Horregatik jendeak hain pentsamendu kezkarrietatik ahalik azkarren askatzera jotzen du. Uste dute nekasioak edo umore txarrak ekarrita ari zaizkiela pentsamenduok molestatzeko... eta berenak dituztela uste duten xedeetan atzetik segitzen dute.

Eta, hala ere, guzti honek egiaren agerpen lanbrotu bat seinaltzen du: gizakume modernoa zer nahi duen badakielako ilusiopean bizi dela, egiaz, nahi izan behar duela suposatzen dena besterik ez desiratu arren. Baiezpen hau onartzeko konturatu beharra dago nork berak bene-

tan zer nahi duen jakitea ez dela batzuek uste bezain gauza erraza, giza-kiak aurrez aurre duen problemarik konplexuenetako bat baita. Indar guztiak erabiliz saiatuko gara egiteko honi ihes egiten, lehendik inork egindako xedeak geure nahimenaren fruitu balira bezala onartuz. Gizakume modernoa arrisku handiei aurre egiteko dago prest, «bereak» dituela suposatzen diren xedeak erdiesteko, baina sakon-sakonetik da beldur bereak dituzkeen xedeak forjatzeko erantzunkizuna bere gain hartzeko. Sarritan hartzen da ihardueraren trinkotasuna ekintza autoderminatuaren frogagarritzat, baina badakigu jokabide hori hipnotizatu batena edo aktore batena baino espontaneitate gutxiagokoa ere izan daitekeela. Antzezlanaren bilbe orokorra ezagututa, aktore bakoitzak indartsu antzez dezake berari dagokion zatia eta ekintzaren zenbait zehaztasun bere kabuz sortu ere bai. Hala ere, esleitu zaion paper bat antzeztu besterik ez du egiten.

Gure desirak —pentsamenduak eta hunkipenak bezalaxe— egiaz geureak ez ditugula, kanpotik hartuak baino, aitortzeko dagoen zailtasun bereziak, zerikusi handia du agintaritzaren eta askatasunaren arazoarekin. Historia modernoan zehar, Elizaren agintaritzak Estatuak ordeztu zuen, honena kontzientziaren aginduak, eta, gure garai honetan, azken hau, sen arruntaren eta eritzi publikoaren aginte anonimoak ordeztu du, konformismoaren tresna izanik biok. Aginte era zahar nabarietatik askatu garenez, ez gara konturatzen orain botere-molde berri baten presoner garenik. Erabakimendun gizabanakoak garen ilusiopean bizi garen automata bihurtu gara. Ilusio honek beren segurtasunik ezaz konturatu barik bizitzen laguntzen die pertsoneri, baina horixe da beronek eman diezagukeen laguntza guztia. Gizabanakoaren nia bere mui-nean ahuldurik atera da, indarge eta arras ez-segur sentitzeraino ahuldurik. Gizabanakoa, inguruarekiko lotura jator oro galdu dueneko mundu batean bizi da, non pertsona guztiak eta gauza guztiak tresna bilakatu diren eta non bera ere, berak bere ezkiez egindako makinaren zati bat besterik ez den. Beraregandik besteek espero dutela uste duen huraxe pentsatzen du, huraxe sentitzen du eta huraxe nahi du, eta prozesu honetan gizabanako librearen segurtasun ororen oinarri izan beharko lukeen bere nia galtzen du.

Nia galtzeak gehitu egin du konformismo beharra, norberaren identitateari buruzko duda sakona sortarazten du eta. Besteek nik izan behar dudala suposatzen dutela uste dudana besterik ez banaiz..., nor

naiz egiatan ni? Ikusi dugu norberaren niarekiko duda, Erdi Aroko mundua, non gizabanakoak leku segurua zeukan ordenu tinko baten barruan, amiltzeaz batera hasten dela. Gizabanakoaren identitatea izan da filosofia modernoak, Descartesengandik hasita, izan duen luze-zabalgo handieneko arazoa. Gaur suposatutzat jotzen dugu zer garen. Hala ere, gure izateari buruzko dudak irau dirau oraindik eta are handitu egin da. Pirandellok ere bere obretan gizakume modernoaren sentimendu berau adierazten du. Honako galdera honekin hasten da: «Nor naiz ni? Zer froga dut nire neure identitateaz neure ni fisikoaren iraupena besterik?» Honen erantzuna ez da Descartesena bezalakoa —ni indibidualaren baiezpena—, beronen ukazioa baizik: ez daukat identitaterik, ez dago nirik, besteek espero duten niaren isladapena ez denik; ni «zeuk nahi nauzun modukoa» naiz.

Orduan, identitatearen galtze honek are larriago egiten du konformismo beharra: besteek itxarobidea betetzea lortzen duen neurrian bakarrik egon daitekeela bat bere buruaz seguru esan nahi du. Lortu ezean, publikotik ezabatzeke eta gero eta isolatuago egoteko arriskuan aurkitzeaz gain, geure nortasunaren identitatea galtzera ere arriskatzen gara, honek geure osasun psikikoa galbidean jartzea esan nahi duelarik.

Besteen itxarobideetara moldatzean, besterik ez bezalakoa ez izaten saiatzean, geure identitateari buruzko zalantzak isilaraztea lortzen dugu eta horrela segurtasun-graduren bat geureganatzen. Baina guzti honen prezioa garestia da. Espontaneitatea eta gizabanakotasuna bazterrean uzte honen ondorioa bizitza zapuztea da. Ikuspuntu psikologikotik, automata, biologiaz bizirik badago ere, buruz eta hunkipenez hilda dago. Bizitzeko mugimendu guztiak burutzen dituen aldi berean, biziak hareak bezala egiten dio ihes eskuetatik. Poz eta optimismozko fatxadaren atzean, gizakume modernoa sakon-sakonetik da zoritxarreko; etsipenean behera erortzeko dago, egon. Gizabanakotasunaren nozioari atxekitzen zaio etsi-etsian; ezberdina izan nahi du, eta ez dauka gomendio hoberik edozerentzat «hori diferentea da» esatea baino. Txartela erosten diogun trenbideetako enpleguak nola duen izena esaten digu; maletak, kartak eta irrati erabilkorrak «pertsonalizatu» egiten dituzte jabearen inzialak ezarriz. Guzti honek «ezberdintasun»-gosea dagoela adierazten du, baina oraindik geratzen diren nortasunaren ia azken az-tarnak dira. Gizakume modernoa bizi-gose da. Baina automata izanik ezin duenez bizitza iharduera espontaneo bezala bizi, ordezkotzat kili-

kadura edo dardara eragin liezaiokeen edozer onartzen du: edariak, kirolak edo pantailako fikziozko pertsonaien ilusiozko bizitzarekin identifikatzea.

Zein da, orduan, gizakume modernoarentzat askatasunak duen esanahia?

Askatu da, egoki deritzonaren arabera jokatu eta pentsatzea galezaraziko zioketen kanpoko lokarrietatik. Orain bere nahiaren arabera jokatzeke aske izango litzateke, zer nahi duen eta zer pentsatzen eta sentitzen duen baleki. Baina ez daki. Aginte anonimoen aginduetara moldatzen da eta berea ez duen nortasuna hartzen du. Zenbat eta horrela jokatuago, orduan eta indargeago sentitzen da, eta orduan eta behartuago konformatzera. Optimismo eta ekimenezko disfrazta eraman arren, gizakume modernoaren ezintasun-sentimendu sakon batek azpiratuta sentitzen da, honek gainera datozkion katastrofeei tinko-tinko begira eta elbarrituta moduan jartzen duelarik.

Azaletik ikusita, jendeak ondo samar daramatza bere bizitza ekonomikoa eta soziala; halabaina, oso arriskugarri litzateke ongizatearen estalduraren atzean gordetzen den sakonki erroturiko zoritxarra ez hautematea. Bizitzak bere zentzua galtzen badu nork berak bizi ez duelako, gizakumea etsipenera iristen da. Inor ez dago prest bere buruari ahidura psikikoz hiltzen uzteko, ahidura fisikoz ere inor hilko ez litzatekeen bezala. Beharrian ekonomikoa bakarrik kontutan izatera mugatzen bagara, pertsona «normalei» dagokienez, erdi-mailako gizabanako automatizatuaren sufrimendua ikustera heltzen ez bagara, orduan ez gara konturatu izango gure kultura beronen giza oinarritik mehatxatzen ari den arriskuaz: edozein ideologia eta edozein lider onartzeko prest egotea, beti ere kilikadura emozionala agintzen badute eta egitura politiko bat eta gizabanakoaren bizitzari esangura eta ordena damazkioten sinboloak eskaintzeko gai badira. Giza automataren etsipena lur emankorra dute faxismoaren helburu politikoez.

2. Askatasuna eta espontaneitatea

Honaino liburu honetan, askatasunaren alderdi bat jorratu dugu: gizabanako isolatuak gizarte modernoan sufritzen duen ezintasuna eta segurtasunik eza, behinola bere bizitzari esanahia eta segurtasuna zemaioeten lokarri guztietatik askatu ondoren. Ikusi dugu gizabanakoak

ezin duela isolamendu hau jasan: izaki isolatua denez, kanpoko munduarekiko zeharo babesge aurkitzen da eta, beraz, beldur latza damaio; eta isolatuta dagoelako, munduaren batasuna hautsi egin da berari dago-kionez, eta ez du jada orientatzeko punturik. Horregatik bere buruaz, bizitzaren esanahiaz, eta, azkenez eta nagusiki, egintzen printzipio zuzentzaile oroz duen ezbaiak azpiratuta dauka. Zein babesik ezak zein ezbaiak elbarritu egiten dute bizitza, eta, horrela, gizakumea, bizitzeko, eskuraturiko askatasunari, hots, askatasun negatiboari, ihes egiten saiatzen da. Era honetan lokarri berrietara abiarazita sentitzen da. Hauek lokarri primarioetatik diferenteak dira, nahiz eta hauetatik ere guztiz aldentuta ez zegoen, agintarien edo talde sozialaren domeinupean egonda ere. Askatasunari ihes egiteak ez dio bihurtzen galdutako segurtasuna, zeren entitate banandua dela ahanzten lagundu besterik ez baitio egiten. Beste segurtasun berri eta hauskor bat aurkitzen du bere ni indibidualaren osotasuna sakrifikatzearen truke. Bere nia galtzea aukeratzen du, bakardadea jasan ezin duelako. Horrela askatasunak —zerbaitetiko askatasunak— katea berrietara darama.

Esan al daiteke gure tesia askatasunetik menpetasun era berrietara daraman zikloa ekidinezina dela dioen konklusiorako bide dela? Lokarri primarioetatik askatzeak halako bakardade eta isolamendura jaurtitzen al du gizabanakoa, non ekidinezinki lokarri berrietan babestera behartzen duen? «Independentzia» eta askatasuna bananezinak al dira «isolamendu» eta beldurretik?. Edo ez ote da, aitzitik, askatasun positiboko egoera bat, non gizabanakoa ni independente moduan bizi baita, isolaturik barik munduarekin, beste gizakumeekin, naturarekin elkartuta?

Erantzuna baiezkoa dela uste dugu, askatasunaren garapenaren prozesua ez dela gurpil zoro bat, eta gizona izan daitekeela libre, bere burua bakarrik aurkitu barik; kritikoa, zalantza handitu barik; independente, gizateriaren osagai eta zati izateari utzi gabe. Gizakumeak askatasun hau, bere nia gauzatu, benetan dena izanez, lor dezake. Zer da nia gauzatea? Filosofo idealistek uste izan dute autogauzatea adimeneko intuizioz bakarrik erdiets daitekeela. Giza nortasunaren arrakala azpimarratu dute, gizakumearen natura arrazoimenak kendu eta gorde behar zuela esanez. Banankuntza honen ondorioa gizakumearen hunkimenaren ahalmenak ez ezik, adimenarenak ere mailatzea izan zen. Arrazoimena, bere presonerraren, naturaren, jagole bilakatzean, bera ere

gatibu bihurtu zen, horrela giza nortasunaren alderdi biak, arrazoimena eta hunkimena, mailatu zirelarik. Uste dugu niaren gauzatzea ez dela pentsamenduaz soilik erdiesten, gizabanakoaren nortasun osoaz, bere hunkimenezko eta adimenezko ahalmen guztien adierazpen eraginkorraz, baizik. Ahalmenok denok dauzkagu, baina eurok adieraztea lortzen den neurrian gauzatzen dira. Bestela esanda, «askatasun positiboa nortasun oso eta integratuaren iharduera espontaneoan datza».

Psikologiaren arazorik zailenetako bati ematen diogu aurre hemen: espontaneitatearen arazoari. Gai honen eztabaida egoki bat planteatzen saiatzeak beste liburu bat beharko luke. Hala ere, orain arte esan dena oinarritzat hartuta, irits daiteke, kontrastearen bidez, iharduera espontaneoaren funtsa ulertzera. Hau ez da, gizabanakoaren isolamendu eta ezintasunaren ondorio den iharduera konpultsiboa; ez da iharduera automata ere, kanpotik sorturiko arauak kritikoki hartzea besterik ez dena. Iharduera espontanea niaren iharduera librea da eta, ikuspuntu psikologikotik, latinezko «spōnte» erroari datzekion esangura literala inplikatzan du: norberaren nahimen librearen erabilera. Ihardueraz hitz egitean ez gara «zerbait egiteaz» ari, baizik eta hala hunkipen, adimen eta zentzuen esperientzian nola nork bere nahimena erabiltzean aurki dezakeen sortzailetasunaz. Espontaneitate honen premisetako bat nortasun osoa onartzean eta «natura» eta «arrazoimenaren» arteko aldeak kentzean datza; zeren iharduera espontanea bakarrik gerta baitaiteke, gizakumeak bere niaren muineko zatiak erreprimitzen baditu, bere buruarekiko garden izatera heltzen bada eta bizitzako eremu ezberdinek oinarritzko integrazioa lortu badute.

Espontaneitatea gure kulturaren fenomono erlatiboki bakana bada ere, ez gaude erabat haingabe. Arazo hau ulertzen laguntzeko, komenigarri ikusten dut irakurleari zenbait adibide gogoraraztea, espontaneitatearen isladapen bat erreparatzeko ahalbidea ematen digutenak.

Lehenik, ezagutzen dugu espontaneoak diren —edo izan diren— zenbait gizabanako; euren pentsamendu, hunkipen edo egintzak beren niaren, eta ez automata baten, adierazpen, dituzten pertsonak. Horrelako gizabanakoak artista izenarekin ezagutzen ditugu batez ere. Defini ere, artista bere burua espontaneoki adierazteko gai den pertsona defini daiteke. Artistaren definizioa hau balitza —Balzacek horrelaxe definitzen zuen bere burua—, orduan zenbait filosofo eta zientzilariri ere artista esan beharko litzaieke, beste batzuk euren ondoan, aintzinako argazki-

lari moduko bat margolari sortzaile baten ondoan dena izango liratekeelako. Badira beste pertsona batzuk, medio objektibo batean, artistak bezala, beren barrukoa adierazteko gaitasunik —edo agian trebakuntzarik— ez duten arren, espontaneitate beraren jabe direnak. Artistaren egoera, alabaina, zaurigarria da, arrakasta lortzen duen espontaneitatea edo indibidualtasuna bakarrik errespetatzen baita; bere artea saltzera iristen ez bada, desorekatutzat, «neurotikotzat» joko dute garaikideek. Ikusgune honetatik, artistaren egoera, iraultzaileak historian zehar daukanaren antzekoa da. Arrakastadun iraultzailea estatugizona da, arrakastarik lortzen ez duena, kriminala.

Haur txikitxoek ere eskaintzen dute beste espontaneitate-adibide bat. Benetan «berena» dutena sentitu eta pentsatzeko gaitasuna dute: espontaneitate hau esaten eta pentsatzen dutenean agertzen da, beren aurpegietan islatzen diren sentimenduetan. Hainbeste jenderengan haurrek duten erakarpenaren zergatiaz galdetuz gero, nik uste, arrazoi konbentzional eta sentimenduzkoak albo batera utzita, espontaneotasun horixe dela erantzun behar dela. Hau hautemateko gai ez izateraino hilda ez dagoen edonor erakartzen du sakonki. Izan ere, ez dago ezer espontaneitatea baino erakarkorrago eta konbentzigarriagorik, haur batengan, artista batengan edo daukaten adin edo lanbidearengatik kategoriatuak ez diren pertsonengan.

Gutariko askok sentitu ahal dugu espontaneitatezko uneren bat bederen, aldi berean benetako zoriontasunezko uneak izan ohi direnak. Behin dela paisaia baten hautemate fresko eta espontanea, edo gure pentsamenduaren ondorioz sortu den egia bat, edo estereotipatu gabeko plazer zentzualen bat, edo norbaitenganako amodioaren sorrera,... une guztiotan dakigu egintza espontanea zer den eta horrela, esperientziok jazoera hain bakan eta gutxi landuak ez balira, bizitza izango litzatekeen ikuspegia geureganatzen dugu.

Iharduera espontanea zergatik da askatasunaren arazoaren soluziobide? Esan dugu askatasun negatiboak gizabanakoa izaki isolatu bihurtzen duela, munduarekin duen harremanetan urrunduta eta beldurrez sentitzen den izaki, ni ahula duena eta etengabeko mehatxupean ari dena. Iharduera espontanea da gizakumeak daukan bide bakarra bakar-dearen izua gaintzeko niaren osotasuna sakrifikatu barik; zeren niaren gauzapen espontaneoan batzen baita gizabanakoa gizakumearekin, naturarekin, bere buruarekin. Maitasuna da espontaneitate horren funtsez-

ko osagaia; maitasuna ez beste batengan disolbatzetzat hartuta, maitasuna ez bestearen jabe izateko bide, baizik maitasuna bestearen baiezipen espontaneotzat, gizabanakoa besteekin batzetzat, ni indibiduala gordezea oinarri dela. Maitasunaren dinamikotasuna polartasun horrexetan datza: banan egotea gainditu beharretik sortzen da, batasunera darama... eta, hala ere, ez du ondorio indibidualtasuna ezabatzea. Beste osagaia lana da: lana ez bakardadeari ihes egiteko erabiltzen den iharduera konpultsibotzat, ez lana naturarekin dugun harremantzat hartuta —alde zaharren menerapen, alde zahar gurtzapen eta esklabatze, giza ihardueraren produktuen aurrean—, baizik lana sorkuntzetzat hartuta, berau egitean, kreativeko egintzan, gizakumea naturarekin batzen delarik. Maitasun eta lanarekiko egia dena, egintza espontaneo ororekiko ere egia da, dela berau plazer zentzualak gauzatzean dela komunitatearen bizitza politikoan eskuhartzean burutua. Niaren indibidualtasuna baieztu eta aldi berean gizabanakoa besteekin eta naturarekin batzen du. Askatasunari datzekion oinarritziko dikotomia —indibidualtasunaren sorrera eta bakardadearen dolorea— goragoko plano batean disolbatuta uzten du giza iharduera espontaneoak.

Iharduera espontaneo orotan gizabanakoak mundua besarkatzen du. Bere ni indibiduala ukigabe geratu ez ezik, indartsuago eta senda-ago bihurtzen da. «Zeren nia aktiboa den heinean da indartsua». Benetako indarra ez dago edukitzean bertan, ez jabego materialik edukitzean, ez hunkipenak edo pentsamenduak bezalako kalitate mentalik edukitzean ere. Ez dago ezta objektuen erabilera eta maneian ere; darabilguna ez dugu geurea, erabili darabilgulako besterik gabe. Gure geurea, egintza sortzailez buruturiko harremanen objektua bakarrik dugu, zein pertsona zein gauza bizigabe bat izan berau. Gure iharduera espontaneotik sorturiko kalitateek bakarrik indartzen dute nia, eta, beraz, beronen osotasunaren oinarri dira. Nork berak egiaz pentsatzen eta sentitzen duena adierazteko espontaneitatez jokatu ezina, eta honen ondorioz besteei eta nork bere buruari pseudo-ni bat erakutsi beharra dira gutxiagotasun-eta ahultasun-sentimenduaren sustraia. Honetaz kontziente izan edo ez, ez dago ezer lotsatzenago gaituenik gu geu ez izatea baino eta, erreziprokoki, ez da ezer harrotasun eta zorion handiagorik ematen digunik benetan geurea duguna pentsatu, sentitu eta esatea baino.

Guzti honek esan nahi du iharduera bera dela hemen garrantzizkoa, prozesua, eta ez beronen emaitzak. Gure kulturaren alderantzizkoa

da, hain zuzen ere, bizikien azpimaratzten dena. Ez dugu geu poztu eta konformatzeko produzitzen, geure merkaduriak saltzeko asmo abstraktuaz baizik; uste dugu edozer gauza, materiala edo ez-materiala, lor dezakegula, erosiaz, eta horrela objektuak geureak izatera heltzen dira gure eurekiko ahalegin sortzaile oroz aparte. Era berberean, geure tasun pertsonalak eta geure ahaleginen emaitza diru, prestigio eta boterearen truke sal daitezkeen merkaduriatzat dauzkagu. Horrela, iharduera sortzaileari datzekion pozkariari eman beharrean garrantzia, azkendiriko produktuaren balioari ematen zaio. Horregatik gizakumeak galdu egiten du berari zoriontasuna emateko gauza den gozamen bakararra —une horretantzeko ihardueraren esperientzia— eta atzeman duela uste bezain laster zapuztuta utziko duen mamu baten atzetik ibiltzen da: arrakasta esaten diogun zoriontasun lilurazkoaren atzetik.

Gizabanakoak bere nia iharduera espontaneoaz gauzatzen badu eta munduarekin era honetan baditu harremanak, atomo isolatu izateari uzten dio; bera eta mundua osotasun estruktural baten zati bilakatzen dira; horrela eskubidezko leku bat dauka eta, horregatik, bere buruaz eta bere bizitzaren esanahiaz dituen dudak ezabatu egiten dira. Dudak bananduta egotetik eta bizitzaren zapuzketatik sortzen zaizkio; konpultsiboki edo automatismoz barik spontaneitatez bizitzea lortzen duenean, dudak ezabatu egiten dira. Bere buruaz kontziente da gizabanako aktibo eta sortzaile denez eta ohartzten da «bizitzak esanahi bakar bat duela: bizitzeko egintza bera».

Gizabanakoak bere buruari eta bizitzan duen lekuari buruzko oinarritziko duda gainditzen badu, munduarekin harremanetan badago, bizitzeko egintza espontaneoan berau ulertuz, orduan gehitu egingo da gizabanako lege duen indarra, eta segurtasuna ere bai. Segurtasun hau, hala ere, egoera preindibidualaren ezaugarri den segurtasunaren ezberdina da, munduarekin harremanak izateko era ere lokarri primarioetatik diferentea den bezala. Segurtasun berri hau ez dago gizabanakoak berarengandik kanpoko goi-botereren batengandik harturiko babesean sustraiturik; eta ez da bizitzaren izaera tragikoa suntsitu izanagatik segurtasuna ere. Segurtasun berria dinamikoa da, ez da oinarritzen babesean, gizakumearen iharduera espontaneoan baizik; ahalegin honen bidez une bakoitzean hartzen duena da. Askatasunak bakarrik eman dezakeen segurtasuna da, lilurarik behar ez duena, liluraren premia izateko baldintzak kendu egin baititu.

Askatasun positiboak, niaren gauzatzea denez, gizabanakoaren bakantasanaren baiezen biribila inplikatzan du. Gizakume guztiak berdina izanik jaiotzen dira mundura, baina ezberdinak izanik ere bai. Bakoitzaren berezitasun horren oinarria gizakumeak bizitzaratzean dakarren herentziazko, fisiologiazko eta buruzko ekipamenduan dago, eta baita gero aurre egitea egokituko zaion zertzelada eta esperientzi mordo berezian ere. Nortasanaren oinarri indibidual hau pertsona bakoitzarengan beste guztienaren ezberdina da, organismoak bata bestearen ezberdinak diren bezala, ez baitago bi organismo berdina-berdinik. Niaren benetako hazkundera oinarri indibidual honexen gainean gauzatzen da beti; hazkundera organikoa da, pertsona bati eta berari bakarrik bereziki dagokion gune baten hedaketa. Automataren garapena, aitzitik, ez da organikoa. Nortasanaren oinarriaren hazkundera blokeatu egiten da, egiazko niari, ikusi dugun moduan, pentsamendu-eta hunkipen-eredu arrotzez osaturiko pseudoni bat gainjartzen zaiolarik. Hazkunde organikoa, nork bere niaren berezitasunei eta besteenei ere begirune gorena izanez gero bakarrik da posible. Nortasanaren bakantasanarekiko errespetu hau eta beronen lanketa, giza kulturaren lorpen baliozkoena dira eta lorpen hau da gaur arriskutan dagoena.


Niaren bakantasa ez dago inolako kontraesanean berdintasunaren printzipioarekin. Gizakume guztiak berdina izanez jaiotzen diren tesiak inplikatzan du: denak direla oinarritzko kualitate beren partaide, gizaki guztien funtsezko patua konpartitzen dutela, zorion eta askatasunerako eskubide alienaezin bera dutela. Honez gain baita ere esan nahi du elkarrekiko harremanak elkarkidetasunezkoak direla eta ez menerapen-menekotasunezkoak. Berdintasun-printzipioak esan nahi ez duena gizon guztiak berdina direla da. Nozio hau ekonomi bizitzan gizabanakoek gaurregun betetzen duten funtzioetik etorria da. Saltzailearen eta eroslearen artean sortzen diren harremanetan, nortasunean ditzuten alde konkretuak ezabatu egiten dira. Egoera honetan gauza bakar batek du garrantzia: lehenengoak zeozer salgai eta bigarrenak hura erosteko dirua izateak. Ekonomi bizitzan gizakume bat ez da beste baten ezberdina, baina pertsona errealek direnez bai direla ezberdinak, eta nork bere bakantasa lantzea indibidualtasunaren muina da.

Askatasun positiboak honako printzipio hau ere inplikatzan du, ez dagoela ni indibidualaren gainteko botererik; gizakia bizitzaren erdigune eta xede dela, indibidualtasunaren hazkundera eta gauzapena, duin-

tasun handiagoa omen duten helburuen pean jarri ezin daitekeen xede direla. Kontzeptzio honek objektio serioak sortaraz ditzake. Ez al da beronekin norberekotasun desgalgatua postulatzen? Ez al du esan nahi idealarengatik sakrifizioaren ukazioa? Berau onartzea ez al da anarkia-ara daraman bidea? Galdera guztiok erantzunda daude jada, alde inplizituki, alde esplizituki, aurreko azalpenean. Hala ere, hain inportanteztat ditugu, non beharrezko den beste saialdi bat egitea erantzunok argitu eta nahasbideak ekiditeko.

Gizakumea bere gainteko ezerean pean ez litzatekeela egon behar esateak, ez du inplikatzan idealen duintasuna ukatzea. Aitzitik, beraren baiezen indartsuena da. Honek, hala ere, idealaren analisi kritikoa egitera behartzen gaitu. Gaurregun prest gaude, eskuarki, onartzeko, ideala irabazi materialik inplikatzan ez duen asmo oro, beragatik xede egoistak sakrifikatze gertu gauden helburu oro dela. Idealaren kontzeptu psikologiko —eta horrexegatik erlatibista— hutsa da hau. Jarrera subjektibista honen arabera, faxista batek —goi-botere baten pean jartzeko, eta aldi berean besteak menperatzeko desirak bultzatua— ideal bat dauka, giza askatasun eta berdintasunaren alde burrukatzan duenak bezalaxe. Hau oinarritzat hartuta egundo ere ezingo da garbitu idealen arazoa.

Benetako eta fikziozko idealen artean dagoen aldea ezagutu eta berezi beharra dago, egia eta gezurraren artean dagoena bezain funtsezkoa den aldea berau. Benetako ideal guztiek dute zer bat komunko: oraindik burutu ez den, baina gizabanakoaren garapen eta zoriontasunerako desiragarri den zerbaiten desira adierazten dute denek.¹³⁷ Agian beti ez dakigu xede horretarako onena zer den, agian ez gara bat etorriko ideal honek edo besteak giza garapenerako duen funtzioari buruz, baina ez dago arrazoirik, bizitza zerk bultzatzen edo blokeatzen duen ezin ezagutu dugula dioen erlatibismorako. Elikagai honen edo haren osasungarritasunaz ere ez gaude beti ziur, baina, hala ere, ez dugu hemendik ateratzen pozoirik daukan aurkitzeko modurik ez dagoela. Era berean, jakin dezakegu, nahi badugu, zer den pozoina gogamen-bizitzarako. Badakigu pobrezia, larderia, isolamendua, bizitzaren «aurka» doazena, askatasunaren onerako den eta gu geu izateko adorea eta indarra areagotzen duen guztia bizitzaren alde dagoena. Gizakumearentzat zer den ona edo txarra, ez da arazo metafisikoa, enpirikoa baizik, eta, giza izaera eta zenbait baldintzak berarengan duen eragina aztertuz garbi daiteke.



Zer uste izan behar da, horretaz, bizitzaren aurka gordinki doazen faxismoarenak bezalako idealez? Nola uler dezakegu zenbait giza-kumek egiazko idealen jarraitzaileek adinako garraz beraien idealei jarraitzea. Zenbait gogamen psikologikok emango digute galderoi dagokien erantzuna. Masokismoaren fenomenoak nabari jartzen digu pertsonen sufrikarioa edo menekotasunaren esperientzia nork bere haragian sentitzeko bultzadura izan dezaketela. Dudarik ez da berauek, suizidioak bezalaxe, bizitzaren helburu positiboen antitesia direla. Eta, hala ere, asebetegarri eta atsegingarri aurki ditzake, subjektiboki, esperimentatzen dituenak. Bizitzarako kaltegarriena den zerbaitetarako tira hori perbertsio patologikoaren izena beste ezeinek baino mereziago duen fenomeno da. Psikologo askok suposatu izan dute plazerra izateak eta mina arbuiatzeak osatzen dutela giza iharduna gidatzen duen legezko printzipio bakarra; baina psikologia dinamikoak demostra dezake plazerra izatea ez dela zenbait portaera, zoriontasun-terminoetan, baliosteko nahikoa den erizpidea. Hau ikusteko modu apropos bat masokismoaren fenomenoaren analisia egitea da. Analisi honek erakusten du plazer-zentzazioa perbertsio patologiko baten ondorio izan daitekeela, eta pozoin baten zapore gozoa organismoarekiko bere funtzioari buruz frogatuko lukeen bezain gutxi frogatzen du esperimenduaren esangura objektiboari buruz.¹³⁸ Horrela, egiazko ideala niaren garapen, askatasun eta zoriontasunaren alde doan jomuga oro bezala definitzera gatoz, eta fikziozko idealtzat definitzera, subjektiboki atseginak izanda ere (menekotasun-jaugina, adibidez), egiaz bizitzarako kaltegarri diren xede konpulsibo eta irrazional guztiak. Definizio hau onartuz gero, deduzitzen da egiazko ideala ez dela gizabanakoaren goitik dagoen indar ezkutu bat, niaren baiezipen gorenaren adierazpen artikulatua baizik. Baiezipen honekin kontrastean dagoen ideal oro, horrexegatik, ideala barik xede patologiko bat da.

Honekin beste problema batera gatoz: sakrifizioarena. Askatasunari buruz gure goitiko botere ororekiko menekotasunaren arbuio bezala egin dugun definizioak, kanpoan uzten al du sakrifizioa, are norberaren biziaren sakrifizioa? Gaurregun garrantzi handia duen arazoa da, faxismoak nork bere burua sakrifikatzea bertuterik gorentzat aldarrikatzen duen eta hainbeste jende, idealismoa duela eta, hunkitzea lortu duen honetan. Orain arte esan denetik sortzen da berez galdera honi dagokion erantzuna. Bi sakrifizio-mota arras ezberdin dago. Bizitzaren al-

derdi tragikoetako bat da gure ni fisikoaren galdapenak gure ni izpiritualaren jomugekin gatazkan jar daitezkeela, era honetan beharturik aurki gintezkeelarik lehenengoa sakrifikatzerara bigarrenaren osotasuna segurtatzeko. Sakrifizio honek ez du sekula galduko duen tragikotasuna. Heriotza ez da egundo gozoa, idealik gorenaren izenean aurre egingo da ere. Izugarriri mingotsa da, eta, hala ere, gure indibidualtasunaren baiezipen erabatekoena da. Sakrifizio hau faxismoak predikatzen duenaren ezberdina da funtsean: kasu honetan ez gara ari nork bere nia baiezipen ordain dezakeen preziorik handienaz, bere hartan xede bat den sakrifizioaz baizik. Sakrifizio masokista honek bizitzaren betegintza beronen ukazioan hain zuzen ere, niaren deuseztapenean, bilatzen du. Faxismoaren jomugen adierazpen gorena besterik ez da dituen aspektu guztietan: ni indibidualaren suntsipena eta goi-botere batekiko menekotasun erabatekoa. Egiazko sakrifizioaren perbertsioa da, suizidioa biziaren perbertsiorik puntakoena den bezalaxe. Egiazko sakrifizioak osotasun izpiritualaren desira mugagabea suposatzen du; hau galdu dutenen sakrifizioak molokotik handiena ostentzen du.

Ihardesteke geratzen da azken objektzioa: gizabanakoei espontaneitatearen bidetik libre jokatzeko uzten bazaie, gizakumeek beren goitiko agintaritzarik aintzatesten ez badute, ez al da ekidinezinki anarkia sortuko? Anarkia hitzak norberekoitasun axolagabea eta suntsikortasuna esan nahi dituen heinean, faktore determinatzailea, giza izaeraz nork berak duen nozioaren pean dago. Nik ihes-mekanismoari buruzko kapituluaren seinatu dena bakarrik aipa dezaket, hots, gizakia ez dela ez ona ez txarra, biziari garapenerako, hedakuntzarako, ahalmenak adierazteko joera datzekiolarik; biziari zapuzten bada, gizabanakoa bakarrik aurkitzen bada, zalantzek eta bakardade— eta ezintasun-sentimenduek itota, orduan sutsipenerako bulkada sortzen dela eta menekotasun— edo botere-irritsa. Giza askatasuna «zerbaitetarako askatasun» bezala ezartzen bada, gizakumeak bere nortasuna guztiz eta mugarik gabe gauzatu ahal badu, ezabatu egingo dira bere jaugin asozialen oinarrizko kausak, eta gizabanako anormal eta gaixoak bakarrik izango dira arriskugarriak. Gizateriaren historian askatasun-mota hau ez da oraindik sekula gauzatu, baina, hala ere, gizakumeak sekula utzi izan ez duen ideala izan da beti, sarriaskotan modu ulergaitz eta irrazionalez adierazi izan badu ere. Ez dago arrazoirik bizitzak agertzen duen hainbesteko krudeltasun eta suntsipenak harri eta zur utz gaitzan. Txundi —eta anima— gaitzakeen

ezer badago uste dut hori dela, giza arrazak, gizakumeei jazotako guztiarekin ere, mantendu eta garatu ere garatu dituen historian zehar eta gaurrengungo hainbat eta hainbat gizabanakorengan hautematen ditugun halako duintasun, adore, dezentzi eta ontasun kualitateak.

Anarkia gizabanakoak ezelako aginterik ez onartzea ulertzen badugu, galdera honi dagokion erantzuna agintaritza arrazional eta irrazionalaren artean dagoen aldeaz esandakoan aurki daiteke. Lehenengoak —egiazko idealak bezala— ni indibiduala hazi eta hedatzeko jomuga darama bere baitan. Printzipioz, beraz, sekula ez da gizabanakoarekin, ezta beronen benetako xedeekin —ez patologikoekin— ere gatazkan jartzen.

Liburu honen tesia askatasunak gizakume modernoentzat esanahi bikoitza duela da; agintari tradizioaletatik askatu da eta «gizabanako» izatera heldu da; baina, aldi berean, isolatu eta indarge bilakatu da, bereak ez dituen helburuetarako tresna bihurtuz, bere buruarengandik eta besteengandik aldentuz. Baieztu izan da, honez gain, egoera honek haren nia zulapetzen duela, ahuldu eta isolatu egiten duela, aldi berean lokarri-mota berriekiko menekotasuna onartzeko prest jartzen duelarik. Askatasun positiboa, bestalde, gizabanakoaren ahalmenen gauzatze osobetearekin egiten da bat, eta baita aktibo eta espontaneitatez bizitzeko duen gaitasunaz ere. Askatasuna kinkagune larri batera iritsi da, non, bere dinamismoaren logikak bultzatuta, bere aurkako errealtitate bihurtzeaz mehatxuka ari baita. Demokraziaren etorkizuna, Errenaisantzatik hona pentsamendu modernoaren xede ideologikoa izan den indibidualismoaren gauzatzetik dago zintzilik. Gure garaiko krisialdi politiko eta kulturala ez du, bestalde, indibidualismo larregi izateak ekarri, guk indibidualismoa dela uste duguna oskol huts izateak baizik. Askatasunaren garaitza bakarrik da posible, demokraziak gizarte bat eratzea lortzen badu, non gizabanakoa eta beronen garapen eta zoriontasuna kulturaren xede eta helmuga izango diren; non bizitzak arrakastaz ez beste ezein gauzaz zuritu beharrik izango ez duen, eta non gizabanakoa berarengandik kanpoko ezein boterek menderatu edo maneiatuko ez duen, ez Estatuak ez erakunde ekonomikoak; gizarte bat, azkenez, non gizakumearen kontzientzia eta idealak, kanpoko eskariak bere baitaratzearen ondorio izango ez diren, baizik gizarte bat, non gizabanakoak horiek guztiak bere-bereak eta bere niaren bakantasunetik sortuak izango dituen. Helmugok ezin gauzatu izan ziren guztiz historia

modernoaren aldietako bat berean ere; zati handi batean xede ideologiko bezala eduki beharra egon zen, egiazko indibidualismoa garatzeko oinarririk ez baitzegoen. Kapitalismoari egokitu zitzaion oinarri hori sortzea. Produktzioaren arazoa konpondu da —printzipioz bederen— eta oparotasunezko etorkizuna profetizatzeko moduan gaude, non pribilegio ekonomikoengatik burruka ez den eskasiaren ezinbesteko ondorio izango. Gaur branka eman behar diogun arazoa indar sozial eta ekonomikoak antolatzea, gizabanakoa —eraturiko gizarteko kide bezala—, indarron jaun eta jabe bihurtu ahal dadin, berauon esklabu izateari utziz.

Askatasunaren alderdi psikologikoa azpimarratu dut, baina hura giza existentziaren oinarri materialetik, gizartearen egitura ekonomiko, politiko eta sozialetik banantzerik ez dagoela erakusten ere saiatu naiz. Premisa honen ondorioa askatasun positiboaren eta indibidualismoaren gauzatzea, gizakumeari bere nia gauzatzuz aske izateko ahalbidea eman-go dioten aldakuntza ekonomiko eta sozialekin ere lotuta dagoela. Ez da liburu honen jomuga premisa horretatik eratorririko arazoak jorratzea edo etorkizunerako planen eskema bat formulatzea. Baina ez nuke zalantzarik utzi nahi, soluziobidea aurkitzeko bidetzat neuk bederen daukadanari buruz.

Lehenik eta behin, hauxe esan behar da: ezin diogu aurre egin demokrazia modernoaren oinarriko ezein konkistari, ez ordezkartzazko gobernabideari, hau da, herriak hautaturiko eta bere aurrean erantzule den gobernabideari— ez Giza Eskubideen Kartak hiritar orori bermatzen dizkion eskubideetako ezeini. Ezin dugu zalantzan edo arriskutan jarri printzipio demokratiko berriago hau ere, alegia, ezin dela inor goseak hiltzen utzi, gizartea bere kide guztien erantzule dela, inor ez dela beldurrazki eta menekotasunera ekarriko, ezta langabeziaren eta gosearen beldurrez bere giza harrotasuna kendu ere, oinarriko konkistok zaindu beharrekoak ez ezik, garatu eta indartu beharrekoak ere badira.

Demokrazi gradu hau praktikan jarria badugu ere —nahiz eta inola ere ez guztiz—, aitortu behar da ez dela oraindik behar adinakoa. Demokraziaren prozesua gizabanakoaren askatasuna, ekimena eta espontaneitatea areagotzean datza, ez bakarrik zenbait gai-arazo pribatu eta izpiritualetan, baizik eta funtsean giza existentziako oinarriko ihardueran: gizakumearen lanean.

Zeintzuk dira helburu hau lortzeko ahalbidea luzatzen diguten baldintza orokorrak? Gizartearen izaera irrazional eta plangabearen or-

dez, gizarte denez gizartearen ahalegin planifikatu eta harmoniatsuaeren irudi izango den ekonomia planifikatu bat jarri beharra dago. Gizarteak, naturari dagokionez lortu duen arrazionaltasun beraz gizarte-arazoa menderatzera heldu behar du. Lehenengo baldintza da, gutxi izan arren, jendetza handi batengan, honen izangoa euren erabakien pean jarritz, inolako erantzunkizunik gabe botere ekonomiko handia darabiltenen domeinu estalia kentzea. Ordenu berri honi sozialimo demokratikoa dei geniezaioke, baina izenak ez du inportantziarik; garrantzitsua den gauza bakarra, komunitatearen xedeen zerbitzutan izango den sistema ekonomiko bat ezartzea da. Gaur herriaren gehien-gehiengoak ez bakarrik ez darabil inondiko fiskalizazio-biderik erakunde ekonomikoarengan oro har, baizik egiten duen lan berezian ere ez du aukerarik ekimenik edo inolako espontaneitaterik praktikan jartzeko. «Enplegatua» dira eta euren agintzen zaiena bete dezaten besterik ez da espero. Nazio osoak, indar sozial eta ekonomikoak domeinatzen dituen ekonomia planifikatua bakarrik lortuko du gizabanakoa zuzendaritzako erantzunkizunetan partaide izatea eta daukan sormena bere lanean aplikatzea. Axola dion gauza bakarra, gizabanakoari egiazko iharduera burutzeko ahalbidea bihur dakion da; gizartearen eta gizabanakoaren xedek bat izatera hel daitezten, ez bakarrik ideologiari dagokionez, errealitatean ere baizik; eta bere ahaleginak eta arrazoimena bere lanean aplikatzeko modua izan dezan, lanaren erantzule sentitzeko moduan burutuz, bere giza xedeen arabera ere zentzua eta helburuak dituen iharduera delako. Gizakumeen maneia kendu eta honen ordean lankidetzak aktibo eta zuhurra jarri behar dugu, eta herriak herriarentzat herria gobernatzeko printzipioa eremu politiko formalekin ekonomikora hedatu.

Faktore ekonomiko eta politiko hutsen arabera ez dago ebazterik sistema batek giza askatasunaren xedek bultzatzen dituen ala ez. Askatasuna gauzatzen den ala ez jakiteko erizpide bakarra, bere bizitza eta gizartearena erabakitzen gizabanakoak eskuhartze eraginkorra edukitzea da, ondo ulertuz eskuhartze hau ez dela bozkatzeko egintza formalerik mugatzen, haren eguneroko iharduera, lana eta besteekin dituen harremanak ere hartzen dituela baizik. Demokrazia modernoa politikaremurik mugatzen bada, ezingo die gizabanako arruntaren ezereztasun ekonomikoaren efektuei indarra kendu. Baina erremedio ekonomiko hutsak, produkzio bitartekoen sozialtzea bezalakoak ere ez dira aski. Ez naiz orain ari sozialismo hitzaren erabilera engainagarriaz, nazismoan

—komenientzia taktikoarengatik— aplikatu izan den bezalakoaz. Errusia dut buruan, non sozialismoa hitz engainagarri bihurtu den, zeren produkzio bitartekoen sozialismoa egin badute ere, de facto burokrazia ahaltsu batek maneiatzen baitu biztanlegoaren masa handia. Honek nahitaez askatasun eta indibidualismoaren garapena galeratzen du, bali-tekeen arren gobernamentuaren kontrolak herriaren gehiengoaren interesak zaintzea.

Berbak inoiz ez dira egia estaltzeko gaur baino okerrago erabiliak izan. Aliatuen traizioari mantsotzea deitzen zaio, erasoak militarri, erasoak aurkako defentsari; nazio txikien konkistari adiskidetasunezko ituna esaten zaio, eta herri osoen basakeriazko suntsipena nazionalsozialismoaren izenean burutzen da. Faxismoaren eta demokraziaren arteko aldearen esangura definitzeko modu bakar bat dago. Demokrazia gizabanakoaren garapen osobetea lortzera zuzenduriko baldintza politiko ekonomiko eta kulturalak sortzen dituen sistema da. Faxismoa, ordea, dena delako izena hartu, gizabanakoa arrotz zaizkion jomugan pean jartzen duen eta egiazko indibidualtasunaren garapena ahultzen duen sistema bat da.

Begien bistako denez, demokrazia gauza dadin behar diren baldintzak jartzeko oztoporik handienetako bat, ekonomia planifikatuaren eta gizabanako bakoitzaren lankidetzak aktiboaren artean dagoen kontrastearekin datza. Industri sistema eskerga baten irispidea duen horrelako ekonomia batek zentraltze-gradu handi bat behar du eta, ondorioz, burokrazia bat, organismo zentraldu hori administratzeko. Beste alde batetik, gizabanako bakoitzaren eta sistema guztiaren unitate txikiaren kontrolpe eraginkorrak eta lankidetzak, deszentraltze-gradu handia behar dute. Goitik egindako plangintza behetiko lankidetzarekin bat egitea lortu ezean, bizitza sozialeko korrante-jarioa oinarritik gailurrera iragateko gauza izan ezean, ekonomia planifikatuak maneia berriztatzen biktima izatera eramango du gizabanakoa. Zentraltze-deszentraltzeak konbinatzeko arazoa konpontzea da gizarteak duen egiteko nagusienetako bat. Baina, egia esan, jada gaituzten ditugun eta naturaren domeinu ia erabatekora eramanez gaituzten problema teknikoak baino arazo konpongaitzagoa ez da. Hala ere, soluziobide baten beharra argi eta garbi ikusten badugu eta jendearengan, jendeak bere benetako interesak zaintzeko duen gaitasunean, sinesten badugu bakarrik konponduko da.

Nolabait, berriro ere ekimen indibidualaren arazoa datorkigu. Ekimen indibiduala izan zen kapitalismo liberalaren bultzagarri handi-
netako bat, hala sistema ekonomikoari nola garapen pertsonalari dago-
kionez. Baina mugapen bi izan zituen: gizakumearen kualitate hauta-
tuak bakarrik garatu zituen, nahimena eta arrazoimena, bera, ordea,
helburu ekonomikoen menpean utzi zuelarik. Kapitalismoaren fase oso
indibidualizatu eta konkurrentzian ondoen funtzionatu zuen printzi-
pioa izan zen, kontatu ezin ahala unitatek lekua zuten fasea baitzen.
Gutxi batzuek bakarrik erabil dezakete ekimen indibiduala. Printzipio
hori gaur praktikan jarri eta nortasun osoa aske izateraino hedatu nahi
badugu, gizarte osoaren ahalegin razional eta eratuaz eta lankidetzaz
aktibo, erreal, jatorra eta sistemaren unitate txikiak kontrola eramatea
bermatzeko gauza den deszentraltzeari esker egin ahal izango dugu.

Gizakumeak gizartea domeinatzea eta mekanismo ekonomikoa
giza zorientasunaren helburuen pean jartzea lortzen badu bakarrik eta
gizarte-prozesuan eraginkorki eskuhartzea lortzen badu bakarrik, gain-
ditu ahal izango du gaurregun etsipenera daramana: bere bakardadea eta
ezintasun-sentimendua. Gaurregun gizakumeak sufritzen badu, pobre-
ziaren eraginez baino gehiago, makina eskerga baten barruko engranaia
bihurtu delako, automata bilakatu delako, bere bizitza barruz hustuta
geratu delako eta duen zentzu guztia galdu duelako sufritzen du. Siste-
ma autoritario guztiekiko garaitza posible izango da, demokraziak atze-
ra barik erasora jotzen badu, eta azken mendeotan askatasunaren alde
burrukatu zutenek buruan zuten xede bera erdiestera jotzen badu. Nihi-
lismoaren indarrak giza gogoak ukan dezakeen sinesterik sendoena gi-
zakumeengan sarraraziz bakarrik gaudituko ditu, bizian eta egian sines-
tea, eta askatasunean sinestea, ni indibidualaren gauzatze aktibo eta
esponataneoa denez.

ERANSKINA

KARAKTEREA ETA GIZARTE-PROZESUA

Liburu honetan zehar faktore sozioekonomiko, psikologiko eta
ideologikoen artean dagoen elkarrelerazioaz ari izan gara, Erre-
forma-garaia eta Gure Aroa bezalako aldiak aztertuz. Analisi
horrekin zerikusia duten arazoez interesatzen diren irakurleentzat, saia-
tuko naiz laburki azaltzen, eranskin honetan, azterlan honen oinarri teo-
rikoa izan dena.

Talde sozial baten erreakzio psikologikoak aztertzean, taldeko
kideen karakterearen, hots, pertsona indibidualen karakterearen, egitura
jorratu behar dugu. Hala ere, interesatzen zaizkigunak ez dira talde be-
reko pertsonak ezberdin egiten dituzten berezitasunak, kide gehienei da-
gokien karaktere-egituraren zatia baizik. Karaktere honi karaktere so-
ziala esan diezaiokegu. Karaktere soziala, ezinbestez, ez da karaktere
indibiduala bezain espezifikoa. Bigarrena deskribatzean, gizabanako
honen edo haren egitura, egituraketa berezian, osatzen duten berezita-
sun guztiak hartu behar ditugu kontutan. Karaktere sozialean, ostera,
berezitasun horietarik aukeraturiko batzuk bakarrik sartzen dira: «talde
bateko gehiengoaren karaktere-egituraren funtsezko gunea, taldearen
beraren oinarritzko esperientzien eta bizitzeko era komunaren emaitza le-
gez garatu dena. Nahiz eta karaktere-egitura arras diferenteko «desbide-
ratuak» beti ere ikusi ahal izango diren, taldekide gehienena gunea bera-
ren inguruko zenbait aldaketek osatuko dute, aldaketok jaiotzako eta
bizitzako esperientziak bezalako faktore akzidentalen eraginean dutela-
rik esplikazioa, gizabanako batetik bestera ezberdinak diren neurrian.
Gizabanakoa, gizabanako denez ongi ulertu nahi dugunean, elementu
bereizgarriok garrantzirik handiena hartzen dute; baina giza energia
nola bideratzen den eta ordenu sozial jakin baten barruan indar konpul-
sibo bezala nola diharduen ulertzea bada gure asmoa, orduan karaktere
sozialera bideratu beharko dugu geure arreta.

Karaktere sozialaren kontzeptua giltzarrizko nozioa da gizarte-prozesua ulertzeko. Psikologia analitikoaren zentzu dinamikoan karakterea zerari esaten zaio, gizakumeen beharrianak gizarte batean bizitzeko era berezira moldatzeak giza energiari emandako forma bereziari, alegia. Karaktereak, berriz, gizabanakoen pentsamendua, sentimendua eta ekintza determinatzen ditu. Guzti honez konturatzea zail bai zail egiten zaigu geure pentsamenduak kontutan hartzen ditugunean, zeren guztiok gara partaide pentsatzeko egintza, adimen hutsezkoa eta nortasunaren egitura psikologikotik apartekoa dela uste izatera dagoen joera tradizionalan. Baina uste hori okerra da, batipat gure pentsamenduak, objektu konkretuen maneu enpirikoari buruzkoak baino gehiago, arazo filosofiko, politiko edo psikologikoei buruzkoak direnean. Pentsamendu horiek, pentsatzeko egintzaren barruan inplizituki dauden elementu logiko hutsak alde batera utzita, pentsatzen duenaren nortasunaren egiturak determinaturik daude zati handi batean. Baiezpen honek doktrina edo sistema teoriko oso baterako eta baita maitasuna, justizia, berdintasuna, sakrifizioa bezalako kontzeptu solte baterako ere balio du. Kontzeptu bakoitza edo doktrina bakoitza gizabanakoaren karaktere-egituraren erroturiko matrize emozional batean sortzen da.

Guzti honen esanplu ezberdinak ditugu emanak aurreko kapituluetan. Doktrine dagokienez, lehen aldiko protestantismoaren eta autitarismo modernoaren sustraiak agerian jartzen saiatu ginen. Eta kontzeptu isolatuei dagokienez, agertu genuen karaktere masokistarentzat, adibidez, maitasunak menpekotasun sinbolikoaren esangura duela eta ez berdintasunezko oinarriaren ganean elkar baiezte eta elkarbatzearena; sakrifizioak ni indibidualaren guztizko menpekotasuna dauka barruan goi-entitate batekiko, eta ez ni izpiritual eta moralaren baiezpena; gizabanakoen arteko ezberdintasunak boterean maila diferentea daukatala esan nahi dute eta ez berdintasunean oinarrituriko niaren gauzatzea; justiziak nork berak merezi duena jaso behar duela adierazten du eta ez gizabanakoak baduela baldintzapetuezinezko titulurik gizakumea denez datxezkion eskubide alienaezinak erabiltzeko; adorea meneko izateko eta sufrimendua jasateko gertutasuna da eta ez boterearen kontra burrukan ari den indibidualtasunaren baiezpen gorena. Berba bera erabili arren, nortasun ezberdina duten bi pertsonak, maitasunaz, adibidez, mintzo direnean, hitz honen esangura, bakoitzak duen karaktere-egituraren arabera, zeharo ezberdina da. Adimen-nahasmendu handia ekidin

daiteke, benetan, kontzeptuon analisi psikologiko zuzena eginda, sailkapen logiko hutsa egiteko saialdi orok porrota baitu ondorio.

Ideiak matrize emozional batean garatzeak, garrantzirik handiena du, kultura baten izpiritua ulertzea lortzeko behar-beharrezko giltza delako. Gizarte ezberdinek edo gizarte bereko klase sozial diferentek ezaugarri sozial espezifikoak dituzte eta berauetan oinarrituta garatu eta indartzen dira ideia ezberdinak. Horrela, adibidez, lan eta arrakastaren nozioak, bizitzako azken ondasun direnez, gizakume modernoa aurkitzen zen bakardade eta segurtasunik ezarengatik iritsi ziren indar ahaltzu izatera eta beronengan eragina ukatera; baina Pueblo Indiarrei edo mexikar baserriarrei taigabeko ahaleginaren eta arrakastaren alde zuzenduriko ideiak, ez luke inola ere erantzun gartsurik jasoko. Karaktere-egitura mota ezberdina duten herri hauek, nekez ulertu ahal izango lukete xede horien esangura, berauek azaltzeko erabilitako hizkuntza ulerturik ere. Era berean, Hitlerrek eta beronek zeukan karaktere-egitura bera zuen aleman populazioaren zati horrek, uste zuten, zintzo asko uste ere, gerrak aboli zitezkeela pentsatzen zuena zoro garbia edo gezurti lotsagabea zela. Euren karaktere-egituraren oinarrituta, eurentzat sufrikario eta hondamenik gabeko bizitza, askatasuna eta berdintasuna bezain ulergaitza da.

Zenbait taldek maiz ideiak kontzienteki onartzen dituzte, baina, euren karaktere sozialaren berezitasunak bitarteko direla, ez diete ukitu modurik egiten. Konbentzimendu kontzienteen zati bat izaten segitzen duten ideiak dira, baina krisialdietan jendeak ez du euren arabera jokatzen. Honen adibide bat mugimendu sindikal alemanak erakusten du garaitza naziaren garaian. Langile-germaniarren gehien-gehiengoak, Hitler agintera igo aurretik, alderdi sozialistari edo komunistari ematen zion botua eta alderdi horien doktrinan sinesten zuen: hau da, langile klasearen artean ideia horiek zuten «zabalkundea» handia bai handia zen. Zuten «pisua», hala ere, ez zen zabalkundearen araberakoa. Nazien asaltoak ez zuen aurrez aurre aurkitu etsai politikorik, gehiengorik berderen, bere ideien alde burrukatzeko prest zegoenik. Ezkerreko alderdien jarraitzaile asko, beren alderdiek autoritatea mantendu zuten bitartean alderdi-programan sinesten segitu bazuten ere, krisialdia etorri zenean, beren sinestea uzteko prest egon ziren. Langile alemanen karaktere-egituraren analisi arretatsu batek fenomeno honen kausa bat —ez bakarra noski— erakutsi ahal digu. Beretariko askok eta askok, karaktere

autoritario bezala definitu dugun horri dagokion berezitasun asko zituen nortasun-motaren bat zeukan. Ezarritako agintearenganako irriks eta begirune sakonki errotuak zituen. Sozialismoak independentzia indibidualari agintearen aurrez aurre, elkarkidetasunari isolamendu indibidualistaren aurrez aurre, ematen zion garrantzia, ez zen langile hauek, zuten karaktere-egiturarengatik, benetan nahi zutena. Buruzagi ezkertiarren errakuntzetako bat, beren ideologiaren boterea beren zabalkundearen arabera balioestea eta beren alderdiaren pisurik ezari ezikusi egitea izan zen.

Koadro honekin kontrastean, doktrina protestante eta kalvinistez egin dugun azterketak agerian jarri digu ideia horiek indar ahaltsuak zirela erlijio horien jarraitzaileentzako, berauen jasotzaileen karaktere-egituran zeuden beharrian eta esturei erantzuten zitelako. Bestelako hitzez esanda, «ideiak indar ahaltsu izatera hel daitezke, baina karaktere sozial jakin batean nabarmentzen diren giza beharrian espezifikoak ase ditzaten neurrian soilik».

Karaktere-egiturak ez ditu pentsamenduak eta hunkipenak soilik erabakitzen, giza egintzak ere baizik. Freuden merezimendua da hau demostratu izana, haren teori eskema espezifikoa zuzena ez bada ere. Neurotikoen kasuan begibistakoa da haren iharduna gizabanakoaren karakterearen egituran nagusi diren jauginek erabakitzen dutela. Erraz ulertzekoa da etxeetako leihoak eta zoladurako harriak kontatzeko konpultsioa, karaktere konpultsiboaren zenbait jauginetan erroturiko iharduera dela. Baina pertsona normalaren egintzak gogoramen arrazionalen eta errealitateko premien arabera daudela erabakita dirudi. Baina, psikoanalisiak eskaintako somabide berrien bitartez, kontura gaitzezke jokabide razionala deritzona karaktere-egiturak erabakita dagoela zati handi batean. Lanak gizakume modernoentzat duen esangurari buruz egin dugun azalpenean, puntu honen argibide batekin ari izan gara. Iku-si dugu etengabeko ihardunean aritzeko irriks bizia, bakardade— eta estura-sentimenduetan dagoela errotuta. Lanerako konpultsio hau ezberdina da beste kultura batzuetan lanarekiko dagoen jarreraren aldean, hauetan gizakumeek behar bezainbat lan egiten baitzuten, beren karaktere-egiturako indar gehigarrien bultzadura sentitu gabe. Gaurregun pertsona normal guztiek lanerako bultzadura beretsua dutenez eta, gainera, bizitzen segitzeko beharrezko dutenez, erraz da berezitasun honek daukan elementu irrazionalaz ez ohartzea.

Orain karaktereak gizabanako eta gizartearekiko zein funtzio daukan galdetu beharra dago. Lehenengoari dagokionez, erantzuna ez da zaila. Gizabanako baten karakterea doitasun gehiago edo gutxiagoz karaktere sozialaren egiturarekin adosten bada, haren nortasunean nagusi diren jauginek, bizi den kulturako baldintza espezifikoetan beharrezko eta desiragarri denarekiko adostasunez jokatzera eramango dute. Horrela, esate baterako, aurrezteko jaugina badauka eta luxuzko gauzetan dirua gastatzeko izua, eta bizirauteko aurrezku eta diruari begiratu beharra daukan dendarri txiki bat bada, bultzadura hori laguntza handi izango du. Funtzio ekonomiko honez gain, karakterearen berezitasunek garrantzi txikiagoa ez duen beste bat, psikologiko hutsa, betetzen dute. Aurrezteko desira bere nortasunetik ateratzen zaion pertsonak, poztasun psikologiko sakon bat ere izaten du bere jauginen arabera jokatu ahal izatean; esan nahi baita, aurreztean, ez bakarrik onura praktikoa, baizik eta poztasun psikologikoa ere jasotzen duela. Erraz da baieztatu honen zuzentasunaz konbentzitzen, konturatuz gero, adibidez, erdiko klase beheko emakume batek, merkatuan erosketak egitean, 10 zentabo aurrezku dituelako, karaktere ezberdina daukan beste pertsona bat plazer zentzual baten gozamenaz bezain zoriontsu sentitzen dela. Betetasun psikologiko hau ez da bakarrik gertatzen gizabanako batek bere karaktere-egituratik sortzen diren eskarien arabera jokatzeko duenean, arrazoi beragatik erakartzen duten ideiak irakurri edo entuzten dituen ere baizik. Karaktere autoritarioarengan, natura gu beraren menpean jarri beharrek indar ahaltsu legez deskribatzen duen ideologiak, edo jazoera politikoen deskribaketa sadikoak egiten dituen hitzaldiak, erakarpen handia izaten dute eta irakurtzeak edo entzuteak atsegin psikologiko handia ematen dio. Laburbilduz: karakterearen funtzio subjektiboa pertsona normalarengan, «pertsona hori ikuspuntu praktikotik beharrezko denarekiko adostasunez jokatzera eramatea da eta, halaber, bere ihardueratik eratorririko betetasun psikologikoa ematea».

Karaktere soziala prozesu sozialean duen funtziotik hartzen badugu kontutan, gizabanakoarekiko duen funtzioari buruz formulatu den printzipiotik abiatu behar dugu; baldintza sozialetara moldatzean, gizakumeak, jokatu «behar» duen modu horretantxe jokatzeko «desira» sortarazten dioten berezitasunak garatzen ditu. Gizarte jakin bateko herriaren gehiengoaren karakterea, erran nahi baita, haren karaktere soziala, horrela moldaturik badago gizabanakoak komunitatean burutu behar

dituen egiteko objektiboetara, gizabanakoen energiak moldatuta gertatzen dira halako moldez, non gizartearen beraren funtzionamendurako ezinbesteko diren produkzio-indar bilakatzen baitira. Gatozen berriro lanaren exenplura. Gure industri sistema modernoak energia gehienak lanera bideratzea eskatzen du. Jendeak kanpoko beharriaz erantzuteko soilik lan egingo balu, beraien desira eta betebeharren arteko gatazka pila bat sortuko litzateke, eta, beraz, laneko efikazia urritu egingo litzateke. Baina, behar sozialen aurrez aurreko moldatze dinamikoa medio, giza energia, gatazkak sortu beharrean, premia ekonomikoetara egokituriko ekintzarako bultzagarri bihurtzeko moduan egituratzen da. Horrela, gizakume modernoak, kanpotik behartuta hain gogor lan egin beharrean, zer esangura psikologiko daukan aztertzen saiatu garen barru-barruko konpultsioak bultzaka eramana sentitzen du bere burua. Edo, ageriko agintariei obeditu beharrean, barruko agintariak eraiki ditu —kontzientzia eta betebeharra—, bera kontrolatzeko lana kanpoko agintariak sekulara egingo luketen baino efikazia handiagoz burutzen dutenak. Bestelako hitzez, «karaktere sozialak barneratu egiten ditu kanpoko beharriaz eta horrela giza energia sistema ekonomiko eta sozial jakin batek behar dituen egitekoetara lotzen du.

Ikusi dugunez, behin karaktere-egitura batean premia batzuk garatu direnean, haiekin ados dagoen jokabide oro psikologikoki atsegina eta arrakasta materialaren aldetik emendio praktikoduna gertatzen da. Gizarte batek asebidetara bi horiek batera eskaintzen segi dezan bitartean, indar psikologikoak egitura sozialari «oinarria» ematen ari diren egoera gertatzen da. Lehentxoago edo gerotxoago, hala ere, bitarte huts bat gertatzen da. Karaktere tradizionalak oraindik iraun dirauen bitartean, baldintza ekonomiko berriak sortzen dira, karaktere horren ezaugarriak ez direlarik jada baliagarri hauekiko. Jendeak bere karaktere-egiturarekiko adostasunez jokatzeko joera du, baina gauza bi hauekiko bat gerta daiteke: egintza horiek benetako oztopo izatea euren helburu ekonomikoetarako edo gizabanakoek ez aurkitzea behar bezainbateko aukerarik beren «izaerarekiko» adostasunez jokatzeko. Seinalatzen ari garenaren exenplu bat erdiko klase zaharraren karaktere-egitura aurki daiteke, gizarte estratifikazio zurruna duten Alemania bezalako herrietan bereziki. Klase honen bertute petoak —janurritasuna, aurrezpena, zuhurtzia, mesfidantza— gero eta baliagarritasun txikiagoak gertatu ziren ekonomiko sistema modernoan bertute berriekin konparatuta, hala nola, eki-

menarekin, arriskutan sartzeko gertutasunarekin, oldarkortasunarekin eta abarrekin. Kalitate zahar horiek oraindik ere balio positiboa zeukaten kasuetan ere —saltzaile txikien kasuan bezala—, ekonomi ihardun horren ahalbideen irispidea hain zegoen murriztua, non erdiko klase zaharreko seme-alaben gutxiengoa bakarrik zen gai beren karakterearen berezitasunak beren jomugak erdiesteko arrakastaz «erabiltzeko». Beren jatorriarengatik, lehen beren klasearen egoera sozialera moldatzen ziren berezitasun psikologikoak garatuak zituzten bitartean, orain ekonomia garapena karaktere-egiturarena baino abiada handiagoz gertatzen zen. Bilakaera psikologiko eta ekonomikoaren artean zegoen bitarte huts honek ohizko ekonomi ihardueraren bidez beharriaz psikikoak asetzea jada lortu ezin zen egoera bat ekarri zuen ondorioz. Hala ere, beharriaz egon zeuden eta asebidetara bat bilatu beharra zegoen beste bideren batean. Norberaren abantailarako bulkada kaskar egoista, erdiko klase behearen ezaugarri izandakoa, plano indibidualetik nazioak aldatu zen. Eta bulkada sadikoak ere, konkurrentzia ekonomikotik etorritako burrukan erabiliak zirenak, eskema politikoa eta sozialera eramane ziren eta, aldeaz, zapuzketak areagotuak gertatu ziren. Orduan bulkada horiek, jada faktore murrizgarri orotarik aske, gerra eta jazarpen ekintzetan bilatu zuten asebidetara. Horrela, egoera guztiaren zapuzgarritasunak eragindako erreminduraz nahasita, indar psikologikoak, zegoen gizarte-ordenua oinarritu beharrean, politika tradizionala eta gizarte demokratikoaren egitura ekonomikoa suntsitzeko gogoz zebiltzan taldeentzako dinamita bilakatu ziren.

Ez dugu hitz egin hezkuntz prozesuak karaktere soziala eratzean jokatzeko duen funtzioaz; baina kontutan izanda filosofo askoren aburuz lehen haurtzarora erabiltzen diren ikasketak eta hazidunak doazen umeei aplikatzen zaizkien hezkuntz teknikak karakterearen bilakaeraren «kausa» direla, uste dut ohar batzuk egin behar direla honetaz. Lehenik, hezkuntzaz zer ulertzen dugun galdetu beharra dago. Hezkuntza modu askotara definitu ahal bada ere, gizarte-prozesuaren ikusgunez kontutan hartzeko, uste dut honako era honetan karakterizatu behar dela: hezkuntzaren funtzio soziala, gizabanakoa gero gizartearen burutu beharko duen egitekoa ongi betetzeko prestatzea da, hau da, haren karakterea karaktere sozialera hurbiltzeko moduan moldatzea, haren desirak bat etor daitezen duen eginkizun sozialaren beharriazekin. Eginkizun honexek determinatzen du gizarte orotako hezkuntz sistema; horregatik

ezin dugu gizarte baten egitura edo bertako kideen nortasuna hezkuntz prozesuaz «esplikatu», baizik, alderantziz, hezkuntz prozesua gizarte jakin baten egitura sozial eta ekonomikotik sortutako beharriaren arabera esplikatu behar dugu. Hala ere, hezkuntz metodoak garrantzitsu bai garrantzitsuak dira, gizabanakoa behar den formaren arabera moldatzen dutelako. Esan daiteke metodook eskakizun sozialak kalitate personal bihurtzeko tresnak direla. Hezkuntz teknikak karaktere sozial jakin baten kausa ez badira ere, badira, hala ere, karaktere hori taiutzen laguntzen duten mekanismoetako bat. Ildo honetatik, hezkuntz metodoak ezagutu eta ulertzea funtzionatzen ari den gizarte baten azterketa osoaren zati inportante bat da.

Esan berri dugunak hezkuntz prozesu guztiaren sektore berezi baterako, hots, «familiarako», ere balio du. Freudek demostratu du haurtzarako esperientzia goiztiarrek eragin erabakiorra dutela karaktere-egitura formatzeko. Hori egia bada, nola onar dezakegu, orduan, gizartea dela haurra, gizarte-bizitzarekin hain harreman gutxi duena —gure kulturaren bederen—, benetan moldatzen duena? Honi erantzuten diogu ezen gurasoek, ezberdintasun indibidualek emandako salbuespen gutxi-ekin, ez dutela beren gizarteko hezkuntz arauak aplikatu soilik egiten, ezpabere beren nortasunean ere beren gizarte edo klasearen karaktere soziala errepresentatzen dutela. Berak dira haurrari gizartearen atmosfera psikologikoa edo izpiritua dei genezakeena helarazten diotenak, direnak direlako soilik, hau da, izpiritu horren errepresentatzaileak. «Familia, horrela, gizartearen agente psikologikotzat har daiteke».

Karaktere soziala gizartearen izateko moduak egituratzen duela garbi jarri ondoren, lehengo kapituluan moldaketa dinamikoari buruz esan dena gogorarazi nahi diot irakurlari. Komunitatearen egitura ekonomiko eta soziala dela gizakumea moldatzen duena egia bada ere, haren moldamena ez da amaigabea. Ez dago asetzea premia eskatzen duten zenbait beharriaren fisiologiko bakarrik, hantxe baitira, baita ere, gizakumeari datzekion zenbait kalitate psikologiko nahitaez asetu beharrekoak eta, zapuztuta aurkituz gero, zenbait erreakzio eragiten dutenak. Zeintzuk dira kalitate horiek? Garrantzitsuena badirudi gizakiak historian zehar garatu dituen ahalmenak hazi, zabaldu eta gauzatzeko joera dela, hala nola, adibidez, pentsamendu sortzaile eta kritikoa, hunkipen eta zentzuzko esperientzia desberdinuak edukitzeko ahalmena. Ahalmen horietako bakoitzak bere dinamismoa dauka. Behin eboluzioz-

ko prozesuaren bidez garatzen direnean, adieraztera jotzen dute. Joera hau erreprimitu eta zapuztu egin daiteke, baina errepresio honek erreakzio berriak eragiten ditu, bulkada sinbiotiko eta suntsikorrek batipat sortuz. Baita ere badirudi hazkunderako joera orokor honek —joera biologiko berdinarekin baliokide psikologikoa dena— askatasun-desira eta zapalkuntzarekiko gorrotoa bezalako jaugin espezifikoa sortzen dituela, askatasuna hazkunde orotarako oinarritzko baldintza baita. Askatasun-desira ere erreprimitu egin daiteke, gizabanakoaren kontzientziatik ezabatu egin daiteke, baina ez da, haatik, potentzialtasun-moduan suntsituko eta hantxe dagoela erakutsiko du, errepresio horren ondoan beti agertzen den gorroto kontziente edo inkontzientearen bidez.

Baditugu arrazoiak lehen esan bezala, askatasun eta justiziarako jaugina giza izaerari datzekion bultzadura dela suposatzen ere, nahiz eta hau ere erreprimi eta perberti daitekeen askatasunerako jaugina bezalaxe. Ikuspuntu teorikotik, hau baieztean, leku arriskugarrian gabilta. Erraz litzateke hau baiezten, bultzaduron existentzia esplikatzeko hipotesi erlijioso eta filosofikoetara itzuli ahal bagintez, gizakia Jainkoaren irudira izan dela kreatua edo berezko legearen supostua onartuz. Hala ere, ezin dugu esplikazio horietan oinarritu gure argudiaketa. Askatasun eta egitarako jaugin hau esplikatzeko har daitekeen bide bakarra, gure ustez, gizakiaren historia sozial eta indibidual guztia aztertzea da. Bide honetatik, aurkitzen dugu, boteretik ez daukanarentzat, justizia eta egia direla askatasunaren eta hazkunderaren alde burrukatzeko dituen armarik inportanteenak. Gizateriaren zatirik handienak historian zehar bera zapaldu eta hustiratzen zuten talderik boteretsuenengandik defendatu beharra izan zuela albo batera utzita, gizabanako orok, bere haurtzaroan, ezaugarri nagusi ezintasuna duen aldi bat iragan behar du. Ahultasunezko egoera horretan uste dugu zenbait karaktere-berezitasun garatzen bide direla, hala nola justizi eta egi sena, eta gizakiari, gizaki denez, dagozkion potentzialtasun bilakatzen direla. Era honetan, honako konklusio honetara iristen gara: «karakterearen garapena bizitzako oinarritzko baldintzek egituratzen badute ere eta giza izaera finkorik ez bada ere, giza izaerak bere-berea duen dinamismo bat dauka, prozesu sozialaren bilakaerako faktore eraginkor dena». Oraindik giza dinamismo hau termino psikologikoetan argi eta garbi formulatzeko gai ez bagara ere, badela bederen aitortu beharra daukagu. Kontzeptu biologiko eta metafisikoen errakuntzak ekiditen saiatzean, ezin gara jausi erlatibismo

soziologikoaren errakuntza berdin astunean, non gizakumea zertzelada sozialen hariak mugituriko txotxongiloa besterik ez den. Gizakiaren askatasun eta zoriontasunerako eskubide alienaezinak, gizatasunari datzekion kualitateetan oinarritzen dira: bizitzera, hedatzera, bilakaera historikoan zehar beregan garatu diren potentzialtasunak adieraztera duen jauginean.

Behin honaz gero, liburu honetan sostengaturiko ikuspuntu psikologikoaren eta Freudena artean dauden aldeak formula ditzakegu berriz ere. Dagoen lehenengo aldea xeheki jorratu dugu lehenengo kapituluaren eta, beraz, laburki aipatu besterik ez dugu egingo: uste dugu giza izaera historiak baldintzaturik dagoela, faktore biologikoen esangura, halabaina, gutxietsi gabe eta arazoa elementu kultural eta biologikoen arteko aurkakotasun bezala planteatuz gero, kontu hau zuzen formulatzerik dagoenik uste izan gabe. Bigarrenik, Freuden funtsezko printzipioa gizakumea entitate bat dela uste izatea da, sistema itxi bat, naturak zenbait jaugin biologikoki baldintzatuz hornitua, eta haren karakterearen garapena bultzadura horien asetasun edo zapuzketarekiko erreakzio bezala interpretatzea. Ene aburuz, oster, giza nortasuna, gizakumeak besteekin, munduarekin, naturarekin eta bere buruarekin dituen harremanak ulertuz planteatu behar dugu. Uste dugu gizakia «lehenengo eta behin» dela izaki sozial, eta ez Freudek suposatzen duen moduan, buruaski eta lehenik barik bigarrenik besteekin harremanak izateko premia duena bere instintuen galdapenak asetzeko. Honetan uste dugu psikologia indibiduala psikologia soziala dela funtsean, edo, Sullivanen terminoa erabiltzearen, pertsonarteko harremanen psikologia. Psikologiaren arazo nagusia gizabanakoak munduarekin lotzeko duen era bereziarena da, eta ez instintuzko zenbait desiraren asetasun edo zapuzketarena. Gizakumearen instintuzko desirekin jazotzen denarekiko arazoa, honek munduarekin dituen harremanen problema osoaren osagai denez ulertu behar da, eta ez giza nortasunaren auzia balitz bezala. Gure ikuspuntutik, beraz, gizabanakoak besteekin dituen harremanen inguruko beharri-zen eta desirak, hala nola maitasuna, gorrotoa, samurtasuna, sinbiosia, oinarritzeko fenomeno psikologikoak dira, Freudek, oster, instintuzko beharriaren zapuzte edo asetzearen ondorio sekundarioak direla dioelarik.

Freuden orientabide biologikoaren eta izaera sozialeko gurearen arteko aldeak, esangura berezia du karakterologiako arazoei buruz.

Freudek —eta beronen idazkietan oinarrituta, Abrahaam, Jones eta beste batzuek ere— suposatu izan du haurrak plazer hartzen duela alde erogenoak deritzatenetan (ahoa eta uzkia) elikatu eta kaka egiteko prozesuarekin lotuta, eta gehiegizko kilikadurak edo zapuzketak, edo konstituziozko sentiberatasun areagotuak eraginda, alde erogeno horiek libidozko izaera mantentzen dutela geroagoko urteetan, garapen normalaren abioan alde genitalak garrantzi primarioa hartua behar lukeenean. Orduan suposatzen da maila pregenitaletan izandako finkapen honek karaktere-egituraren elementu bilakatzen diren sublimazioetara eta erreakziozko formazioetara garamatzala. Horrela, adibidez, pertsona batek dirua aurrezteko edo zenbait gauza gordetzeko jaugina izan dezake, kakari eusteko desira inkontzientea sublimatu *duelako*; edo dena besteengandik eta ez bere ahaleginez lortzea uste izan dezake, elikatu izateko desirak bultzatzen *duelako*, desira hau laguntza, ezagupenak eta abar jasotzeko desiran sublimatzen *duelarik*.

Freuden oharpenak garrantzi handikoak dira, baina esplikazio okerra eman zien. Zuzen ohartu zen karaktere «anal» eta «oral» hauen berezitasunen izaera grinatsu eta irrazionalaz. Baita ere ikusi zuen desirok nortasunaren eremu guztietan zehar sartzen direla, sexu, hunkipen eta adimen-bizitzan, eta iharduera guztiak koloretzatzen dituztela. Baina alde erogenoen eta karakterearen berezitasunen arteko kausaltasuna, beraz, errealtatean denetik justu alderantziz ulertu zuen. Lortu nahi den guztia —maitasuna, babes, ezagutza, gauza materialak— norberengandik kanpoko iturritik pasiboki jasotzeko desira, besteekin izandako esperientziekiko erreakzio bezala sortzen da haurren karakterean. Esperientzietan beldurra haurren indar-sentimendua ahultzea iristen bada, haren ekimena eta bere buruarengan duen konfidantza gerarazi egiten badira, nolabaiteko etsaitasuna sortu eta gero erreprimitzen badu, aldi berean aita edo amak maitasuna edo ardura eskaintzen badio, baina euren meneko izatekotan, zertzelada guztion konstelazio honek domeinu aktiboa bertan behera uzteko jarrera hartzer, bere indar guztiak kanpoko iturrietarantz bideratuz, berauatatik etorri beharko lukeelakoan bere desira guztiak betetzea. Jarrera honek izaera grinatsua hartzen du, gizabanakoak bere irritsak gauzatzeko duen bide bakar delako. Horrelako pertsonak askotan ametsak, fantasiak eta horrelakoak izatea, beren buruak elikatuak, zainduak eta abar direla ikusiz, ahoa, beste edozein organo baino egokiagoa delako da horrelako jarrera harkorra adierazte-

ko. Baina ahoko zentzazioa ez da jarreraren beraren kausa; aitzitik, munduaren aurrez aurreko jarreraren adierazpena da, gorputzaren hizkuntzaren bitartez gauzatua.

Gauza bera esan daiteke pertsona «analaz», zeina, dituen esperientziak medio, pertsona «oral» baino besteengandik uzkurduago aurkitzen den. Segurtasuna bilatu nahirik, sistema autarkiko, autoaski bat eraikitzen du beretzat, eta maitasuna eta kanporanzko edozein jarrera bere segurtasunari egindako mehatxutzat hartzen du. Egia da kasu askotan horrelako jarrerak jatearekin eta kaka egitearekin lotuta garatzen direna, lehen haurtzaroko funtsezko iharduerak baitira eta era berean gurasoen maitasuna edo zapalkuntza eta haurraren adiskidetasunezko edo desafiozko jarrerak adierazten diren eremu printzipala. Hala ere, alde erogenoen erreaziozko larkitzikapenak eta zapuzketak ez dute berenez jarrera horien finkapenik sortzen; haurrak, jate eta kaka egitearekin lotuta zentzazio laketgarriak izaten baditu ere, zentzaziook ez dira karakterearen garapenerako garrantziarik izatera heltzen, karaktere-egituran —maila fisikoan— erroturiko jarrerak ez badira.

Amaren kondiziogabeko maitasunean fidantza osoa duen seinari, ditia kolpera kentzeak ez du karakterean ondorio larririk izango; baina amaren maitasunean fidantzarik ez duen seinak, berezitasun oralak har ditzake, edoskitze-kontuan inolako okerririk izan ez arren. Urte batzuk geroagoko fantasia «oral» edo «analek» edo zentzazio fisikoak, garrantzitsuak ez dira plazer fisikoa ematen dutelako, edo plazer horren sublimazio misteriozkoaren bat gertatzen delako, oinarri duten eta adierazten duten munduarekin lotura berezia daukatelako baizik.

Ikuspuntu honexetatik bakarrik izan daitezke emankor psikologia sozialerako Freuden aurkikunde karaktereologiko hauek. Erdiko klase europarraren ezaugarri tipikoa den karaktere anala, adibidez, kaka egitearekin loturiko zenbait esperientzia goiztiarrek sortuq dela suposatzen segitzen dugun heinean, ez dugu behar adina daturik izango, klase batek karaktere sozial anala nahitaez zergatik izan behar duen jakiteko. Egitate hau, aitzitik, besteekin harremanetan izateko era bat denez ulertzen badugu, karaktere-egitura errotuta dagoena eta kanpoko munduarekiko esperientzien emaitza dena, gako bat izango dugu erdiko klase behearean bizi-tankera, hertsikeria, isolamendu eta etsaitasunak karaktere-egitura mota hau gauzatzen zergatik lagundu zuten ulertzeko.¹³⁹

Hirugarren ezberdintasun-puntu inportantea aurrekoekin lotu-loturik dago. Freud, orientabide instintibistan eta giza izaeraren gaiztotasunaren konbentzimendu sakonean oinarriturik, aihar da beti gizakumearen zio «ideal» guztien sorburua «bilaukeriaren» bat zela interpretatzera; exenplu egoki bat, hark justizi sentimentua, haurrak berak baino gauza gehiago daukaten guztiei dien jatorrizko bekaizkotzat esplikatzek ematen digu. Gorago seinalatu dugun bezala, guk uste dugu askatasuna eta egia bezalako idealak, sarriaskotan hitz hutsak eta arrazionalizazioak besterik ez badira ere, jaugin jatorrak izan daitezkeela eta jauginok faktore dinamikotzat kontutan izan barik egindako analisi oro zimarkutsua dela. Idealok ez dute inolako metafisikotasunik, giza bizitzako baldintzetan erroturik baitaude, eta horrelakoxeak direnez azter daitezke. Oraingotan ere kontzeptu metafisiko edo idealistikoetan erortzeko beldurrak ez liguke analisi hau egiteko oztoporik jarri behar. Psikologiaren egitekoa da, zientzia enpirikoa denez, idealek sorturiko motibazioa, eta baita berauekin zerikusia duten arazo moralak ere, aztertzea, eta, hau eginez, gure pentsamendua, tratamendu tradizioaletan arazo horiek ilundu ohi dituzten elementu ez-enpiriko edo metafisikoetatik libre utzea.

Azkenez, beste alde bat ere aipatu behar da. Urritasunaren eta ugaritasunaren fenomeno psikologikoen artean dagoena da. Giza existentzia primitiboaren maila urritasunezkoa da. Geroraenezko premiak daude, beste ezer baino lehenago asetu «beharrekoak». Gizakumeak beharizan primarioak asetzeko behar diren baino denbora eta indar gehiago daukanean bakarrik gara daiteke kultura eta berarekin batera ugaritasunaren fenomenoari dagozkien bulkadak. Egintza libreak (edo espontaneoak) oparotasunaren fenomenoak dira beti. Freudena urritasunaren filosofia da. Plazerra tentsio mingarri bat kentzetik sorturiko atsegin definitzen du. Ugaritasunaren fenomenoak, maitasuna eta samurtasuna bezalakoak, betetzez, ez dute betetzen inolako funtziorik haren sistemaren barruan. Fenomeno hauek ahanzi egin zituen, eta hainbesteko arta eman zion gaia ere, sexualitatea alegia, mugatuki baino ez zuen ulertzea lortu. Berak plazerrari buruz egindako definizioarekiko adostasun osoz, Freudek ez zuen plazerrean konpultsio fisilogikoen elementu bat besterik ikusi, eta asetasun sexualean tentsio mingarriaren baregarri bat. Sexu-jauginak oparotasunaren fenomeno denez eta plazer sexualak atsegin espontaneo denez —beronen muina ez datzalarik ten-

tsio mingarria kentzean—, ez zuten leku modurik aurkitu haren psikologian.

Zein da liburu honetan, kulturaren giza oinarria ulertzeko aplikatu den interpretazio-printzipioa? Galdera honi erantzun aurretik, kome-niko da seinalatzea honi buruz dauden korrante printzipalak, gu eurokin bat ez bagatoz ere.

1. Freuden pentsamenduaren ezaugarri den ikuspuntu «psikolo-gista», zeinaren arabera kultur fenomenoak, gizartearen eragina errepre-sio-graduren baten bidez bakarrik jasotzen duten zentzu-bulkadetatik eratorritako fenomeno psikologikoetan errotzen baitira. Interpretazioko ildo honetatik joz, autore Freudiarrek kapitalismoa erotismo analaren ondoriotzat esplikatu dute, eta lehen-kristautasunaren garapena aitaren irudiaren aurrez aurre izandako anibalentziaren emaitzatzat.¹⁴⁰

2. Ikuspuntu «ekonomikoa», historiaren interpretazio marxista-ren aplikazio okerretan aurkezten den bezalakoa. Ikuspuntu honen ara-bera interes ekonomiko subjektiboak dira erlijioa eta ideia politikoak bezalako kultur fenomenoaren kausa. Nozio pseudomarxista honen arabe-ra,¹⁴¹ saia daiteke protestantismoa burjeseriaren zenbait beharizani emandako erantzun huts legez esplikatzeko.

3. Azkenez, jarrera «idealista» daukagu, Max Weberren anali-siak errepresentatua, *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritu*a obran. Autore honek sostengatzen du erligio-ideien berriztapenak eko-nomi jokabide-mota berri bat eta kultur izpiritu berri bat ekarri dituela, nahiz eta behin eta berriro esaten duen jokabide hori ez dutela erlijio doktrinek «soilik» determinatzen.

Esplikazio hauen kontra onartu dugu ideologiak eta kultura oro har karaktere sozialean daudela sustraituta; hau gizarte konkretuaren izakerak moldatzen duela; eta nagusi diren berezitasun karaktereologi-koek, beren aldetik, prozesu soziala taiutzen duten indar eraikior bihur-tzen direla. Protestantismoaren izpirituaren eta kapitalismoaren arteko erlazioei dagokienez, saiatu naiz agertzen Erdi Aroko gizartearen erais-pena klase ertaina mehatxatzeraz heldu zela; mehatxu honek indargabe-ko isolamendu eta ezbai-sentimendua sortu zuela; aldaketa psikologiko honixe zor zaiola Lutero eta Kalbinoren doktrinek zeukaten erakarme-na; doktrinok areagotu eta egonkortu egin zituztela aldaketa karaktereo-logikoak, eta horrela garaturiko karakterearen berezitasunak indar sor-

tzaile bilakatu zirela kapitalismoa eratzeko prozesuan, berau, berez, al-daketa politiko eta ekonomikoen ondorio izan zelarik.

Faxismoarekiko, esplikazio-printzipio bera aplikatu zen: erdiko klase beheak monopolioaren ahalmenaren hazkundea eta gerraondoko inflazioa bezalako zenbait aldaketa ekonomikoren kontra erreakzionatu zuen, karakterearen zenbait berezitasun areagotuz, hau da, bere jaugin sadiko eta masokistak. Ideologia nazia berezitasun hauexetara, hain zu-zen ere, bideratzen zen, eta intentsitatea areagotzen zien, inperialismo germaniarraren aldeko indar efektibo bilakaraziz. Kasu biotan ikusten dugu, klase sozial jakin batek bere burua joera ekonomiko berriak me-hatxaturik ikusten duenean, hala psikologiaz nola ideologiaz erreakzio-natzen duela mehatxu horren kontra, eta erreakzio horrek eragindako al-daketa psikologikoen indar ekonomikoen geroko garapena laguntzen dutela, indar horiek klase horren interes materialekin kontraesanean egon arren. Horrela egiazta daiteke indar ekonomiko, psikologiko eta ideologikoen honako era honetan dihardutela prozesu sozialean: kanpo-ko egoeran gertatzen diren aldaketen aurrean gizakumeak erreakzionatu egiten du bere burua eraldatuz, faktore psikologikoen berezitasunak prozesu ekonomiko eta soziala moldatzen laguntzen duten bitartean. Indar eko-nomikoen aktiboki partehartzen dute, baina motibazio psikologiko mo-duan barik baldintza objektibo bezala ulertu behar dira. Indar psikologi-koek ere, beren aldetik, eskuhartze aktiboa dute, baina historikoki baldintzatu bezala ulertu behar dira; eta, azkenez, ideiak indar efektibo dira, baina talde sozial bateko kideen karaktere-egituraren erroturik dau-den heinean soilik. Elkarren artean lotura hori eduki arren, indar eko-nomiko, psikologiko eta ideologikoak nolabaiteko independentzia dute. Hau ekonomiko garapenarekiko gertatzen da bereziki, zeina, faktore ob-jektiboaren menpean dagoenez, hala nola, produkzio-indar naturalen, tek-nikaren, faktore geografikoen eta abarrenean, bere legeen arabera buru-tzen baita. Indar psikologikoen dagokienez, ikusia dugu gauza bera gertatzen zaiela: kanpoko bizi-baldintzek moldatzen dituztela, baina di-namismo propioa ere badutela: esan nahi baita, moldagarri, baina ez suntsigarri, diren giza beharizanen adierazpen direla. Ideologiaren ere-muan antzerako autonomia aurkitzen dugu, lege logikoetan eta historian zehar jasotako ezagutza osoaren tradizioaren errotua.

Berriro formula dezakegu printzipio hau, karaktere sozialean arabera adieraziz: karaktere soziala, giza izaera gizartearen egitura

modatzetik sortzen da. Baldintza sozialak aldatzeak aldaketak dakartza karaktere sozialean, hau da, beharrian berriak eta larritasun berriak sortzen dituzte. Beharrian berriok ideia berriak sortarazten dituzte, eta, horrela esatearren, gizakumeak ideien eragina hartzeko gai egiten dituzte; ideia berriok, beren aldetik, karaktere sozial berria egonkortu eta areagotzera eta giza ekintzak determinatzera dute joera. Bestela esanda, baldintza sozialek karakterearen bitartez dute eragina fenomeno ideologikoetan; karakterea, bestalde, ez da baldintza sozialetara moldatze pasiboaren emaitza, baizik giza izaerari biologikoki datxekion edo eboluzio historikoaren emaitza moduan hartutako zenbait elementutan oinarrituta egiten den moldatze dinamikoa.

Oharrak

¹ Faxismo edo autoritarismo terminoa Alemana edo Italiarra-bezalako sistema diktatoriala adierazteko darabilt. Sistema alemana bereziki esan nahi dudanean, Nazismoa deituko diot.

² John Dewey, *Freedom and Culture*, G.P. Putnam's Sons, New York, 1939.

³ Ikuspuntu psikoanalitiko bat, Freuden teoriaren oinarritzko emaitzetan oinarritua izan arren, Freudengandik aspektu garrantzitsu askotan diferentia dena, Karen Horney-ren, *New Ways in Psychoanalysis* obran aurki daiteke, W.W. Norton & Company, New York, 1930, eta halaber Stack Sullivan-en *Conceptions of modern Psychiatry- The First William Alanson White Memorial Lectures*-en, Psychiatry, 1940, 3. Lib., 1 Zkia. Autore biok aspektu askotan elkarren arteko aldeak badituzte ere, hemen eskaintzen den ikuspuntuak bateratasun handia du bion ikusmoldearekin.

⁴ Ikus Jakob Burckhardt, *The Civilization of the Renaissance in Italy*, The Macmillan Company, New York, 1921, 139 h. or.)

⁵ *Op. cit.*, 299 h. or.

⁶ Ikus J. Dollard eta H. D. Lasswell soziologoek, R. Benedict, J. Hallowell, R. Linton, M. Mead, E. Sapir antropologoek ekarpenak eta A. Kardiner-ek egindako kontzeptu psikoanalitikoaren aplikazioa antropologiara.

⁷ Ohar bat egin nahi nuke arazo honen inguruan maiz gertatzen den nahasketa bati buruz. Gizarte baten ekonomi egiturak, gizabanakoaren bizimoldea determinatzean, «nortasunaren garapenerako baldintza» moduan jokatzeko du. «Baldintza ekonomiko» hauek guztiz diferentia dira «zio ekonomiko subjektiboetatik», hala nola, aberastasun materialaren desiratik, zeina idazle askok, Errenaisantzatik hasi eta Marxen oinarritzko kontzeptuak ulertu ez zituen zenbait autore marxistataraino, giza jokabidearen zio nagusitzat hartu duten. Izan ere, aberastasun materialaren desira orozemailea, kultura konkretu batzuei bakarrik dagokien beharrezkoa da, eta ekonomi baldintza ezberdinek, aberastasun materiala gorroto duten edo beronekiko aiherga diren nortasun-ezaugarriak sortaraz

ditzakete. Arazo hau zehaztasunez aztertuta dut *Über Methode und Aufgabe einer analytischen Sozialpsychologie-n*, *Zeitschrift für Sozialforschung*, Hirschfeld, Leipzig, 1932, I Lib., 28 h. or.

⁸ Eranskinean zehaztasun gehiagoz aztertuko ditut indar psikologikoen eta sozioekonomikoen arteko elkarre-raginarean aspektu orokorrak.

⁹ Eskueskribu hau bukatu ondoren, *Freedom, Its Meaning*, agertu zen, R.N. Anscheen-ek planifikatu eta argitaratua, Harcourt, Braze & Co., New York, 1940. Atsegin dut hemen aipatzea H. Bergson, J. Dewey, R.M. Maciver, K. Riezler, P. Tillich-en lanak. Ikus baita ere Carl Steuermann, *Der Mensch auf der Flucht*, S. Fischer, Berlin, 1932.

¹⁰ Oharrarazi beharko litzateke hemen instintuen zapuzketak «per se» ez duela sortzen etsaitasunik. Heda-bidea itotzea, haurraren autoaiezpen saialdien hausketa, gurasoengandik datorren etsaitasuna —laburrago, errepresio-giroa— da haurraren ezintasun sentimendua eta beronetatik ernetzen den etsaitasuna sortzen duena.

¹¹ Jean Piaget, *The Moral Judgement of the Child*, Harcourt, Brace & Co., New York, 1932, 407 or. Ikus H. S. Sullivan, *op. cit.*, 10 h. or.

¹² Instintuaren kontzeptu hau ez da nahasi behar instintua fisiologikoki baldintzaturiko premiaztat hartzen duenarekin (hala nola, gosea, egarria eta horrelakoak), hauek, berez finka-

tu gabekoak eta heredentziaz erabaki gabekoak diren prozedurez asetzen baitira.

¹³ L. Bernard, *Instinct*, Holt & Co., New York, 1924, 509 or.

¹⁴ Ralph Linton, *The Study of Man*, D. Appleton-Century, New York, 1936, IV. Kap.

¹⁵ «Erdi Aroko gizarteaz» eta «Erdi Aroko izpirituaz» hitz egitean «gizarte kapitalistarekin» kontrastatuz, tipo idealez ari izaten gara. Baina, jakina, Erdi Aroa ez zen kolpera bukatu puntu konkretu batean eta gizarte modernoan agertu beste batean. Gizarte modernoaren ezaugarri diren indar ekonomiko eta sozial guztiak XII, XIII eta XIV. mendeetako gizartearen baitan garatu ziren jada. Erdi Aroaren azkenaldera kapitalaren papera gora zihoan eta hiriko gizarte-klaseen arteko antagonismoa ere bai. Historian beti jazotzen den moduan, gizarte sistema berriaren elementu guztiak garatuak ziren berriak ordezturiko orde-nu zaharrean. Baina garrantzizkoa bada ere ikustea Aro Modernoko zenbat elementu zeuden azkenaldeko Erdi Aroan eta Erdi Aroko zenbat elementu dauden oraindik gizarte modernoan, galerazi egingo litzateke prozesu historikoaren ulerpena, baldin eta, segidatasunari garrantzia emanaz, Erdi Aroko gizartearen eta Aro Modernokoaren artean dauden funtsezko aldeak ahalik txikien bihurtzen saiatuko bagina, edo «Erdi Aroko gizarte» eta «gizarte kapitalista» bezalako kontzeptuak, azientifikotzat joz, arbuizatzen ahaleginduko

bagina. Saialdiok, objektibotasun eta zehaztasun zientifikoaren itxurapean, ikerketa soziala kontatu ezin ahala zehaztasunen bilketara murrizten dute, murriztu, eta bidea ixten diote gizartearen egitura eta dinamikaren ulerpenari.

¹⁶ Jacob Burckhardt, *The Civilization of the Renaissance in Italy*, The Macmillan Co., New York, 1921, 129 or.

¹⁷ *Op. cit.*, 5 or.

¹⁸ *Op. cit.*, 129 or.

¹⁹ Burckhardten tesi nagusia, autore batzuek berretsi eta zabaldu egin dute, eta beste batzuek, ostera, arbuiatu. Norabide berean doaz, gehiago edo gutxiago, Dilthey-en (*Weltanschauung und Analyse des Menschen seit Renaissance und Reformation*, in *Gesammelte Schriften*, Teubner, Leipzig, 1924) eta Cassirer-en lan bat, *Individuum und Cosmos in der Philosophie der Renaissance*-ri buruz. Bestalde, Burckhardtek eraso zorrotzak jaso izan ditu beste batzuen aldetik. J. Huizinga-k seinatu du (*Das Problem der Renaissance in Wege der Kulturgeschichte*, Drei Masken Verlag, München, 1924) Burckhardtek gutxietsi egin duela Behe Erdi Aroan Italiako masen bizimoduaren eta Europako beste herrialde batzuetakoek zeukatenaren arteko antzekotasun-gradua; Errenaisantzaren hasiera 1400 inguruan jartzen duela, baina bere tesia oinarritzeko darabilen materialerik gehiena xv. edo xvi. mendearen hasierakoa dela;

gutxietsi egiten duela Errenaisantzaren kristau-izaera eta larretsi elementu paganuak duen pisua; individualismoa Errenaisantzako kulturaren ezaugarri nagusizat hartzen duela, beste batzuen artean bat besterik izan ez zenean; Erdi Aroa ez zela indibidualismorik gabea izan Burckhardtek onartzen duen mailaraino eta, beraz, Erdi Aroa Errenaisantzarekin kontrastatzeko duen bidea ez dela zuzena; Errenaisantza agintearekiko begirunetsu izan zela, Erdi Aroa izana zen moduan; Erdi Aroa ez zela Burckhardtek defendatzen duen heinean plazer mundutarren etsai, ezta Errenaisantza ere hark uste bezain baikor; Errenaisantza gizakume modernoaren jarreraren, hau da, lorpen pertsonaletara eta indibidualtasunaren garapenerako joeraren hazia besterik ez zela egon; XIII. mendean jada trobalariek garatua zutela bihotz-nobleziaren ideia, Errenaisantza, ordea, ez zela hautsi Erdi Aroko hierarkia sozialean norbait nagusiarengana zegoen leialtasun eta zerbitzu kontzeptua.

Nik uste, hala ere, argudiook zehaztasunetan zuzenak balira ere, ez dutela balio gabetzen Burckhardten tesi printzipala. Izan ere Huizingaren argudioak honako printzipio honi darraio: Burckhardt oker dago, zeren Errenaisantzarako galdatzen dituen fenomenoetarik batzuk bai baitziren jada Behe Erdi Aroan Mendebal eta Erdi Europan, beste batzuk, ostera, Errenaisantza bukatu ondoren etorri zirelarik. Argudio-mota hau, Erdi Aroko gizarte feudala Aro Moderno-

ko gizarte kapitalistarekin kontrastatzen duen kontzeptuaren kontra erabilitakoa bezalatsukoa da; argudio honen kontra aurrerago esandakoak, Burckhardti egindako kritikei buruz ere balio du. Burckhardtek kantitatezkoak diren aldeak kualitatezkoak hartu ditu; hala ere uste dut, Europako historian zehar kantitatezkoak kalitatezko bilakatuko ziren joeren ezaugarriak eta dinamika argi bereizteko ikuspegia izan zuela. Arazo guzti honi buruz ikus baita ere Charles E. Trinkhausen azterlan bikaina, *Adversity's Noblemen*, Columbia University Press, New York, 1940. Azterlan honek Burckhardten lanaren kritika eraikiorra egiten du, Italiar humanistek bizitzako zorientasunari buruz zeuzkaten eritziak aztertuz. Liburu honetan aztertzen diren arazoei gagozkielarik, garrantzi berezia dute, aurrerapen pertsonalerako burruka lehiati gehikorraren ondorio diren segurtasunik ezari, etsipenari eta desesperoari buruz dituen oharrak (18. or.)

²⁰ Ikus Huizinga, 159 or.

²¹ Ikus Petrarchari buruzko Dilthey-en analisisa (*op. cit.*, 19 h. or.) eta Trinkhausen-en *Adversity's noblemen*

²² *Op. cit.*, 139 or.

²³ Ikus Max Weber, *The Protestant Ethic and the Spirit of Capitalism*, Charles Scribner's Sons, New York, 1930, 65 or.

²⁴ Ikus Ernst Troeltsch, *Renaissance and Reformation*, IV Lib., *Gesammelte Schriften*, Tübingen, 1923.

²⁵ Ondoren aurkeztuko den Erdi Aroko eta Erreforma aroko ekonomi historia ondoko obretan dago batipat oinarrituta:

Lanprecht, *Zum Verständnis der wirtschaftlichen und sozialen Wandlungen in Deutschland vom 14. zum 16. Jahrhundert*. Akademische Verlagbuchhandlung J.C.B. Mohr, *Ztsch. für Sozial- und Wirtschaftsgeschichte*, Freiburg i.B. und Leipzig, 1893.

Ehrenberg, *Das Zeitalter der Fugger*, G. Fischer, Jena, 1806.

Sombart, *Der Moderne Kapitalismus*, 1921, 1928.

v. Below, *Probleme der Wirtschaftsgeschichte*, Mohr, Tübingen, 1920.

Kulischer, *Allgemeine Wirtschaftsgeschichte des Mittelalters und der Neuzeit*, Druck und Verlag von R. Oldenburg, München und Berlin, 1928.

Andreas, *Deutschland vor der Reformation*, Deutsche Verlags-Anstalt, Stuttgart und Berlin, 1932.

Weber, *The Protestant Ethic and the Spirit of Capitalism*, Charles Scribner's Sons, New York, 1930.

Schapiro, *Social Reform and the Reformation*, Tesia, Columbia University, 1909.

Pascal, *The Social Basis of the German Reformation*, Martin Luther hand his Time, London, 1933.

Tawney, *Religion and the Rise of Capitalism*, Harcourt, Brace & Co., New York, 1926.

Bretano, *Der wirtschaftende Mensch in der Geschichte*, Meiner, Leipzig, 1933.

Kraus, *Scholastic, Puritanismus und Kapitalismus*, Dunker & Humblot, München, 1930.

²⁶ Ikus J. Kulischer-ek arazo honi buruz aipatzen duen literatura, *op. cit.*, 102 h or.

²⁷ Tawney, *op. cit.*, 28 or.

²⁸ *Op. cit.* 31 h or.

²⁹ Ikus Lanprecht, *op. cit.* 207 or.; Andreas, *op. cit.*, 303 or.

³⁰ Schapiro, *op. cit.*, 59 or.

³¹ *Works of Martin Luther*, A. J. Holman Company, Philadelphia, IV Lib, 34 or.

³² Schapiro, *op. cit.*, 54, 55 or.

³³ Lanprecht, *op. cit.*, 200 or.

³⁴ Schapiro-ek aipatua, *op. cit.*, 21, 22 or.

³⁵ Tawney, *op. cit.*, 86. or.

³⁶ Ikus konkurrentzi arazo hau M. Mead, *Cooperation and Competition among Primitive Peoples*-en, McGraw-Hill Book Company, New York, 1937; L. K. Frank, *The Cost of Competition, Plan Age*-n, VI Lib., November-December, 1940.

³⁷ Hemen batipat honako obra hauei jarraitzen diet: R. Seeberg-en *Lehrbuch der Dogmengeschichte*, Deutsche Verlagbuchhandlung, Leipzig, III Lib., 1930; IV, Lib. 1, 1933; IV, Lib. 2, 1920, eta B. Bartmann-en *Lehrbuch der Dogmatik*, Herder, Freiburg, 1911

³⁸ Azken puntuari buruz dio: «Horregatik, predestinatuak egintza honeta-

ra eta oititzera jo behar du, bitarteko hauen bidez predestinazioa hobeto betetzen delako ..., eta, beraz, kreaturek alde dezakete predestinazioa, baina ez galeraz. *Summa Theologica of St. Thomas Aquinas*, Probintzia Ingeleseko Dominikarrek hitzez hitz itzulia. Bigarren edizio berrikusia, Burns Oates Washbourne, Ltd., London, 1929, I At., 23. Gald., 8. Art.

³⁹ Ikus *Summa contra Gentiles*, III Lib., 73, 85 159 Kapituluak.

⁴⁰ R. Seeberg, *op. cit.*, 766 or.

⁴¹ Ikus Bartmann, *op. cit.*, 468 or.

⁴² *Op. cit.*, 624 or.

⁴³ Badirudi barkamenen buldaren praktika eta teoria, haziz zetorren kapitalismoaren eraginaren adibide bereziki on bat dela. Batek gaztigutik libratzea eros dezakeen ideiak, diruaren paper garrantzitsuaren sentimendua adieraztetik aparte, Klemente VI.ak 1343.ean formulatu zuen barkamenen buldaren teoriak ere ongi erakusten du pentsaera kapitalista berriaren izpiritua. Klemente VI.ak zioen Aitasainduak bere ardurapean zuela Kristok eta Sainduak irabazitako merezimenduen meta mugagabea eta, beraz, altxor horren zati bat fededunen artean bana zezakeela (ikus R. Seeberg, *op. cit.*, 621 or.). Aitasaindua monopolista bat lege hartzen duen kontzeptioa aurkitzen dugu hemen, kapital moral eskerga baten jabe dela eta kapital hau bere finantz etekinerako eta bere «bezeroen» etekin moralerako darabilela.

⁴⁴ Zorretan nago Charles Trinkhaus-ekin predikuetako eta mistikoen literaturaren garrantzia ikusarazi didalako eta paragrafo honetan aipatzen diren iradokizunetako batzuegatik.

⁴⁵ Martin Luther, *Vorlesung über den Römerbrief*, I Kapituluua, i. (Neure itzulpena, beste itzulpenik ez dagoelako).

⁴⁶ *Op. cit.*, I Kapituluua, i.

⁴⁷ Martin Luther, «The Bondage of the Will». Henry Cole-k itzulia, M. A., Wm. B. Eermands Publishing Co., Grand Rapids, Michigan, 1931, 74 or.

⁴⁸ *Op. cit.*, 79 or. - Dikotomia -goiko botereei menekotasuna eta behekoekiko domeinua- karaktere autoritarioen ezaugarria da, gero ikusiko dugunez.

⁴⁹ Ikus *Sermo de duplici iustitia* (Luthers Werke, Weimar ed., II Lib.

⁵⁰ Romerbrief, 13, 1.

⁵¹ *Against the Robbing and Murdering Hordes of Peasants* (1525): *Works of Martin Luther*, itzulpena: C. M. Jacobs, A.T. Holman Company, Philadelphia, 1931, X Lib. IV, 411 or. Ikus H. Marcuseren eztabaida Luteroren askatasunarekiko jarreraz *Autorität und Familie*-n, F. Alcan, Paris, 1920.

⁵² Joan Kalvinoren, *Institutes of the Christian Religion*, John Allen-ek itzulia, Presbyterian Board of Christian Education, Philadelphia, 1928, III Liburuua, IX Kapituluua, 1.

⁵³ *Op. cit.*, III Liburuua, II Kapituluua, 23

⁵⁴ *Op. cit.*, III Liburuua, 7. Kapituluua, 1. «For, as it is...»etik («Zeren nola...») hasita; itulpena neuk egina da Latinezko originaletik: *Joannes Calvinus Institutio Christianae Religionis*. Editionem curavit A. Thouluk, Berolini, 1835, Par. I, 445 or. Aldaketa honen arrazoa Allenen itzulpenak originala zertxobaitetan aldatu egiten duela da, Kalvinoren pentsaeraren zurruntasuna leunduz. Allenek honelaxe itzultzen du esaldi hau: «Zeren, nola bere aiherkundee-kiko adostasunak hondamendira daraman artez gizakumea, halaxe bere ezagutzaz edo nahimenaz fidatu barik Jaunaren gidaritzari jarraitzea da salbamenerako bide bakarra.» Baina Latinezko «*sibi ipsis obtemperant*»en ordaina ez da «nork bere aiherkundeei jarraitu», «nork bere buruari obeditu» baizik. Nork bere aiherkundeei jarraitzen debekatzek, gizakumeak bere aiherkundeak kendu eta hau eginez bere kontzientziaren aginduei jarraitu behar diela dioen Kantiar etikaren neurritasuna dauka. Bestalde, nork bere buruari obeditzeko debekua gizakumearen autonomiaren ukazioa da. Aldaketa sotil berdintsua dago «*ita unicus est salutis portus nihil nec sapere, nec velle per se ipsum*», «nor bere ezagutzaz edo nahimenaz ez fidatzea» itzultzean. Originaleko formulazioa ilustrazioaren lemarekin —«*sapere aude*»: ausartu ezagutzzen— kontraesan zuzenean dagoen bitartean, Allenen itzulpenak norberaren buruaren ezagutzarekiko fidantzaz

ohartarazten du, ohartarazpen hau askoz ere kontraesan txikiagoan dagoelarik pentsamendu modernoarekin. Orijinalarekiko desbideratze hauek aipatzen badituz, itzultzean, autore baten izpiritua nola modernatu eta koloreztatzen den —hori egiteko asmorik gabe, jakina— adierazten duen adibide on bat eskaintzen digutelako da.

⁵⁵ *Op. cit.*, III Liburuua, 7. Kapituluua, 23

⁵⁶ *Op. cit.*, III Liburuua, 14. Kapituluua, 11

⁵⁷ Ikus J. Kulischer, *op. cit.*, 249 or.

⁵⁸ Ikus Georgia Harkness, *John Calvin, The Man and His Ethics*, Henry Holt & Co., New York, 1931, 151 h. or.

⁵⁹ Ikus F. Borkenau, *Der Übergang vom feudalem zum burgerlichen Weltbild*, F. Alcan, Paris, 1934, 150 h. or.

⁶⁰ *Op. cit.*, III Liburuua, 7. Kapituluua, 5.

⁶¹ *Op. cit.*, III Liburuua, 2. Kapituluua, 41

⁶² *Op. cit.*, III Lib, 7, 3 Kap.

⁶³ Azken puntu honek arreta berezia izan du Max Weber-en lanean, Kalbinen doktrinaren eta kapitalismoaren izpirituaren arteko lokarri inportante bat denez.

⁶⁴ Ikus Ranulf-en *Moral Indignation and Middle Class Psychology*, azterlan bat berau ekarpen garrantzitsua egin diona herragune morala erdiko

klasearen, bereziki behe-klase ertainaren, bereizgarri peto-petoe dela defendatzen duen tesiari.

⁶⁵ Ikus Max Weber, *op. cit.*, 102 or.; Tawney, *op. cit.*, 109 or.; Ranulf, *op. cit.*, 66 h. or.

⁶⁶ Freudek ikusi zuen gizakumeak duen bere buruarenganako etsaitasuna, berak superego deitu zuenak barruan daramana, hain zuzen ere. Baita ere ikusi zuen superegoak kanpoko aginte arrikutsu baten barneratzean duela jatorria. Baina ez zituen bereizi niaren osagai diren berezko ideiak, niari agintzen dioten agindu barnertuetatik... Hemen aurkezten den ikuspuntua zehaztasun handiagoz eztabaidatzen da agintariaren psikologiari buruzko nire azterlanean (*Autorität und Familie*, ed. M. Horkheimer, Alcan, Paris, 1934). Karen Horney-k superegoaren galdapenen izaera konpultsiboa azpimarratu du *New Ways in Psychoanalysis*en.

⁶⁷ Faktore sozioekonomiko, ideologiko eta psikologikoen arteko elkarreaginaren eztabaida zehatzagoa Eranskinean ematen da.

⁶⁸ Arazo honen azterketa zehatzagorako, autorearen *Selfishness and Self-Love* lanean, «Psychiatry», 2 Lib., 4 zk., Azarua, 1939, ikus daiteke.

⁶⁹ Sullivan hurreratu da formulazio honetara bere hitzaldietan. Autore honek dio nerabazarorearen pertsonarteko harremanetan beste pertsonaren (eskola-lagunaren, jolas-lagunaren) ona bilatzeko joera duten

bulkada bereziak agertzen direla. Beronen arabera, maitasuna, maitatua- ren asetasuna maitalearena bezain esanguratsua eta desiragarria denean sortzen den egoera da.

⁷⁰ Hegel eta Marxek jarri zituzten oi- narriak alienazioaren arazoa ulertzeko. Ikus bereziki Marxek «merkantzien fetitxismoaz» eta «lanaren alienazioaz» duen kontzeptua.

⁷¹ Autoestimua- ren analisi hau Ernest Schachtel-ek formulatu du argiro eta esplizituki *Self-feeling and the «Sale» of Personality* izenburuko hitzaldi ar- gitaragabe batean.

⁷² Julian Green, *Personal Record, 1928-1939*, J. Godefroi-k itzulia, Harper & Brothers, New York, 1939.

⁷³ Ikuspuntu ezberdinetik K. Horney «joera neurotikoa» izeneko bere az- terketan, (*New Ways in Psychoanaly- sis*), nire «ihes-mekanismoekin» zen- bait antzekotasun dituen kontzeptura iritsi da. Kontzeptu bion arteko alde nagusiak hauek dira: joera neuroti- koak neurosi indibidualeko indar mu- giazleak dira, ihes-mekanismoak, ostera, gizakume normalarengan ematen direnak. Honez gain, Hor- ney-ek estura azpimarratzen du, nik gi- zabanakoaren isolamendua egiten du- dan bitartean.

⁷⁴ Hobbes, *Leviathan*, London, 1951, 47 or.

⁷⁵ *Charakteranalyse*, Vienna, 1933

⁷⁶ *The Neurotic Personality of Our Time*, W.W. Norton & Company, New York, 1936.

⁷⁷ *Psychologie der Autorität in Auto- rität und Familie*, ed. Max Horkhei- mer, Alcan, Paris, 1936.

⁷⁸ Sadeko markesak, *Juliette II* aren ondoko pasarte- an (G. Gorer, *Marquis de Sade* Liveright Publishing Corpo- ration, New York, 1934, obratik har- tutako aipua) sostengatzen zuen do- meinua dela sadismoaren muina: «Ez da plazerra zure lagunari sentiarazi nahi diozuna, ezpabere inpresio bat eragin nahi diozu; minarena plazerra- rena baino askoz ere indartsuagoa da... konturatzen da bat honetaz; erabiltzen du eta ase- kuntza lortzen du.» Gorere- k Sadeko Markesaren obrari buruzko bere analisisan sadismoa honelaxe de- finitzen du: «Hautemaileak kanpoko munduan eragindako aldarazpenak hautematetik hartzen duen plazerra». Definizio hau nire sadismoaren ikus- keratik hurbilago dago beste psikolo- go batzuen bano. Hala ere, uste dut Gorer erratuta dagoela sadismoa inor domeinatze- ko plazerrarekin edo sormenarenakin bat egitean. Domeinu sa- dikoaren ezaugarria, objektua nahi- men gabeko tresna bihurtu nahi izate- a da, ez-sadikoak, besteengan eragina izateaz gozamen hartzen duenak, os- tera, pertsonaren osotasuna errespetat- zen du eta berdintasun-sentimenduan oinarritzen da. Goreren definizioan sa- dismoak bere ezaugarri espezifiko- a galtzen du eta edozein sormen-mota- rekin bat egiten da.

⁷⁹ Victor Hugok adierazpen esangu- ratsua eman zion errutik ihesezina- ren ideia honi *Les Misérables*-eko Javert-en karakterean.

⁸⁰ Moeller van der Bruck, *Das Dritte Reich*, Hanseatische Verlaganstalt, Hamburg, 223, 224 or.

⁸¹ Rauschning-ek eskaini du Faxis- moaren karaktere nihilistaren deskri- baketa on bat *The Revolution of Nihi- lism* obran, Alliance Book Corpora- tion, Longmans, Green & Co., New York, 1939.

⁸² Lotura honi buruz, ikus Karem Horney, *New Ways in Psychoanaly- sis*, W.W. Norton & Company, New York, 1939.

⁸³ Ikus puntu honen eztabaida Karen Horney-en *New Ways in Psychoa- nalysis*, W.W. Norton & Company, New York, 1939.

⁸⁴ Ikus H.S. Sullivan, *op. cit.*, 68 h. or., eta haren *Research in Schizophrenia*, American Journal of Psychiatry, IX. Lib. 3. Zk.; baita ere Frieda Fromm Reichmann, *Transference Problems in Schizophrenia*, *The Psychoanalytic Quarterly*, VIII. Lib., 4. Zk.

⁸⁵ Hipnosiko arazoari dagokionez, ikus M.H. Erickson-ek, *Psichyatri*, 1939, 2. Lib. 3. Zk. 472 or., dakarren argitarapenen zerrenda.

⁸⁶ Prozedura psikoanalitiko- a, perso- na bat ni orijinala estaltzen saiatzen den prozesua da funtsean. «Elkarlo- tze libreak» nor bere pentsamendu eta sentimenduak egia esanez adie- raztea esan nahi du; baina egiak zen- tzu honetan ez du esan nahi batek be- rak pentsatzen duena esaten duela, ezpabere pentsatzea bera orijinala dela, eta ez espero den pentsamendu-

ra moldatzea. Freudek pentsamendu «txarren» errepresioa azpimarratu du; badirudi ez duela behar bezainbatean ikusi zenbateraino erreprimitzen di- en pentsamendu «onak» ere.

⁸⁷ L. Mumford, «Faith for Living», Harcourt, Brace & Co., New York, 1940, 118 or.

⁸⁸ Kapitulu guzti honetarako eta berezi- ki erdiko klase behe- reak izan zuen pa- pera aztertzeko, ikus Harold D. Lass- well-en idazkiak *The Psychology of Hitlerism* gaiari buruz *The Political Quarterly*-n, IV Lib., 1933, MacMillan & Co., London, 374 or., eta F.L. Schu- man-en *The Nazi Dictatorship*, Alfred A. Knopf, New York, 1939.

⁸⁹ Hemen aurkezten den ikuspegia, A. Hartoch, E. Herzog eta nik neuk «1929/30ko Alemani- ar Langile eta Enplegatuen Karaktere- a»ri buruz (F. Neumann-en sarrera historikoarekin), Columbiako Unibertsitateko Interna- tional Institute of Social Research-en babespean, egindako azterlan argita- ragabe baten emaitzetan oinarritzen da. Itaunketa zehatz bati seie- hun pertsonak emandako erantzunen ana- lisiak erakutsi zuen erantzuleen gu- txiengoak agertzen zuela karaktere autoritarioa, kopuru berdintsuak as- katasun eta independentzi galdapena zutela nagusi, gehiengo handi batek, ostera, ezaugarri ezberdinak nahasita agertzen zituen bitartean.

⁹⁰ Schuman, *op. cit.*, 104 or.

⁹¹ Adolph Hitler, *Mein Kampf*, Rey- nal & Hitchcock, New York, 1940, 3 or.

- ⁹² *Op. cit.*, 469 or.
- ⁹³ *Op. cit.*, 56 or.
- ⁹⁴ *Op. cit.*, 710 h. or.
- ⁹⁵ *Op. cit.*, 715, 716 or.
- ⁹⁶ Joseph Goebbels, *Michael*, F. Eher, München, 1936, 57 or.
- ⁹⁷ *Op. cit.*, 21 or.
- ⁹⁸ Goebbels, *Vom Kaiserhof zur Reichskanzlei*, F. Eher, München, 1934, 120 or.
- ⁹⁹ Ley, *Der Weg zur Ordensburg*, Sonderdruck des Reichs organisationsleiters der NSDAP für das Führercorps der Partei; Konrad Heidenen, *Ein Mann gegen Europa*-tik, Zurich, 1937, hartutako aipua.
- ¹⁰⁰ Hitler, *Mein Kampf*, 618 or.
- ¹⁰¹ *Op. cit.*, 408 or.
- ¹⁰² *Op. cit.*, 394 or.
- ¹⁰³ *Op. cit.*, 994 or.
- ¹⁰⁴ *Op. cit.*, 598 or.
- ¹⁰⁵ *Op. cit.*, 197 or.
- ¹⁰⁶ *Op. cit.*, 405 or.
- ¹⁰⁷ *Op. cit.*, 170 or.
- ¹⁰⁸ *Op. cit.*, 396 or.
- ¹⁰⁹ *Op. cit.*, 761 or.
- ¹¹⁰ *Op. cit.*, 295 or.
- ¹¹¹ *Op. cit.*, 448 h. or.
- ¹¹² Ikus *op. cit.*, 414 or.
- ¹¹³ *Op. cit.*, 966 or.
- ¹¹⁴ Ikus *op. cit.*, 978 or.
- ¹¹⁵ *Op. cit.*, 763 or.
- ¹¹⁶ *Op. cit.*, 298 or.
- ¹¹⁷ *Op. cit.*, 300 or.
- ¹¹⁸ *Op. cit.*, 955 h. or.
- ¹¹⁹ *Op. cit.*, 411 or.
- ¹²⁰ Goebbels, *Michael*, 25 or.
- ¹²¹ *Op. cit.*, 408 or.
- ¹²² *Op. cit.*, 412 or.
- ¹²³ *Op. cit.*, 620 h. or.
- ¹²⁴ *Op. cit.*, 610 or.
- ¹²⁵ *Op. cit.*, 610 or.
- ¹²⁶ *Op. cit.*, 1 or.
- ¹²⁷ *Op. cit.*, 3 or.
- ¹²⁸ *Op. cit.*, 309 or.
- ¹²⁹ *Op. cit.*, 452 or.
- ¹³⁰ *Op. cit.*, 392 or.
- ¹³¹ *Op. cit.*, 289 or.
- ¹³² *Op. cit.*, 972 or.
- ¹³³ *Op. cit.*, 393 h. or.
- ¹³⁴ Ana Hartoch-en komunikatu baten arabera (Sarah Lawrence Haurtzaindegiko umeen kasu-azterketei buruz agertuko den liburu batetik hartua), hiru-bost urte bitarteko haurrei egindako Rorschach testek erakutsi dute umeen espontaneitatea zaintzeko saialdiek sortzen dituztela gatazka printzipalak haurren eta heldu aginkorren artean.

¹³⁵ Adiskidetasunaren komertzializazioa ikusteko adibide aipagarri bat delako, *Fortune*-en «The Howard Johnson's Restaurants»-i buruzko in-formea aipatu nahi nuke. (*Fortune*, 1940, Iraila, 96 or. Johnsonek «ikuskatzaile» talde bat du, jatetxetik jate-xera akatsak aurkitzen ibiltzeko en-plegatua. «Janari guztiak etxe zentralak igorritako errezeta eta neurrien arabera prestatuak daudenez gero, ikuskatzaileak badaki nolakoa izan behar duen ateratzen dioten xerra-zatia eta nolako zaporea izan behar duten barazkiak. Badaki, baita ere, zenbat tardatu behar duten zerbitzen eta zehazki nolako adiskidetasun-gradua jaso behar duen ostalarisa eta zerbitzariengandik.»

¹³⁶ Problema guzti honetarako ikus Robert S. Lynd-en *Knowledge for What?*, Princeton University Press, 1939. Aspektu filosofikoetarako ikus Horkheimer-en *Zum Rationalismusstreit in der Gegenwertigen Philosophie*. *Zeitschrift für Sozialforschung*. 3. Lib., 1939, Alcan, Paris.

¹³⁷ Ikus Max Otto, *The Human Enterprise*, T.S. Croft, New York, 1940, IV eta V. Kap.

¹³⁸ Hemen eztabaidatzen den arazoak esangura handiko puntu batera garratza eta aipatu behintzat egin behar dut: psikologia dinamikoak argi ditzakeela etikako gaiak. Psikologoek norabide honetan, arazo moralek nortasuna ulertzeko duten garrantzia ikusteko gai direnean soilik eskain dezakete laguntza. Arazo hauek na-

gusiki plazer-terminoetan jorratzen duen edozertariko psikologia, Freudena barne, ez da gai nortasunaren alor inportante bat ulertzeko eta moralitasun-doktrina dogmatiko eta ez-empirikoei bide ematen die. Liburu honetan aurkezten den norberaren buruarenganako maitasunaren, sakrifizio masokistaren eta idealen analisiak, gero garatu ahal izateko moduko argigarriak eskaintzen ditu psikologia eta etikaren eremu honetarako.

¹³⁹ F. Alexander saiatu da Freuden aurkikunde karaktereologikoak birplanteiatzen, gauza batzuetan gure interpretazioaren antzekoak diren terminoetan. (Ikus F. Alexander, «The Influence of Psychological Factors upon Gastro-Intestinal Disturbances», *Psychoanalytical Quarterly*, XV Lib., 1934). Baina, haren ikuspegiak Freudenetatik aurrerakada bat suposatzen badute ere, ez du lortu orientabide funtsean biologikoa gainditzerik eta pertsonarteko harremanak jaugin «pregenital» hauen oinarritzat gutzit onartzerik.

¹⁴⁰ Metodo honen azterketa hornitua-gorako ikus E. Fromm, *The Dogma of Christ*, Holt, Rinehart and Winston, Inc., New York, 1964.

¹⁴¹ Ikuspuntu hau pseudomarxista dela diot, Marxen teoria honelatsu interpretatzen duelako, hots, historia zio ekonomikoak, etekin materialerako jaugin modura, determinatzen dutela, eta ez Marxek benetan dioena, jarrera ekonomiko ezberdinek sor ditzaketan baldintza objektibo moduan,

aberastasun materiala eskuratzeko desira bizia berautako bat besterik ez delarik. (Hau I Kapituluaren seinaltatu genuen). Arazo honen azterketa xehe bat E. Frommen, «Über Methode und Aufgabe einer analytischen

Sozialpsychologie», *Zeitschrift für Sozialforschung*, I Lib., 1932, 28 h. or. aurki daiteke. Ikus baita ere Robert S. Lynd-en azterlana, *Knowledge for What?*, Princeton University Press, 1939, II Kap.

Erich Frommen Kronologia

1900

Erich Frommen jaiotza Frankfurt am Mainen, fede ortodoxo eta ekonomiko egoera nasaiko familia baten baitan.

1920

Freies Jüdisches Lehrhaus-en (Judutar Ikastetxe Librea) sorrera Frankfurtan.

1922

Psikologia eta Soziologiako ikasketak bukatzen ditu Heidelbergeko Unibertsitatean.

1923

Frankfurtan, judu aleman baten, Herman Weil-en, ekarpen ekonomikoari esker, **Institut für Sozialforschung** (Ikerketa Sozialerako Institutua) sortzen da.

1926

Erljio-sinesmena galtzen du, lehen aldiz Munichen analizatzen dutenean. Handik lasterrera, psikoanalisi praktikari ematen dio hasiera Berlineko Institutu Psikoanalitikoan.

1927

Aldizkari psikoanalitiko ortodoxoetan, hala nola «*Psychoanalytische*

Bewegung» eta Freuden boletinean, «*Imago*»n, ere lankidetzako idazlanak argitaratzen hasten da.

1930

Bere lehenengo liburua argitaratzen du, «*Kristoren dogmaren eboluzioa*».

1931

Institut für Sozialforschung-en hasten da lanean, sasoi horretarako institutuko zuzendari Max Horkheimer zela. «*Psychoanalytische Bewegung*» aldizkarian «Politika eta psikoanalisi» haren artikulua agertzen da, Freud Marxekin abenitzeko duen asmoa azalduz.

1932

Zeitschrift für Sozialforschung Institut-aren argitarapen ofizialak haren saiakera inportante bat jasotzen du, «Psikologia sozial analitikorako metodoa eta egitekoa». Estatu Batuetara doa Chicago **Institute of Psychoanalysis**-ek gonbidaturik.

1933

Gobernu naziak itxi egiten du **Institut für Sozialforschung**-a, horrela haren lehen etapari bukaera emanez.

1934

Estatu Batuetan jartzen da bizitzen. Columbiako Unibertsitatean irakurlari.

1936

Parisen «Aginteari eta familiari buruzko azterlanak» agertzen dira, Max Horkheimerrek argitaratuak eta Marcuse eta Fromm bera ere lankide direlarik, besteak beste. **Institut für Sozialforschung**-ak, mila peripeziaren ondoren, Estatu Batuetan bere lanari berrekitea lortzen du.

1939

Behin-betiko haustura Fromm eta **Institut für Sozialforschung**-en artean.

1940

Estatu batuar hiritartasuna eskuratzen du.

1941

«*Askatasunetik iheska*». Columbiatik Bennington College-ra, Vermont, doa irakasle. Geroztiko urteetan, Yaleko Unibertsitatean ere irakatsiko du.

1947

«*Etika eta psikoanalisi*».

1950

«*Psikoanalisi eta erlijio*».

1951

«*Hizkuntza ahantzia*». Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoan irakasle.

1956

«*Maitatze-arte*».

1958

Michigan estatuko Unibertsitatean ari da irakasle.

1959

Sigmund Freuden eginkizuna.

1960

«*Zen Budismoa eta psikoanalisi*» (beste autore batzuekin elkarlanean).

1961

«*Ba ote du bizirautek gizakumeak?*» «*Marx eta haren gizakiari buruzko kontzeptua*» ere argitaratzen du.

1962

Psikiatriako irakasle New Yorkeko Unibertsitatean.

1963

«*Kristoren dogma eta beste zenbait saiakera psikologia, erlijio eta kulturaz*», Frommek 1930ean alemanez argitaratuko bere lehenengo obra jasoz.

1964

«*Gizakumearen bihotza*».

1966

«*Eta jainkoak adina izango zarete*».

1968

«*Esperantzaren iraultza*».

1971

«*Psikoanaliaren krisia*». «Freud, Marx eta psikologia sozialari buruzko saiakerak».

1973

«*Giza suntsikortasunaren anatomia*».

1976

«*Eduki ala izan?*»

1979

«*Freuden pentsamenduaren handitua eta mugak*».

1980

Erich Frommen heriotza Muralton, Suitzan.

Aurkibidea

HITZAURREA.....	7
BIBLIOGRAFIA.....	15
I. ASKATASUNAREN ARAZO PSIKOLOGIA OTE?.....	17
II. GIZABANAKOAREN JALGIERA ETA ASKATASUNAREN AN- BIGUOTASUNA.....	31
III. ASKATASUNA ERREFORMA-GARAIAN.....	43
1. Erdi aroko gizartea eta Errenaisantza.....	43
2. Erreforma garaia.....	57
IV. ASKATASUNAREN ALDERDI BIAK GIZAKUME MODERNOA- RENTZAT.....	87
V. IHES-MEKANISMOAK.....	111
1. Autoritarismoa.....	114
2. Sunsikortasuna.....	141
3. Konformitate automatikoa.....	145
VI. NAZISMOAREN PSIKOLOGIA.....	161
VII. ASKATASUNA ETA DEMOKRAZIA.....	183
1. Indibidualtasunaren ilusioa.....	183
2. Askatasuna eta espontaneitatea.....	194
ERANSKINA: KARAKTEREA ETA GIZARTE-PROZESUA.....	209
OHARRAK.....	225
KRONOLOGIA.....	237

